



**Doktorego Tesia**

# **Membrane activities of Dynamin- Related Protein 1 (DRP1) and BCL2- Related Ovarian Killer (BOK)**

Itsasne Bustillo Zabalbeitia

2015

Zuzendariak: Gorka Basañez Asua eta Oihana Terrones Urio

Biofisika Unitatea (CSIC-UPV/EHU)

Biokimika eta Biologia Molekularra Saila



**Doctorego Tesia**

**Membrane activities of Dynamin-  
Related Protein 1 (DRP1) and BCL2-  
Related Ovarian Killer (BOK)**

Itsasne Bustillo Zabalbeitia

2015

Zuzendariak: Gorka Basañez Asua eta Oihana Terrones Urio



## **Aitorpena**

Doktoregaiak Eusko Jaurlaritzatik Doktoretza-aurreko beka bat (2010-2014) lortu zuen. Ikerketa hau hurrengo proiektuekin finantzatua izan da: Eusko Jaurlaritza, IT838-13; Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), EHU-1374 eta Espainiao Gobernuko Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren BFU 2011-28566.



***Ama, aita eta Iboneri***





# AURKIBIDEA

Laburduren eta sinboloen zerrenda.....	i
1. SARRERA ETA HELBURUAK.....	1
1.1 MITOKONDRIOA.....	1
1.1.1 SARRERA.....	1
1.1.2 MITOKONDRIOAREN FUNTZIOA ZELULA OSASUNTSUETAN.....	7
1.1.3 MITOKONDRIOAREN FUNTZIOA HERIOTZ ZELULARREAN.....	10
1.1.3.1 Apoptosiarekin erlazionatutako lipidoen eginkizuna heriotz zelularrean.....	14
1.1.4 KARDIOLIPINA.....	17
1.1.4.1 Egitura.....	18
1.1.4.2 Biosintesia eta degradazioa.....	19
1.1.4.3 Erlazionatutako gaixotasunak.....	22
1.1.4.4 CLrekin interakzionatzen duten proteinak.....	24
1.1.5 FUSIO/FISIO MITOKONDRIALAREN MAKINARIA.....	30
1.1.5.1 Fusio makinaria.....	30
1.1.5.2 Fisio makinaria.....	37
1.1.6 BCL2 FAMILIAKO PROTEINAK.....	43
1.1.6.1 BCL2 familiako proteinen egitura soluzioan.....	46
1.1.6.2 BCL2 familiako proteinek bideratutako MOMParen erregulazioaren ikuspuntu orokorra.....	48
1.1.6.3 BCL2 familiako kideen funtzio ez apoptotikoak.....	62
1.1.6.4 BOK.....	66
1.2 HELBURUAK.....	68
2. TEKNIKA ESPERIMENTALAK.....	71
2.1 BERRERAIKITAKO EREDU SISTEMAK.....	71
2.1.1 Osagai lipidikoa.....	71
2.1.1.1 Lipidoak: sailkapena eta ezaugarriak.....	71
2.1.1.2 Mintz-ereduen sistemak.....	74

2.1.1.3	Mintz-eredu sistemen karakterizazioa.....	80
2.1.2	Osagai proteikoa.....	82
2.1.2.1	Biologia molekularrean metodoak.....	82
2.1.2.2	Proteinen arazketa.....	87
2.1.2.3	Proteinen karakterizazioa.....	96
2.2	BERRERAIKITAKO EREDU SISTEMEKIN ERLAZIONATUTAKO METODOAK.....	99
2.2.1	Egitura azterketak.....	99
2.2.1.1	Proteinen kristalizazioa.....	99
2.2.1.2	Dikroismo zirkularra.....	102
2.2.2	Proteina-lipido elkarrekintzak.....	107
2.2.2.1	Dot plapaketa.....	109
2.2.2.2	Gainazaleko plasmioen erresonantzia.....	111
2.2.2.3	Sakarosa gradiente bidezko flotazio zentrifugazioa.....	113
2.2.2.4	Lipido monogeruzak.....	114
2.2.3	Mintz iragazkortze eta lipido nahasketa saioak.....	116
2.2.3.1	GUV iragazkortze saioa.....	116
2.2.3.2	Lipido-nahasketa esperimentuak.....	119
2.2.3.3	Argi dinamikoaren dispertsio esperimentuak.....	120
2.2.3.4	Krio-finkapenean oinarritutako mikroskopia elektronikoa.....	120
2.2.3.5	Transmisio elektroik mikroskopia (TEM).....	121
2.2.4	Soluzioan edota mintzean gertatzen diren proteina:proteina elkarrekintzak aztertzeko metodoak.....	122
2.2.4.1	<i>In vitro</i> pull-down esperimentuak.....	122
2.2.4.2	Gel natiboak.....	123
2.2.4.3	Oligomerizazio saioak.....	125
2.2.5	Aktibitatea neurtzeko saioak.....	126
2.2.5.1	GTPasa aktibitate saioa.....	126
2.3	<i>ex vivo</i> saioak.....	126
2.3.1	Mitokondrio saioak.....	126
2.3.1.1	Sagu fibroblasto kultiboetatik mitokondrioen isolaketa.....	126

2.3.1.2	c zitokromo askapen saioak .....	128
2.3.2	zelula eukariotiko prozedurak .....	128
2.3.2.1	kultibo zelularra.....	128
2.3.2.2	Transfekzio iragankorrerako plasmidoak .....	128
2.3.2.3	Transfekzio iragankorra.....	129
2.3.2.4	Zelula eukariotoen lerro zelular egonkorretantransfekzio induzigarrirako plasmidoak .....	129
2.3.2.5	Lerro zelular egonkor induzigarren ekoizpena.....	130
2.3.2.6	Transfekzio induzigarria .....	131
2.3.2.7	Zelulen fixaketa eta iragazkortzea.....	131
2.3.2.8	Immunofluoreszentzia tindaketa .....	132
2.3.2.9	Fluxu zitometria saioak .....	133
2.3.2.10	Frakzionamendu azpizelular saioak.....	134
2.3.2.11	Sodio karbonato tratamendua .....	135
2.3.2.12	GFP-Trap immunoprezipitazioa.....	135
3.	RESULTS AND DISCUSSION.....	139
3.1	KARDIOLIPINAREKIKO INTERAKZIO ESPEZIFIKOAK DRP1 PROTEINAREN AKTIBAZIO FUNTZIONALA ERAGITEN DU .....	139
3.1.1	SARRERA .....	139
3.1.2	MATERIALAK ETA METODOAK .....	141
3.1.3	EMAITZAK .....	145
3.1.3.1	DRP1ek CLrekin espezifikoki interakzionatzen du.....	145
3.1.3.2	DRP1en B intsertoaren bidez ematen da CLrekiko interakzioa.....	149
3.1.3.3	DRP1ek CLrekin duen elkarrekintzak proteinaren GTPasa aktibitatea areagotzen du .....	151
3.1.3.4	DRP1 CL-dun liposometan oligomerizatzen da .....	155
3.1.4	EZTABAIDA.....	157
3.2	RECOMBINANT BOK EXPRESSION, PURIFICATION AND CHARACTERIZATION.....	160
3.2.1	INTRODUCTION .....	160
3.2.2	MATERIALS AND METHODS.....	161

3.2.3	RESULTS .....	163
3.2.3.1	Expression of BOK FL.....	163
3.2.3.2	Expression of BOK $\Delta$ C.....	166
3.2.3.3	BOK $\Delta$ C purification.....	168
3.2.3.4	BOK $\Delta$ C characterization .....	172
3.2.4	DISCUSSION .....	177
3.3	EVALUATING THE INTERACTION OF BOK WITH MITOCHONDRIAL LIPIDS AND WITH BH3-ONLY PROTEINS.....	179
3.3.1	INTRODUCTION .....	179
3.3.2	MATERIALS AND METHODS.....	181
3.3.3	RESULTS.....	186
3.3.3.1	BOK $\Delta$ C6His interacts with CL-rich model membranes.....	186
3.3.3.2	CL interaction produces localized structural changes in BOK $\Delta$ C6His.....	192
3.3.3.3	BH3-only proteins do not interact physically or functionally with BOK $\Delta$ C6His..	194
3.3.4	DISCUSSION .....	198
3.4	STUDYING BOK LOCALIZATION FUNCTION AND INTERACTING PARTNERS IN THE CELLULAR ENVIRONMENT.....	201
3.4.1	INTRODUCTION .....	201
3.4.2	MATERIALS AND METHODS.....	204
3.4.3	RESULTS.....	210
3.4.3.1	BOK co-localizes partially with mitochondria.....	210
3.4.3.2	BOK induces apoptotic cell death in presence and absence of BAX /BAK ....	214
3.4.3.3	BOK induces changes in mitochondrial morphology .....	220
3.4.3.4	BOK can induce remodelling of CL containing membranes <i>in vitro</i> .....	223
3.4.3.5	Searching for BOK-interacting partners .....	226
3.4.4	DISCUSSION .....	240
ANNEX	.....	247
4.	OVERVIEW AND CONCLUSIONS.....	257
5.	REFERENCES.....	267

PUBLICATIONS.....	311
-------------------	-----

## Laburduren eta sinboloen zerrenda

$\lambda$	Wavelength/Uhin luzera
$\pi$	Surface pressure /Gainazal presioa
$\pi_0$	Initial surface pressure/Hasierako gainazal presioa
$\pi_c$	Critical pressure/presio kritikoa
$\Delta\pi$	Increase in the surface pressure/Gainazal presioaren handipena
AAC	ADP/ATP carrier
ADOA	Autosomal dominant optic atrophy/Atrofia optiko autosomiko dominantea
ALCAT1	Acyl-CoA lysocardiolipin acyltransferase 1
ANT	Adenine nucleotide translocator
ANTS	8-aminonaphthalene-1,3,6 trisulfonate (ANTS)
APAF-1	Apoptosis protease activator factor
APC	Allophycocyanin/Alofikoziarina
BAK	BCL-2 Associated Killer protein
BAX	BCL-2 Associated X protein
BCL-2	B-cell CLL/lymphoma 2
BCL-xL	B-cell lymphoma-extra large
BH	BCL2 homology domain/BCL2 homologia domeinua
BID	BH3 interacting domain death agonist (full-length protein)
BIM	BCL2-interacting mediator of cell death
BOK	BCL2-related ovarian killer
BSA	Bovine Serum Albumin/Behi serumaren albumina
CHAPS	3-[(3-Cholamidopropyl)dimethylammonio]-1-propanesulfonate
cBID	Caspase-8-cleaved BID/8-kaspasak moztutako BID
CD	Circular dichroism/Dikroismo zirkularra
Cdko	Cyclin dependent kinase/Ziklina menpeko kina
CER	Ceramide/Zeramida
CHOL	Cholesterol/Kolesterola
CJ	Cristae junctions/Gangar loturak
CL	Cardiolipin/Kardiolipina
CM	Cristae membrane/Gangar mintza
CMT	Charcot-Marie-Tooth
CS	Contact sites/Elkargune mitokondrialak
Cyt c	Cytochrome c/c-zitokromoa
DAG	Diacylglycerol/Diazilglicerola

DLS	Dynamic Light Scattering/Argi dinamikoaren dispertsioa
DRP1	Dynamin-related protein 1
ER	Endoplasmic reticulum/Erretikulu endoplasmatikoa
ERMES	ER-mitochondria encounter structure
FADD	Fas-associated death domain
GED	GTPase effector domain/GTPasa domeinu efektorea
Fzo	Fuzzy onion gene
GFP	Green fluorescent protein/Proteina fluoreszente berdea
GST	Glutathione S-transferase
GUV	Giant unilamellar vesicle/Besikula unilamelar erraldoiak
HCT 116	Human colorectal carcinoma cells/Giza kolon-ondesteko kartzinoma zelulak
HEK 293T	Human embryonic kidney 293 cells/Giza giltzurrun enbrioniko 293 zelulak
HeLa	Cervical cancer cells/Minbizi zerbikal zelulak
HEX	Hexadecenal/Hexadezenala
HR	Heptad-repeat domain/Heptada errepikapen domeinua
HRP	Horseradish peroxidase/Errefau peroxidasa
IAPs	Inhibitors of caspases/Kaspasen inhibitzaileak
IBM	Inner boundary membrane/Barneko muga mintza
ICS	Inter cristae space/Gangar arteko gunea
IFN2	Inverted formin 2
IMS	Inter membrane space/Mintz arteko gunea
IP <sub>3</sub> Rs	Inositol (1,4,5)-triphosphate receptor/Inositol(1,4,5)-trifosfato hartzailea
KHE	100mM KCl, 10mM Hepes, 1mM EDTA, pH 7.4
LPC	Lysophosphatidylcholine/Lisofosfatidilkolina
LUV	Large unilamellar vesicle/Besikula unilamelar handiak
MAM	Mitochondria-associated ER membrane/Mitokondriara asoziatutako ER-mintza
MARCH-V	Membrane associated RING-CH-V
MCL	Monolysocardiolipin/Monolisokardiolipina
MCL-1	Myeloid Cell Leukemia-1
MCU	Mitochondrial calcium uniporter/Mitokondriako kaltzio uniporterra
MEF	Mouse embryonic fibroblast/Sagu enbrioi fibroblastoak
MFF	Mitochondrial fission factor
MFN1	Mitofusin1
MFN2	Mitofusin2


MIB	Mitofusin binding protein
MiD49	Mitochondrial dynamics protein of 49 KDa
MiD51	Mitochondrial dynamics protein of 51 KDa
MIM	Mitochondrial inner membrane/Mitokondriako barne mintza
MLCLAT1	Monolysocardiolipin acyltransferase
MLV	Multilamellar large vesicle/Besikula multilamelar handiak
MOM	Mitochondrial outer membrane/Mitokondriako kanpo mintza
MOMP	Mitochondrial outer membrane permeabilization/Mitokondriako kanpo mintzaren iragazkortzea
MPP	Mitochondrial processing peptidase
mPTP	Mitochondrial permeability transition pore/Mitokondriako behin-behineko iragazkortze poroa
mtDNA	Mitochondrial DNA/DNA mitokondriala
MTS	Mitochondrial targeting sequence/Mitokondriora bideratzeko sekuentzia
NMR	Nuclear Magnetic Resonance/Erresonantzia magnetiko nuklearra
NO	Nitric oxide/Oxido nitrikoa
OG	octyl $\beta$ -D-glucopyranoside
OPA1	Optoc atrophy 1
PA	Phosphatidic acid/Azido fosfatidikoa
PBS	Phosphate Buffered Saline/Fosfato gatz indargetzailea
PBT	Phosphate-buffered saline with Tween 20/Tween 20 duen fosfato gatz indargetzailea
PC	Phosphatidylcholine/Fosfatidilkolina
PE	Phosphatidylethanolamine/Fosfatidiletanolamina
PG	Phosphatidylglycerol/Fosfatidilglicerola
PGP	Phosphatidylglycerolphosphate /Fosfatidilglicerolfosfatoa
Pgs1	Phosphatidylglycerolphosphate synthase/Fosfatidilglicerolfosfato sintasa
PI	Phosphatidylinositol/Fosfatidilinositol
PKA	cAMP-dependent protein kinase/cAMP-menpeko protein kinasa
PS	Phosphatidylserine/Fosfatidilserina
PUMA	p53 up-regulated modulator of apoptosis
Rh	Rhodamine/Rodamina
RNAi	RNA interference/RNA interferentzia
ROS	Reactive oxygen species/Oxigeno espezie erreaktiboak
S1P	Sphingosine-1-phosphate/Esfingosina-1-fosfatoa
SD	Standard Deviation/Desbiderapen tipikoa
SE	Standard Error/Errore tipikoa



SEC	Size exclusion chromatography/Tamainaren arabera bereizteko kromatografia
Sumo	Small ubiquitin-like modifier
SUV	Small Unilamella Vesicle/Lamela bakarreko besikula txikiak
tBID	Truncated-BH3 interacting domain death agonist (p15 active fragment, also known as t <sup>c</sup> BID)
Taz1	Tafazzin
TCA	Tricarboxylic acid/Azido trikarboxilikoa
TCEP	Tris (2-carboxyethyl) phosphine
TEM	Transmission electron microscopy/Trasmiziozko mikroskopia elektronikoa
TIM	Translocase of the inner membrane/Barne mintzeko translokasa
TNF	Tumor necrosis factor
TOM	Translocase of the outer membrane/Kanpo mintzeko translokasa
TX100	Triton-X 100
VDAC	Voltage anion conductance



# 1 KAPITULUA: SARRERA ETA HELBURUAK





# 1. SARRERA ETA HELBURUAK

## 1.1 MITOKONDRIOA


### 1.1.1 SARRERA

Mitokondrioak zelula eukariotikoen ezinbesteko organuluak dira. Partzialki autonomoak dira, euren DNA, RNA eta proteinen sintesirako makinaria propioak dituztelako. Gainera, mitokondrioak zenbait lipido beraien kabuz sintetizatzeke gai ere badira (Horvath & Daum, 2013). Mitokondrioak jatorri bakterianoa duela uste da eta agian azken sinbionte bilakatu da. Hipotesi hau ebidentzia esperimental askok sustengatzen dute, bakterioen eta mitokondriaren DNA eta itzulpen aparatuen antzekotasunek besteak beste (Kutik *et al.*, 2009) .

Mitokondrioa parekorik ez duen organulu egiten duen ezaugarrietako bat, bere genoma propioaren presentzia da. DNA mitokondrial (mtDNA) genoma zirkular sinplea da, bakterio primitiboaren DNA zirkularrekin alderatuz oso ezaugarri egiturak antzekoak dituena (Diaz & Moraes, 2008; Duchon, 2004; Margulis & Bermudes, 1985; Margulis, 1975; Shutt & Gray, 2006). mtDNA 16.6kb eta 37 gen dituen harizpi bikoitzeko DNA zirkularra da. Gen horietako hamahiruk proteinak kodetzen dituzte, proteina guzti hauek arnasketa katearen osagaiak direlarik. Mitokondrioa eratzeke beharrezkoak diren beste proteina guztiak nukleoan kodetu eta mitokondriora garraituak izaten dira. mtDNA genomak 22 tRNA mitokondrial eta mtDNA transkriptoaren itzulpenarako ezinbestekoak diren 2 rRNA mitokondrial ere kodetzen ditu (Chan, 2006a; Diaz & Moraes, 2008; Duchon, 2004). Mitokondrioko kode genetikoak kode nuklear unibertsalek bereizten da. TGA kodoiak triptofanoa kodetzen du stop kodetu beharrean, AGA eta AGG stop kodoiak dira arginina kodetu beharrean eta ATA-k metionina kodetzen du isoleuzina beharrean. mtDNA zenbait proteinek elkartzen da nukleoide izeneko egituretan enpakaturik, egitura hauek mitokondrioko barne mintzarekin ere elkartzen direlarik (Anderson *et al.*, 1981; Diaz & Moraes, 2008). Nahiz eta zenbait DNA konponketa mekanismo daude mitokondriotan, nukleotido erauzien konponketarik ez da gertatzen eta mtDNA zenbait lesio jasateko oso sentikorra da (Chan, 2006a; Larsen *et al.* 2005). mtDNAn ematen diren kalte hauek zahartzearekin erlazionatuta daude eta gaixotasun desberdinak eragin ditzakete.


Bereizgarria den DNA propioaren presentziaz gain, mitokondrioak beraien funtzio ugari eta korapilatsuen oinarri den mintz sistema bakar eta konplexua ere badu (Harner *et al.*, 2011). Organulu hauek kanpo (MOM, ingelesezik *Mitochondrial Outer Membrane*) eta barne mintzaz (MIM, ingelesezik *Mitochondrial Inner Membrane*) osatutako bilkin batez inguratuta daude. MOM partzialki iragazkorra da molekula txiki eta espezie ionikoentzat. MIM ordea, funtsean

iragazkoitza da eta zitosola eta matrize mitokondrialaren arteko hesi nagusia eratzen du. MIM proteinetan aberatsena den mintz zelularra da, mitokondrioaren funtzio normalarentzat beharrezkoak diren proteinak eta proteina konplexuak dituelarik. MIM zenbait azpiataletan bana daiteke: barneko muga mintza (IBM, ingelesetik *Inner Boundary Membrane*), mintz jarraia da, hutsunerik ez duena eta MOMarekin aposizio estuan dago; eta gangarren mintza (CM, ingelesetik *Cristae Membrane*). Gangarrak IBMen inbaginazioak dira matrizerantza irtetzen direnak. Gangarrak eta IBMa tutu-formako egitura estuen bidez lotuta daude, egitura tubular hauek gangar loturak dira (CJ, ingelesetik *Cristae Junction*) (Reichert & Neupert, 2002). MOM eta MIM arteko gunea mintz arteko espazioa da (IMS, ingelesetik *Intermembrane Space*) oso gune estua da gangar arteko gunearekin konparatuz gero, gangar arteko gune hau gangar barneko gunea da (ICS, ingelesetik *Intracristae Space*). Bestalde, MOM eta IBMaren arteko elkarrekintza gune irmoak ere badaude, mitokondrioko mintzen antolakuntza egituralarentzat beharrezkoak direnak. Lotura hauek elkargune mitokondriak dira (CS, ingelesetik *Contact sites*) (1.1 Irudia).



**1.1 Irudia. Mitokondrioko osagai desberdinak.** Zeharkako mozketaren baten adierazpena da irudia. Gangarrak IBMari lotuta agertzen dira CJen bidez. OM, kanpo mintza; IBM, Barneko muga mintza; CM, gangar mintza; ICS, gangar arteko gunea. (Reichert & Neupert, 2002)-etik hartutako irudia.

Orain dela 60 urte inguru, transmisiozko mikroskopia elektroniko (TEM) egindako mitokondrioen lehen irudien agerpenarekin batera, mitokondrioek itxura desberdin asko izan ditzaketela ikusi izan zen. Zenbait ikerketa estentsibo egin ostean, mitokondrioan ematen ziren forma aldaketa horiek ausazkoak ez zirela eta organuluaren erregulazio mekanismo berria islatu lezaketela iradokitu zen. Izan ere, mitokondrioko mintzaren topologian emandako aldaketek funtzio mitokondrialean eragina izan dezaketela onartuta dago gaur egun (Mannella 2006).



**1.2 Irudia. MIM topologiaren aldaketa, egoera ortodoxotik kondentsaturako trantsizioa.** (Mannella, 2006)-tik hartutako irudia.

Hackenbrock-ek (Hackenbrock, 1966) mitokondrioan egon daitezkeen bi egoera morfologiko definitu zituen: kondentsatua eta ortodoxoa. Egoera kondentsatuan, mitokondrioak barne konpartimentu handiak ditu periferiako eskualdearekin tutu-itxurako lotura askorekin. Egoera honetan matrizea trinkoa da. Aitzitik, egoera ortodoxoan, matrizea zabaldua dago eta gangarrak tutu edo lamela laburrak dira IBMarekin lotura bakarra edo bi lotura dituztelarik (1.2 Irudia). Egoera hauen arteko interkonbertsioa mitokondriaren egoera energetikoaren araberkoa da eta bakarrik MIMaren fusio edo fisio prozesuen bidez eman daiteke (Mannella 2006). Prozesu hau itzulgarria dela ematen du, hori dela eta CJen eraketa dinamikoa proposatu izan da. Nahiz eta gero eta detaile egiturak gehiago dauden, oraindik ez dago argi CJ hauen garrantzi funtzionala zein den. Hipotesi batek esaten du CJek MIM azpiatalak eratzen paper erabakigarria izan lezaketela, IMS eta ICS arteko difusio hesi izanik. Ondorioz, MIM topologiak ATParen ekoizpenaren erregulazioan eragina izango luke ADParen fluxua mugatuz (Mannella, 2006; Zick *et al.*, 2009). Bestalde, Scorrano *eta* *lank.* proposatu zuten MIMaren topologiak prozesu apoptotikoan ere parte hartu lezakeela. Espezifikoki, talde honek erakutsi zuen BCL2 familiako kide den tBID proteinak, MIMaren eraldaketa azkarra eragiten duela CJen kopurua handituz eta MIMaren kurbatura alderantzizkatuz. MIM topologian ematen den aldaketa dramatiko hau


barneko c-zitokromoaren (cyt c) mugimenduaren handipenarekin bat dator. Gainera, cyt c gehiena gangarren barruan OPA1z osatutako konplexuez bahituta dagoela proposatu da eta ondorioz, OPA1 konplexuen desagitea kritikoa izango da cyt c gehiena IBMra askatu ahal izateko (Frezza *et al.*, 2006). Zentzu honetan, berriki proposatu da BCL2 familiako kide diren BAX eta BAK proteinek mitokondriako CSekin interakzionatzen dutela MOMaren iragazkortasunean eragina izanez eta OMA1en, MIMean kokatzen den proteasa baten, aktibazioan eraginez. BAX/BAK eta CSen arteko interakzioak OMA1en aktibitate proteolitikoaren handipena dakar, OPA1en autodegradazioaren bizkortzailea izanik eta ondorioz cyt c-aren askapena erraztuz (Jiang *et al.*, 2014).

Mitokondrioen egituraren ezaugarri makroskopikoak ehunaren, egoera fisiologikoaren eta garapen mailaren arabera aldatzen dira. Adibidez, ehun batzuetan mitokondrioek oso mugikorra den sare mitokondriala eratzen dute beste ehun batzuetan egitura independente eta diskretoak eratzen dituzten bitartean (1.3 Irudia).

Arestian aipatutako aldaketa morfologikoak fusio eta fisio mitokondrial prozesuen arteko orekak, hau da, dinamika mitokondrialak zehazten ditu. Dinamika mitokondrialean ematen diren asaldurek ondorio larriak izan ditzakete metabolismo zelularrean eta ondorioz zelulen bizian. Fisio eta fusioaren arteko desorekarekin lotuta dauden zenbait gaixotasunek bi prozesu hauen homeostiaren garrantzia nabarmendu dute. Fusio mitokondrialak mitokondrioen arteko edukien, mtDNA eta proteinak, trukea baimentzen du. Fisio mitokondrialak aldiz, mitokondrioen biogenesisia eta kaltetutako edo inaktibo dauden mitokondrioen autofagia bidezko deuseztapena baimentzen du (Diaz & Moraes, 2008).

Fisio eta fusio mitokondrialaren partaide nagusiak Dinaminen superfamiliako kideak dira. Dinaminek eta bere hurbileko ahaideek mintza berregituratzeko gaitasun intrintsekoa duten proteina taldea osatzen dute, berregituraketa hori oligomerizazio eta GTP hidrolisiarekiko menpekota delarik. Legamietan fusio mitokondrialean parte hartzen duten proteinak MOMera ainguratutako bi proteina, Fzo1 eta Ugo1 GTPasa eta MIMera ainguratutako Mgm1 GTPasa dira. Ugaztunetan, kanpo mintzeko fusioa Mitofusina 1 (MFN1) eta Mitofusina 2 (MFN2) proteinek burutzen dute, barne mintzeko fusioaz aldiz OPA1 proteina arduratzen delarik. Bestetik, organuluaren banaketa DNM1 GTPasak burutzen du legamietan eta DRP1ek ugaztunetan (1.4 Irudia).






**1.3 Irudia. Egitura makroskopiko mitokondrial desberdinak.** A) Mitokondrioak neuronetan oso egitura txiki eta finak dira, bereizteko zailak direlarik. Mitokondrioek konexio asko dituen egiturak sortzen dituzte B) linfzitoetan C) astrozitoetan eta F) HeLa zeluletan. D) Kardiomioto bentrrikular heldu batean mitokondrioak lerroetan antolatuta agertzen dira zelulan zehar. E) Kultiboan dagoen kardiomioto gazte baten mitokondrioak. (Duchen, 2004)-tik hartutako irudia.

Morfologia aldaketa dinamiko honetaz gain, mitokondrioak organulu mugikorrek dira. Mugimendu mitokondrialak orain dela 90 urte deskribatu ziren lehendabizikoz eta gaur egun argi dago mugimendu hauek mitokondriaren funtzionamendu egokirako ezinbestekoak direla (Mishra & Chan, 2014). Zunden erabileraren eraginez 1980 hamarkada hasieran eta proteina fluoreszente berdearen erabileraren eraginez (GFP, ingelesetik *Green Fluorescent Protein*) 1990 hamarkada erdialdean, gaur egun badakigu mitokondrioak mikrotubuluetatik zehar oso azkar mugitu daitezkeela (Gripic & Blied, 2001). Mugimendu hauei esker, mitokondrioen kokapena

energi behar handia duten lekuetara bideratu daiteke (Boldogh & Pon, 2007) edo mitokondrioak erretikulu endoplasmaticoaren (ER) mintzetik gertu koka daitezke.




**1.4 Irudia. Dinamika mitokondrialia.** Orekan dagoen morfologia mitokondrilak fusio eta fisio prozesuen arteko oreka beharrezkoa du. (Osellame *et al.*, 2012)-tik hartutako irudia.

Mitokondrio eta ERaren arteko aposizio estuak ikusi izan dira mikroskopia elektronikoa erabilita. Bi organulu hauen arteko kontaktu estu hauek MAM izena hartzen dute (Ingelesetik *Mitochondria-associated ER membranes*) (Giorgi *et al.*, 2009; Vance, 1990). Etenik gabeko mintz hauek fosfolipido eta glikoesfingolipidoen sintesirako beharrezkoak diren entzima asko dituzte eta ER eta mitokondriaren arteko lipidoen transferentzia zuzenean laguntzen dute (Stone & Vance, 2000). MAMak  $Ca^{+2}$  ioi elkar-truke guneak ere badira, txaperonetan aberastuak daudenak, eta ondorioz MAM guneak ER eta mitokondrioren arteko  $Ca^{+2}$  seinalizazioan ere parte hartu dezakete. Legamietan, MAM guneak ER:mitokondrio estekadura konplexu batez eratuta daudela uste da. Konplexu hori bai ER bai mitokondrioko proteinez eratuta dago eta ERMES izena jasotzen du (ingelesezik *ER-mitochondria encounter structure*) (Kornmann *et al.*, 2009). Duela gutxiko ikerketa batzuek ERMES ER mintzeko Mmm1p proteinak, periferiako ER mintzeko Mdm12p proteinak eta MOMeko Mdm10p eta Mdm34p proteinek eratzen dutela iradokitu dute (Kornmann *et al.*, 2009). Ugaztunetan ez dago argi zeintzuk proteinek betetzen duten legamiaren ERMES konplexuan aurkitzen diren proteinen funtzioak. Hala ere, txaperonak bitartekotzat dituen VDAC1 proteina eta ER  $Ca^{+2}$  kanaleen errezeptore diren inositol (1,4,5)-trifosfatoa ( $IP_3R$ ) arteko interakzioak (Szabadkai *et al.*, 2006) eta baita MFN2 interakzio



azetil-coAren azetilo taldea oxaloazetatoa transferituko zaio, zitratoa sortuko delarik. Zitratoa oxaloazetato izatera pasako da zazpi pausu entzimatikoen bitartez. Soberan dagoen karbonoa bi karbono dioxido molekula bezala kanporatua izango da eta elektroiak  $\text{NAD}^+$  eta  $\text{FAD}^+$  kofaktoreetara pasako dira. Askatutako energia askea  $\text{NADH}$  eta  $\text{FADH}_2$ -k arnas kate mitokondrialera eramango dute.

Arnasketa kate mitokondrialia MIMan txertatuta dauden bost proteina konplexuek eratzen dute. Bertan, TCA ziklotik  $\text{NADH}$  eta  $\text{FADH}_2$  bidez ateratako elektroiak matritzetik IMSra protoiak ponpatzeko erabiliak izango dira, modu horretan MIMan zehar potentzial gradiente bat sortuko delarik. Gradiente hau ATPa sintetizatzen erabiliko da fosforilazio oxidatiboaren azken urratsean (Osellame *et al.*, 2012)(1.6 Irudia).




**1.6. Irudia. Elektroi garraio katearen eta TCA zikloaren eskema.** Pirubatoa  $\text{NADH}$ ,  $\text{GTP}$  eta  $\text{FADH}_2$  bezalako energia altuko molekulatan bihurtzen da. Sortutako  $\text{NADH}$  a I konplexura garraiatzen da eta  $\text{NAD}^+$  bihurtzen da. Katean zeharreko elektroi garraioak mintz potentziala mantentzen du protoiak IMSra ponpatuz. Azken urratsean V konplexuak (ATP sintasak)  $\text{ADP}$  fosforilatzen du  $\text{ATP}$  eratuz. (Osellame *et al.*, 2012)-tik hartutako irudia.

Protoien jarioa eman daiteke mintzaren boltaia ATP ekoizpenetik desakoplatzen. Jario honetaz gain, elektroiak ere elektroio garraio kateko konplexuetatik ihes egin dezakete. Elektroien askapen goiztiarrak elektroiak oxigenora zuzenean pasatzea ahalbidetzen du superoxidoa sortzen delarik. Superoxidoa oso erreaktiboa da eta zelularentzat toxikoa, estres oxidatiboaren erantzule nagusia delarik. Estres oxidatibo hau zenbait gaixotasun ekartzen ditu eta zahartze prozesuan paper garrantzitsua ere betetzen duela uste da.

Energi ekoizle nagusiak izateaz gain, mitokondrioak oso paper garrantzitsua betetzen dute  $\text{Ca}^{+2}$  homeostasia mantentzen. Mitokondriaren kaltzio sarrerak, mitokondriako mintz potentzialak eta mitokondria barruko  $\text{Ca}^{+2}$  kontzentrazio baxuak ( $[\text{Ca}^{+2}]_m$ ) eratutako gradienteak kontrolatzen dute.  $\text{Ca}^{+2}$  kontzentrazio zitosolikoa ( $[\text{Ca}^{+2}]_c$ ) handitzean,  $\text{Ca}^{+2}$  matrize mitokondrialera sartuko da, gradiente elektrokimikoak gidatuta. Ondorioz,  $\text{Ca}^{+2}$ ren mitokondriarako mugimendua mitokondriako mintz potentzialaren eta  $[\text{Ca}^{+2}]_m$ ren menpekoa da.  $\text{Ca}^{+2}$ ren sarrera MIMean kokatzen den kaltzio uniporte garraiatzaile mitokondrialaren (MCU, ingelesetik *Mitochondrial Calcium Uniporter*) bidez ematen da. Barneratu den  $\text{Ca}^{+2}$ , mintzaren birpolarizazioaren ostean mantenduko da mitokondrioan,  $\text{Na}^+/\text{Ca}^{+2}$  trukatzailak mitokondriotik kanporatzen duen arte.  $\text{Ca}^{+2}$  gordetzeko mitokondrioak duen ahalmen honek, indargetzaile lokal bezala jokatzeko eta baita  $[\text{Ca}^{+2}]_c$ an eragina izateko aukera ematen dio mitokondrioari. Azken hau bereziki garrantzitsua da prozesu intrazelular asko  $\text{Ca}^{+2}$ rekiko sentikorrek direlako (Duchen, 2000) (1.7 Irudia).

Mitokondrioak ERTik kanporatutako  $\text{Ca}^{+2}$  seinaleak moldatzeko garrantzitsuak ere badira. Baldintza normaletan, bi organulu hauen arteko  $\text{Ca}^{+2}$  fluxu jarraia dago. Normalean,  $\text{Ca}^{+2}$  gehiena ER lumenean egoten da, baina ez da gordailu hutsa, proteinen prozesamenduaren arduradunak diren txaperonen aktibitatearen mantentzean parte hartzen du.  $\text{Ca}^{+2}$  seinalea ematen denean,  $\text{Ca}^{+2}$  ERTik zitoplasmara askatzen da eta gero berriz barneratzen da, proportzio bat mitokondriatik pasatuko delarik ERra bueltatu baino lehen (Giorgi *et al.*, 2009).

ERko  $\text{Ca}^{+2}$ aren mantentzerako makinariaren osagai molekular garrantzitsuena Inositol Trifosfato hartzaileak ( $\text{IP}_3\text{Rs}$ , ingelesetik *Inositol Triphosphate Receptors*) dira. MAM gunek  $\text{IP}_3\text{R}$ tan aberastutako gunek dira eta ondorioz, ERTik mitokondriarako  $\text{Ca}^{+2}$  garraiorako “puntu bero”-tzat hartzen dira (Rizzuto *et al.*, 1998).  $\text{IP}_3\text{R}$ ek apoptosi modelo askotan parte hartzen dutela proposatu da, mitokondriako  $\text{Ca}^{+2}$  gainkargaren arduradun nagusitzat hartu direlarik. Beraz, mitokondrioan ematen den  $\text{Ca}^{+2}$  metaketak zelularen etorkizuna baldintza dezake.



1.7 Irudia. Mitokondriako  $\text{Ca}^{2+}$  seinalizazioa. (Duchen *et al.*, 2008)-tik hartutako irudia.

### 1.1.3 MITOKONDRIOAREN FUNTZIOAK HERIOTZ ZELULARREAN

$[\text{Ca}^{2+}]_m$  altuak, estres oxidatiboa, fosfato inorganikoko kontzentrazio altua, ATP ahitze eta depolarizazio mitokondriala bezalako gertaerak beste ezaugarri batzuekin konbinatuz, mPTPren (ingelesetik *Mitochondrial Permeability Transition Pore*) irekiera eragin dezake. mPTP poro bat da zeinaren egitura zehatza ez den ezagutzen, baina MIMean kokatzen den ANT (ingelesetik *Adenine Nucleotide Translocator*), MOMeko VDAC (ingelesetik *Voltage Dependent Anion Channel*) eta matrizeko ziklofilina D proteinez osatuta dagoela uste dena. Azken proteina honek, ziklofilina Dk, ziklosporina Arekiko sentikortasuna ematen dio konplexuari. Baldintza patologikoetan, mPTP poroa zabaltzen da eta mitokondriako mintz potentzialaren galera, ATParen kontsumoa eta kolapso energetikoa dakar, normalean heriotz nekrotikoa eragiten duena (Duchen, 2000; Duchen, 2004; Krieger & Duchen, 2002; Osellame *et al.*, 2012).

Heriotz zelular nekrotikoan duen paperaz gain, mitokondrioek aktiboki hartzen dute parte apoptosian. Apoptosia animalia erreinu (Metazoak) osoaren funtsezko prozesua da, giza gorputz heldu baten segundu bakoitzeko milioka zelula hiltzen direlarik (Adams & Cory, 2007). Heriotz zelular mota hau garapen fisiologiko normal eta prozesu homeostatikoentzat oinarrikoa izateaz gain, infektatutako, mutatutako edo kaltetutako zelulak ezabatzeko berebiziko defentsa

estrategia ere bada (Miura, 2011). Horrekin bat etorritz, prozesu apoptotiko akastunak giza gaixotasun ugariarekin erlazionatuta daude (Adams & Cory, 2007; Strasser *et al.*, 2011).


Apoptosi bidez hiltzen ari den zelula baten ezaugarriak honakoak dira: zelularen borobiltzea, zelularen bolumen galera (piknosia), nukleoaren kondentsazio eta zatiketa (Kariorrhexis), konkurren agerpena mintz plasmatikoa honen osotasuna prozesuaren azken pausuetaraino mantenduz, eta azkenik, zelula osagai desberdinen banaketa gorputz apoptotikoetan. Guzti honetaz gain, zelula apoptotikoen beste bereizgarri bat fosfatidilserinaren (PS, ingelesetik *Phosphatidylserine*) mintz plasmatikoko lipido geruza bikoitzaren kanpo mintzerako translokazioa da. Prozesu hau fagozitoak erakartzeko seinale gisa erabiltzen da eta ondorioz, zatiki zelularrak desagerrarazteko (Kroemer *et al.*, 2005, 2009). Modu honetan azken eginbide honek zelula apoptotikoen ezabatze eta garbiketa azkar bat eragingo du, inguruko ehunen hantura eta erantzun immunearen aktibazioa eragotziz (Bever & Williamson, 2010; Elliott & Ravichandran, 2010; Lauber *et al.*, 2003).

Ornodunetan, apoptosia bi bide nagusi jarraitu ditzakeen genetikoki zehaztutako mekanismoa da: alde batetik “bidezidor estrintsekoa” edo heriotza hartzaileen bidezidorra ere deitutakoa aurkituko dugu; bestetik, “bidezidor intrintsekoa” edota mitokondrioaren bidezidorra deitutakoaren bidez eman daiteke (1.8 Irudia).

Bidezidor estrintsekoa, TNF superfamiliako heriotza zelulaz-kanpoko seinaleek (adib. TNF  $\alpha$ , Fas/CD95-L, TRAIL...) dagozkien hartzaileak (TNF 1 hartzailea (TNFR1), Fas, TRAIL hartzailea (TRAILR1 eta TRAILR2)) batzean abiatzen da (Fulda & Debatin, 2006; Lavrik *et al.*, 2005; Walczak & Krammer, 2000).

Ornodunen artean apoptosi mota ohikoena bidezidor intrintsekoa edo mitokondriala da (Green & Kroemer, 2004). Prozesu honen aktibatzaileen artean estres kinada anitz aurkituko ditugu, esate baterako, ultramore eta gamma erradiazioak, beroa, faktore birulentoak, hazkuntza faktoreen gabezia, DNAREN kalteak, estres oxidatzailea eta faktore onkogeniko zehatz batzuen aktibazioa (Plati *et al.*, 2011). Zitosolekoak edo organulu barrukoak diren molekula ugari estres kinada hauek detektatzeko eta seinale egokia mitokondriora bideratzeko gai dira, azkenik mitokondriako kanpo mintzeko iragazkortasuna (MOMP, ingelesetik *Mitochondrial Outer Membrane Permeabilization*) eraginez (Green & Kroemer, 2004). MOMP bidezko bidezidor intrintsekoak jarraian zerrendatuko diren ezaugarri berezi batzuk aurkezten ditu: mintz potentzialaren ( $\Delta\Psi_m$ ) galera, apoptosi-eragileak diren faktoreen askapena (c-zitokromoa, SMAC/Diablo, OMI/HtrA2, AIF, Endo G...) mitokondrioen mintzen arteko eremutik zitosolera eta arnasketa katearen inhibizioa (Petit *et al.*, 1995). MOMP prozesua itzulezina izanik, erregulazio maila oso altu baten pean ematen da, honen arduradun nagusienak BCL2 familiako proteinek direlarik. BCL2 familiako proteinek elkarrekintza-sare konplexu bat eratuko dute bai beraien

artean zein bestelako faktore zelularrekin, modu honetan zelula MOMP bidezko apoptosia jarraituz hiltzen den ala ez zehaztuz (Chipuk *et al.*, 2010; Youle & Strasser, 2008).



**1.8 Irudia. Apoptosiaren bidezidor estrintsekoa eta intrintsekoa.** Bidezidor estrintsekoan, heriotzaren hartzaileek beraien ligandoak batzerakoan, DD domeinua (ingelesetik *Death Domain*) duten proteinak erakartzen dituzte (FADD gisa adierazita), DISC suprakonplexuaren osagaiak diren 8- eta 10-prokaspasak. Orduan, 8 eta 10 kaspasek kaspasa exekututzaileen (3, 6 eta 7 adib.) aktibazioa eragiten dute, apoptosia gertaraziz. Bestalde, 8-kaspasaren aktibazioak BH3-domeinu bakarreko BID proteina moztu dezake, tBID sortuz, heriotza seinalea bidezidor intrintsekora bideraraziz. Bidezidor mitokondrial edota intrintsekoan, MOMPak mitokondriotik c-zitokromo eta apoptosi-eragileak diren beste faktore batzuen zitosolerako askapena eragiten du; ondoren, zitolosean apoptosoma osatzen da, 9-kaspasak kaspasa exekututzaileen segidako aktibazioa eraginez. Honez gain, BCL2 familiako proteinek estuki erregulatzen dute MOMPa. BH3-domeinu bakarreko proteinek (BIM eta tBID proteinak *aktibatzaileen* ordezkari bezala daude, eta BAD, ordea, *sentikortzaileen* ordezkari) apoptosia aktibatzen dute. BCL2 moduko proteinek (BCL-2 proteina ordezkari bezala egonik), berriz, apoptosia inhibitzen dute BAX/BAK-en aktibazioa eragotziz. (Plati *et al.*, 2011)-etik hartutako irudia.



Cyt c proteina txikiak (12 kDa) mitokondrioaren barne-mintzean aurkitzen den kardiolipina (CL, ingelesezik *cardiolipin*) lipido mitokondrialari modu ezegonkor batean batzeko gaitasuna aurkezten du. Behin CL oxidatu eta mitokondrioia permeabilizatzen denean, cyt c zitoserara barreiatua izan daiteke bertan apoptosomaren eraketa bultzatuz. Cyt c, APAF-1, 9-kaspasa eta ATP/dATP osagaiak apoptosoma proteinadun plataforma eratuko dute, bertan 9-kaspasa aktibatuz eta jarraian segidako kaspasa aktibazioak eraginez (Li *et al.*, 1997; Liu *et al.*, 1996; Ott *et al.*, 2002; Saelens *et al.*, 2004; Zou *et al.*, 1997). Honez gain, MOMPak beste hainbat proteina askatuko ditu zitoserara, SMAC/DIABLO (25kDa) eta Omi/HtrA2 (37kDa) hain zuzen ere. Proteina hauek IAP proteinak batu eta neutralizatzeko gaitasuna aurkezten dute, modu honetan kaspasen aktibazioa faboratuz; bestalde, euren aktibitate proteolitikoa dela eta, kaspasekiko independentea den zelulen heriotzean ere parte hartzeko aukera izango dute (Saelens *et al.*, 2004). Azkenik aipatuko diren bi apoptosi-eragileak diren proteinak AIF (62 kDa) eta Endo G (23 kDa) deiturikoak dira. Behin zitoserara askatuak direnean, bi proteina hauek nukleora translokatzeko ahalmena azaltzen dute kromatinaren kondentsazioa eta DNAREN zatiketa burutuz (Daugas *et al.*, 2000; Li *et al.*, 2001; Susin *et al.*, 1999).

Proteina hauen IMS-tik zitoserako askapen-denbora eztabaida iturri da gaur egun, zelula motaren arabera apoptosi-eragileak diren faktoreen birbanaketa-orden ezberdinak aurkitu baitaitezke; modu honetan, hainbat ikerketa lanetan, cyt c, SMAC/DIABLO eta AIF-ren askapen-denbora desberdinak deskribatu dira (Arnoult *et al.*, 2002; Daugas *et al.*, 2000). Hala ere, beste ikerketa batzuek cyt c eta SMAC/DIABLO batera askatzen direnaren alde egiten dute (Muñoz-Pinedo *et al.*, 2006; Rehm *et al.*, 2003; Zhou *et al.*, 2005). Ezberdintasun hauek proteinek mitokondriora atxikitzeke aurkezten dituzten mekanismo desberdinetan oinarrituz azaldu daitezke. C-zitokromoari dagokionez, zitoserara askatua izan dadin, barne mintzean dauden gangar mitokondrialen birmoldaketa eman behar da bertan harrapatuta aurkitzen baita c-zitokromo gehiena (Scorrano *et al.*, 2002). Ondoren, kardiolipinarekin daukan lotura hautsi beharko du (Ott *et al.*, 2002). AIF-ren kasuan, aldiz, kaspasa bat ez den proteasa baten bidezko barne-mintzarekiko duen ainguraketaren mozketak jasan behar du. Bukatzeko, mitokondrioaren apoptosi-eragileak diren faktore hauen askapen-denboretan ikusitako ezberdintasunak, mitokondrioaren kanpo mintzean eratu daitezkeen poroen tamaina desberdinek eragindako hautakortasunari egotzi ahal zaizkiola esan beharra dago (Saito *et al.*, 2000).

Mitokondrioaren bidezidorrean emandako akatsek minbizi zelulei bizirauteko abantailak eskeintzen dizkie eta minbizi zelulek kimioterapia eta erradioterapiari izaten dieten erresistentzian ere badu eragina.

### 1.1.3.1 Apoptosiarekin erlazionatutako lipidoen eginkizunak heriotz zelularrean

Mitokondrioaren lipido konposaketak aldaketa gutxi jasaten ditu zelula mota desberdinen artean, beraz, aldaketa asko ezin ditzakeela onartu pentsa liteke. Baldintza arrunten menpean, legami eta ugaztunen mitokondrioen mintzen lipido konposaketa zehaztua izan da, eta deskribatutako ezberdintasunak saioetan erabilitako baldintza ezberdinei egotziak izan dira (1.11 Irudia) (Fleischer *et al.*, 1967; Osman *et al.*, 2011; van Meer *et al.*, 2008).

Apoptosian zehar MOMak mota desberdinetako lipidoak pilatzeko gaitasuna dauka. Gero eta argiago dago, MOMean dauden lipidoak egiturazko osagaiak izateaz gain, proteina mitokondrial espezifikoen (BCL2 familiako proteinak barne) funtzioan ere eragina izan dezaketela, bai lipidoarekin interakzio zuzen baten bidez zein MOMaren lipido geruza bikoitzaren ezaugarri fisikoak moldatuz.

- Glizerofosfolipidoak

Mitokondrioan dauden glizerofosfolipidoen artean zelulen heriotza apoptotikoan eginkizunik nabarmenena duena CL da, berau mitokondrioaren lipido bereizgarriena izanik. Ebidentzia ezberdinek apoptosian zehar MOMaren CL kantitatea handitu egiten dela adierazten dute. Fosfolipidoen garraioa MOM eta MIM artean bi mintz hauen arteko CS elkarguneen bidez ematen dela proposatua izan da. Nahiz eta oraindik CLren translokazioa eragiten duen mekanismoa zehaztu gabe egon, proteinen mintza birmoldatzeko edo mintzaren elkargune horietan CL berrantolatzeke, mitokondrioaren fosfolipidoen 3-eskrablasa (PLS3) (Liu *et al.*, 2003), kinasa mitokondrialak (Epand *et al.*, 2007), eta BCL2 familiako proteina zehatz batzuek, tBID alegia, duten gaitasunean oinarrituz prozesu honetan inplikaturik daudela zehaztua izan da (Degli-Esposti *et al.*, 2001). Izan ere, CL tBID proteinaren hartzaile gisa aritzen zela azaltzen zuen lanarekin deskribatu zen lehendabizikoz lipido honek apoptosiaren aktibazioarekin duen lotura (Lutter *et al.*, 2000).

Lipido hutsezko mintz-ereduetan, CLk dosi-menpekotasun bat jarraitzen duen tBIDen batuketa eragiten du. Tenperaturarekiko sentikorra den CL sintasa baten genea daukaten zelula lerroetan, tenperatura aldaketen ondorioz lortutako CL kontzentrazio baxuek tBIDen mintzerako translokazioa eragotzi dezakeela ikusi da (Lutter *et al.*, 2000). Ondoren, mitokondrioen frakzionamenduaren tomografia immunoelektroniko bat aztertuz, tBID CS gunetara lehentasunez batzen dela ikusi da (Lutter *et al.*, 2001). Bestalde, tBID sortzen duen 8-kaspasa entzima proteolitikoak, CLrekin elkarrekintza zuzenak dituela ikusi da, bertan bideratuko du BID proteinaren mozketak (Gonzalez *et al.*, 2008).

Bestalde, BCL2 familiako proteina birkonbinatuak eta lipido sintetikoetatik eratutako besikulaz osatutako *in vitro* sistemetan egindako saioetan oinarrituz, BAX-moduko proteinak

kardiolipinadun mintzetan modu eraginkorrago batean txertatu eta oligomerizatzen dutela behatu da (Kuwana *et al.*, 2002; Landeta *et al.*, 2011; Terrones *et al.*, 2004). Emaizta hauen ildo berean, CL mitokondrialaren degradazioak aktibatutako BAXek eragindako c-zitokromoaren askapena eragozten du (Lucken-Ardjomande *et al.*, 2008). BAKen kasuan, CLrekin ematen den interakzio espezifikoak BAK $\Delta$ C birkonbinatuan berregituraketa lokalizatua dakar, tBIDekin emango den interakzioa ahalbidetuz (Landeta *et al.*, 2011). Honek CLk izango lukeen paper goiztiarra iradokitzen du, BAKen aktibazioa ekarriko lukeena.

Beste ikerketa batzuek, BAX oligomerizazio eta bikapa lipidiko insertzioan, CL kopuru handiek laguntzen dutela iradokitzen dute, mintzaren elastikotasunaren handipen edota CLaren kate aziliko insaturatuek eragiten duten kurbatura intrintsekoa dela eta (Lucken-Ardjomande *et al.*, 2008). Baina hala ere, BAX-motatako proteinek CLrekin duten interakzioaren oinarria argitzeke dago.

CLren mota ezberdinetako aldaketak apoptosiarekin izan dira erlazionatuak. Adibidez, CLren peroxidazioak c-zitokromoa eta MIMaren arteko loturaren apurtzea eragiten du, modu honetan, mintzarteko gunean c-zitokromoaren erreserba bat aske geratuko da, behin MOMP eraginda zitostolera askatua izan daitekeena (Kagan *et al.*, 2005). CL peroxidatuak BAXek bideratutako liposomen zulatzea sustatzen du, badirudi mintzaren kurbaduran aldaketak eragitearen bidez (Marí *et al.*, 2008). Apoptosian zehar, mitokondrioan CLren produktu metabolikoa den monolisokardiolipina (MCL), metatzen da; honek tBIDekin interakzionatzeko gaitasuna dauka mintzaren kurbadura erdietsiz (Degli-Esposti *et al.*, 2003).

MOMP gertatu baino lehen, mitokondrioan pilatzen diren beste bi glizerolipido, mintz kurbadura eragiteko gaitasuna daukaten lisofosfatidilkolina (LPC) eta diazilglizerola (DAG) dira. Frogatua izan den moduan, bai LPC zein DAG lipidoak BAXen mintz-iragazkortze funtzioan eragina izan dezakete poro proteolipidiko eraketarako joera energetikoa modulatzuz (Landeta *et al.*, 2011; Terrones *et al.*, 2004).

- Esfingolipidoak

Gaur egunera arte, esfingolipidoen inguruan burututako lanak glikoesfingolipido eta esfingomielina moduko esfingolipidoen biologia argitzeko xedearekin egin izan dira. Glikoesfingolipidoek eta esfingomielinak zelulen arteko lotura eta seinaleen transdukzioaren moduko hainbat prozesuetan parte hartzen dute. Jatorriz bitartekari metabolikoak direla pentsatu izan den arren, zeramida (CER), esfingosina eta esfingosina-1-fosfato (S1P) lipidoek zelulen ugaritze, ezberdintze eta migrazio prozesuen erregulazioan eginkizun fisiologiko nabarmenak dituztela ikusi da, baita minbizi, endekapenezko gaixotasun neurologiko,

gaixotasun autoimmune edota angiogenesiaren patobiologiaren erregulazioan ere (Van Brocklyn & Williams, 2012) .

CER eta erlazionatutako glikolipidoak MOMaren osagai gutxienekoak izanda ere apoptosian inplikaturik daudela ezagutarazi da (Goonesinghe *et al.*, 2005; Sandra *et al.*, 2005; Siskind, 2005; Maurizio Sorice *et al.*, 2009). Zeramidaren maila seinale apoptotiko ezberdinen (TNF $\alpha$ , FAS ligandoa edo DNAn kalteak) ondorioz handitzen dela ezaguna da, baita zeramidaren produkzio hau apoptosiaren makinarria osoa aktibatzen baino lehenago gertatzen dela ere. CER aldaketa bioenergetikoetan, ROSen ekoizpenean eta MOMaren iragazkortasunean ere inplikaturik dagoela argitaratu da (Birbes *et al.*, 2001; Colombini, 2010; Siskind, 2005). Nahiz eta modelo hau ez dagoen oso onartua, zeramidak MOMP prozesuan izan lezakeen parte hartzea lipido honek era ditzakeen kanaletan oinarritzen da (Siskind *et al.*, 2002; Siskind, 2005; Stiban *et al.*, 2006).

BCL2 familiako proteinei dagokionez, mekanismo honen xehetasun zehatzak eztabaidatuak izaten jarraitzen duten arren, hauek zeramidaren ekoizpena, BAXen mitokondriarako translokazioa eta BAX/BAKek bideratutako MOMP bultzatzen dutela proposatu da (Birbes *et al.*, 2005). Beste aukera bat, CER eta BAXen artean apoptosi-eragileak diren proteinen zitosolerako askapena baimentzen duen kanal bat eratzea izan liteke (Ganesan & Colombini, 2010). BAKek, baina ez BAXek, CER sintasa aktibatzen duela iradokitu da; modu honetan, BAKek CER mailak handituko lituzke eta CER molekula horiek BAX/BAKekin batera kanal bat eratuko lukete MOMean (Beverly *et al.*, 2013; Siskind *et al.*, 2010). Hortaz, BAX eta BAKek bai apoptosian zein metabolismoan erredundantea ez den funtzioa dutela argia da.

Bestalde berriki ezagutarazi da BAX-moduko proteinek elkarlanean, zeramidaz gain, esfingolipidoen beste metabolito batzuk aritu daitezkeela MOMP eragiteko. Hain zuzen ere, erretikuluan lokalizatutako CER mitokondriora garraiatzen denean, S1P eta hexadezenala ekoizten dira, BAK eta BAXen aktibazio funtzionalean eraginez hurrenez hurren (Chipuk *et al.*, 2012). Bakartutako mitokondrioetan egindako esfingolipidoen eraketan parte hartzen duten entzimen inhibitzaile farmakologikoetan oinarritutako saioretan, mitokondriarako espezifiko den esfingosina kinasa-2 (S1Paren ekoizlea) eta S1P liasa (hexedezenalaren ekoizlea) izeneko entzimek, hurrenez hurren BAK eta BAXek bideratutako apoptosia kitzikatzen dutela proposatu da.

Azkenik, apoptosiarekin erlazionatuta dauden esfingolipidoen azken taldea gangliosidoena da. Zelula lerro ezberdinetan CER euskarri moduan duen GD3 glikolipidoa mitokondrioan pilatzen da CER edo TNF $\alpha$  kinaden erantzun gisa, honek apoptosiaren bidezidoreean lagundu dezakeela proposatuz. Izan ere, GD3 lipidoa zelula osasuntsuetara modu exogeno batean gehitzeak, kaspasen aktibazioa eragin dezake, baita bakartutako mitokondrioetara gehitzerakoan zitosolaren askapena eragin ere .

- Kolesterola

Kolesterola (CHOL, ingelesetik *cholesterol*) mintz biologikoen funtzioan eta ezaugarri fisikoetan eginkizun garrantzitsua duen lipidoa da. MOMean, CHOL/fosfolipido masa erlazioa %3 eta %24 artean mantentzen da, zelula tumoral desberdinen mitokondrioek CHOL maila handiagoak erakusten dituzten arren (Baggetto *et al.*, 1992; Crain *et al.*, 1983). Mitokondrioan kokatzen den CHOL, berriki MOMP eta zelulen heriotzaren faktore erregulatzaile garrantzitsu bezala agertzen ari da (Garcia-Ruiz *et al.*, 2009).

Kolesterolaren efektu antiapoptotikoak azaltzeko mekanismo desberdinak proposatu dira. Hasteko, kolesterolaren maila altuak mitokondrioak prozesu ezberdinetatik babesten ditu, adibidez, mitokondrioaren hantura handi batetik eta barne mintza zeharkatzen duten protoien askapenetik (Graham & Green, 1970); gainera, mintz mitokondrialetan kokatzen diren eta apoptosiarekin erlazionatuta dauden proteina ezberdinen aktibitatea modula dezake baita ere (Colell *et al.*, 2003). Bigarrenez, kolesterolak BAXen bai mintzerako txertaketa zein oligomerizazioa inhibitu ditzake, BAXek bideratutako *c*-zitokromoaren askapena atzeratuz (Lucken-Ardjomande *et al.*, 2008; Montero *et al.*, 2008), bai lipidoen alboko antolaketa aldatuz bai mintzaren ezaugarri elastikoak moldatuz (Garcia-Ruiz *et al.*, 2009; Montero *et al.*, 2008). Eredu hau sostengatuz, CHOL lipidoak mintz mitokondrialetan mikrodomeinu ordenatuak eratzeko gaitasuna duela ezaguna da, hau BCL2 familiako proteinen funtzioekin eta apoptosiaren erregulazioarekin erlazionatu izan delarik (Garofalo *et al.*, 2005). Bestalde, BAXen kasurako  $\alpha 5$  helizean dauden 113-119 hondarren arteko zatikian kokatzen den CHOL ezagutzeko aminoazido adostasun sekuentzia (CRAC, ingelesetik *CHOL Recognition Amino acid Consensus*) bat proposatu da, baita mitokondrioan kolesterolaren murrizteak BAXen inhibizioa eragiten duela ere (Martínez-Abundis *et al.*, 2011). Bukatzeko, CRAC domeinua oso gutxi kontserbatzen den sekuentzia dela kontuan hartzea beharrezkoa da ere, baita, BAKen kasurako ez dela CRAC domeinurik aurkitu.


### 1.1.4 KARDIOLIPINA

CL mintz mitokondrialen osagai lipidiko espezifikoa da. Bere izenak 1942. urtean lehendabizikoz isolatu (Pangborn, 1942) zeneko ehunari, hots bihotzari, egiten dio erreferentzia. Hala ere, ugaztunetan edozein ehunean aurki daiteke. CL fosfolipido azpitalde baten partaide da, poliglizerofosfolipidoena hain zuzen ere. Fosfolipido talde honetako kideen isatsak eta buru polarrak fosforil eta glizerol zatikien errepikapenez eraikiak daude. Talde honetako ezaugarri interesgarrienetako bat hidroxilo talde askoren presentzia da, zeintzuk aziloak gehitzeko guneak izan daitezken isomer posizional eta esteriko desberdin asko sortu daitezkeelarik (Schlame *et al.*, 2000).

CL parekorik ez duen fosfolipidoa da hiru arrazoiengatik gutxienez. Lehenengoa, MIMean aurkitzen da ia modu eksklusiboan, hau da, sortua izan deneko lekuan. Ondorioz, biosintesi gunean mantentzen da, honek adierazten du CL konpartimentu honentzat berebiziko garrantzia duela. Bigarrenik, CL glizerol batez lotutako bi fosfatidil hondarrez osatutako lipido dimeroa da. Horren ondorioz, bi fosfato buru eta lau kate aziliko ditu. Hirugarrenik, CL fosfolipido egitura da, hau da, egitura lamelar eta hexagonalak eratzeko gaitasuna du.

### 1.1.4.1 Egitura

Arestian aipatu den bezala, CL glizerol talde zentral batek elkartutako bi fosfatidil unitatez osatutako fosfolipidoa da (1.9 Irudia). Bi fosfatidil zatikiak estereokimikoki ez-baliokideak dira, bietako bat glizerol loturaren karbono atomo zentralarekiko *pro-R* eta bestea *pro-S* posiziotan kokatuta daudelako. Bi talde fosfatoen presentziak bi karga negatibo ematen dizkio, proteinen interakziorako garrantzitsua izan daitekeena (Schlame, 2008).



**1.9 Irudia. Kardiolipinaren egitura.** Molekula glizerol talde batek lotzen dituen bi sn-glizero-3-fosfato zatikiez osatuta dago. Lau talde aziloak ( $X_1, X_2, Y_1, Y_2$ ) glizerofosfatoetara lotuta daude. Glizerofosfato biek zentro kiralak R konformazioan dituzte. Glizerol zentralak zentro prokiralak ( $X_1=Y_1$  eta  $X_2=Y_2$  izanez gero) edo benetako zentro kirala ( $X_1 \neq Y_1$  eta  $X_2 \neq Y_2$  izanez gero) izan dezake. Honen ondorioz, bi glizerofosfatoek posizio estereokimiko desberdinak hartzen dituzte. [avantilipids.com](http://avantilipids.com) eta (Schlame & Ren, 2006)-tik hartutako irudia.

CL espezie molekularrak lau kate azilikoaren permutazioen ondorio dira. Eukariotoetan aurkitzen den CLak gantz azido patroia bakarra du, funtsean  $C_{18}$  kateetara mugatuta dagoena. Hala ere, *Saccharomyces cerevisiae* legamian salbuespen bat aurki genezake, bertako CLk oleoil (18:1) eta

palmitoleoil (16:1) hondarren kantitate berdinak dituelako. Ugaztunen kasuan C<sub>18</sub> kate nagusia linoleoil (18:2) motakoa da. Aitzitik, bakteriotan CLk 14-18 karbono atomoz osatuta dago eta saturazio maila altua izaten du (Schlame *et al.*, 2000).

CLk polimorfismo bereizgarria erakusten du, egitura mizelar, lamelar eta hexagonalak eratzeko gai delarik. Mizelatik lamelarako eta lamelatik egitura hexagonaletarako fase trantsizioak katioi dibalenteen presentziak, pH baxuak, indar ioniko altuak eta azil talde askoren presentziak faboratzen dituzte. Buru polarren kargak fase aldaketetarako duten garrantzia nabaria da, izan ere indar ionikoak eta pHak egitura hexagonalak eragiten baitituzte. Beste faktore erabakigarria isats hidrofobikoaren bolumena da. Esaterako, dilisokardiolipinak, bakarrik bi kate aziliko dituenak, egitura mizelar eta lamelarrak eratuko ditu, azilkardiolipinak aldiz, CLrekin konparatuz kate aziliko estra bat izanik, beti egoera hexagonalean aurkitzen da. CL egoera lamelar zein hexagonalean egon daiteke. CL hexagonalak mintzen arteko kontaktu guneetan eta bikaparen egitura asaldatuta dagoen guneetan eginkizunen bat izan dezake, berregituraketa prozesuetan ere parte hartu lezake (Ortiz *et al.*, 1999). CL gehiena bigeruzaren baten egoeran existitzea da probableena. Egoera honetan, bi fosfatidil glizerolak bigeruzaren gainazalareriko perpendikularki orientatuta egongo dira. Glizerol talde zentrala, ur/mintz interfasean dagoena, bigeruzaren gainazalarekiko paraleloki kokatuta egongo da (Schlame *et al.*, 2000; Schlame, 2008).


#### **1.1.4.2 Biosintesia eta degradazioa**

CLren biosintesia glizerol-3-fosfato eta aktibatutako gantz azidoetatik azido fosfatidikoaren eraketarekin hasten da. Ondoren, azido fosfatidiko honek CTPrekin erreakzionatuko du energia handiko bitartekari den CDP-diazilglizerola eratuz, erreakzio hau CDP-diazilglizerol entzimak katalizatuko du. Entzima hau ERan kokatuta dago, baina mitokondrioan ere aurkitu daiteke. Aktibatutako fosfatidil taldea glizerol-3-fosfatoaren sn-1 hidroxil taldera pasatuko zaio fosfatidilglizerolfosfatoa (PGP) sortuko delarik. PGParen eraketa katalizatzeke arduraduna fosfatidilglizerolfosfato sintasa (Pgs1) entzima da. Behatu izan da, entzima hau kodetzen duen genearen delezioa ez dela letala, baina mitokondriaren funtzioa estutasunean jartzen du. Gero, PGP defosforilatua izango da fosfatidilglizerola eratuz, entzima arduradunak fosfatidilglizerolfosfatasak direlarik. Entzima hauek legamietan Gep4 eta ugaztunetan PTPMT1 dira. MIMaren alde zitoplasmatikoa ainguratuta daude bi entzima hauek. Entzima hauen galerak PGParen metaketa dakar, arnasketa katearen superkonplexuak desegonkortuz eta hazkuntza zelularra gutxituz. Puntu honetatik aurrera bidezidorra bi adarretan bananduko da, alde batetik prokariotoen adarra eta bestetik eukariotoena. Prokariotoetan, fosfatidilglizerolak beste fosfatidilglizerol batetik datorren fosfatidil talde bat jasoko du transesterifikazioz, fosfolipasa-D motako entzima den CL sintasa (Crd1) bakterianoak katalizatuta. Entzima hau

MIMean kokatzen da. Crd1 bakterianoa kontrako norantzan ere funtziona dezake, CLren deskonposizioa ekarriko lukeena. Beraz, CLren sorreran entzimaren adierazpen mailak ez ezik beste faktore batzuk ere eragina izango dute prokariotoetan. Eukariotoetan, fosfatidilglicerolak fosfatidil-CMPtik datorren aktibatutako fosfatidil talde bat jasoko du, fosfatidiltransferasa den CL sintasa entzimak katalizatuko duelarik erreakzioa. CL sintasa kodetzen duten geneak identifikatu izan dira eta euren produktuak karakterizatu *S.cerevisiae*-n (Chang *et al.*, 1998), *A.thaliana*-n (Katayama *et al.*, 2004) eta gizakietan (Chen *et al.*, 2006; Houtkooper *et al.*, 2006; Lu *et al.*, 2006). Entzima hauek guztiak MIMaren matrize aldera joango dira euren N-terminaleko presekuentziaz gidatuta eta bere funtzio egokirako  $Mg^{2+}$ ,  $Mn^{2+}$ , edo  $Co^{2+}$  bezalako katio dibalenteen presentzia eta 8-9ko PHa beharrezkoa dute. Fosfatidil-CMParekiko espezifitate handia dute adenosina, guanosina edo uridina analogoekin konparatuz gero. Kardiolipina sintasa entzimak ez dauka tetralinoleoil-CL eratzeko beharrezkoa den espezifitate azilikorik, honek iradokitzen du ondoren gertatuko den birmoldaketa CL heldua lortzeko ezinbestekoa dela (Claypool & Koehler, 2012; Horvath & Daum, 2013; Schlame, 2008) (1.10 Irudia).

CLren sintesia kate azilikoaren segidako birmoldaketarekin osatzen da. Prozesu honek gehienetan lau kate aziliko identiko dituen CL eratzeko du. CLren forma espezifikoa hau ezin da *de novo* bidezidorraren bidez sintetizatu, CL sintasak duen sustrato espezifitate falta eta CL eta lipido aintzindarien arteko desberdintasunak direla eta. Ondorioz, birmoldaketa CL heldua lortzeko nahitaezko prozesua da (Schlame, 2008).





**1.10 Irudia. CLren biosintesi eta birmoldaketa prozesuen laburpena. (Claypool & Koehler, 2012)-etik hartutako irudia.**

CLren birmoldaketa fosfolipasa batek CLren kate aziliko bat kentzen hasiko du, monolisokardiolipina eratuko delarik. Erreakzio hau aurrera eramaten duen entzima legamietan kardiolipin deazilasa (Cld1) (Beranek *et al.*, 2009) eta ugaztunetan kaltzioarekiko independentea den iPLA<sub>2</sub>γ izan daitekeela proposatu da (Mancuso *et al.*, 2009). Monolisokardiolipinatik CLren eraketa hiru proteinek erdietsiko dute tafazzinak (Taz1), monolisokardiolipin aziltransferasak (MLCLAT1) eta azil-CoA:lisokardiolipin aziltransferasa-1-k (ALCAT1). Hiru entzima hauek monolisokardiolipinari kate aziliko bat gehitzeko gaitasuna dute. Hala ere, CLren birmoldaketa partehartzaile zuzena tafazzina dela iradokitzen duten ebidentzia argiak dauden bitartean, MLCLAT1 eta ALCAT1 entzimek prozesu honetan burutzen duten funtzioa ez dago guztiz argi (Claypool & Koehler, 2012).

Legamietako tafazzina, Taz1, MIM eta MOM mintzekin asoziatuta dago mintz arteko gunean kokatuta. Lau kate azilikoak birmoldatzeko gai den transzilasa da Taz1, aurreranzko eta atzeranzko transzilazio bidez burutzen duena. Taz-1-ek egiten duen CLren birmoldaketa mintz arteko genetika hurbil dauden mintz geruzetan gertatzen dela pentsatzen da, eta CLren


biosintesia MIMaren matrize aldeko gunean gertatzen denez, sintetizatu berri den CL MIMaren kontrako aldera pasatu behar da. MLCLAT1 entzimak CL metabolismoan parte hartzeko kate aziliko eta lisolipido espezifikotasunak ditu, monolisokardiolipinarekin fisikoki asoziatu daiteke eta CLrekin seguruenik ere bai. MLCLAT1-ren “knocking down” egin ostean, CLan inkorporatzen den linoleatoaren gutxipena ematen da (Taylor & Hatch, 2009). Beraz, entzima honek CLren birmoldaketan parte hartzeko gaitasuna du, baina prozesu honetan betetzen duen funtzio espezifikoa definitzeko ikerketak beharrezkoak dira (Claypool & Koehler, 2012). ALCAT1 MAM guneetan kokatuta dagoen eta lisolipidoak beraziltzeko gai den entzima da. Entzima honen bidezko CLren birmoldaketak, CL helduari egonkortasuna eta kate aziliko konposizio zehatza eman beharrean, mitokondrioaren disfuntzioaren seinaleak sortuko ditu CL “txarra” eratuz (Claypool & Koehler, 2012) (1.10 Irudia).

CLk orekan mantendu ahal izateko ordezkapen jarraia behar du, beste edozein konposatu biologikok bezala. CL gutxienez bi entzimen bidez degradatua izan daiteke; A fosfolipasa eta D fosfolipasa. Kaltzioarekiko independentea den A fosfolipasa CL deaziltzeko gai da, monolisokardiolipina edo dilisokardiolipina sortuz. Deazilazioekin jarraitzeko lisofosfolipasak beharrezkoak dira. Bidezidor hau apoptosian aktibatzen dela jakina da, CLren kontzentrazioa oso azkar jeisten denean. A fosfolipasaz gain D fosfolipasak ere CL degrada dezake. 2006. urtean, CLrentzat espezifikoa den D fosfolipasa berria deskribatu zen, fusio mitokondrialean parte hartzen duena (Choi *et al.*, 2006). Kasu honetan, CLren hidrolisiaren produktua fusogenikoa den azido fosfatidikoa da. Beraz, D fosfolipasa mitokondrialak dinamika mitokondriala eta CL metabolismoaren arteko lotura egin dezake.

Apoptosian zehar CLren degradazioa bere oxidazioarekin lotuta dago. Arnas kate mitokondriala oxigeno espezie errektiboen (ROS, ingelesetik *Reactive Oxygen Species*) iturburu nagusia da eta CL itu bikaina da ROS iturburutik oso hurbil dagoelako eta dituen kate aziliko insaturatuengatik. ROSen bidezko CL peroxidazio selektibo hau apoptosian zehar ematen den cyt c mitokondrialaren askapena baino aurretik ematen dela frogatu izan da (Kagan *et al.*, 2005; Ott *et al.*, 2007).

### **1.1.4.3 Erlazionatutako gaixotasunak**

Arestian aipatu den bezala, CL mitokondriako lipido espezifikoa da (1.11 Irudia). Hala ere, mitokondriako mintz bakoitzean dagoen CL kopurua zenbait eztabaidaren sorburu izan da. Jatorriz, CL MIM mintzean modu ia eskusibo batean zegoela pentsatzen zen, MOMean lipido guztien  $\approx$  5%a suposatuz batezbeste. Hala ere, MOM domeinu espezifikoetan, hau da CSetan, CLren kopurua  $\approx$  25% izan daitekeela ikusi zen ondoren (Ardail *et al.*, 1990; Simbeni *et al.*, 1991). Hain zuzen ere, CL kontaktu gune hauek eratzeko garrantzitsua izan daiteke lipido honek bigeruzak ez diren egiturak eratzeko duen gaitasuna dela eta (Schlame *et al.*, 2000).



**1.11 Irudia. Zelula osasuntsuetako organuluaren konposaketa lipidikoa.** Mintz desberdinen konposaketa lipidikoa zelulen barnean aldatzen da. Lipido konposaketaren datuak (grafikoetan adierazita daudenak) fosfolipido (PL) totalaren portzentai bezala adierazita agertzen dira. Ugaztunetan urdin iluna eta legamietan urdin argiaz adierazita daude. ERan dauden glizerofosfolipido nagusiak fosfatidilkolina (PC), fosfatidiletalonamina (PE), fosfatidilinositola (PI), fosfatidilserina (PS) eta azido fosfatidikoa (PA) dira. Gainera, ERak zeramida (Cer), galaktosilzeramida (GalCer), kolesterola eta ergosterola sintetizatzen ditu. Biek, ERak eta lipido tantatxoek, esteril ester eta triazilglizerol (TG) sintesian hartzen dute parte. Golgiaren lumena esfingomielina (SM), glikoesfingolipido konplexuen (GSLs) eta legamien inositol esfingolipidoen (ISL) sintesi lekua da. PtdCho ere Golgian sintetizatzen da eta proteinen jariaketarekin akoplatuta egon liteken diazilglizerol (DAG) aitzindariaren mailan. Mitokondriako fosfolipidoen %45 (batez ere PE, PA eta CL) organuluak berak era autonomo baten sintetizatzen ditu. Fosfatidilglizerola (PG), fosfatidilinositol-(3,5)-bifosfatoa (PI(3,5)P<sub>2</sub>), fosfatidilinositol-(3,4,5)-trifosfatoa (PI(3,4,5)P<sub>3</sub>), fosfatidilinositol-4-fosfato (PI4P), beste lipidoak (R), esfingosina-1-fosfatoa (S1P) eta esfingosina (Sph). (van Meer *et al.*, 2008)-tik hartutako irudia.

CLren ugaritasunean eta forma molekularrean ematen diren aldaketak zenbait egoera patologikoekin erlazionatuta daude, iskemia eta erreperfusioa, bihotz gutxiegitasuna, zahartzea,

heredatutako kardiomiopatia eta kardiomiopatia diabetikoa, eta minbizia besteak beste. Zahartze prozesuan ematen den gertaera goiztiarra funtzio mitokondrialaren gutxipena da. Zahartzearekin erlacionatutako erradikal askeen metaketak CLren murrizketa bat dakarrela proposatu da. Eta CL maila baxua entzima mitokondrialen aktibitateen murrizpenarekin erlacionatu izan da. Hala ere, CLren eraginez sortutakoa arrazoia edo bakarrik efektua den bereiztea zaila da (Schlame *et al.*, 2000). Zenbait garun tumoretan CLren kate azilikoan konposizioa aldatuta dago eta CL heldugabearen handipen bat ere badago, behaketa hauek minbizian ematen den energi metabolismoaren kalteak CLaren metabolismoan ematen diren aldaketekin erlazioa izan dezaketela iradokitzen dute (Kiebish *et al.*, 2008). CL defizientziak burdin homeostasi mitokondrial eta zelularren alterazioa dakar. Gainera, CLren kate azilikoan konposizioan dauden aldaketak eta CL kopuruaren murrizpena ere Barth sindromea pairatzen duten gaixoetan behatu dira.

Barth sindromea X-ari loturiko nahasmendu genetikoa da TAZ1 genean, tafazzina kodetzen duen genea, emandako mutazio batek sortzen du. Sindrome honek hurrengo ezaugarriak izaten ditu: miopatia kardiako eta eskeletikoa, mitokondria anormalak, neutropenia, arnasketa katearen kalteak eta azido 3-metilglutakoniko kontzentrazioaren gehipena gernuan. Gaixotasuna haurtzaroan hilgarria izaten da maiz, bihotz gutxiegitasun eta infekzio bakterianoak direla eta (Barth *et al.*, 1983; Barth *et al.*, 2004). Gaixoen fosfolipido analisisiek CL mailetan murrizpenak eta CL espezie molekular nagusiaren, hau da, tetralinoleoil (18:2) kardiolipinan murrizpen zorrotza erakusten dute. *Saccharomyces cerevisiae* legamien taz1 mutanteek Barth Sindromea duten gaixoez dituzten antzeko akatsak dituzte, modu honetan CLren birmoldaketa eta Barth Sindromea aztertzeko modelo ezin hobea direlarik (Brandner *et al.*, 2005; Claypool & Koehler, 2012a; Gu *et al.*, 2004; Ma *et al.*, 2004).

#### **1.1.4.4 CLrekin interakzionatzen duten proteinak**

CLk proteina mitokondrial askorekin interakzionatzen du eta CLra batuta dauden proteina ezberdinen egitura kristalinoetan hiru hondar hirukote desberdinen (KKY, RKY, eta HRN) interakzioek eragindako lotura estuak detektatu dira; ondorioz, "XXY" motiboa, CLri batzeko sekuentzia gisa proposatu da, non X eta Y hondar positibo eta polarrak diren hurrenez hurren. Iradokitutako motibo hauen hondarrak berez ez dira aminoazido sekuentzian jarraian agertzen, beraz azpiunitate ezberdinetako hondarrek lagundu lezaketela ondorioztatu daiteke (Palsdottir & Hunte, 2004). Hala ere, gaur egun eskuragarri dauden CL:proteina egitura kopuru murriztua dela-eta, XXY motiboa CL batzeko motibo komuna dela onartzea arretaz hartu beharreko zerbait da. Lutter eta lankideen ikerketan, CLak tBIDen batura sustatu lezakeela proposatu zen, MOMaren bigerua lipidikoaren ezaugarri fisikoak aldatuz eta ez tBID:CL interakzio zuzen eta espezifiko baten bidez (Lutter *et al.*, 2000).


CLrekin interakzionatzen duten proteina gehienak MIMean kokatzen dira. Berretsitako interakzio guztien artean, ADP/ATP garraiatzailea (AAC, ingelesetik *ADT/ATP Carrier*) CL:proteina interkazioa aztertzekeo modelo ezin hobea da. AACak MIMean zeharreko  $ADP_{in}$  eta  $ATP_{out}$  trukea eragiten du. AAC dimero bakoitzeko 6 CL molekula tinko lotuta daudela behatu izan da. CLren buru polarra da CL eta AACaren arteko loturari afinitate handia ematen diona (Claypool, 2009). Legamiaren AACak aztertzean behatu zen mutazio puntual batek (C73S) proteinaren aktibitatea gutxitzen duela CLren absentsian. CLren absentsian C73S mutanteak duen garraio falta, AAC dimero bakoitzeko lotuta egoten diren 6 CL molekula horietatik CL molekula gehien galerarekin erlazionatu zen. Beraz, CL legamien AACaren aktibatzailea dela ondorioztatu zen. Gainera,  $\Delta taz1$  legamietan ematen den CLren absentsiak AACaren oligomerizazioan eragina du (Brandner *et al.*, 2005), CL AACaren aktibitate egokirako ezinbestekoa dela egiaztatuz. Legamien AACentzat CLK duen garrantziaz gain, zenbait datuk CL beste organismoetan AACaren funtziorako beharrezkoa dela iradokitzen dute. Lehenego behaketa da araztutako abere bihotzeko AACak ere dimero bakoitzeko 6 CL molekula dituela (Beyer & Klingenberg, 1985; Hoffmann *et al.*, 1994). Bigarrena, legamiaren AACak giza AACarekin antzekotasun egituralk dituela eta hori antzekotasun funtzionalekin lotuta egon litekela (Fontanesi *et al.*, 2004; Palmieri *et al.*, 2005). Hirugarrena, bihotz muskuluko mitokondrioetatik isolatutako behi AACaren egitura kristalinoak hiru CL ditu (Nury *et al.*, 2005). Laugarrena, arratoi garun mitokondrioetatik erauzitako AACaren berreraiketak CL edo PG beharrezkoak ditu (Imai *et al.*, 2003). Behaketa guzti hauek CLK AAC funtzioan indartsuki parte hartzen duela adierazten dute. Hala ere, CLK AAC egoera fisiologiko normaletan nola laguntzen duen ez dago oraindik argi. AAC arnas kateko superkonplexuekin interakzionatzen duela frogatu izan zen eta interakzio hau CLren absentsian murriztu edo guztiz desagertzen zela ere bai (Claypool *et al.*, 2008).

Arnas kateko konplexuak maila altuagoko egiturak sortuz elkartzen dira, arnasketa superkonplexuak edo respirasomak deitzen direnak. Superkonplexu funtzionalen forma desberdinak daude baina badirudi I konplexua beste konplexuen menpekoa dela. Superkonplexuen kopuru eta osagaiei dagokionez zelula mota desberdinetan behatu diren desberdintasunak direla eta, "plastizitate modelo" proposatu izan zen, zeinak zelula mota eta egoera fisiologiko desberdinek arnasketa superkonplexu desberdinen sorrera dakartzaten iradokitzen duen (Vartak *et al.*, 2013).

Superkonplexu hauek elektroiz garraioaren efizientzia handitzen dutela uste da, baina berriki egindako ikerketa batzuek euren garrantzi funtzionala zalantzan jartzen dute (Trouillard *et al.*, 2011). I, II eta III konplexuentzat elkarketa faktore asko aurkitu izan dira. Superkonplexuen eraketan aurkitu zen lehengo elkarketa faktorea CL da. CLren kontzentrazioaren murrizketa, mintz potentzialaren gutxipenarekin, ATP sintesiaren murrizketarekin eta funtzio mitokondrial orokorraren gutxipenarekin erlazionatuta zegoela ikusi zen (Gohil *et al.*, 2004; Jiang *et al.*, 2000;

Santiago *et al.*, 1973). CL eta superkonplexuen arteko lotura agerian geratu zen Barth Sindromea duten gaixoetan superkonplexuak desegonkortuta daudela aurkitu zenean (McKenzie *et al.*, 2006). Ondoren CLK fisikoki I, III, IV eta V superkonplexuekin elkartzen dela zehaztu zen (Arnarez *et al.*, 2013a; Arnarez *et al.*, 2013b; Fry & Green, 1981). CL falta duten legamietan, superkonplexuen egonkortasuna eta garraio katearen kooperatibitatea erasanda dago (Bazán *et al.*, 2013; Claypool *et al.*, 2008; Fry & Green, 1981; Zhang *et al.*, 2005). Ondorioz, CLK superkonplexuen egonkortasuna mantentzen duela eta konplexu desberdinen arteko elektroio garraio efizientea mantentzen duela pentsatzea posiblea da.

CLK AACak arnasketa superkonplexuekin duen interakzioan ere hartzen du parte, izan ere, CLren absentsian AAC eta arnasketa superkonplexuen elkarketa murriztuta dago protoi garraio eta ATP ekoizpenaren akoplamenduaren murrizketa dakarrelarik. Ondorioz, AAC eta arnasketa superkonplexuetan ematen diren aldaketa egiturak ondorio funtzionalekin zuzenki erlazionatuta daude, zeintzuetan CLak berebiziko garrantzia duen (Claypool *et al.*, 2008; Claypool, 2009) (1.12 Irudia).



**1.12 Irudia. CLak fosforilazio oxidatiboaren efizientzia handitzen duen moduaren modeloa. A)** CLK cyt c-aren (karratu urdinak) garraioa errazten du III konplexuaren (obalo gorriak) eta IV konplexuaren (obalo moreak) III<sub>2</sub>IV<sub>2</sub>-AAC<sub>2</sub> superkonplexua egonkortuz eta AAC-aren (karratu grisak) aktibitatea areagotzen du. **B)** CLren absentsian, elektroio garraio katearen aktibitate absolutua gutxitzen da arnasketa superkonplexuen desegonkortze partziala dela eta, elektroio garraio katearen protoiak ponpatzeko gaitasuna deszentralizatuta dago, eta AAC<sub>2</sub> elektroio garraio katetik urrunago egotera pasatuko da. (Claypool, 2009)-tik hartutako irudia.

Mintzeko proteinekin edo proteina konplexuekin interakzioak izateaz gain, CLk cyt c bezalako proteina solugarriekin ere interakzioa dezake. Cyt c arnasketa kateko osagaietako bat da. Cyt c-aren %15 inguru dago CLri irmoki lotuta, gainerako proteina aske edo mintzarekin interakzio elektrostatikoa bidez ahulki lotuta aurkitzen da (Ott *et al.*, 2002; Sinibaldi *et al.*, 2013). Cyt c 104 amino azidoz osatutako kate bakarreko hemo proteina da, cyt c erreduktasa eta cyt c oxidasaren artean elektroiz garraiolari moduan funtzionatzen duena. Mitokondriotik askatzen denean, APAF-1 (ingelesetik, *Apoptosis Protease Activator Factor*) proteinari elkartuko zaio zitosolean eta konplexua eratuko dute, zeinak 9 pro-kaspasa aktibatuz, heriotz zelularrean amaituko den kaskada entzimatikoa ekarriko duen (Sinibaldi *et al.*, 2008). Gainera, CLri batuta dagoenean cyt c-ak CL peroxidazioa katalizatzen du, MOMP prozesuan lagunduz (Kagan *et al.*, 2005; Muenzner & Pletneva, 2014).

Cyt c:CL interakzioari buruzko lehenengo ikerketek cyt c-ak CLrekin bi gune desberdinen bitartez interakzionatzen duela erakutsi zuten, A gunea eta C gunea. A gunea positiboki kargatutako hondarrez osatuta dagoela uste da, non CL eta cyt c-aren arteko interakzioa elektrostatikoa izango den eta desprotonatutako CLk parte hartzen duen. Bestetik, C gunean ematen den CL:Cyt c interakzioa hidrofobikoa da eta cyt c N52 eta protonatutako CLren artean ematen den H-loturaz egonkortuta dago. CLren kate aziliko bat cyt c-aren gune hidrofobikoan barneratuta egongo da, beste guztiak fosfolipidoz osatutako bigeruzan barreiatuta egongo diren bitartean (Rytomaa & Kinnunen, 1995). Geroagoko ikerketa batek proteinaren interakzio gunea hemo-lotura gunean kokatutako eta positiboki kargatutako hondarrak dituen gunean kokatzen du. Albo kate horiek eratutako arrailak kate azilikoaren barneraketa baimentzen duela proposatu izan da, kate aziliko sakonki barneratuko delarik proteinaren hemo gunera iritsi arte (Kalanxhi & Wallace, 2007). Berriki, CLren bi kate aziliko, eta ez bakarrik bat konplexuaren eraketan proteinen barneratuko direla proposatu da. Modelo honen arabera, konplexuaren eraketan CLren talde fosfato eta proteinaren K79 eta K72 hondarren arteko interakzio elektrostatiokoek hartzen dute parte (Sinibaldi *et al.*, 2010, 2013).

Cyt c eta CLren arteko interakzioak proteinaren egitura tertziarioan aldaketak eragiten ditu, hemo batuketa gunean aldaketak ematen direlarik. Proteinak duen enpaketaketa-gutxieneko konformazioak, hidrogeno peroxidoa bezalako molekula txikien sarrera hemo gunera errazten du. Fosfolipidoa batuta duen cyt c-ak peroxidasa aktibitatea eskuratuko du, zeina apoptosiko garai goiztiarretan kritikoa den, CLrekiko espezifikoa den peroxidasa bezala funtzionatuz (Sinibaldi *et al.*, 2008). Peroxidatutako CL cyt c-aren MIMetik askapena eragiten duela ikusi da esperimenterik (Kagan *et al.*, 2005; Orrenius *et al.*, 2007; Ott *et al.*, 2007) MOMean eratu daitezkeen poro bidezko cyt c askapena ahalbideratuko duena. Beraz, CL eta cyt c-aren arteko interakzioak apoptosiaren seinalizazioan zehar askatuko den cyt c kopurua baldintzatzen du eta CLren modulazioa ere prozesu apoptotikoan zeharreko cyt c-aren askapenerako funtsezkoa da

(Ott *et al.*, 2002). Berriki, irudi fluoreszenteen analiziak cyt c-ak berak bakarrik poroak eratzeko duen gaitasuna erakutsi dute. Cyt c:CL interakzioak mintz kurbatura negatiboa eratzten du eta destolestutako cyt c konformeroek poroaren eraketa erraztu dezaketela proposatzen dute (Xu *et al.*, 2013).

MOMaren permeabilizazio mekanismoan BCL2 familiako kideek hartzen dute parte eta proteina pro- eta anti-apoptotikoen arteko ratioa izango da zelulak apoptosian sartzeko duen sentikortasuna zehaztuko duena. Proteina pro-apoptotikoetako bat BID da, 8 kaspasa proteinak moztu ostean tBID deituriko moztutako forma hartuko duena. Orain dela 10 urte baino gehiago, tBID BAX eta BAK proteinetan N-terminaleko aldaketa konformazionala eragiteko arduraduna dela aurkitu zen, bi proteina hauen (BAX eta BAK) oligomerizazio eta MOMean txertaketa ekarriko lukeena (Desagher *et al.*, 1999; Eskes *et al.*, 2000; Wei *et al.*, 2001). Proteina birkonbinatuak eta CLrik gabeko mintz modelo sistemak erabiliz egin ziren saio azelularrek, tBID BAXen mintzeko txertaketa eragiten zuela, baina ez zuela BAXen oligomerizaziorik eragiten egiaztatu zuten (Roucou *et al.*, 2002). BAXen oligomerizazioa MOMP gertatzeko ezinbesteko pausua zela uste zenez (Antonsson *et al.*, 2000), elementu kritikoa saioan falta zela ondorioztatu zen, eta horrela, CL hautagai gako bezala aurkeztu zen (Kuwana *et al.*, 2002). Beraz, tBID mintzeko mikrodomeinuetan kokatzen dela proposatu zen eta bertan BAX CLan aberatsa den ingurune horretara bilduko lukeela (Lutter *et al.*, 2000, 2001). Testuinguru honetan, CLren funtzioa tBID mitokondriora bideratzea izango litzateke (Gonzalez *et al.*, 2008; Jalmar *et al.*, 2013; Ott *et al.*, 2002), nahiz eta bere funtzioa MTCH2/MIMP (ingelesez, *Mitochondrial Carrier Homologue 2/Met-induced Mitochondrial Protein*) proteinarekin gainjarri edo sinergizatu daitekeelarik, izan ere proteina hau tBIDen hartzaile bezala funtziona dezakeela proposatu izan baita (Zaltsman *et al.*, 2010).

CLren funtsezko ezaugarria mintzen kurbatura aldatzeko gaitasuna eta egitura ez-lamelarrak eratzeko duen gaitasuna da (Ortiz *et al.*, 1999). Mintzaren asaldatze hauek BAXen oligomerizazioa edota poro eraketa erraztu lezakete. Mintz antolakuntzaren asaldatzeak tBID bezalako BCL2 familiako proteinek ere eragin dezakete, izan ere tBID bigeruz lipidikoan asaldura egitura eragiten duela behatu baita (Epanand *et al.*, 2002; Terrones *et al.*, 2008). Kontrobertsia sortzen da tBIDen "CL batzeko gunea" identifikatzen saiatzean, bai H4, H5 eta H6 helizeetan (Lutter *et al.*, 2000), zein H6, H7 eta H8 helizeetan (García-Sáez *et al.*, 2004; Hu *et al.*, 2003; Oh *et al.*, 2005) kokatua izan dena. Berriki, gunea H6 helizera murriztu izan da, non 157 eta 158 lisinak CLrekin modu elektrostatiakoan interakzionatzeko arduradunak direla ematen duen, modu horretan bigeruz lipidikoan asaldurak sortuz eta ondorioz BAX/BAK en oligomerizazioa eta MOMP erraztuz (Gonzalez *et al.*, 2010; Petit *et al.*, 2009).



CL apoptosiaren bidezidor intrintsekoan parte hartzeaz gain, II motatako apoptosi estrintsekorako ere ezinbestekoa da. Bidezidor estrintsekoak TNF superfamiliako kide diren (ad., TNF- $\alpha$ , Fas ligand [FasL]/Apo1L/CD95L, Trail/Apo2L, Apo3L) "heriotz ligando" extrazelularretan ematen diren seinaleak itzultzen ditu. Ligando hauek aurretik eraturako hartzaile konplexuetara batuko dira eta batuketa honek 8 kaspasaren aktibazioa dakar, FADD (ingelesetik, *Fas-associated Death Domain*) molekula adaptatzailearen bidez. 8 kaspasak, kaspasa efektoreak (3 kaspasa eta 7 kaspasa) edo BID aktibatuko du, tBID-en eraketa ekarriko lukeena eta CLrekin interakzionatuko lukeena bere urkila domeinuraren bidez (Gonzalez *et al.*, 2010). CLk 8 kaspasarentzat mitokondriako mintz gainazalean aingura eta ezinbesteko aktibazio plataforma sortzen duela behatu da (Gonzalez *et al.*, 2008). CLren absentiak eragindako asoziazio honen blokeoak 8 kaspasaren aktibazioaren inhibizioa dakar, BID-en mozketa inhibituz eta apoptosi ekidinez (Gonzalez *et al.*, 2013). CL:8 kaspasa interakzioaz gain, 8 kaspasaren translokazioa bideratzen duten proteinekin, BAR eta FLASH besteak beste, emandako interakzioek ere 8 kaspasaren eta CLren arteko erlazio funtzionalean paper laguntzaile bat izan dezakete (Jalmar *et al.*, 2013).

Bete behar dituen funtzio guztiak bete ahal izateko, mitokondrioak 1000 proteina inguru behar ditu, proteina guzti horien %99 nukleoan kodetzen dira eta erribosoma zitosolikoetan aitzindari bezala sintetizatzen dira, ondoren mitokondriora garraiatuko direlarik. Mintz mitokondrialak proteina aitzindari horien ezagumendu, translokazio eta mintz txertaketarako makinaria espezifikoak ditu (translokasak). Translokasa horietako batzuen eraketak CL behar dute. Kanpoko mintzeko translokasa (TOM; ingelesetik *Translocase of the outer Membrane*) eta sailkapen eta elkarketa makinariaren (SAM; ingelesetik *Sorting and Assembly Machinery*) kasuan adibidez. Gebert *eta lank.* erakutsi zuten TOM eta SAM konplexuen BN-SDS-PAGE patrioiak CLrik gabeko mitokondrioetan desberdinak zirela eta CLrik gabeko legami mutanteek proteina tolespen bidezidorretan atzerapenak zituztela (Gebert *et al.*, 2009). Behaketa hauek guztiak kontutan hartuz, CL translokazio konplexuen antolakuntzan funtzioaren bat izan lezakeela eta CLren galerak edo aldaketak mitokondrioko kanpo mintzeko zenbait proteinen tolespen prozesua kaltetu lezaketela iradokitu zuten.

Baina CL ez dago bakarrik kanpo mintzeko proteinen translokazio prozesuan inplikaturik, horretaz gain barne mintzeko proteinen translokazioan ere hartzen du parte. Zentzu honetan, CLk TIM23ren mintz txertaketa handitzen duela ikusi da, CLk preproteinen barneraketan eragina izan dezakeela iradokituz (Bajaj *et al.*, 2014; Kutik *et al.*, 2008; Van der Laan *et al.*, 2007).

Horretaz gain, CL dinamika mitokondrialetan ere parte hartzen du. Izan ere, CL Mgm1 eta OPA1en, MIM fusioa gertatzeko beharrezkoak diren proteinak legami eta ugaztunetan hurrenez hurren, monomerotik dimerorako prozesuaren erregulazioaren arduraduna dela behatu baita (Ban *et al.*, 2010; DeVay *et al.*, 2009; Rujiviphat *et al.*, 2009). Gainera, CL fisio mitokondrialetan

parte hartzen duen DRP1 proteinaren aktibazio funtzionalerako ezinbestekoa dela ematen du (Bustillo-Zabalbeitia *et al.*, 2014; Macdonald *et al.*, 2014; Ugarte-Urbe *et al.*, 2014).

### **1.1.5 FUSIO/FISIO MITOKONDRIALAREN MAKINARIA**

Sare mitokondrialak oso dinamikoak dira eta fusio eta fisio zikloen bitartez birmoldaketa jarraia pairatzen dute. Gainera, sare mitokondrialak birmoldaketa endekatua pairatu dezake estres zelularra, energia eskaera aldaketa eta kaltzio maila intrazelularrean emandako gorabeheren ondorioz (Autret & Martin, 2009; Kasahara & Scorrano, 2014; Mishra & Chan, 2014). Mitokondriaren morfologia kontrolatzeaz gain, fusio eta fisio prozesuak mitokondria populazioaren propietate funtzionalak mantentzeko ere beharrezkoak dira. Gainera, dinamika mitokondrialak garapen prozesu eta apoptosian ere inplikaturik dago (Kasahara & Scorrano, 2014; Mishra & Chan, 2014).

Fisio eta fusio mitokondrialean parte hartzen duten proteina nagusiak dinaminen superfamiliako kideak dira, mintz egitura berrantolatzeko gaitasun intrintsekoa duen proteina taldea da, oligomerizazio eta GTP hidrolisiaren menpekoko delarik beraien funtzioa. Dinamika mitokondrialean parte hartzen duen identifikatutako lehenengo genean Fzo (ingelesetik, *Fuzzy Onion Gene*) izan zen, *Drosophila melanogaster* espermatogenesisian parte hartzen duten geneen proba batetik isolatu zena (Hales & Fuller, 1997). Fzo GTPasen mitofusina familiaren sortzailea da. Aurkikuntza honek dinamika mitokondrialaren oinarri molekularren ezagumenduan aurrerapausu azkarrak lortzea baimendu zuen.


#### 1.1.5.1 Fusio makinaria

Fusio mitokondrialaren makinariaren muina legamietatik gizakietara kontserbatutako bi proteinaz osatuta dago: MOMeko GTPasa den Fzo/Mitofusina eta MIMeko Mgm1/OPA1.

Mitofusinak kontserbatutako GTPasak dira mitokondriako kanpo mintzean kokatzen direnak. Fzo1 proteina legamietan aurkitzen dugu eta bi homologoak, mitofusina 1 (MFN1) eta mitofusina 2 (MFN2) ugaztunetan. Giza MFN1 eta MFN2 %63-ko antzekotasuna dute eta domeinu funtzional berdinak dituzte, C-terminalean kokatutako transmintz domeinua bi bider MOMa zeharkatuko duena eta coiled-coil domeinua, baita heptada errepikapen domeinu (HR2) bezala ezagutzen dena, eta N-terminalean kokatutako GTP-batzeko domeinua eta beste coiled-coil domeinua (HR1) (1.13 Irudia).

GTPasa domeinuak 5 GTPasa motibo ditu, G1, G2, G3, G4 eta G5. G1 motiboak GTP molekularren fosfatoa lotzen du, G3 motiboak hidrolisirako beharrezkoa den  $Mg^{2+}$  koordinatzen du, G1, G2 eta G3 motiboek zentro katalitiko osatzen dute eta G4 eta G5 motiboek GTP batzeko konformazio espezifikoak ematen dute (Bourne *et al.*, 1990, 1991; Zorzano *et al.*, 2010). Heptada

errepikapen hidrofobikoak sekuentzia motiboak dira zeintzuetan zazpi hondarretako tandem errepikapenetako lehen eta laugarren posiziotan hondar apolarrek kokatuta dauden eta coiled-coil helize egiturak osatzen dituzten. Legamien Fzo1 proteinak hirugarren heptada errepikapen gunea du N-terminalean (HRN) (Zhang & Chan, 2007). HR2 domeinua ondoz ondoko bi mitokondrioen arteko elkarketan parte hartzen du, coiled-coil egitura dimeriko antiparalelo baten bidez lortzen delarik, zeina homotipikoa (MFN1-MFN1) edo heterotipikoa (MFN1-MFN2) izan daitekeen (Chen *et al.*, 2003; Koshiba *et al.*, 2004).



**1.13 Irudia. Mitofusina eta Fzo1 proteinen domeinuak eta egitura.** (Griffin *et al.*, 2006 and Zhang & Chan, 2007)-etik moldatutako irudia.


Proteina hauek fusio mitokondrialean duten parte hartzea euren geneen “knocking down”-ak egiten aurkitu zen.  $\Delta$ Fzo1 legamietan mitokondriak fragmentatuta daude eta mtDNA galtzen da (Westermann, 2003). Ugaztunetan, MFN1 edo MFN2ren galerak heriotz enbrioniko goiztiarra dakarrenez, mitofusinak garapen enbrioniko goiztiarrerako garrantzitsuak direla proposatu da (Chen *et al.*, 2003). Bestalde, MFN2ren gainadierazpenak mitokondrioen multzokatze perinuklearra eragiten du, lotura intermitokondrialaren bitartekaria izateko gaitasuna duela iradokitzen duena (Rojo *et al.*, 2002). Mitokondriaz osatutako multzo hauek mitokondria fragmentatu txikien agregatuak direla behatu zen (Huang *et al.*, 2007). Horretaz gain, MFN2 genean ematen diren mutazioak Charcot-Marie-Tooth (CMT) izeneko nahasmedu neurologikoaren sorreraren arduradunak dira (Cartoni *et al.*, 2010; Chung *et al.*, 2006; Kijima *et al.*, 2005; Verhoeven *et al.*, 2006; Züchner *et al.*, 2004). Dinamika mitokondrialean duten funtzioaz gain, mitofusinek ER itxura eta mitokondrio:ER lotura erregulatzen dute. MFN2 kentzen denean ERak besikula luzeak eratzen dituela behatu zen, MFN2 proteinak ER tubulazioan paper bat izan lezakeela iradokituz. CMT gaixotasuna eragin dezaketen MFN2 mutazioek ER:mitokondrio arteko loturan ondorioak izan dezakete eta ER:mitokondrio lotura  $Ca^{+2}$  seinalizazioarekin lotuta dagoenez, zelula hauetan  $Ca^{+2}$  seinalizazioa asko murrizten da (de Brito & Scorrano, 2008).

Arestian aipatutako arrazoiengatik mitofusina mailak kontuz erregulatuta egon behar dute. Fzo1 proteinaren degradazioa erregulatzeko bi modu behintzat badaude. Lehen mekanismoan

MDM30 proteinak hartzen du parte, zeina SCF E3 ubiquitin ligasa konplexuaren osagaia den. Konplexu honek zenbait proteina ubiquitinatzen ditu eta ondoren 26S proteasomak degradatuko ditu (Escobar-henriques *et al.*, 2006). Mekanismo honek orekan dagoen hazkuntza zehar funtzionatuko du. Bigarren mekanismoa parekatze-garaian ematen da eta ez du MDM30 proteinaren beharrik, baina ubiquitina eta proteasomaren menpeko prozesua da eta  $\alpha$ -parekatze feronomaren ostean ematen da (Neutzner & Youle, 2005).

Ugaztunen mitofusinen kasuan, BAX eta BAK molekulek MFN2 funtzioa erregula lezaketela iradokitzen duten zenbait emaitza badaude. BAXen adierazpenak MFN2ren lokalizazioa MOMera mugatzen du, MFN2ren mintz mugikortasuna murrizten du eta MFN2ren konplexu eraketa areagotzen du. Ondorioz, kasu honetan BAX eta BAK proteinek funtzio ez-apoptotikoa izan lezakete MFN2 bitartez fusio mitokondrialak eraginez (Youle & Karbowski, 2005). BAX eta BAK proteinaz gain, mitofusinekin elkartzen diren zenbait proteina identifikatu dira, MIB (Ingelesetik, *Mitofusin-binding Protein*) (Eura *et al.*, 2006), Stoml2 (ingelesetik, *Stomatin-like Protein 2*) (Hájek *et al.*, 2007) eta MARCH-V (ingelesetik, *Membrane Associated RING-CH-V*) besteak beste (Nakamura *et al.*, 2006).

Fusio mitokondrialaren makinariako bigarren osagaia OPA1 proteina da (Mgm1 legamietan). OPA1 aurkitua izan zen bere genearen mutazioek atrofia optiko autosomiko dominantea (ADOA, ingelesetik *Autosomal Dominant Optic Atrophy*) gaixotasuna eragiten dutelako (Alexander *et al.*, 2000). OPA1 dinamarekin erlazionatutako GTPasa bat da zeina mintz arteko gunean kokatu daitekeen egoera solugarrian edo MIMera lotuta ager daitekeen. Proteinak mitokondriara bideratzeko sekuentzia (MTS, ingelesetik *Mitochondrial Targeting Sequence*) du N-terminalean, lokalizazio mitokondrialak baimentzen diona. Gune honek ere prozesamendu mitokondrialak duen peptidasarako (MPP, ingelesetik *Mitochondrial Processing Peptidase*) hiru usteko mozketak gune ditu. MTSaren ostean, usteko transmintz domeinua du jarraian dauden bi segmentu hidrofobikoz osatuta dagoena, gero coiled-coil domeinua, GTPasa domeinua, middle domeinua eta GED domeinua izan daitekeen C-terminaleko coiled-coil domeinua ditu (1.14 Irudia)(Zhang & Chan, 2007).




**1.14 Irudia. OPA1/Mgm1 proteinen domeinuak eta egitura.** (Griffin *et al.*, 2006 and Zhang & Chan, 2007)-tik moldatutako irudia.

Bai OPA1, bai Mgm1 proteinak itzulpen osteko prozesamendua jasaten dute. Mgm1 orekan bi isoforma desberdinetan agertu daiteke, isoforma luzean (l-Mgm1) edo laburrean (s-Mgm1). l-Mgm1 aitzindaria MIMera doanean eta bertan MTS gunean MPPak mozten duenean ekoizten da. MTS mozketa ematen den unean, aitzindaria TIM konplexuarekin asoziatuta egon daitekeela uste da. TIM konplexutik lateralki kanporatua bada l-Mgm1 sortuko da, MIMarekin bere lehen segmentu hidrofobiko bidez lotuta egongo delarik. TIM konplexutik irtetzeko prozesua atzeratzen bada, aitzindaria matrizerara bideratuko da bigarren segmentu hidrofobikoa MIMera lotuko delarik. Puntu honetan, proteasa ronboide mitokondrialak (Rbd1/Pcp1), Mgm1 bigarren mozketa gunean moztuko du eta s-Mgm1 sortuko da (Herlan *et al.*, 2004; Mcquibban *et al.*, 2003). Prozesu hau Ups1 proteinak erregulatzen du, barne mintzarekin asoziatutako proteina mitokondrial dena (Sesaki *et al.*, 2006).

Ugaztunetan OPA1 zenbait isoforma desberdinetan aurkitu daiteke, transkripzio-osteko eta itzulpen-osteko erregulazioz sortuak. Gizakietan, 8 mRNA isoforma desberdin aurkitu ditzakegu moztitsasketa alternatiboz sortuak. OPA1 proteinak aitzindari bezala ekoizten dira N-terminalean MTS dutelarik. Inportazio mitokondrialean zehar, MPP bidezko mozketa aitzindariaren 87-88 hondarretan gertatzen da matrizean L-isoforma eratzeko. Ondoren, bigarren prozesamendua ematen da 194-195 hondarretan S1 isoforma sortuz. 7. bariantearen kasuan, prozesamendu proteolitikoak jarraitzen du eta 217-223 hondar inguruan ematen da, horrela S2 isoforma sortuko delarik (Ishihara *et al.*, 2006). Mozketa hau hiru proteasa desberdinek egin dezakete: PARL (ingelesez, *Preselinin-associated rhomboid-like protease*), i-AAA protease den Yme1L eta m-AAA proteasa den paraplegina (Song *et al.*, 2007; Zorzano *et al.*, 2010). Proteasa guzti horietaz gain, OMA1, MIMean kokatutako M48 familiako zink metaoproteasak OPA1en inaktibazio proteolitikoan funtsezkoa eta ez errendundantea den papera joka dezakeela aurkitu izan da (Quirós *et al.*, 2012).


MIMarekin duen asoziazioa dela eta MIM fusioa aurrera eramateko hautagai ona izan litekeela proposatu zen. Hain zuzen ere, legamietan ematen den fusio mitokondrialerako Mgm1 guztiz beharrezkoa dela argi ezarrita dago (Sesaki *et al.*, 2003). Fusio mitokondrialean betetzen duen paperaz gain, OPA1/Mgm1 faltan zuten zelulek oso gangar desantolatuak zituztela behatu zen, gangar birmoldaketan izan lezaketan parte hartzea iradokituz (Griparic *et al.*, 2004). Gainera, OPA1 proteinan zelulak apoptositik babestu ditzakeela proposatu da, gangar arteko loturen diametroa mugatuz eta ondorioz cyt c askapena saihestuz (Frezza *et al.*, 2006).



**1.15 Irudia. Legamietako fusio mitokondrial konplexua.** (Griffin *et al.*, 2006)-tik hartutako irudia.

Arestian aipatu den bezala, OPA1 mutazioek ADOA eragiten dute, erretinako ganglio zelulen galeraren ondorioz sortutako nerbio optikoaren endekapena (Alexander *et al.*, 2000). ADOA gaixotasunaren aleloek OPA1 proteinaren ezaugarri biokimikoak kaltetuta dituztela deskribatu zen, batez ere lipidoekin elkartzeko duten gaitasuna. OPA1-s isoforma bigeruz lipidikoarekin interakzionatu dezake, elkarrekintza honek GTPasa aktibitatea areagotzen duelarik. CL, MIMeko negatiboki kargatutako lipidorik ugariena izanik, OPA1 aktibitatea erregula dezakeen lipidoa izan litekeela proposatu da (Ban *et al.*, 2010). Gainera, OPA1 proteinaren homologoa den legamietako s-Mgm1 proteinak ere lipidoekin interakzionatu behar du bere aktibitatea egokia izan dadin (Rujiviphat *et al.*, 2009). ADOA gaixotasuna eragiten duten beste zenbait mutazio patogenikoek, OPA1 proteinaren adierazpenaren murrizpena eragiten dute, fosforilazio oxidatiboaren urritasun nabariarekin erlazionatuta dagoena, batez ere I konplexuarekin erlazionatutakoa. OPA1 eta AIF fisikoki interakzionatzen dutela behatu zenez, AIF eta OPA1 proteinek konplexu bat era lezaketeela proposatu zen, I konplexuaren egonkortasunean eta erregulazioan funtzioaren bat izan lezakeena (Zanna *et al.*, 2008).

Ugo1 legamien fusio makinariako hirugarren osagaia da, orain arte proteina honen homologorik ez delako ugaztunetan aurkitu. Ugo1 MOMean kokatzen den proteina da, N-terminala zitosolean eta C-terminala mintz arteko gunean kokatuta dituelarik (Sesaki & Jensen, 2001). Ugo1, Fzo1 eta Mgm1 proteinak fusio konplexu bat eratuz elkartzen direla deskribatu zen. Ugo1en N-terminalak Fzo1 lotzen du eta Ugo1en C-terminalak Mgm1 lotzen du. Ugo1 kanpo eta barne mintzen arteko aldamio bezala joka lezake bi mintzen arteko fusio prozesuak koordinatuz (1.15 Irudia) (Sesaki & Jensen, 2004).




**1.16 Irudia. Mitokondrioen arteko lotura modeloa.** (Chan, 2006b)-tik hartutako irudia.

Fusio mitokondrialak matrizeko edukien nahasketa dakar, kanpo eta barne mintzak era koordinatu batean fusionatu behar direla iradokitzen duena. Bi prozesu hauek irmoki koordinatuta daude, nahiz eta indibidualak eta mekanistikoki desberdinak diren. Kanpo mintzeko fusioa gertatzeko euren artean hurbiltzen dauden bi mitokondriak lotu behar dira konexio pausu batean. Lotura hau MFN1/MFN2 proteinek gauzatuko dute ugaztunetan edo Fzo1 proteinak legamietan. Mitofusinek konplexuak *trans* moduan eratzea posiblea da, hau da, ondoz-ondoko bi mitokondrioen artean, beraz beharrezkoa da proteina hauek fusionatuko diren bi mintzetan aurkitzea. Ikerketa biokimikoek adierazten dute MFN1en HR2 domeinua beste MFN1en HR2 domeinuarekin oligomerizatzeko gai dela, baina baita MFN2ren HR2 domeinuarekin ere. Horrela, konplexu homotipiko zein heterotipikoak era daitezke (Chan, 2006b) (1.16 Irudia).


Egitura honek aposizio hertsia baimenduko du, baina oraindik hutsune nabaria egongo da. Fusioa gertatzeko aldaketa konformazional bat beharrezkoa da, zeina mintz mitokondrialen arteko hurbilketa areagotuko duen. Aldaketa konformazional hau GTPasa domeinuan gertatuko da eta nukleotidoen menpekoea izango da. Kanpo mintzeko fusioa amaitzean, OPA1 fusioa emango deneko bi barne mintzetan egon beharko da. Mgm1en isoforma luzeak bi mintzak lotuko dituela eta isoforma laburraren GTPasa menpeko konformazioa bideratuko dituela proposatu da, horrela barne mintzaren bigeruz lipidikoaren nahasketa ematen hasiko da (Griparic *et al.*, 2007; Westermann, 2010). Kanpo eta barne mintzako fusio makinarien arteko koordinazioa emateko Ugo1 proteina dago legamietan. Ugo1 proteinak bi proteinek (Fzo eta Mgm1) interakzionatzen du fisikoki, bi prozesu desberdin hauen arteko koordinazioan parte

hartu lezakeela iradokitzen duena. Hala ere, Ugo1ekiko egituralki edo funtzionalki baliokideak diren proteinak ez dira ugaztunetan aurkitu (Sesaki & Jensen, 2004) (1.17 Irudia).



**1.17 Irudia. Ugaztunetako eta legamietako fusio makinariako osagai nagusien eskema.** (Tamura *et al.*, 2011)-tik hartutako irudia.

Fusio mitokondrialaren prozesua organuluaren funtzio normalerako guztiz ezinbestekoa da eta funtzio askotan hartzen du parte. Adibidez, fusio mitokondrialak mtDNAren herentzia eta mantenurako garrantzitsua da. Fusioak nukleo konplementu osoa eta mitokondrioren kodetutako produktu genetikoak dituen mitokondria populazioa mantentzeko funtsezko mekanismoa dela uste da. Mitokondrioren fusioa eta mitokondriako gene produktuen konplementazioa zahartze prozesuaren aurkako defentsa mekanismoak dira. Horretaz gain, ATP ekoizpen handia behar duten estres egoeretan fusioa areagotzen dela behatu da, fusioa energia eskaera handiko egoeretan energiaren mantenurako garrantzitsua ere badela iradokitzen (Westermann, 2010) (1.18 Irudia).




**1.18 Irudia. Dinamika mitokondrialen funtzio biologikoak.** (Westermann, 2010)-tik moldatutako irudia.



### 1.1.5.2 Fisio makinaria

Fisio mitokondrialaren erregulatuak nagusia GTPasen dinamika familiako kide den proteina zitosolikoa da, DRP1 ugaztunetan eta DNM1 legamietan. DRP1 80KDa dituen proteina da, batez ere dimero edo tetramero moduan agertzen dena soluzioan eta mintzekin batu ostean oligomero handiagoak eratzen dituena. DRP1 proteinak dinamikekin hiru domeinu elkarbanatzen ditu; N-terminalean kokatutako GTPasa domeinua, DRP1 multimerizazioan parte hartzen duen Middle domeinua, eta oligomerizazioarekiko menpekota den GTPasa aktibateterako ezinbestekoa den C-terminalean kokatutako GTPasa domeinu efektorea (GED, ingelesetik *GTPase Effector Domain*) (Elgass *et al.*, 2013; Smirnova *et al.*, 2001) (1.19 Irudia). Horretaz gain, DRP1 proteinak B intsertoa deituriko domeinua ere badu middle domeinu eta GED domeinuen artean kokatuta dagoena, B intserto hau DRP1 funtzioaren erregulazioan parte hartu lezake (Strack & Cribbs, 2012).




**1.19 Irudia. Giza DRP1 proteinaren egitura. A)** Egituran oinarritutako DRP1 proteinaren domeinuak. DRP1ek lau domeinu aurkezten ditu: GTPasa domeinua (G), G domeinutik stalk domeinurako aldaketa konformazionalen transmisioan parte hartzen duen BSE domeinua (ingelesetik *Bundle Signalling Element*), DRP1 funtzioaren erregulazioan parte hartzen duen B intsertoa eta DRP1en multimerizazioan parte hartzen duen stalk domeinua. **B)** DRP1 proteinaren egitura (4BEJ), X-izpien difrakzio bidez lortutako egitura da 3.48 Å –etako erresoluzioa duena. (Fröhlich *et al.*, 2013)-tik hartutako irudia.

Bi proteinak, bai DNM1 bai DRP1 zitosolean kokatzen dira eta mitokondriora translokatzeko dira euren funtzioa bete ahal izateko. Behin mitokondriara translokatzeko direnean, seguruenik CLAN aberatsak diren gune diskretuetan kokatzen dira, etorkizunean fisio guneak izango diren lekuetan (Bustillo-Zabalbeitia *et al.*, 2014; Macdonald *et al.*, 2014; Ugarte-Urbe *et al.*, 2014). DRP1/DNM1 proteinak mitokondriora bideratzeko zenbait hartzaile edo proteina adaptatzailek ere parte hartu lezaketela proposatu izan da.

FIS1, MOMean eta baita peroxisometan zehar modu uniformearen barreiatutako proteina, DNM1 proteina baten adaptatzaile bezala joka lezake legamietan (Autret & Martin, 2009; Mozdy *et al.*, 2000). FIS1 DNM1ekin zuzenki batzen da bi adaptatzaileetako baten bidez, MDV1 edo CAF4. Berriki argitaratutako analisi egiturek erakusten dute MDV1 proteinak antiparaleloak diren coiled-coil egiturak sortuz dimerizatzen dela, modu horretan bi FIS1 molekulen azalera ahurren artean kokatuz (Egass *et al.*, 2013; Zhang *et al.*, 2012). Beraz, DNM1 proteinak MDV1 proteinarekin B intsertoan kokatutako lau hondar hidrofobikoen bidez interakzionatuko du (Bui *et al.*, 2012). Normalean gune hau proteina barnealdean kokatuta dago, interakzioa baimentzen duen konformazio aldaketa bat beharrezkoa dela iradokitzen duena. MDV1 proteinak lehentasunezko batuketa ematen duenez GTP batuta duen DNM1en formarekin, aldaketa konformazional hori GTPak suspertu lezakeela proposatu da (Cervený & Jensen, 2003; DeVay *et al.*, 2009; Naylor *et al.*, 2006). Fisio mitokondrialak gero DNM1en oligomerizazioarekin egiten du aurrera, modu horretan organuluaren inguruan espiralak sortuko dituelarik. DNM1 nukleotido egoera desberdinetan diametro maila desberdin askotako oligomeroak eratzeko gai da, horrek DNM1 oligomeroek mitokondrioen *in vivo* konstrikzioa ahalbideratuko lukeen plastizitatea dutela iradokitzen du (Mears *et al.*, 2011). Azkenik, DNM1 espiralek GTP hidrolisia eman ostean mintz mitokondrialak fisionatuko dituzte (Westermann, 2010).

Berriki, fisio mitokondrialean bitartekotza egiten duten eta FIS1 proteinarekin elkarreragiten duten bi proteina aurkitu dira legamietan, NUM1 eta MDM36. NUM1 eta MDM36 proteinek DNM1ekin mitokondrioa zelula-azalarekin aktinaren bidez lotzeko interakzionatzen dutela iradokitu da, modu horretan banaketa mitokondrialak erraztuko litzateke mintz tensioaren ondorioz (Cervený *et al.*, 2007; Hammermeister *et al.*, 2010). Beraz, legamietan bi DNM1-fisio konplexu daude, lehena DNM1/MDV1/FIS1 proteinez osatutakoa eta bigarrena DNM1/NUM1/MDM36 proteinek osatzen dutena (1.20 Irudia). Proteina konplexu hauen eraketa erregulatzen duten mekanismoak ez dira oraindik ezagutzen.



**1.20 Irudia. Fisio mitokondriala legamietan.** **A)** DNM1 biltze plataforma FIS1 proteinaz eta MDV1(CAF4) proteina adaptatzailearen dimeroez osatutakoa **B)** Bigarren fisio konplexua non DNM1 zelula azalera lotuta dagoen NUM1 eta MDM36 proteina laguntzaileen bitartez. (Elgass *et al.*, 2013)-tik moldatutako irudia.

Ugaztunetan, gero eta datu gehiagok iradokitzen duen DRP1 eta FIS1 proteinek fisio bidezidor desberdinetan jarduten dutela. Zentzu honetan, ugaztunetako FIS1 proteina TBC1D15ren bilketa prozesuan parte hartzen duela ikusi da, zeina aldaketa morfologikoekin erlazionatutako prozesuan parte hartzen duen, baina badirudi aldaketa morfologiko horiek DRP1 menpekoak ez direla (Onoue *et al.*, 2013). Horretaz gain, DRP1 mitokondriara bideratzeko gai den MFF (ingelesezik *Mitochondrial Fission Factor*) proteina ere aurkitu da, zeina ez duen FIS1en presentziaren beharrik. MFF MOMera lotuta dago eta coiled-coil domeinu zentrala du proteinaren lokalizazio egokirako beharrezkoa dena, C-terminala zitosolera esposatuta du eta N-terminal errepikapen labur bi DRP1 batzeko gune izan daitezkeela proposatu dena (Otera *et al.*, 2010).


MFF proteinaz gain, beste bi proteina ere DRP1 mitokondriara bideratzeko gai direla behatu da ugaztunetan, bi proteina hauek MiD49 eta MiD51 dira (ingelesezik, *Mitochondrial Dynamics proteins of 49 and 51KDa*, hurrenez hurren). Proteina hauek mitokondriara lotuta agertzen dira gune diskretuetan N-terminalaren bitartez, organuluaren inguruan eraztunak eratzuz (Palmer *et al.*, 2011). MiD51 proteinak FIS1 proteinarekin interakzionatzeko gai dela erakutsi da MID51/FIS1/DRP1 proteina konplexua eratzuz, konplexu honek fisio mitokondriala blokeatu eta fisio mitokondriala eragiten du mitofusinekiko modu ez-menpekoan (Zhao *et al.*, 2011).

Ugatzunen fisio mitokondrialean parte hartzen duten beste proteina batzuk MTP18 (Tondera *et al.*, 2005), MIMean kokatzen dena eta GDAP1, MOMean kokatutako dena dira (Niemann *et al.*, 2005). MTP18ren gainadierazpenak fragmentazio mitokondriala eragiten duela behatu zen, efektu hau fusio mitokondriala areagotuz konpensatzen zelarik. Horretaz gain, MTP18ren iRNA bidezko “knockdown” eginez, fisio mitokondriala blokeatzen da, MTP18 fisio prozesua osatzeko beharrezkoa dela iradokituz (Tondera *et al.*, 2005). Bestalde, GDAP1 MOMera atxikitutako proteina da eta mitokondria sarearen fragmentazioa eragiten du. CMTarekin erlazionatutako GDAP1en mutazioetan proteinaren gaitasun hau galtzen da. Oinarri honetan, autoreek GDAP1 proteina sare mitokondrialaren erregulatu bezala definitzen dute (Niemann *et al.*, 2005).

DRP1 inaktiboa batez ere zitosolean kokatzen da, nahiz eta proteinaren kopuru txiki bat fisio gune izango diren mitokondriako gune zehatzetan kokatzen den (Smirnova *et al.*, 2001), seguruenik erretikulu endoplasmaticoaren tubuluek mitokondria kontaktatzen duten guneetan (Friedman *et al.*, 2011; Korobova *et al.*, 2013). MOMean, DRP1 MFF eta MiD49/51 bezalako proteina adaptatzaileekin interakzionatzen du eta funtzionalitate osoa lortzen du CLrekin espezifiki interakzionatu ostean (Bustillo-Zabalbeitia *et al.*, 2014; Macdonald *et al.*, 2014; Ugarte-Urbe *et al.*, 2014). Fisio mitokondriala gertatzeko, DRP1ek organuluaren inguruan oligomerizatu behar du. Mitokondriaren diametroa 0,5-1  $\mu\text{m}$  tartekoa dela jakinda, zaila da azaltzea 127 nm-ko diametroa duen eraztun batek mitokondria nola bildu dezakeen azaltzea (Fröhlich *et al.*, 2013). Hala ere, arestian aipatu den bezala, fisio mitokondriala ER:mitokondria kontaktu guneetan ematen da batez ere eta gune hauetan IFN2 proteina (ingelesetik, *Inverted Formin 2*), aktinaren polimerizazio eta depolimerizazioa azkartzen duen ornodun forminproteina, aktibatzen da eta aktina polimerizatzen du. Aktina polimerizazio honek, hasierako konstrikzio mitokondriala gertatzeko beharrezkoa den indarra eman lezake (Korobova *et al.*, 2013), ondoren DRP1en oligomerizazioaz jarraitua izango dena eta GTP hidrolisiaren menpeko fisio mitokondriala emango litzateke (Lackner & Nunnari, 2009) (1.21 Irudia).

Fisio mitokondriala funtzio mitokondrial normalerako ezinbestekoa da. Hain zuzen ere, morfologia mitokondrialaren erregulazio txarra zenbait giza gaixotasunekin erlazionatuta dago. DRP1en dominante negatibo forma batek anormaltasun fisiologiko asko dakartza, atrofia optikoa eta hipoplasia besteak beste. Horretaz gain, DRP1en funtzioa aldatzen duten aldaketek Alzheimer, Parkinson eta Huntington gaixotasunekin erlazionatu izan dira.

Prozesu honen garrantzia kontutan izanik, irmoki erregulatuta izan behar du arestian aipatutako egoera patologikoak ekiditeko. DRP1en aktibitatea itzulpen-osteko zenbait aldaketengatik erregulatzen da. Aldaketa kobalente posible guztietatik, DRP1 fosforilatua, sumoilatua ubikitinatua, S-nitrosilatua eta O-GlcNazilatua izan daiteke.



**1.21 Irudia. Ugaztun eta legamietako fisio makinariako osagai nagusien eskema.** Kanpo mintzeko proteina integral asko DRP1 (DNM1) mitokondriara bideratzen dute. **A)** Ugaztunetan, MFF eta MID49/51 zuzenean interakzionatzen dute DRP1ekin, modu horretan DRP1 mitokondria gainazalean lotzen dutelarik. Kanpo mintzeko beste proteina integral batek, GDAP1, DRP1-menpeko fisio mitokondrialean parte hartzen duela behatu da ugaztunetan; hala ere, bere funtzio zehatza zein den ez da ezagutzen. Zenbait itzulpen osteko aldaketek erregulatzen dute DRP1en funtzioa ugaztunetan: MITOL/March5-menpeko ubikitinazioa, SUMOilazioa, fosforilazioa eta N-nitrosilazioa. **B)** Legamietan, DNM1 MOMera bi konplexuen bitartez bideratzen da. FIS1 proteinak DNM1 biltzen du WD40 domeinua duten bi proteina adaptatzaileen bitartez, MDV1 eta CAF4. Mekanismo honetaz gain, MDM36 eta NUM1 proteinak ere mitokondriaren gainazalera bideratu dezakete DRP1. (Tamura *et al.*, 2011)-tik hartutako irudia.

Proteinen fosforilazioa kinasek bideratutako itzulpen-osteko aldaketa da, substrato espezifikotasun handia du eta seinalizazio zelular bidezidorretan aldaketa funtzionalak modu azkarrean txertatzeko abantaila aurkeztzen du (Chang & Blackstone, 2010). DRP1 kontserbatutako bi leku desberdinetan fosforilatu izan daitezke, serina 616 eta 637an. Cdk (ingelesetik, *Cyclin Dependent Kinase*) S616an fosforilatzen du eta mitosian zeharreko fisio mitokondriala eragiten du (Taguchi *et al.*, 2007). PKA (ingelesetik, *cAMP-dependent protein kinase*) DRP1 S637an fosforilatu dezake, bere GTPasa aktibitatea murriztuz eta fisio mitokondriala gutxituz (Chang & Blackstone, 2007; Cribbs & Strack, 2007).  $Ca^{2+}$ -menpeko kalzineurinak hondar hau defosforilatu dezake fisio mitokondriala eraginez (Cribbs & Strack, 2007). DRP1en kalzineurinarekin menpeko defosforilazioak DRP1ek mitokondriarekin duen lotura kontrolatzen du (Cereghetti *et al.*, 2008). Azkenik, kalmodulinarekiko menpekoa den I $\alpha$ can kinasak, hondar bera (S637) fosforilatu dezake kaltzio fluxu baten ostean eta horrela DRP1ek mitokondriarekiko duen afinitatea areagotzen du, ondorioz fisio mitokondriala areagotuz (Han *et al.*, 2008). Hondar berdinarekin bi kinasak desberdinen bitarteko fosforilazioak guztiz kontrajarrirako ondorioak ekar ditzake, honek azpimarratzen du DRP1en zein gunetan eta

DRP1en aktibitatearen zein puntutan fosforilatu beharrak duen garrantzia (Chang & Blackstone, 2010).

DRP1, ubiquitin-bezalako aldatzaile txikiaz (Sumo, ingelesezik *small ubiquitin-like modifier*) ere eraldatu daiteke. Sumo gehitzerakoan normalean proteinen lokalizazio subzelularra aldatzen da edo ubiquitinaren-bitarteko degradazioaz babesten ditu proteinak. DRP1 E2 Ubc9 sumo-konjugatzaile entzimak sumoilatu dezake (Figuroa-Romero *et al.*, 2009). DRP1, MAPL, E3 Sumo ligasa entzimarentzako substrato ere bada, zeina DRP1 desumoilatzeko gai den (Braschi *et al.*, 2009). Berriki deskribatu da SENP3, sumo espezifikoa den isopeptidasaren eskuragarritasunak DRP1en 2/3-Sumoilazioa erregulatzen duela iskemian zehar, fisio mitokondriala inhibituz (Guo *et al.*, 2013). BCL2 familiako kideek ere DRP1en aktibitatea erregula dezakete, bere sumoilazioa erregulatuz. Zentzu honetan, BAX/BAK proteinek DRP1 eta mitokondriaren mintzaren arteko lotura egonkorra eragiten dutela proposatu da, DRP1en sumoilazioa sustatuz (McBride *et al.*, 2006).

Sumoilatua izateaz gain, DRP1 erlazionatutako prozesu batez ere eraldatua izan daiteke, ubiquitinazioz. Mintzarekin asoziatutako RING-CH (MARCH)-V proteinak DRP1 batu eta ubiquitinatzeko gaitasuna du. MARCH-V DRP1entzako ubiquitina ligasa bezala funtzionatzen du eta bakarrik ubiquitinatutako DRP1ekin eratzen ditu konplexuak. Ubikitinazio honek fisio mitokondrialean efektu inhibitzailea izan lezake (Nakamura *et al.*, 2006). Parkin proteinak DRP1 ubiquitinatu lezakeela ere deskribatu da, DRP1 eta mintzaren arteko lotura sustatuz eta ondorioz fisioa areagotuz (Poole *et al.*, 2008).

S-nitrosilazioa oxido nitriko (NO) bidezko erredox-erlazionatutako eraldaketa da, zeinak NO aktibitatea garraiatu eta zenbait proteina afektatzen dituen.  $\beta$ -amiloide proteinen ondorioz eratutako NOak fisio mitokondriala eragiten du (Cho *et al.*, 2009).

DRP1entzat deskribatutako azken itzulpen osteko eraldaketa O-GlcNazilazioa da (ingelesezik, *O-linked N-acetyl-glucosamine glycosylation*). Eraldaketa hau proteina nuklear, zitosoliko eta mitokondrialen serina eta treonina hondarretan eman daiteke. Normalean, O-GlcNazilazio eta fosforilazio guneak gainjartzen dira, proteinen funtzioan elkarrenganako ondorioak izanik. DRP1en O-GlcNazilazio guneak B intsertuan kokatuta daude, zehatzago Thr-585 eta Thr-586 hondarretan. O-GlcNazilazioak GTP batzeko afinitatea areagotzen du eta baita mitokondriarekiko lotura ere (Gawlowski *et al.*, 2012).

Fisioa funtzio biologiko askorentzat ezinbestekoa den prozesua da (1.18 Irudia). Adibidez, fisioa banaketa mitokondriarentzat oso garrantzitsua da, sare mitokondriala osatzen duten mitokondrioak garraituak izan daitezkeen unitate txikiagotan bananduz. Zelulak mitosian sartu baino lehen eta zitokinesia pairatu baino lehen mitokondriak fragmentatuak agertzen dira.

Honek zelula alaben mitokondrioen banaketa estokastikoa baimentzen du. Horretaz gain, fisioa mitokondriaren prozesu autofagikoan ere parte hartzen du, mitofagia izeneko prozesuan hain zuzen ere. Prozesu honen bidez, mitokondria disfuntzionalak zelulatik kentzen dira, kaltetutako mtDNAren proliferazioa ekidinez.

Fisio mitokondrialak apoptosirako garrantzitsua ere bada (Westermann, 2010). Apoptosiaren erregulazioan DRP1en menpeko fragmentazio mitokondrialak hartzen du parte organismo desberdin askotan, legamiak, zizareak, euliak eta ugaztunak besteak beste. Horretaz gain, BAX eta BAK proteina proapoptotikoek DRP1 eta mitofusinekin interakzionatzen dutela ikustean, honek dinamika mitokondrialaren eta apoptosiaren makinarien arteko elkarrekintza bat dagoela iradokitzen du (Brooks *et al.*, 2007; Karbowski *et al.*, 2002; Karbowski *et al.*, 2006; Wasiak *et al.*, 2007). DRP1 proteinak BAXen oligomerizazioa sustatzen duela behatu da eta ondorioz apoptosian ere badu eginkizunik (Montessuit *et al.*, 2010). Nahiz eta fisioaren funtzioa apoptosian zein den eztabaidan jarraitzen duen gai bat den, badirudi ardi dagoela mitokondriaren fragmentazioa bidezidor apoptotikoaren estadio goiztiarrean ematen dela, mitokondriaren kanpo mintzaren iragazkortzea baino apur bat lehenago edo aldi berean eta kaspasa efektoreen aktibazioa baino lehen (Westermann, 2010).

## 1.1.6 BCL2 FAMILIAKO PROTEINAK

*Bcl-2* proto-onkogenea t(14:18) deitutako kromosomaren translokazioaren parte bezala identifikatua zen. Gene horren transkripzioaren goranzko erregulazioa dela eta BCL-2 proteinen sintesi mailak gora egiten du, limfoma folikularren zelulen fenotipo gaiztoan lagunduko duen faktore nagusietako batean bihurtuz (Bakhshi *et al.*, 1985). Ordutik aurrera, BCL2 familia osatzen duten 20 kide baino gehiago identifikatu dira. Bestalde, familiako proteinek gutxienez lau BCL2 homologia domeinuetatik (BH1, BH2, BH3, and BH4) bat daukate. (Youle and Strasser 2008, Chipuk *et al.* 2010). BH domeinuz gain, BCL2 familiako kide askok gune hidrofobikoak dituzte C-terminalean, mintz intrazelularretara bideratu eta lotzeko balio dutenak.

Betetzen duten funtzio eta BH domeinu kopuruaren arabera, BCL2 familiako kideak hiru taldeetan sailka daitezke (1.22 Irudia):


- **Domeinu anitzeko proteina antiapoptotiko edo BCL-2-moduko proteinak:** lau BH domeinuak aurkezten dituzte eta MOMP inhibitzeko gaitasuna daukate. Talde honen adibide esanguratsuenak BCL-2, BCL-xL (ingelesetik *B-cell lymphoma-eXtra Large*), MCL-1 (ingelesetik *Myeloid Cell Leukemia-1*) eta A1 edo BCL-2A1 (ingelesetik *BCL-2-related protein A1*) proteinak dira.

- **Domeinu anitzeko proteina proapoptotikoak edo BAX-moduko proteinak:** proteina mota hauek MOMP-eragile zuzenak izango dira eta BH1-3 domeinuak dituzte. Talde honetan BAX (ingelesez *BCL-2 Associated X protein*), BAK (ingelesez *BCL-2 Associated Killer protein*) eta BOK (ingelesez *BCL-2-related Ovarian Killer*)/MTD (Matador) proteinak daude. Nahiz eta sekuentzia kontutan harturik BOK proteina proapoptotikotzat hartzen den, ez dago argi BAX/BAK proteinek egiten duten modu berdinean funtzionatzen duen. Zenbait argitalpenek BOK proteina proapoptotiko moduan joka dezakeela esaten duten bitartean (Brown *et al.*, 2004; Echeverry *et al.*, 2013; Hsu *et al.*, 1997; Rodriguez *et al.*, 2006; Soleymanlou *et al.*, 2005), beste batzuek funtzio proapoptotikorik ez duela iradokitzen dute (Ke *et al.*, 2012; Ray *et al.*, 2010).
- **BH3-domeinu bakarreko proteinak:** Hauek BH3 domeinu bakarra aurkezten dute eta BAX-moduko proteinak aktiba ditzakete MOMP eraginez. Talde honetan BID, BIM (ingelesez *BCL-2-Interacting Mediator of cell death*), PUMA (ingelesez *p53 Up-regulated Modulator of Apoptosis*), BMF (ingelesez *BCL-2-Modifying Factor*), BAD (ingelesez *BCL-2 antagonist of cell death*), BIK (ingelesez *BCL-2-interacting killer*) PMAIP1 (ingelesez *Phorbol-12-myristate-13-acetate-induced protein*) arrunki NOXA bezala ezaguna dena, eta HRK (ingelesez *Activator of apoptosis hara-kiri*) aurkitu ditzakegu.

Biziraupen edo heriotza zelularren patua proteina anti- eta proapoptotikoen mailen eta beraien arteko elkarrekintzen baitan egongo da (Westphal *et al.*, 2011). Garrantzizkoa da aipatzea oraintsu deskribatutako sailkapenak zelula eta ingurugiro berezietan BCL-2 eta BAX-moduko proteinek pairatu ditzaketen funtzio aldaketak ez dituela kontuan hartzen (Basañez *et al.*, 2001; Clem *et al.*, 1998; Fannjiang *et al.*, 2003; Lewis *et al.*, 1999; Qi & Hardwick, 2008). Honez gain, proteina hauek egitura eta sekuentzia antzekotasunak erakusten dituzten arren, talde berdineko kide ezberdinek funtzio fisiologiko desberdinak bete ditzakete.


Heriotz zelularren bidezidorreko osagaiak oso kontserbatuak izan dira eboluzioan zehar *C. elegans*, *Drosophila*, eta ugaztunetan esaterako. Ugaztun zeluletan, BCL2 familiako kide pro eta antiapoptotikoak heriotz zelularrerako mugatzaile molekularrak dira. *C. elegans* nematodoan egin diren ikerketa genetiko eta biokimikoek erakusti dute BCL2 familiako kide diren eta funtzio kontrajarriak dituzten bi proteina, EGL-1 eta CED-9, direla zizarearen heriotz zelularra erregulatzen dutenak. Aitzitik, *Drosophila*-k bi BCL2 familiako gene ditu, zeintzuk ugaztunetako proteina proapoptotikoa den BOK/MTD proteinen homologoak diren proteinak kodetzen dituzten (Igaki & Miura, 2004). Bi proteina hauek Debcl/dBorg-1/dRob-1 eta Buffy/dBorg-2 dira. Honek iradokitzen du BCL2 familiako kiderik antzinakoena BOK dela (1.23 Irudia).





**1.22 Irudia. BCL2 familiako proteinen sailkapena.** Kontserbatutako BCL2 homologia domeinuak (BH1-4) kolore desberdinekin adierazita agertzen dira. BH domeinuez gain, kide gehienek domeinu hidrofobikoa daukate C-terminalean (TM) mintz intrazelularrekin ematen den lotura errazten duena. (N. N. Danial, 2009)-tik hartutako irudia.


Sekuentzia eta egitura antzekotasunetan oinarrituz, Debcl eta Buffy funtzio proapoptotikoa izan dezaketela uste izan da. Hain zuzen ere, Debcl heriotza eragiten duen proteina dela ikusi da bai *in vitro* eta bai *in vivo* ere. Debcl-ren gainadierazpenak heriotza eragiten du bai *Drosophila* bai ugaztun zeluletan ere, eta baita zenbait *Drosophila* larba ehunetan (Colussi *et al.*, 2000; Igaki & Miura, 2004). Debcl proteinarekin bezala, Buffy proteinaren gainadierazpenak S2 zeluletan heriotza eragiten du, nahiz eta hiltzeko duen gaitasuna Debcl proteinak duena baino txikiagoa den (Igaki & Miura, 2004). Aitzitik, beste ikerketa batek proposatzen du Buffy proteina antiapoptotikoa dela *in vivo* (Quinn *et al.*, 2003).



**1.23 Irudia. Eboluzioan zehar kontserbatutako BCL2 proteinen eskema.** *Drosophila*-n (Drob-1 eta Buffy/dBorg-2), *Anopheles*-en (agCG44751 eta agCG44761) eta ugaztunetan (Bok/Mtd). BH1, BH2, BH3, lehen  $\alpha$ -helizea ( $\alpha 1$ ), eta transmintz (TM) domeinuak adierazten dira.  $\alpha 1$  BH4 domeinuarekin egituralki erlazionatuta dago, eta gune hau “weak BH4” edo “BH4 ahul” bezala adierazita agertzen da. TM domeinua agCG44761-ren iragarritako sekuentzian ez da ageri. (Igaki & Miura, 2004)-tik hartutako irudia.

#### 1.1.6.1 BCL2 familiako proteinen egitura soluzioan

Mintz proteinak aztertzeko ohiko teknika egiturak erabiltzearen zailtasuna dela eta, orain arteko BCL2 familiako kideen inguruko informazio egituraren datu gehienak proteina hauek soluzioan duten egiturari dagozkio. Hala ere, molekula hauek mintzari elkartuta aurkezten duten egoeren informazio egitura azalerraten hasi da, apoptosian zehar gertatzen diren mintzerako translokazioa eta mintz txertaketak eragiten dituzten aldaketa egiturei buruzko funtsezko informazioa eskeiniz.



**1.24 Irudia. BCL2 familiako proteinen egitura. A) BCL-XL eta B) BAX proteinen egitura.** (Petros *et al.*, 2004)-tik hartutako irudia.

Azken bi hamarkadetan, X-izpi kristalografia eta Erresonantzia Magnetiko Nuklearra (NMR, ingelesetik *Nuclear Magnetic Resonance*) erabili izan dira BCL2 familiako proteinen konformazio hidrosolubleen maila atomikoko erresoluzioa duen informazio egiturala lortzeko. BCL2 familiako kideen egitura azterketek apoptosiaren mekanismo molekularren eta proteina hauen arteko elkarrekintzen inguruko xehetasun ugari eskaini dituzte. BCL2 familiako kide gehienek, nahiz eta aminoazido sekuentzian eta funtzioan dibergentzia handiak izan, nabarmenki antzeko tolesturak aurkezten dituzte (Petros *et al.*, 2001). Oro har, tamaina txikiko proteina globularrak dira, erdialdeko bi helize hidrofobiko inguratzen dituzten luzera ezberdinetako sei edo zazpi helize anfiptatikoz osatuak daude. Erdialdean kokatzen diren bi helizeak ( $\alpha 5$ - $\alpha 6$ ), "erdiko helize urkila" ere deituak, proteinaren muina osatzen dute; albo batetik  $\alpha 3$ - $\alpha 4$  helizeengatik eta kontrako aldetik,  $\alpha 1$ - $\alpha 2$  helizeengatik inguratuta daude; azkenik, behealdean  $\alpha 7$ - $\alpha 8$  helizeak kokatzen dira. BCL-2 tolestura komun honek bakterio toxinen (e.b. kolizina eta difteria toxina) domeinu poro-eragilearekin antzekotasun deigarriak aurkezten ditu (Muchmore *et al.*, 1996; Petros *et al.*, 2004). BCL2 proteinen egiturak duen beste ezaugarri amankomun bat BH1, BH2 eta BH3 domeinuen eratzeko duten gune hidrofobikoa da, hauekin elkarrengaino duten beste BCL2 proteinen BH3 domeinua sartzeko gunea izango dena (Liu *et al.*, 2003; Sattler *et al.*, 1997). Hala ere, helizitate altua duen kimikoki-eraldatutako BIM BH3 peptido sintetikoak (SAHB BIM BH3) BAX beste gune baten lotzen duela ikusi da, ez kanonikoa den poltsiko hidrofobikoan BAX  $\alpha 1$ - $\alpha 6$  helizeek eratutakoa (Gavathiotis *et al.*, 2008). Gainera, talde berdinak berriki deskribatu du BID BH3 eta PUMA BH3 SAHB peptidoak BAXen gune kanoniko zein gune ez-kanonikoak batzen dituztela (Edwards *et al.*, 2013; Leshchiner *et al.*, 2013). Bestalde, BCL2 familiako kide gehienek, C-muturrean mitokondrion bideratzeko domeinu transmintz baten ezaugarri klasikoak dituen sekuentzia zatiki ( $\alpha 9$ ) hidrofobiko bat agertzen dute. Aitzitik, BH3 domeinu-bakarreko proteinak, BID eta agian BIK salbu, baldintza fisiologikoetan desegituratuta aurkituko dira batik batik (Hinds *et al.*, 2007) (1.24 Irudia).

BAXen NMR bidez deskribatutako egiturak erakusten du  $\alpha 9$  helizea poltsiko hidrofobikoaren barruan kokatzen dela (Suzuki *et al.*, 2000). Konformazio honek BAXen solugarritasunera laguntzen du BAX zitosolean dagoenean eta baldintza ez-apoptotikoetan BAX MOMarekin era egonkor batean lotzea ekiditzen du. Gainera, poltsiko hidrofobikoa betez, 9-helizeak BAX eta BH3-domeinu bakarreko proteinen arteko interakzioa ekiditen du (Suzuki *et al.*, 2000). Aipatzekoa da, C-terminaleko gune hidrofobikoa faltan duen BAKen egituran, zenbait hondar apolarren albo kateek estutzen duten poltsiko hidrofobikoa agertzen dela. Hau BH3-domeinu bakarreko proteinekin interakzioa mugatzeko mekanismo alternatiboa da (Moldoveanu *et al.*, 2006). Nahiz eta aurrerapausuak eman diren (Czabotar *et al.*, 2013; Moldoveanu *et al.*, 2013), BH3-domeinu bakarreko proteina proapoptotikoen eta BAX/BAK proteinen arteko loturen espezifitateak azaltzen dituzten oinarri egiturak ez dira guztiz ezagutzen. Garrantzitsua da aipatzea, BOK proteinaren inguruko informazio egiturarik ez dela aurkeztu orain arte.

### 1.1.6.2 BCL2 familiako proteinek bideratutako MOMParen erregulazioaren ikuspuntu orokorra

BCL2 proteinen apoptosian zeharreko akzio mekanismoaren zenbait aspektu ondo ezarrita daude. Batetik, zelula osasuntsuetan BAX eta BAK egoera “inaktibo” batean daude eta proteinen aktibazioak MOMP eragiten du eta horren ondorioz faktore apoptogenikoen askapena (Lindsten *et al.*, 2000; Wei *et al.*, 2001). Bestetik, baita ere argi dago BCL2-motatako proteinek eta BH3-domeinu bakarreko proteinek BAX-motatako proteinen aktibazio funtzionala negatiboki eta positiboki erregulatzen dutela, hurrenez hurren (Llambi & Green, 2011; Zong *et al.*, 2001).

Hala ere, BCL2 familiako proteinen mekanismoaren inguruko erantzunik gabeko galdera asko daude, besteak beste: (i) Zelan doaz BCL2 familiako proteinak MOMera?; (ii) Zein da BAX/BAK/BOK proteinen aktibazio funtzionalerako bidezidor molekular zehatza?; (iii) Zelan aktibatzen dituzte BH3-domeinu bakarreko proteinek BAX-motatako proteinak?; (iv) Zelan erregulatzen dute MOMP prozesua mintzera lotatutako BCL2-motatako proteinek?; (v) Zein da mintzak edo lipido espezifikoek BCL2 familiako proteinen funtzioan jokatzeko duten papera?; eta, (vi) Zein da BAX/BAK-ek eratutako poroaren natura eta zelan dago erregulatuta?

#### 1. Zelan doaz BCL2 familiako proteinak MOMera?

Zelula osasungarrietan, BCL2 familiako kide asko mitokondrioan aurkitzeaz gain, zitosolea, erretikulo endoplasmatikoa eta nukleoan ere aurkitu daitezke. BAX eta BAK proteinen lokalizazio zehatza ondo ezarrita dago, BAX batez ere zitosolikoa delarik BAK mitokondriala den bitartean, nahiz eta bi proteinen kantitate txikiak ERan ere aurki daitezken. Hala ere, BAX-motatako proteina den BOKen lokalizazio intrazelularraren inguruan eztabaida handia dago. Hasiera batean proteina zitosolikoa zela proposatu zen mitokondriari modu ahulean lotuta egon litekeena (Gao *et al.* 2005; Hsu *et al.*, 1997; Ray *et al.*, 2010), berriki batez ere ERan eta golgi aparatuan kokatzen dela iradokitu da (Echeverry *et al.*, 2013). Proteina hauetako askok apoptosian zehar lokalizazioa aldatzen dute, MOMera translokaturik edo MOMean aberasturik agertuz, antza mintz horren permeabilizazioa bertatik erregulatzeko. Bestalde, BOKen kasuan mitokondriara translokatzeko den ez dago argi.

BCL2 proteinen mintzerako translokazioa azaltzeko zenbait mekanismo desberdin proposatu dira: 1) BCL2 familiako kideen C-mutur hidrofobikoaren txertaketa MOMean; 2) beste BCL2 familiako kideekin interakzionatzea; 3) BCL2 familiako kideak ez diren proteinek interakzionatzea, TOM/TIM konplexuak eta aldaketa post-translazioalak eragiten dituzten entzimekin besteak beste (Dorn & Maack, 2013), eta 4) mitokondriako osagai lipidikoekin interakzioa.

## 2. BAX/BAK iragazkortze funtzioaren erregulazioa

Zelula baten zoria, hau da bere biziraupena ala heriotza, erabakitzeko beharrezkoa den erregulazio maila altua BCL2 familiako kideen arteko elkarrekintza sare konplexu baten bidez lortzen da. Dagoeneko aski ezaguna da BH3-domeinu bakarreko proteinek beraien funtzio proapoptotikoa BAX-moduko proteinen bidez betetzen dutela, baita BCL-2-moduko proteinek, berriz, funtzio hori inhibitzen dutela (Cheng *et al.*, 2001; Zong *et al.*, 2001). Halere, zelularen testuinguru desberdinetan gertatuko diren interakzio hauen hierarkia zehatzak eztabaidagarri izaten jarraitzen du. MOMP suertatzeko ala eragozteko, BAX eta BAK proteinak aktibatu edota inhibituko dituzten erreakzioen emaitzak erabakiorrak izango dira.

Zelularen heriotza ematen den edo ez BCL2 familiako proteinek euren arteko zein beste faktore zelular batzuekin osatutako interakzio sare konplexu baten bidez erabakiko dute. BH3-domeinu bakarreko proteinek bere funtzio proapoptotikoa BAX-motatako proteinetan deskargatuko dute, beraien aktibitatea BCL2-motatako proteinek ezabatuko duten bitartean (Cheng *et al.*, 2001; Zong *et al.*, 2001). Hala ere, interakzio hauen hierarkia eta MOM faktoreen paperak zeintzuk diren eztabaidagarri izaten jarraitzen du.

Azken hamarkadetan batez ere soluzioan egindako proteina pro- eta antiapoptotikoen batuketa saioetan oinarrituz, itxuraz kontrajarriak diren bi modelo izan dira proposatuak: “Zeharkako aktibazio eredua” eta “Zuzeneko aktibazio eredua” deitutakoak. Azken urteotan bildutako ebidentzien arabera, modelo bakoitzaren aspektu jakin batzuk egokiak direla ezaguna da, baita MOMak berak ere BCL2 familiako kideen arteko elkarrekintza eta funtzioen erregulazioan paper garrantzitsu bat bete dezakeela ere. Honela, jarraian azalduko den moduan, MOMP eta apoptosiaren erregulazioan BCL2 familiako proteinen arteko interakzioek duten partaidetza azaltzeko hiru eredu existitzen dira gaur egun (1.25 irudia).

- Zuzeneko aktibazio eredua

Zuzeneko aktibazio ereduaren arabera, BAX-moduko proteinak BH3-domeinu bakarreko proteinek batuz aktibatuko dira, eta BCL-2-moduko proteinek, berriz, euren funtzio inhibitzailea BH3-domeinu bakarreko proteinek atxikiz beteko dute. Modelo hau BID BH3 eta BIM BH3 peptidoek, eta ez ordea BAD eta NOXA BH3 peptidoek, BAX/BAK-en mitokondrioaren iragazkortze funtzioa aktiba lezaketan azaltzeko izan zen proposatua (Kuwana *et al.*, 2005; Letai *et al.*, 2002; Wei *et al.*, 2000). Beraz, BH3-domeinu bakarreko proteinek bi klase desberdinetan bana daitezke: alde batetik, BAX/BAK zuzenean aktiba dezaketanak, “Zuzeneko aktibatzaileak” deituak, euren artean adibidez, tBID, BIM eta agian PUMA aurkituz; eta bestetik, BCL-2-moduko proteinetatik aktibatzaileak askatzeko gaitasuna duten proteinek edota BAX/BAK zeharka aktibatzen dituzten proteinek egongo dira, “sentikortzaileak” bezala ezagutzen direnak, esate

baterako, BAD edo NOXA. Eredu hau egiaztatuz, hainbat ikerketa-taldeek emaitzek tBIDek BAX/BAKen mintz lipidikoak iragazkortzeko funtzioa aktiba dezakeela adierazi dute (Bleicken *et al.*, 2010; Etchebarria *et al.*, 2008; Kuwana *et al.*, 2002; Landeta *et al.*, 2011a; Lovell *et al.*, 2008; Oh *et al.*, 2010; Terrones *et al.*, 2004).

Aitzitik, modelo honetan, zeharkako modeloan proposatzen zaien funtzioari kontrajarriz, proteina antiapoptotikoen funtzio nagusia BAX/BAKen funtzio propapoptotikoa eragozteko BH3-domeinu bakarreko zuzeneko proteina aktibatzaileak batzea dela egotzen zaie. Hortaz, deskribatutako bi ereduetan, BH3-domeinu bakarreko proteinek kide apoptotiko ezberdinak batuz burutuko dute apoptosiaren erregulazioa. BH3-domeinu bakarreko proteinen eta proteina antiapoptotikoen arteko interakzio patroia oso ondo izan da ezarria; ordea, BAX/BAKen zuzeneko aktibatzaileak zehazki zeintzuk diren oraindik eztabaidan jarraitzen duen gaia da. BH3-domeinu bakarreko peptidoen eta proteina antiapoptotikoen artean osatutako konplexuen adibideak hedatuak izan arren, BAX/BAK eta tBID-moduko zuzeneko aktibatzaileen arteko interakzioa aztertzea esperimentalki zaila izan da. Emaitza eta egitura gabezi honek BAX/BAKen aktibaziorako “ukitu eta ihes” mekanismoa proposaraztera eramanez, kasu honetan, BH3-domeinu bakarreko proteinek “ligandoak” izanik eta BAX-moduko proteinek “hartzaileak” (Dai *et al.*, 2011; Eskes *et al.*, 2000; Lovell *et al.*, 2008; Wei *et al.*, 2000). Hala ere, elkarrekintza hau deskribatzen zuten artikulu gutxi batzuk bakarrik izan ziren argitaratuak: alde batetik, FRET (ingelesez, *Fluorescence Resonance Energy Transfer*) espektroskopia bidez liposometan emandako BAX eta tBIDen arteko elkarrekintza egonkor bat deskribatu zen (Lovell *et al.*, 2008); bestalde, kimikoki eraldatuta dagoen BIM BH3 peptido bati lotutako BAXen egitura izan zen deskribatua baita ere (Gavathiotis *et al.*, 2008). Azkenik, fluoreszentsia konplementazio teknika erabiliz BH3-domeinu bakarreko proteina eta BAX-motatako proteinen arteko elkarrekintzak ere deskribatu izan dira (Vela, Gonzalo, Naval, & Marzo, 2013).

- Zeharkako aktibazio eredua:

Zeharkako aktibazio modelo honen arabera, BCL-2-moduko proteinek BAX-moduko proteinei batuta azalduko dira aldi oro, BH3-domeinu bakarreko proteinek BCL-2-moduko kideak batu eta neutralizatzeko ahalmena izango dute. Modu honetan, BAX-moduko proteinek aske geratuz MOMP eragin ahal izateko (Chen *et al.*, 2005; Willis *et al.*, 2005).

Zeluletan ikusitako BH3-domeinu bakarreko proteinek eragindako heriotza tasa desberdinen azalpen posible batek BH3 peptidoen eta BCL-2-moduko proteinen arteko batuketa afinitate ezberdinean datza. BIM, PUMA eta tBID kideek proteina antiapoptotiko guztiak batzen dituzten arren, gainontzeko BH3-domeinu bakarreko proteinek BCL-2-moduko proteina jakinekin bakarrik elkartuko dira. Adibidez, NOXAK MCL-1 eta A1 proteinek bakarrik batzen ditu, BADek, aldiz, BCL-xL, BCL-2 eta BCL-w batzeko gaitasuna azaltzen duen bitartean. Hori dela eta, proteina

antiapoptotiko guztiak batzeko gaitasuna daukaten BH3-domeinu bakarreko proteinak (BIM, PUMA eta tBID) gainontzekoak baino hiltzaile indartsuagoak direla esan daiteke, nahiz eta, adibidez, NOXA-BAD konbinazioak zelulen heriotza egoki bat eragin dezakeen ere (Chen *et al.*, 2005).

Eredu honen beste postulatu batek dio, ordea, BAX-moduko proteinak egituralki aktibatuta egongo direla, baina BCL-2 moduko proteinei batuz inhibituta mantentzen direla baldintza ez apoptotikoetan. Beraz, BAX-moduko kideek proteina antiapoptotikoetatik askatuz burutuko lukete MOMP prozesua. BAK MOMeko proteina integrala izanik, MCL-1 eta BCL-xL proteinez gain tentsio-menpeko kanal anioniko mitokondrialak (VDAC, ingelesetik *Voltage-Dependent Anion Channel*) ere batzen dituelako, inhibituta dagoela proposatu da (Cheng *et al.*, 2003; Willis *et al.*, 2005). Eredu hau indartuz, BAXen BH3 domeinuan BCL-2-moduko proteinen batuketak eragozten duten mutazio puntual batzuk eraginez, kontrol-gabeko apoptosis eragiten dutela ikusi izan da (Czabotar *et al.*, 2011; Fletcher *et al.*, 2008). Hala ere, zeharkako aktibazio modelook zailtasunez azal dezake, *in vivo* saioetan aztertutako BAX/BAKen frakzio txiki bat agertzea soilik proteina antiapoptotikotara atxikituta. Eredu honen beste arazotariko bat BAX/BAK batzeko gaitasuna galdu duten BCL-2-moduko proteina mutanteek, zelularen heriotza guztiz inhibititu dezaketela ikustea da. Azkenik aipatu beharrekoa da, oraindik ez dela zorrozki egiaztatu BAX edo BAK beste faktore mitokondrialen gabezia autoaktibatu daitezkeen.

- Mintz ereduak

Eredu berriek, apoptosisen zehar BCL2 familiako proteinen arteko elkarrekintza sarean MOMak izan dezakeen eginkizuna azpimarratzen dute (Basañez & Hardwick, 2008; Billen *et al.*, 2008; Leber *et al.*, 2010; Leber *et al.*, 2007). “Mintzean barneraturiko eredu”-aren arabera BCL2 familiako proteinak mintzera batzeak hauen konformazio aldaketa bat eragin dezake, honela, proteina hauen arteko elkarrekintzak ere aldatzeko aukera azalduz. Aurkikuntza berri batzuek diotenez, mintzean BCL-xL proteinen tBIDekiko afinitatea altuago da; honez gain, mintz baten presentzia guztiz beharrezkoa da tBIDek BAXekin interakzio bat eduki ahal izateko (García-Sáez *et al.*, 2009; Liu *et al.*, 2012).


Halaber, BH3-domeinu bakarreko proteinek BAX/BAKen zuzeneko aktibatzaile gisa funtzionatzeaz gain, proteina antiapoptotikoen funtzioa aktibatu edo inhibititu dezakete. Era honetan, BH3-domeinu bakarreko proteina sentikortzaileek antiapoptotikoen biziraupen funtzioa inhibititu dezakete euren barrunbe hidrofobikoa batuz. Bestalde, bere ondorio fisiologiko argia zein den ez jakin arren, proteina apoptotikoak BH3-domeinu bakarreko proteinek bideratutako eta funtzio antiapoptotikoa galarazten ez dion  $\alpha 5$  helizearen mintzeko txertaketa dakarten aldaketa konformazionalak jasan ditzaketela ezaguna da (Dlugosz *et al.*, 2006; Leber *et al.*, 2010; Peng *et al.*, 2006). Honen adibide, BCL-xLek BAXen modu antzekoan

funtzionatzen duenez prozesuaren pausu guztietan beraien arteko lehia bat sortuko da. Hortaz, kontzeptualki BCL-xLeren portaera, BAXen gainartzaile negatibo baten modukoa dela esan izan da (Billen *et al.*, 2008).

Honetaz gain, eta tBID kimera ezberdinek BCL-2 moduko proteinekiko dituzten afinitate erlatiboen azterketan oinarrituta, "Eredu bateratua" izeneko modeloa deskribatu da. Bi motatako inhibizio elkarrekintza mota zehaztu dira MOMean kokaturiko proteina proapoptotiko eta antiapoptikoen arteko interakzioen arabera: proteina antiapoptotikoek BH3-domeinu bakarreko proteina aktibatzaileak batzekoa alde batetik (1. go MODUA) edo aktibatutako BAX/BAK<sub>i</sub> atxikitzea bestetik (2. MODUA). Bi inhibizio mekanismo modu hauek MOMP eragozteko gaitasuna izango dute, BAX/BAK<sub>i</sub> atxikitzea BH3-domeinu bakarreko proteinek batzea baino eraginkorragoa izanik beti ere (Llambi & Green, 2011). BAX proteinak, behin BH3-domeinu bakarreko proteinek aktibatuta, beste BAX molekula batzuk aktibatzeko ahalmena izango duela kontuan hartuz (Gavathiotis *et al.*, 2010), auto-aktibazio prozesu honen inhibizioa (2. MODUA) BH3-domeinu bakarreko proteinen batzea baino eraginkorragoa izango dela aurreikusi daitekeen aspektua da (Llambi & Green, 2011).

Bukatzeko, MOMaren lipido konposaketa BCL2 familiako proteinen arteko elkarrekintzen erregulazioan aspektu garrantzitsu bat izan daitekeela gero eta onartuagoa da (Chipuk *et al.*, 2012a; Landeta *et al.*, 2011; Terrones *et al.*, 2004, 2008). Behaketa hauetan oinarrituz, mekanismoaren "Eredu lipozentriko" bat proposatu liteke, zeinetan apoptosiarekin erlazonaturiko lipidoek BCL2 familiako kideen aktibazioa eta funtzioa modula dezakete mintz mailan, bai interakzio zuzen baten bidez (Chipuk *et al.*, 2012; Landeta *et al.*, 2011), zein lipido geruza bikoitzean eragindako efektu (Basañez *et al.*, 2012) desberdinen bidez. Azken efektu honi dagokionez, BH3-domeinu bakarreko proteinek BAX-moduko kideen funtzioaren bultzatzea proteina:proteina interakzio zehatzen bidez emateaz gain, proteina:lipido elkarrekintzek mintzean eragindako propietate fisikoen aldaketen bidez eman dezakeela pentsa liteke (Gorka Basañez *et al.*, 2002; Terrones *et al.*, 2004): behin mintzera batuta egonik, helize anfipatikoek lipido geruza bikoitzen propietateak alda litzakete, esate baterako, honen kurbadura intrintsekoa eta malgutasuna; azken aldaketa hauek, berriz, proteinen aldaketa konformazionalarekin erlazonatzen den lipido geruza bikoitzaren deformazio energia aldatu lezakete (McIntosh & Simon, 2006). Honez gain, lipidoen bidezko BCL2 familiako proteinen erregulazioak dinamika mitokondrialarekin lotuta egon liteke baita ere (Basañez *et al.*, 2012; Etxebarria *et al.*, 2009; Montessuit *et al.*, 2010).





**1.25 Irudia.** BAX/BAKen mintza iragazkortzeko funtzioaren erregulazioa deskribatzeko proposatu diren ereduaren eskema. BCL2 familiako proteina desberdinen ordezkariak honako hauek dira: proteina antiapoptotikoa BCL-xL (urdina), domeinu-anitzeko proteina proapoptotikoa BAX (berdea), BH3-domeinu bakarreko proteina sentikortzaileena BAD (horia) eta aktibatzaileena tBID (gorria). **A)** “Zeharkako aktibazio eredu”-an, BH3-domeinu bakarreko proteinek BCL-xL batzen dute honela BAX askatuz; modu honetan, BAX bestelako proteinen gabezia autoaktibatze gai izango da. **B)** “Zuzeneko aktibazio eredu”-aren arabera, BH3-domeinu bakarreko proteinak bi taldetan bana daitezke: proteina aktibatzaileak (hemen tBID), berez antiapoptotikoetara batuta daudenak, behin proteina sentikortzaileengatik ordezkatuak direnean BAX edo BAK zuzenean aktibatze aukera izango dute. **C)** “Mintz eredu”-an, mintza BCL2 familiako proteinen elkarrekin erregulazio faktore bat izango da (Basanez eta Hardwick 2008)-tik moldatua.

### 3. BAX eta BAKen konformazio aldaketak aktibazioan zehar

BAX-moduko proteinek apoptosi prozesuan jasaten duten aldaketa konformazioanalaren ulermena, hots, euren egoera inaktibotik MOMP-eragilea den egitura guztiz aktibo baterako ematen den aldaketaren ulermena apoptosi ikerketaren “Grial Santua” bezala izan da kontsideratua (Youle & Strasser, 2008). Berriki, aurkikuntza berriek BAX-motatako proteinen mintz mailako aktibazio funtzionalak eragiten dituzten egitura aldaketen eta mekanismo molekularren inguruko informazioa eskeini digute (Czabotar *et al.*, 2013; Moldoveanu *et al.*, 2013; Weber *et al.*, 2013) (1.26 Irudia).

Atal honetan, BAX-moduko proteinen aktibazio prozesuaren ustezko pausuetan gerta litezkeen egitura aldaketak xehatuko ditugu: 1) Aktibazio pausu goiztiarrak (N-muturraren eta BH3 domeinuaren azaleratzea); 2) Mintzean txertaketa eta 3) Oligomerizazioa edo txertaturiko monomeroen arteko hurbiltasunaren areagotzea.


#### 1) Aktibazio pausu goiztiarrak

Zenbait ikasketa estruktural eta biokimikoek, behin apoptosia kitzikatuta, BAX eta BAK proteinen hainbat eremuk egitura aldaketak jasan ditzaketela egiaztatu dute. Ereku aldakor hauen artean N-muturra, BH3 domeinua eta barrunbe hidrofobikoa azalduko dira. Honetaz gain, eta aurretik azaldua izan den moduan, BAXen kasuan gune hidrofobikotik bere C-muturraren askapena gertatzea beharrezkoa da baita ere (1.26 Irudia).

- N-muturraren azaleratzea

BAX eta BAKen N-muturrek N-zatikia eta  $\alpha 1$  helizea deituriko bi eremu dituzte. BAXen N-zatikia (1-15 aminoazidoak) malgua da, eta soluziorantz begira azaltzen da (Suzuki *et al.*, 2000). BAKen kasuan, berriz, zatiki hau (1-23 hondarrak) desegituratuta dago eta, bere mozketak eraginik ez duenez, badirudi ez daukala eragin zuzenik proteina funtzioan edota egonkortasunean (Grant Dewson *et al.*, 2009). Apoptosian zehar, BAX eta BAKen N-muturrek egitura aldaketak pairatuko dituzte,  $\alpha 1$  helizeak bere kokapena guztiz biratu edo helize maila murriztu dezakeelarik. Zeluletan burututako saioetan, konformazio aldaketa hau BAX eta BAKen aktibazio pausu goiztiarra detektatzeko markatzaile gisa izan da erabilia (Dewson & Kluck, 2009; Dewson *et al.*, 2008b, 2009b; Kim *et al.*, 2009; Lalier *et al.*, 2007; Nechushtan *et al.*, 1999).

Emaitzarik argienak proteinen konformazio zehatzak espezifikoki ezagutzen dituzten antigorputzen erabileran oinarritzen dira agian. Antigorputz hauek, 6A7/49F9 antigorputza BAXentzako eta Ab-1 antigorputza BAKentzako, aldaketa konformazional baten ondorioz euren epitopoaren azaleratzea ematean soilik ezagutuko dute proteina (Czabotar *et al.*, 2013; Dewson *et al.*, 2008; Kim *et al.*, 2009). Honez gain, aurretik deskribatutako datu hauek EPR teknika bidez egindako BAX eta BAKen egituren azterketa erabiliz izan da indartua: behin tBIDek aktibatuta,  $\alpha 1$  helizea gainontzeko BAX/BAK egituratik askatzen da,  $\alpha 1$ - $\alpha 2$  begizta irekiz (Bleicken *et al.*, 2010; Oh *et al.*, 2010). N-muturraren azaleratzea BAX/BAK egitura aktiboarekin erlazionatu izan den arren, mutagenesi azterketen bidez BAX/BAK egitura aldaketa hau, kinada apoptotiko edota oligomerizazio prozesu baten gabezia ere pairatu dezaketela ikusi da. Hortaz, esan daiteke N-muturraren azaleratzea BAX/BAK oligomerizazio prozesuarekin inolako zerikusirik ez duen aktibazioaren pausu goiztiar bat izango dela (Dewson *et al.*, 2008; Kim *et al.*, 2009) (1.26 Irudia). Hala ere, lan berri batek N-muturraren azaleratzea BAKen BH3 domeinuaren azaleratzearekiko independentea eta kronologikoki ostean gertatzen dela deskribatu du (Weber *et al.*, 2013).



**1.26 Irudia. BAX proteinaren kasurako aktibazio goiztiarraren pausua azaltzeko proposaturiko bi modeloen eskema.** BAX proteinaren egitura ez-aktibatua laranjaz koloreztatutako egitura globular bat bezala adierazten da, zeinatan BH3 domeinua ( $\alpha 2$ ) gorritz eta gune kanonikoa ( $\alpha 3$ - $\alpha 4$ ) berdez agertzen diren. BH3-domeinu bakarreko proteina aktibatzaileak BAX gune ez kanonikoan batuz aktibatzen du (gezi osoak), honen ondorioz, BAXen gune N-terminala ( $\alpha 1$ ) azaleratzen da eta jarraian BH3 domeinua. Azkenik, egitura aldaketa goiztiar hauek BAXen C-muturreko askapena eragiten dute. Beste modeloan (puntutako gezia), berriz, pausuen sekuentzia kontrajarria izango da. Kasu honetan, lehendabizi BAXen C-muturra gune kanonikotik askatu behar da, bertara BH3-domeinu bakarreko proteina bat batzeko eta aktibatua izateko. Ondoren, BH3 domeinua azaleratzen da eta jarraian N-muturra. Eskema honetan  $\alpha 5$ - $\alpha 6$  urkilaren txertaketa ez dago adierazita. Bukatzeko, BAK proteinak antzeko konformazio aldaketak pairatu litzakeela aipatu beharra dago. (Westphal *et al.*, 2011)-tik hartutako irudia.

BAXen kasuan, eta honen N-muturreko azaleratzea bere mitokondrionarako txertaketarekin erlazionatuz,  $\alpha 1$  helizeak  $\alpha 9$ ren barrunbe hidrofobikorako batuketa egonkortzen duela deskribatu da (Kim *et al.*, 2009; Nechushtan *et al.*, 1999). Ordea, ikerketa lan berri batek BAXen MOMerako ainguratzea bere N-muturraren azaleratzeak eragiten duen proteinaren aldaketa konformazionala baino lehenago gertatzen dela deskribatu du. Honez gain, lan berdinak BAX MOMean txertatutako egoera horretan egonda etengabe zitosolera erretrotranslokatu daitekeela adierazi du, baina ez ordea N-muturreko egitura aldaketa gertatu ostean (Schellenberg *et al.*, 2013). Aldiz, liposometara batuta baina ez txertatuta dagoen BAXek, N-muturreko zatikia erakusten du apoptosiaren estimulurik egon gabe (Yethon *et al.*, 2003). Bestalde, eta bukatzeko, berriki deskribatu da nahiz eta BID BH3 peptidoa BAKen barrunbean

kokatuta egon, BAKen N-muturraren eta BH3 domeinuaren esposizioa eman ahal izateko, BID BH3:BAK konplexu hau lipido ingurune batean aurkitu behar dela (Moldoveanu *et al.*, 2013).

- BH3 domeinuaren azaleratzea

Aurretik aipatu den bezala, apoptosia aktibatu baino lehen, BH3 domeinua ( $\alpha 2$  helizea) BAX/BAK en egituraren muinerantz begira kokatuta dago (Moldoveanu *et al.*, 2006; Suzuki *et al.*, 2000). BH3 domeinua beharrezkoa izanik oligomerizazioa gertatu dadin, domeinu honen azaleratzea BAX/BAK en aktibazioaren funtsezko pausu bat da. BH3:barrunbe eredian oinarrituz, BH3 domeinuaren esposizio iragankor bat gertatu behar da hau beste proteina baten barrunbean sartu ahal izateko: azken proteina hauek BAX edo BAK baldin badira, oligomerizazioa burutuko da; proteina antiapoptotiko baten kasuan, ordea, BAX eta BAK inhibituko dira (Dewson *et al.*, 2012; Dewson *et al.*, 2008; George *et al.*, 2007; George *et al.*, 2010; Sattler *et al.*, 1997; Simonen *et al.*, 1997; Whelan *et al.*, 2012; Willis *et al.*, 2005). Gainera, BH3 domeinua antigorputz bati lotuta egoteagatik ematen den proteinaren blokeoak bere oligomerizazioa eta ondorengo *c*-zitokromoaren askapena eragozten duela ikusi da (Bleicken *et al.*, 2010; Czabotar *et al.*, 2013; Dewson *et al.*, 2012; Dewson *et al.*, 2008; Moldoveanu *et al.*, 2013).

## 2) BAX eta BAK en txertaketa mintzean

BAX eta BAK en aktibazio funtzionalaren prozesuan barna, proteina hauen helize zatikien mintz lipidikoan txertatzea dagoela deskribatu da. Mintz mikrosomalak erabiliz *in vitro* burututako glikosilazio saioetan, BAX en egitura  $\alpha 1$  eta  $\alpha 9$  helizeak eta  $\alpha 5$ - $\alpha 6$  urkila, baina ez  $\alpha 6$  helize bakuna, mintzean txertatuta daudela ikusi da (García-Sález *et al.*, 2004). Isolatutako mitokondrioetan egindako zisteinen eskuragarritasun saioetan, antzeko emaitzak lortu ziren bai  $\alpha 5$ - $\alpha 6$  urkila zein C-muturreko domeinuarentzat ( $\alpha 9$ ) (Annis *et al.*, 2005). Gaur egun, oro har, onartua dago erdiko helize urkila ( $\alpha 5$ - $\alpha 6$ ) eta C-muturreko zatikia ( $\alpha 9$ ) BAX aktibazioan zehar lipido geruza bikoitzean txertatzen direla. Arestiko beste ikerketa batzuk, ordea, gainontzeko proteinaren tolestura globularra mantentzen den bitartean, txertatzen den gune bakarra C-muturreko domeinua dela iradokitzen dute (Dewson & Kluck, 2009).

Bestalde, azken BAX en forma aktibatu baten egituraren azterketa batek honen  $\alpha 4$ - $\alpha 5$  eta  $\alpha 6$ - $\alpha 8$  helizeak mintzaren azaleraren planoan kokatuta egon daitezkeela deskribatu du, proteinaren zatiki hauek MOMaren lipido buruen artean aurkituko lirakekeela proposatuz (Czabotar *et al.*, 2013). Erdiko helize urkilak mintzean aurkeztu dezakeen topologia oraindik eztabaidagai den aspektu bat da. Erdiko  $\alpha 5$ - $\alpha 6$  urkila poroa eratzeke domeinua bezala deskribatu izan da, baita mintza zeharkatzen duen domeinu gisa irudikatu ere. Ordea, helize zatiki hauen luzera hidrofobikoaren arabera ezingo lukete mintz osoa zeharkatu; ondorioz mintzean euren hondar hidrofobikoak lipido geruza bikoitzaren interfasean okluituz koka litezkeela proposatu da.

Zisteinen elkargurutzatzearen bidez lortutako emaitza berri batzuen arabera, aktibazio pausu goiztiar batean  $\alpha 5$  eta  $\alpha 6$  helizeak elkarbanandu eta orientazio ezberdinak hartu ditzaketela proposatu da (Czabotar *et al.*, 2013). Horrez gain, nahiz eta BAX txertaketara bideratzen duten gertaeren sekuentzia zehatzak ezezagun izaten jarraitzen duen, ikerketa lan desberdinek txertaketa hau proteinaren oligomerizazioa eta mintzaren zulaketa baino lehenago, baina BAX:tBID interakzioa eman ostean, gertatzen den prozesu bat bezala deskribatzen dute (Annis *et al.*, 2005; Lovell *et al.*, 2008; Weber *et al.*, 2013),


### 3) Oligomerizazioa

Gaur egunera arte, BAX eta BAKen BH3:barrunbe interakzio bidez bultzatutako oligomerizazioa elkargurutzatze saio ezberdinak burutuz izan da deskribatua. BAX/BAK en domeinuaren azaleratzea, BH3-domeinu bakarreko proteina batekin interakzionatzerakoan, tBIDekin esaterako, emango da; ostean, domeinu horrek beste aktibatutako BAX/BAK molekula baten barrunbea batuko du, BH3:barrunbe dimero bat eratuz (Bleicken *et al.*, 2010; Dewson *et al.*, 2012; Dewson *et al.*, 2008b, 2009b; Oh *et al.*, 2010). Datu hauek berriki argitaratutako BAXen BH3:barrunbe dimero simetriko baten emaitza egiturekin bat egiten dute (Czabotar *et al.*, 2013). Azken ikerketa lan honetan, BAXen  $\alpha 2$ - $\alpha 5$  zatikiak dimero bat eratzen du, zeinetan BAXen monomero bakoitzaren  $\alpha 2$  helizeak (BH3 domeinua) beste monomeroaren  $\alpha 3$ - $\alpha 5$  eremua batzen duen. BAXen dimeroaren egitura kristalino honek, gainera,  $\alpha 2$ ,  $\alpha 4$  eta  $\alpha 5$  helizeak oligomerizazioa gertatzeko beharrezkoa den egitura minimoa osatzen dutela proposatzen duen lana sostengatzeko balio izan du (George *et al.*, 2007). Ondoren, BAX/BAK en oligomero handiagoak eratu daitezkeela ikusi da BAX/BAK proteinen beste elkarrekintza eremua den  $\alpha 6$  helizearen baturagatik (1.27 Irudia) (Dewson *et al.*, 2009; Ma *et al.*, 2013).

Haatik, BAX/BAK en auto-aktibazio modeloan oinarrituz BAXen oligomerizazio prozesua azaltzen duen "buru-isats" edo eredu asimetrikoa izan da proposatua (Bogner *et al.*, 2010; Zhang *et al.*, 2010). Eredu honetan, hasteko BH3-domeinu bakarreko proteinek BAXen gune ez-kanonikoa batuko dute (Gavathiotis *et al.*, 2008); ondoren, aktibatutako BAX molekula honek beste BAX molekula baten barrunbe ez-kanonikora batuz hau aktibatuko luke, modu honetan oligomero handiagoen hedaketa bideratuz (1.27 Irudia). Hala ere, esan beharrezkoa da eredu honek ezin duela BAK en oligomerizazioa azaldu, izan ere, BAK en egiturak gune hidrofobiko bakarra azaltzen du, barrunbe kanonikoa (Leshchiner *et al.*, 2013).

Bukatzeko, ikerketa berri batek oligomerizazioa mintzaren zulaketa emateko beharrezkoa den ala ez planteatu du. Newmeyer eta lankideek, berreraikitako sistemak erabiliz poro eraketa gertatzeko BAXen oligomerizazioaren pausua ezinbestekoa ez dela deskribatu dute (Kushnareva *et al.*, 2012). Azkenik, beste artikulua batean, "nanodisc" sistema batean txertaturiko BAX molekula bakar batek eratutako poroa erakutsi da (Xu *et al.*, 2013). Beraz, BAX/BAK en

oligomerizazioa eta hauek bideratutako mintzaren zulaketaren arteko loturak argitzeke egoten jarraitzen du.



**1.27 Irudia. BAXentzako proposaturiko aktibazio eta oligomerizazio modeloak.** BAX molekularen irudikapena urdin ilunez adierazten da, gune ez kanonikoa berdez, gune kanonikoa urdin argiz eta BH3 domeinua borobil urdin batez. BH3-domeinu bakarreko proteina, berriz, gorritz adierazita dago. A) BH3:barrunbe interakzio bidezko oligomerizazioa edo oligomerizazio simetrikoa. Deskribatutako modeloen arabera, BH3-domeinu bakarreko proteinak BAXen gune ez kanonikoa edo gune kanonikoa batzerakoan, BH3 domeinuak azaleratzeko aukera izango du. Modelo honetan eratzen diren dimeroak BH3 domeinuaren eta barrunbearen arteko elkarrekintzan oinarritzen dira, honetaz gain, oligomero handiagoak eratu daitezkeelarik elkarrekintza eremua den  $\alpha 6$  helizearen baturagatik ere. Hortaz, oligomerizazioa bi eremu ezberdinen bidez gertatuko da kasu honetan. B) “Buru-isats” bidezko oligomerizazioa edo oligomerizazio asimetrikoa. Auto aktibazio modeloan oinarrituz, BH3-domeinu bakarreko proteinak BAXen gune ez-kanonikoa batzen du, BAXen BH3 domeinua azaleraraziz; ondoren BAXen BH3 domeinu honek beste BAX baten barrunbe ez kanonikoa batuko du, azken honen BH3 domeinua azaleraraziz. Modu honetan oligomero handiak eratu daitezke.

4) Poro eraketa.

Gaur egun, BAX eta BAK MOMP-eragileak direla ongi finkatuta dagoen arren, hauek mintzean eratuko dituzten zuloen izaerak oso eztabaidatua den gai bat izaten jarraitzen du. BAX-moduko proteinek MOMP nola eragiten duten azaltzeko bi taldeetan banandu ahal diren eredu desberdinak izan dira proposatuak: poro eraketaren zeharkako eredu eta zuzeneko eredu.

## 1. Poro eraketaren zeharkako eredua

Modelo honen arabera, mitokondrioan dauden kanal endogenoak BAX-moduko proteinek erregulatzen dituzte. Honela, BAXek kanpo eta barne mintzeko elkarguneetan (CS, ingelesetik *Contact Sites*) kokatzen den mPTP-ren (ingelesetik *Permeability Transition Pore*) osagaiekin elkarrekintza zuzen bat dela medio mitokondrioaren kanpo mintza zulatzeko ahalmena izango du (Kroemer *et al.*, 2007). mPTP konplexu honen osagaiak honako hauek direla proposatu da: adenina-nukleotido translokasa (ANT, barne-mintzean kokatua), kanpo mintzean txertatua dagoen VDAC proteina, eta D-ziklofilina (Cyp-D, barne-mintzeko matrizearen azalera kokatua) (Baines *et al.*, 2005; Schinzel *et al.*, 2004). Konplexu honen zabaltzeak mitokondrioaren matrizerara ur eta ioien fluxu aske bat ahalbideratuko luke, hortaz, organuluaren hantura eta MOMaren apurketa eraginez.

Ikerketa-lan osagarri batzuen emaitzetan oinarrituta, hipotesi honen inguruko zalantza desberdinak planteatu dira. Ikusi denez, mPTP-ren ustezko osagai bakoitzaren *knockout* saioek ezagutarazi dute hauek ez direla MOMP edo apoptosia eragiteko nahitaezkoak, nahiz eta, aipatzen den moduan, ezin den baztertu mPTPak eragiten duen MOMP prozesua nekroptosi mekanismoarekin erlazionatuta egon litekeela (Baines *et al.*, 2005; Baines *et al.*, 2007; Kokoszka *et al.*, 2004; Nakagawa *et al.*, 2005; Whelan *et al.*, 2012). Bestalde, mPTPak MOMP eragiteko proposatu den mekanismoa mitokondrioaren matrizearen hantura izanik, aipatu beharrekoa da hau ez dela apoptosian zehar gertatu ohi den prozesu bat. Hala ere, aurkikuntza berri batzuek iradokitzen dute mPTP-ren benetako osagaia ATPasa dimerikoa dela, eta beraz, ezin da guztiz baztertu BAX-moduko proteinen eta ATPasa dimerikoaren akzio koordinatu bat izatea MOMP-eragilea (Giorgio *et al.*, 2013). Azkenik azpimarratu beharrekoa da, mintz-eredu sistema sinplifikatuak (adib. berreraikitako proteoliposomak edo *black lipid* mintzak) erabiliz deskribatu den BAX eta BAKen mintz-iragazkortze funtzioa zeharkako eredu honetan oinarrituz ezinezkoa dela azaltzea.

## 2. Poro eraketaren zuzeneko eredua

Ordezko eredu honetan, BCL2 proteinen eta poro-eragile diren bakterio toxinen arteko antzekotasun egituraletan oinarrituz, BAX-moduko proteinek, MOMaren iragazkortasuna eragiteko ahalmena dutela proposatu zen (Petros *et al.*, 2004). Honez gain, gure eta beste talde batzuek mintz-eredu sistema desberdinetan eta beste mitokondrioaren osagirik egon gabe, tBIDek aktibatutako BAX eta BAKen bidezko poroaren mekanismoa aztertu dute (Basañez *et al.*, 1999; Basañez *et al.*, 2002; Bleicken *et al.*, 2010, 2013; Kuwana *et al.*, 2002; Landeta *et al.*, 2011; Martinez-Caballero *et al.*, 2009; Saito, *et al.*, 2000; Schafer *et al.*, 2009; Terrones *et al.*, 2004; Xu *et al.*, 2013). Aurretik aipatua izan den moduan, ikerketa-lan ezberdinek erdiko helize urkila ( $\alpha$ 5- $\alpha$ 6) poro eraketarako egitura minimoa dela proposatzen dute. BAXi  $\alpha$ 5- $\alpha$ 6 kentzeak BAX bidezko





- Poro proteolipidikoa

Poro proteolipidikoa 23 hondarretako magainina, peptido antimikrobianoaren ekintza-mekanismoa azaltzeko proposatua izan zen lehendabiziko aldiz (Ludtke *et al.*, 1996; Matsuzaki *et al.*, 1996). Egiturari begira, poro toroidala upa-ohol eredutik desberdintzen duen ezaugarria honako hau da: peptidoak lipido geruza bikoitzaren fase hidrofiliiko eta hidrofobikoen arteko tartean, hau da, lipidoen buruen artean kokatzen dira, baina mintzaren planoarekiko paraleloa den orientazio batean egokituz (1.28 Irudia). Peptido helikoidalen mintzeko txertaketa asimetrikoaren bidez, hots, peptidoa kanpo monogeruzan soilik txertatzearen ondorioz mintzaren ezaugarri fisiko desberdinak aldatuko dira, mintzaren azalera asimetrikoaren hedapena eta mintzaren zabaleraren hertsidura emanez. Behin mintz-tentsio maila batera helduta, lipido geruza bikoitzaren egitura ezegonkorra bihurtzen da, honela, mintzean sortu berri diren akatsetan peptido gehiago batu ahalko da, honek poro bat eratzeko energi-atalasea murriztuz. Poroa eratzen denean lipidoak kurbadura handiko egitura bat eratuz tolestean dira; hemen, mintzaren kanpo eta barne geruzak jarraiak bihurtzen dira, honela zulo toroidal bat eratuz. Monogeruzak kontaktuan daudenez, egitura jarrai bat eratuko dute; monogeruzaren kurbadura positiboa izango da mintzarekiko perpendikularra den planoan eta negatiboa berriz, mintzaren planoan. Hasierako poro honen tamaina handia izango da, baina behin peptidoak porotik igaro eta barne monogeruzan txertatzean lortutako oreka egoera honetan poroaren tamaina murriztu egingo da, bai poroa ixtea faboratzen duen tentsio lineala murriztuz, monogeruza lipidikoaren kurbaduran eraginez edota poroaren ertzean lokalizatuz (Fuertes *et al.*, 2011; Fuertes, *et al.*, 2010; Huang, 2000; Matsuzaki *et al.*, 1996; Valcarcel *et al.*, 2001).

Azkenengo urteetan, beste talde batzuek, gureak barne, BAXek proteina-lipidodun izaerako poro toroidal bat eratzen dutelaren ebidentzia ugari bildu dituzte. Alde batetik, BAXek mintzaren planoaren erdibizitza murrizten duela ikusi da, baita eratutako poroen konduktantzia mailak aldakorrak direla ere (Basañez *et al.*, 1999; García-Sáez *et al.*, 2005). Gainera, mintzaren konposaketa lipidikoan kurbadura intrintseko ezberdineko lipidoak gaineratuz BAXen poroaren ezaugarriak aldatzen dira (Basañez *et al.*, 2002; Terrones *et al.*, 2004). Bestalde, X-izpi bidez BAX  $\alpha 5$  peptido batek lipido molekula poroaren lumenean kokatzen diren poroak era ditzakeela frogatu zen (Qian *et al.*, 2008) (1.28 Irudia). Azpimarratzeko da, aurreko datu hauek BAXek poro eraketan eragindako monogeruza batetik besterako lipidoen mugimendurekin bat datozela (Epanand *et al.*, 2003; García-Sáez *et al.*, 2006; Terrones *et al.*, 2004).

Horretaz gain, BAXek liposometatik pisu molekular altuko proteina markatzaileen askapena eragiten dute (Bleicken *et al.*, 2010; Kuwana *et al.*, 2002; Schafer *et al.*, 2009; Terrones *et al.*, 2004, 2008). Proteina honekin inkubatutako liposomen Crio-EM bidez lorturiko irudien azterketak, mintzean tamaina ezberdineko (25-100 nm) zuloak eratzen direla erakusten ditu.

Gainera, poro hauen ertzetan ez zen kanal bat eratzen duten toxinen kasuan azaltzen den proteinadun egitura zehatzik aurkitu (Tilley *et al.*, 2005).

Deskribatutako modeloez gain, duela gutxi mintzaren birmoldatzea eragiten duten proteinek poro apoptotiko eraketan izan ahal duten parte hartzeari garrantzi handia ematen hasi zaio. Newmeyer eta lankideen arabera, MOMean kokatzen den katalizatzaile multimeriko batek BAXen poro eraketa kitzikatuko du. Eredu honetan, katalizatzaile horrek BAXen poro apoptotikoa eratzeko erabiltzen duen mekanismo zehatza zein den ez dago xehatuta, baina mintza birmoldatzeko ahalmena duen proteina bat proposatu da ustezko katalizatzaile multimeriko gisa. MOMean lokalizatzen diren DRP1 eta BIF1 mintza birmoldatzen duten bi proteina dira, eta mintzaren kurbadura aldatuz BAXen funtzio apoptotikoa faboratu dezaketela ikusi da (Etxebarria *et al.*, 2009; Montessuit *et al.*, 2010).

Guzti hau jakinda ere, BAX-moduko proteina hauen ekintza-mekanismo molekularrean berebiziko garrantzia duten hainbat aspektu ezberdin argitzeke geratzen dira, adibidez, BAX/BAK en poroak erregulatzen duten parametroak zeintzuk diren eta BAX/BAK en poroaren izaera zein den edota oligomerizazioa beharrezkoa den ala ez poroak eratzeko.

#### 1.1.6.3 BCL2 familiako kideen funtzio ez-apoptotikoak

BCL2 familiako proteinek apoptosis erregulatzeko duten aktibitate biokimiko nagusia MOMParen modulazioa da. Hala ere, azkenengo urteetan BCL2 proteinen funtsezkoak diren funtzio ez-apoptotikoak ere badituztela argi geratu da.

- BCL2 familiako proteinak garapenean

Programatutako heriotz zelularra garapenean zehar ematen den prozesu garrantzitsua da eta kasu gehienetan heriotz hau apoptosi bidezkoa da. Behatzen indibidualizazioa ornodunetako programatutako heriotz zelularren modelu zaharrena da eta apoptosiak organoak zelan lantzen dituen azaltzeko erabiltzen den adibide morfogenetiko klasikoa da (Montero *et al.*, 2010). BAX eta BAK, BCL2 familiako efektoreak, falta dituzten saguek enbrioi izanda hiltzen dira normalean, baina bizirauten duten saguek oin palmatuak izaten dituzte (Lindsten *et al.*, 2000). BID, BIM eta PUMA BH3-domeinu bakarreko proteinak faltan dituzten saguetan antzeko fenotipoa behatzen da (Ren *et al.*, 2010).

Behatzen moldaketan duen inplikazioaz gain, prozesu apoptotikoak garapenean zeharreko beste une garrantzitsuetan ere hartzen du parte, ugaztunen bularren hodian formazioan, hestearen moldaketan, bihotz morfogenesisian, eta nerbio sistemaren garapenean zeharreko zelula supernumerarioen deuseztatzean besteak beste.

- BCL2 familiako proteinak minbizian

Apoptosian ematen diren akatsak tumoregenesi eta botikarekiko erresistentziaren atzean daude eta akats hauengatik batzuetan kimioterapiak kale egiten du. Orain arte, apoptosiaren blokeoa batez ere BCL2-motatako proteinen gainadierazpenagatik ematen da (Hanahan & Weinberg, 2011).

Kasu askotan, minbizi zelulak heriotzerako "prest" eta gainadierazita dauden proteina antiapoptotikoen "menpe" daude (Certo *et al.*, 2006). Proteina antiapoptotiko eta BH3-domeinu bakarreko proteinen arteko interakzioa zuzenean inhibitzea "menpekotasun" hau duten zelulak selektiboki hiltzeko etorkizun handiko estrategia da, izan ere zelula hauek beste zelulak baino erraztasun handiagoz barneratuko baitira bidezidor mitokondrialean. BH3-profilaketa izeneko teknika hasi da erabiltzen zelulen heriotzaren blokeoaren arduradunak diren proteina antiapoptotikoak zehazteko. Teknika honetan, minbizi zeluletako mitokondria isolatuak BH3-domeinu bakarreko proteinen BH3 domeinutik eratorritako peptidoetara ikusgai jartzen dira eta cyt c askapena neurtzen da peptidoak eragindako lekualdaketa egon den edo ez aztertzeko.

BH3-profilaketa kontzeptua zabalduz, gaixoak BH3 peptidoak imitatzen dituzten botikekin tratatzean etorkizun oparoko estrategia bilakatu da. Botika horietako bat ABT-737 inhibitzaile kimikoa (edo bere forma orala den ABT-263) da, Abbot Laboratories-ek garatu zuena BCL2 inhibitzaileak identifikatzeko NMRan oinarritutako screeninga erabiz. ABT-737 afinitate subnanomolarrekin batzen da BCLXL, BCL2 eta BCL-W proteinen poltsiko hirofobikora, baina MCL-1 eta A1 proteinetara ez da batzen. ABT-737/ABT-263 BCL-2 eta BCL-XL maila altuak eta MCL-1 maila baxuak dituzten zelula tumoralak azkar hiltzen dituzte apoptosi bidezidor mitokondrialaren bidez, eta ez dute heriotzik eragiten zelula normal gehienetan zenbait linfzito eta plaketa kenduta.

BCL2tan oinarritutako minbiziaren aurkako terapiak garatzeko planteamendu erakargarria BH3-mimetikoak diren peptidoak euren  $\alpha$ -helize konformazioa handituz euren ituetarako batuketa areagotzea da.

Proteina antiapoptotikoen kontrara, zeintzuk normalean onkogene bezala funtzionatzen duten, BCL2 familiako proteina proapoptotikoak tumore supresoretzat hartzen dira eta ondorioz, euren ablazio genetikoak tumoregenesi dakar c-MYC bezalako onkogeneak adierazita daudenean. Honekin jarraituz, BAX/BAK proteinen aktibatzaile zuzenak diren BH3-domeinu bakarreko proteinak imitatzen dituzten SAHB peptidoak, BID SAHB peptidoa bezala, etorkizun oparoa duen beste estrategia bat da dagoeneko garatzen ari dena (Gavathiotis *et al.*, 2012). Estrategia alternatibo bat da BAX-motatako proteinen poroa eratzen duten guneen peptidoak erabiltzea, BAX- $\alpha$ 5 besteak beste (Garcia Valero *et al.*, 2011).

- BCL2 proteinak dinamika mitokondrialean

Ziurrenik BCL2 familiako proteinen funtzio ez apoptotiko interesgarri eta konplexuena dinamika mitokondrialarekin erlazionatutakoa izan daiteke (Martinou & Youle, 2011). BCL2 familiako proteinen eta dinamika mitokondrialaren arteko lehen lotura hurrengo behaketen ondorioz sortu zen: 1) Apoptosian zehar mitokondrioek fragmentazioa pairatzen dute (Arnoult, 2007; Martinou & Youle, 2006), eta 2) DRP1 apoptosiko bidezidor mitokondriala eta BAX bidezko MOMP suspertzen ditu (Frank *et al.*, 2001). Beranduago apoptosian zehar BAX eta BAK DRP1 eta MFN2 proteinekin ko-lokalizatzen dutela ikusi zen, fisio mitokondrial guneetan (Karbowski *et al.*, 2002). BAX eta BAKen fisio guneetarako translokazioa DRP1enarekin batera fisio makinariak apoptosia eragiteko funtsezkoa dela iradokitu zen (Youle & Karbowski, 2005). Horretaz gain, BAX/BAK en menpeko DRP1en mintzarekiko asoziazio egonkorra deskribatu zen, DRP1en sumo kongujazioarekin erlazionatutakoa (McBride *et al.*, 2006). Gainera, DRP1ek apoptosian parte hartzen du BAKen oligomerizazioa estimulatuz eta ondorioz MOMP areagotuz (Montessuit *et al.*, 2010).

Berriki, BCL2 familiako proteina proapoptotikoek bi gertaera mitokondrial banandu eragiten dituztela proposatu izan zen, gangar loturen zabalera MIMean eta MOMP. BH3-domeinu bakarreko proteinek OPA1en askapena eragiten dute mitokondriatik, eta ondorioz OPA1 konplexuen desmuntaia eta cyt c askapena emango da. BH3-domeinu bakarreko proteinetaz gain, BAX eta BAK proteinek MOMEan kokatutako proteinekin interakzionatu dezaketela iradokitu da OPA1 konplexuen desmuntaia eraginez BH3-domeinu bakarreko proteinen presentziaren menpeko mekanismo bidez, baina BAX/BAK oligomerizazio eta MOMP ez menpeko bidez (Yamaguchi *et al.*, 2008). Horretaz gain, OPA1 konplexuen desmuntaia cyt c gehienak kanpo mintzeko barne muga zeharkatu ahal izateko kritikoa da, mitokondrioan dagoen cyt c gehiena gangar barruan itxita dagoelako OPA1 konplexuen bitartez. Oligomerizatutako BAX eta BAK kanpo eta barne mintzen kontaktu guneekin elkarreagiten dutela proposatu da, ondorioz kanpo mintzeko iragazkortasunean eragina izango dute eta MIMeko proteasa den OMA1 proteinaren aktibazioa eraginez. Elkarreagin hauek OMA1 proteasaren aktibitatea areagotzen dute, ondorioz L-OPA1 autodegradazioa bizkortuz, OPA1 konplexuen desmuntaia eta ondorioz cyt c askapena eraginez (Jiang *et al.*, 2014).

Nekroptosian zehar BAX MFN2rekin elkarreagiten duela behatu da, mPTPren atalasea jeitsiz (Whelan *et al.*, 2012). Aitzitik, apoptosian zehar BAK MFN1ekin elkarreagiten du MOMP eraginez (Brooks *et al.*, 2007). Gainera, DRP1 eta BIF1 proteinek BAX oligomerizazioa eta BAKek eragindako mintz iragazkortzea eragiten dute hurrenez hurren, mintz kurbaturan eragindako aldaketen eraginez eta fisio mitokondrial normalean zehar izaten dituzten aktibitate desberdinak izanik (Ettxebarria *et al.*, 2009; Montessuit *et al.*, 2010).

Bestalde, BAX eta BAK proteinek zelula osasuntsuetan dinamika mitokondrialak modulatzeko dituzte. Esparru horretan, BAX/BAK DKO zelulek fragmentatutako mitokondrioak izaten dituzte BAX/BAK fusio mitokondrial normalean paper bat betetzen dutela iradokituz (Karbowski *et al.*, 2006). BAX funtzio hau MFN2rekin elkarrengaitan betetzen duela behatu da (Hoppins *et al.*, 2011). BAXek dinamika mitokondrial mintz birmoldaketan parte hartzen duen BIF1 proteinarekin elkarrengaitan ere erregula dezake, bai baldintza osasuntsu zein apoptotikoetan (Cuddeback *et al.*, 2001; Etxebarria *et al.*, 2009). BAK mintz birmoldatze prozesuetan parte hartzen duela iradokitu da bai mitokondrioan baita ERan ere. Gainera, BCL-XL proteinek dinamika mitokondrial normala eraldatu dezake bi prozesuak sustatuz, bai fusio mitokondrial (Delivani *et al.*, 2006) baita fisio mitokondrial ere (Beranek *et al.*, 2009). BCL-XL eta DRP1 arteko elkarrengaitan fisiko bat ere deskribatu da. Interakzio honek DRP1en GTPasa aktibitatea areagotzen du *in vitro*, mitokondrioak banatzeko duen joeran eragina izan dezakeena (Li *et al.*, 2008). BCL-W proteina ere fisio mitokondrial tasa normalak mantentzeko beharrezkoa izan liteke (Liu & Shio, 2008).

- BCL2 proteinen funtzioak MIM, ER eta Golgi aparatuan

Gaur egunerarte, BCL2 proteinek MOMEan duten funtzionatzeko moduan ipini izan da atentzioa. Hala ere, agerian geratzen hasi da beste mintz intrazelular batzuk ere prozesu garrantzitsu askoren gune direla eta heriotz zelularra eta biziraupen zelularra zehaztu dezaketela zeintzuetan BCL2 famliako proteinek tartean dauden.

MIMari dagokionez, duela gutxi ikerketek BCL-XL eta MCL-1 proteinek metabolismo zelularra erregulatzeko MIMean kokatu daitezkeela ezagutzera eman dute. ERari dagokionez, BCL2 proteinek organulan bertan gertatzen diren prozesu garrantzitsuak modulatzeko dituztela aspalditik da jakina, prozesu hauek kaltzio homeostasia, autofagia, eztolestutako proteinen erantzuna eta ER morfogenesisia biltzen dituzte (Heath-Engel *et al.*, 2008; Szegezdi *et al.*, 2006). Seguraski BCL2 proteinek ERan duten funtzio guztietatik ikertuena kaltzio homeostasian duten erregulazio funtzioa da. Zenbait BH3-domeinu bakarreko proteinek kaltzio intrazelularrean handipen bat eragiten dute ERan kokatutako BCL2 famliako kide batzuekin elkarrengaitan, BAK proteinarekin adibidez (Klee *et al.*, 2009). BCL2 proteinek inositol 1,4,5-trifosfato hartzailarekin (IP<sub>3</sub>R) interakzionatzen duela behatu da, modu horretan IP<sub>3</sub>R bitartekotza egiten duen Ca<sup>+2</sup> irteera, zeina zitosoleko entzima desberdin asko erregulatu dituen, inhibituz (Rong *et al.*, 2009). Duela gutxi BOK IP<sub>3</sub>R hartzailarekin konstituboki lotuta dagoela aurkitu da, baina BCL2 proteinek egiten duen kanalaren Ca<sup>+2</sup>-aren mobilizazioa erregulatu ordez, BOK proteinek IP<sub>3</sub>R hartzailak proteolizatzetik babesten ditu (Schulman *et al.*, 2013). Gainera, BOK proteinarekin gainadierazpenak aldaketa morfologikoak eragin ditzakeela ere iradokitu da, bai ERan eta baita Golgi aparatuan ere, apoptosian zehar BOKek organulu hauetan funtzioen bat bete dezakeela

adierazi lezakeena (Echeverry *et al.*, 2013). BOKen kasuan bezala, BAXen kopuru bat Golgi aparatuan konstitutiboki kokatzen da zelula ama enbrionikoetan, non egoera preaktiboan mantentzen den mitokondriara translokatzeko denerarte p53rekiko dependentea den modu baten (Dumitru *et al.*, 2012).

#### 1.1.6.4 BOK

Argi dago BOK proteinaren akzio mekanismoari buruzko ezagumendua BAX eta BAK proteinenarekin konparatuz askoz murriztuagoa dela. Jarraian BOK proteinaren inguruko informazioaren deskribapen laburra azaltzen da, batez ere eztabaida sortzen dituzten zenbait gai polemikotan fokaturik.

BOK (ingelesez, *BCL2-related ovarian killer*) genea 1997an isolatu zen lehenengoz arratoi obario cDNA liburutegi batetik (Hsu *et al.*, 1997). Ikerketa horretan hurrengo behatu zen, (i) BOK proteinak zenbait BCL2 homologia domeinu dituela, (ii) BOK proteinak apoptosia eragiten duela, eta (iii) BOK proteinak MCL-1 proteinarekin era tinko batean interakzionatzen duela. Beraz, kriterio horietan oinarrituz, BOK BAX-motatako BCL2 familiako proteina proapoptotiko bezala definitu zen (Hsu *et al.*, 1997). Lehen argitalpen honetan BOKen adierazpena zenbait ugalketa ehunetara mugatuta dagoela proposatu zen, obario, testikulu eta umetokira, besteak beste. Ondorengoko beste argitalpen batek ehun horietan ematen den BOK proteinaren adierazpena baieztatu zuen, baina beste ehun batzuetan ere antzeman zen adierazpena, kolonean, urdailean, karenan eta arean (Gao *et al.*, 2005a). Duela gutxi, BOK mRNA adierazpena aztertu zen umetoki eta obarioetan oso ugaria dela behatu delarik, burmuin, bare, birika, urdaila, heste mehar eta giltzurrunean ere maila altuan agertzen da eta maila baxuagoan baina oraindik detektagarrian gibel, timo, nodulu linfatiko, bihotz eta hezur muinean (Ke *et al.*, 2012).

Ehunen espezifizitatearen inguruko eztabaidaz gain, bere lokalizazio intrazelularri buruzko zalantza asko ere badaude. Hasiera batean BOK funtsean proteina zitosolikoa zela proposatu zen, frakzio txikia mitokondriarekin kolokalizatzen zuelarik (Brown *et al.*, 2004). Beste ikerketa batean BOK mitokondrian kokatzen zela behatu zen (Yakovlev *et al.*, 2004). Geroago, apoptosia induzitu ostean BOK mitokondriara masiboki migratzen duela proposatu zen, MOMean txertatua izango delarik (Gao *et al.*, 2005). Lokalizazio zitosolikoa eta mitokondrialia izateaz gain, nukleoan ere kokatu daitekeela proposatu zen (Ray *et al.*, 2010). Berriki, mitokondrian kokatzeaz gain, gainadierazitako BOK ER eta Golgi aparatuko mintzekin asoziatuta dagoela ere aurkitu da (Echeverry *et al.*, 2013). BOK proteinak ERan duen funtzioa oraindik argitu gabe dago. Alde batetik, BOKen gainadierazpenak ER eta Golgiren morfologia aldatzen duela ikusita BOK proteinak organulu hauen apoptosian zeharreko desmuntaiaren paperen bat izan lezakeela iradokitzen du. Baina beste ebidentzia batzuek BOK IP<sub>3</sub>R hartzailerekin konstitutiboki lotuta dagoela adierazten dute (Schulman *et al.*, 2013). Horren arabera, BOKen hartzaille honekiko

batuketak IP<sub>3</sub>R hartzailak apoptosian zehar ematen den proteolisitik babes lezake (Schulman *et al.*, 2013).

Azkenik, nahiz eta ebidentzia gehienek BOK BAX-motatako proteina proapoptotikoa dela iradokitzen duten, ez dago guztiz argi BOKek apoptosia BAX/BAK proteinek egiten duten bezala eragiten duen edo ez. Lehenik eta behin, zenbait ebidentzia desberdinek adierazten dute BAX/BAKek ez bezala, konstitutiboki adierazitako BOK proteinak ez duela nahitanahiez H122 zeluletan apoptosia eragiten (Rodriguez *et al.*, 2006), ezta BAX/BAK DKO fibroblastoetan ere (Dewson & Kluck, 2009; Echeverry *et al.*, 2013). Bigarrenik, BAX/BAK en kasuan ez bezala, BOK proteinak aktibitate proapoptotiko osoa lortzeko bere C-terminaleko gune hidrofobikoaren beharra ez duela ematen du (Brown *et al.*, 2004; Echeverry *et al.*, 2013; Hsu & Hsueh, 1998). Izan ere, berriki argitaratu den ikerketa batek adierazten du BOK BAX eta BAK proteinekin BH domeinuetako sekuentzia antzekotasun txikia duela (Aouacheria *et al.*, 2013). Hirugarrenik, BOK<sup>-/-</sup>BAK<sup>-/-</sup> eta BOK<sup>-/-</sup>BAX<sup>-/-</sup> sagu *knockout* bikotzak ez dute anormaltasun nabaririk erakusten, BAX edo BAK en galera hutsarekin behatzen diren anormaltasunak kenduta. Hau BAX/BAK DKO saguekin ikusten den heriotz tasa altua eta garapen anormaltasun garrantzitsuekin alderatuta erabat desberdina da (Ke *et al.*, 2013). Eta azkenik, BOK giza minbizietan delezionatuta aurkitzen diren geneetatik errepikatzen den geneetako bat da, BOK supresore tumoral bezala joka lezakeela iradokituz (Beroukhim *et al.*, 2010).

## 1.2 HELBURUAK

DRP1 eta BCL2 familiako proteinak mitokondrioko kanpo mintzean kokatzen dira zelula funtzio normal eta apoptosis erregulatzeko. Hala ere, nahiz eta ikerketa sakonak egin diren, proteina hauek maila molekularrean nola funtzionatzen duten ez da guztiz ezagutzen. Tesi honen helburu orokorra beraz, DRP1 eta BCL2 familiako kide ezezaguna den BOK proteinen mekanismo molekularren ezagumenduan aurrerapausuak ematea da, bereziki mintzaren testuinguruan. Horretarako, disziplina anitzeko planteamendua egin dugu, teknika biofisiko, biokimiko eta biologia molekularreko teknikak bai sistema azelular zein sistema zelularretan uztartuz.

### Helburu zehatzak


1. DRP1:CL elkarrekintza prozesuaren oinarri molekularrak eta ondorio funtzionalak argitzea, berreraikitako *in vitro* sistemak erabiliz.
2. BOK proteina birkonbinatua lortu eta karakterizatzea eta proteina honen oinarriko ezaugarri fisiologikoak berreraikitzea, lipido konposaketa zehatza duten mintz-eredu sistemak erabiliz.
3. Arestian aipatutako berreraikitako *in vitro* sistemak erabiltzea, BOK proteinen aktibazio funtzionala emateko beharrezkoak diren mekanismo molekularrak argitzeko.
4. BOK proteinak ingurune zelularrean duen lokalizazio eta funtzioaren inguruko ezagumendu zehatzagoa lortzea.



**2 KAPITULUA:**

**TEKNIKA**

**ESPERIMENTALAK**





## 2. TEKNIKA ESPERIMENTALAK

Aurkezten den tesia burutzeko erabilitako teknika esperimentalen bilduma jasotzen da atal honetan. Halere, teknika hauen helburu zehatzetarako erabilpena dagokion Eraitzen kapituluak laburki eztabaidatuta agertuko da.

### 2.1 BERRERAIKITAKO EREDU SISTEMAK

BCL2 familiako proteinek zelularen bere honetan ematen dituzten elkarrekintzak maila molekularrean azaldu ahal izateko erronka nagusietako bat, MOMP prozesua bideratzen duten interakzio inter- eta intra-molekularren sarearen konplexutasun maila da. Gainera, interakzio hauek bi ingurune desberdinetan gerta daitezke: zitosolean edo mintzean, DRP1en kasuan ere gertatzen den bezala. Zelula mailan, proteinen ekintza-mekanismoaren inguruko informazioa lortzeko dituen zailtasunak kontuan hartuta, tesi lan honetan konposaketa definitu eta sinplifikatu bateko berreraikitako *in vitro* sistemak erabili ditugu. Sistema hauen osagaiak lipido puruz eratutako mintz-ereduak eta araztutako proteina edo peptidoak dira. Hortaz, erabilitako sistema erredukzionistak proteina eta lipidoen arteko elkarrekintzak aztertzea baimentzen digu, alde batetik, mintz biologikoen konplexutasuna alde batera utzi dezakegulako eta bestetik, mintzaren ezaugarriak eta lipido konposaketan aldaketak era kontrolatuan egitea ahalbidetzen digulako.

#### 2.1.1 OSAGAI LIPIDIKOAK


Mintz biologikoak zelula baten inguruan, ingurune kimiko eta biokimiko ezberdinak zehaztuz antolatzen diren hesitutako lipido geruza bikoitzak dira. Muga fisiko baten funtzioa izateaz gain, biomintzek beste berebiziko prozesuetan ere hartu dezakete parte, adibidez, seinale zelular ezberdinen harreran eta transdukzioan, fosforilazio oxidatiboan eta endo- edo exozitosian.

##### 2.1.1.1 Lipidoak: sailkapena eta ezaugarriak

###### 2.1.1.1.1 Lipido motak

Lipidoak aldakortasun handiko molekula anfipatikoak dira, buru polar bat eta zatiki hidrofobiko batez (normalean kate azilikoak) osatuak. Ezaugarri hau dela eta, energetikoki mesedegarria den besikula izeneko egitura konplexuetan berrantolatze gaitasuna daukate lipido batzuek.

Mintzean dauden lipidoak sailkatzeko talde nagusienak fosfolizeridoak, esfingolipidoak, glikolipidoak eta esterolak dira (2.1 Irudia).



**2.1 Irudia. Lipido mota ezberdinen egituren eskema.** Kimikoki mota ezberdin gehien dituzten biomolekulak dira; buru polar desberdinez gain, kate azilikoan luzera eta asetasunek aukerak biderkatzen dituzte. Fosfoglicerolipidoen ordezkari gisa PC **A**) eta CL **B**) daude. Esfingolipidoen artean, esfingosina-1-fosfato **C**) eta GD3 gliko esfingolipidoa **D**) daude. Azkenik, kolesterola **E**) egitura azaltzen da.

### Fosfoglicerolipidoak

Fosfoglicerolipidoak edo fosfogliceridoak biomintzetan agertzen diren lipido ugariak dira. Lipido hauen egituraren euskarria glizerol molekula bat da, zeinari ester lotura baten bidez fosfato talde bat eta kate aziliko bat ala bi batu diezaioketen. Honez gain, fosfato taldea molekula ezberdinekin egokitu daiteke. Buru polarraren aldagarritasunean oinarrituz, fosfoglicerolipido ezberdinak aurkitu daitezke: fosfatidilkolina (PC), fosfatidiletanolamina (PE), fosfatidilinositola (PI), fosfatidilglizerola (PG), fosfatidilserina (PS) eta azido fosfatidikoa (PA). Honekin batera, buru polarrera atxikitutako taldearen izaeraren arabera, pH fisiologikoan, lipidoak anionikoak (PI, PG, PS eta PA) edo zwiterionikoak (PC eta PE) izan daitezke. Lan honetan, gehienbat kardiolipina (CL,) hiru glizerol molekulaz, lau kate aziliko eta bi fosfato taldez osaturiko fosfolipido anionikoa aztertu da.

### Esfingolipidoak

Esfingolipidoek esfingosina (kate luzeko amino alkohola) daukate glizerola beharrean euskarri moduan. Talde honetan, beste batzuen artean honako lipidoak aurki daitezke: esfingosina, esfingosina-1-fosfato, zeramida eta esfingomielina.

### Glikolipidoak

Lipidoen buru polarrak ere hainbat azukreekin lotuta egon daitezke, glikolipido izena duen taldea osatuz. Lipidoaren egituraren arabera, bi talde nagusi daude: glikoglizerolipidoak (glizerolipido egitura) eta glikoesfingolipidoak (esfingolipido egitura). Lipido mota hauek mintz plasmaticoaren kanpo mintzean kokatu ohi dira.

### Esterolak

Kolesterola, animalia mintzetan ugaria den lipidoa da eta mintzaren iragazkortasuna eta jariakortasuna aldatzeko ahalmena dauka. Esterolek aurretik deskribatutako beste lipidoekin konparatuz egitura guztiz desberdina daukate. Egituraren zati nagusia hidrofobikoa da, eraztun esteroide eta kate aziliko txiki batez osatua; parte hidrofilikoa, berriz, hidroxilo talde bat da.

#### **2.1.1.1.2 Lipidoen polimorfismoa**


Lipidoen polimorfismoa molekularen itxura eraginkorrean oinarritzen da, azken hau lipido baten buru polar eta isats hidrofobikoaren arteko bateragarritasunaren menpekkoa delarik. Ondorioz, lipidoen polimorfismoa morfologia ezberdineko lipidoen egituraren aniztasunari deritzogu. Beraz, lipidoaren paketatze parametroa ( $P$ ) honela definitu daiteke:

$$P = \frac{V}{A \cdot l}$$

non,  $V$  lipido osoaren bolumena den,  $A$  lipido-ur interfasean buru polarrak betetzen duen azalera eta  $l$  lipidoaren luzera.

Zilindro itxuradun lipido baten ( $P=1$ ) kasuak, buru polarraren eta kate azilikoaren zeharkako ebakien azalerek antzeko balioak dituzten egitura bat deskribatuko luke: lipido mota hauek lipido geruza bikoitz egonkorak eratzearen aldekoak izango dira. Haatik, azalera desberdinak direnean, bi ez-zilindro itxurako talde aurkitu daitezke: positiboki-kurbatutako ( $P>1$ ) lipido ez lamelarrak eta negatiboki- ( $P<1$ ) kurbatutakoak (2.2 irudia). Bi monogeruzen artean, berezko kurbadura ezberdina baldin bada lipido geruza bikoitza asimetrikoki estresatua egongo da eta egitura ez-lamelarrak eratu ahalko dira. Honenbestez, kurbadura intrintsekoa duten lipido hauek monogeruzetan berezko kurbadura bat eragin dezakete: positiboki-kurbatutako lipidoek mizelak eta fase hexagonal arruntak ( $H_1$ ) era ditzakete, kurbadura positibodun mintzak ere

deitutakoak; negatiboki-kurbatutako lipidoek, berriz, alderantzikatutako fase hexagonalak ( $H_{II}$ ) edo fase kubikoak era ditzakete, kurbadura negatibodun mintz bezala ere ezagututakoak. (Cullis & De Kruijff, 1979; Helfrich, 1973; Marsh, 1996) (2.2 Irudia). Fase hexagonal edota kubikoak topologikoki konplexuak eta kurbadura handiko egiturak dira, ondorioz, zeluletako puntu zehatzetan bakarrik ager daitezke, hauen artean, fusio eta fisio guneetan, mintzean txertaturiko proteinen inguruan edota mintzean agertu daitezkeen akatsetan (e.b. poroak)(Mouritsen, 2011).



**2.2 Irudia. Lipidoen polimorfismoa: lipidoen geometria eta eratu ditzaketen mintz egiturak.** Zilindro itxurako lipidoek ( $P=1$ ) egitura lamelarrak faboratzen dituzte; negatiboki kurbatutako lipidoek, berriz, alderantzikatutako fase hexagonalak ( $H_{II}$ ) eta fase kubikoak eratzen dituzte. Azkenik, positiboki kurbatutako ( $P<1$ ) lipidoek mizelak eta egitura hexagonalak ( $H_I$ ) sortzen dituzte. (Mouritsen, 2011)-tik moldatua.

Lipido baten morfologiaren jokaera bere egitura kimiko zehatzean oinarritzen da, baita tenperatua, ur kantitatea, pH-a, gatzen kontzentrazioa eta katioi dibalenteen presentzia bezalako ingurunearen ezaugarrien menpekotasunean ere (Cullis & De Kruijff, 1979).

### 2.1.1.2 Mintz-ereduen sistemak

Azken hamarkadetan zehar, lipido eta lipido-proteina nahasketen propietateak aztertzeko mintz-eredu sistema ugari diseinatu dira. Sistema hauek metodoaren eta konplexutasunaren

arabera prestatzeko, honako taldeak eraiki daitezke: (a) Lipido monogeruzak, (b) Mizelak eta (c) Lipido-besikulak (liposomak).

#### **2.1.1.2.1 Liposomak: Sailkapena eta ezaugarriak**

Liposomak, lipido geruza bikoitz batez edo gehiagoz osaturiko besikula artifizialak dira (Patel, 1990). Liposomen barnealdeak, prestatuta izan direneko soluzioaren bolumen bat gordetzen du (Gennis, 1989; Patel, 1990). Mintz-eredu sistema gisa, liposomen abantailarik nagusia mintzekin elkarrekintzak dituzten proteinen egitura-funtzio loturaren azterketarako beharrezkoak diren kurbadura, lipido konposaketa, mintzaren jariakortasuna, karga dentsitatea eta iragazkortasuna bezalako parametroen aldaketak era erraz baten modula daitezkeela da.

Liposomen osagai kimikoek mintzaren jariakortasuna, karga eta iragazkortasuna ezartzen dituzten ezaugarriez gain, liposomak bai tamainan, bai forman, eta baita lamela kopuruan ere ezberdinak izan daitezke. Tamaina eta itxura kontuan hartuz, honako taldeak aurkituko dira (2.3 Irudia):

- **Lamela anitzeko besikula handiak** (MLV, ingelesezik *Multilamellar Large Vesicles*): Lamela ugari eta tamaina ezberdineko besikulak dira, 100-1000 nm tartekoak eta zentrokideak diren 7-10 lamela edo lipido geruza bikoitzez osatuta daude. Beraz, tamaina zehatza eta bigeruza bakarria beharrezkoa ez den saioetarako erabilgarriak dira. Aurretik lehortutako lipidoek osatutako lipido-film zuzenean uretako soluzio batean berresekiz prestatzen dira. Bere homogeneitatea handitu daiteke eta bere tamaina murriztu izozte-desizozte zikloak eginez.

Tesi lan honetan lamela anitzeko besikulak prestatzeko erabili den protokolo zehatza jarraian azaltzen da, 1.Protokoloan.

#### **1. Protokoloa** *MLVen prestaketa*

1. Lipido stockaren prestaketa: Lipido stock puruak kloroformo/metanol (2:1 v/v) soluzioan disolbatzen dira. Beharrezkoa den lipido kantitate zehatza soluzio organikoan dagoen stocketik kristalezko hodi batera pipeteatzen da.

(protokoloak hurrengo orrialdean jarraitzen du)

2. Disolbatzaile organikoaren lurrunketa: MLVak prestatzeko lehenengo eta behin lipidoak disolbatuta dauden fase organikoa lurruntzen uzten da nitrogeno gas korrante batekin. Saio-hodiaren beheko aldean lipido-film bat eratzen denean, saio-hodia 1-2 orduz huts ponpa bati konektaturik dagoen lehorgailu batean uzten da. Azkenengo pausu hau disolbatzaile organikoaren arrastorik ez geratzeko ematen da.
3. MLV-en sorkuntza: Ondoren, lipido filma indargetzaile arruntean (edo zundak enkapsulatu behar direnean, dagokion indargetzailean) berresekiko da trantsizio tenperaturarik ( $T_m$ ) altuena daukan lipidoaren  $T_m$ -a baino  $5^\circ\text{C}$  gehiagora. Nahasketa bortex batean bost minutuz irabiatzen da, lipido-filma saio-hodiko paretetatik askatu arte. Lortzen den esekidura, zuria eta homogeneoa izan behar du. Esekidura hau, MLV-z osaturik egongo da.

▪ **Lamela bakarreko besikula txikiak** (SUV, ingelesetik *Small Unilamellar Vesicles*): Lamela bakarreko besikula txikienetarikoak dira. Tamainaren muga inguruko indar ionikoaren eraginez edo mintzaren lipido-osaketaren eraginez aldatu daitezke. Normalean 10-50 nm-tako diametroa daukate. Era erraz batean prestatu daitezke MLVak sonikatuz (Tenchov *et al.*, 1985). Duten diametro txikia dela eta, kurbadura estres handia dute, ondorioz kanpo mintzak lipido aberasketa du barne mintzarekin konparatuz. (Chapman, 1984; Szoka & Papahadjopoulos, 1980). Kurbadura estres honek, besikula hauek oso eredu egoki bihurtzen ditu mintz fusio/fisio prozesuak aztertzeko (Nieva *et al.*, 1989), izan ere *in vivo* estres egoera berdinen eraginpean egoten baitira. Bere tamaina txikiak espektroskopia optikorako oso erabilgarriak egiten ditu, argi dispersio artefaktuak gutxitzen dituelako.

▪ **Lamela bakarreko besikula handiak** (LUV, ingelesetik *Large Unilamellar Vesicles*): LUV-en tamaina 100-500 nm ingurukoa da. MLVetatik lortu daitezke izozketa-desizozketa ziklo desberdinen ostean, nahi den poro diametroa duen polikarbonatozko mintz batetik pasaraziz (Mayer *et al.*, 1986; Mui *et al.*, 2003). Besikula hauen egonkortasun eta homogeneitatea dela eta, azterketa funtzional gehienak burutzeko mintz eredu egokiena da. Hala ere, tamaina submikroskopikoa dute. Jarraian LUVak prestatzeko protokolo zehatza (2.Protokoloa).



## **2. Protokoloa** LUVen prestaketa

1. MLVen prestaketa: 1.Protokoloa ikusi.
2. FT-MLV prestaketa: MLVei 10 izozte/desizozte ziklo egiten zaizkie, prozesu honetan bigeruzaz zentrukideak murrizten doaz, ondorioz besikulek tamaina txikiagoa hartzen dute.
3. Estrusio prozedura: Behin FT-MLVak ditugunean, lamela bakarra eta tamaina zehatza duten besikulak lortzeko, besikulak estruitzen ditugu (Hope *et al.*, 1985)-an deskribatutako metodoak esaten duen bezala. Lagina 10 aldiz pasarazten da egokia den poro diametroa duten polikarbonatozko filtroetatik (Nucleopore, San Diego, CA, USA), 200 psi-ko nitrogeno fluxuaz baliatuz.

▪ **Lamela bakarreko besikula erraldoiak** (GUV, ingelesetik *Giant Unilamellar Vesicles*): Lipido osaketaren arabera tamaina ezberdina izan dezakete, 25  $\mu\text{m}$ -tik 100  $\mu\text{m}$ -tara. GUVak gaur egun dauden mintz eredu sistemetatik etorkizun oparoena izan dezaketenak dira. Bere tamaina, “zelula batekin konparagarria”, zuzenean mikroskopioz ikustea ahalbidetzen du, prozesu dinamikoaren irudiak era zuzen batean lortzea baimenduz, besteak beste proteina-lipido elkarrekintzen zinetikak, lipido mikrodomeinuen eraketak, edo mintzaren aldaketa morfologikoak (Bacia *et al.*, 2011; Römer *et al.*, 2007; Saarikangas *et al.*, 2009; Sorre *et al.*, 2011). Lipido konposizio bera bi geruzetan duten besikula erraldoiak lipido-filma hidratatuz presta daitezke, lipido-fase trantsizio tenperatura gaintik denbora luzez (36 orduetik gora) “swelling” delako metodo espontaneo jarraituz (Reeves & Dowben, 1969), edo kanpo eremu baten presentzian elektroformazio metodoaren bitartez (Angeloval *et al.*, 1992; Luisi & Walde, 2000). Bigeruzaz asimetrikoak dituzten besikula erraldoiak prestatzeko teknika berriak garatu izan dira berriki, ur/olio emulsio alderantzizatu eta “microfluidic jetting” delakoak (Pautot *et al.*, 2003; Richmond *et al.*, 2011). Metodo guzti hauen artean, elektroformazio metodoa da erabiliena. Besikularen tamainaren, itxuraren eta lamela kopuruaren inguruko kontrol egokia baimentzen du eta hori da tesi honetan metodo zehatz hau erabili izanaren arrazoia. GUVen eraketarako jarraitu den protokolo zehatza jarraian azaltzen da (3.Protokoloa).


### **3. Protokoloa** *GUV prestaketa*

1- Lipido nahasturaren prestaketa: Lipido puru edo lipido nahastura stockak kloroformo/metanol (2:1 v/v) soluzio organikoan diluitzen dira, kontzentrazio finala 1 mM izango delarik. GUVak fluoreszentzia bidez mikroskopio konfokal baten bidez ikusi ahal izateko, %0.2 mol Rhodamine-PE (L- $\alpha$ -Phosphatidylethanolamine-N-lissamine rhodamine B sulfonyl ammonio gatza, Avanti polar lipids) gehitzen zaio lipido nahasturari.

#### 2- Elektroformazioa:

- Lipidoa bi elektrodo dituen lau putzu dituen tefloizko ganberaren bi platino harietan hedatzen da. Guztira, lipido nahasketaren 6  $\mu$ l gaineratzen dira harien azalerara. Ondoren, ganbera huts ponpa batean sartu eta bi orduz mantentzen dira, horrela geratu litezkeen disolbatzaile apurrak lurruntzen dira.
- Bitartean, saioan erabiliko den indargetzailearen osmolaritate berdineko (200 mOsm kasu honetan) sakarosa soluzio bat prestatzen da.
- Behin lipidoak lehortuta, ganberaren putzu bakoitzari sakarosa soluzioaren 400 $\mu$ L gehitzen zaizkio eta elektroformakuntzan gerta litezkeen lurruntze prozesuak eragozteko, hau porta batekin estaltzen da. Lipido nahasturaren trantsizio tenperatura giro tenperatura baino altuagoa bada, ganbera eta sakarosa soluzioa aurretik berotu beharko lirateke.
- Platinozko hariak sorgailu baten elektrodoei konektatzen dira eta honako parametroak ezartzen dira: (1) ordu batez, 2.5V-oko tentsio eta 10Hz-etako maiztasuna duen sinus uhin bat; tarte honetan zehar, GUVak Pt-harira itsatsita elektroformatzen dira; ondoren, (2) maiztasuna 2Hz-etara jaitsi eta 30 min igaro behar dira, GUVak Pt-haritik askatzeko.

Garrantzitsua da aipatzea, normalean elektroformazio metodoa erabiliz besikula erraldoiak hobeto hazten direla gatz gutxiko tanpoietan. Hala ere, zenbait metodo garatu izan dira baldintza ioniko fisiologikoetan besikula erraldoiak sortu ahal izateko (Estes & Mayer, 2005; Montes *et al.*, 2010; Pott *et al.*, 2008).



**2.3 Irudia. Liposoma mota ezberdinen tamainaren konparaketa.** SUV: Lamela bakarreko besikula txikiak; LUV: Lamela bakarreko liposoma handiak; MLV: Lamela anitzeko besikula handiak; eta GUV: Lamela bakarreko besikula erraldoiak. Lipidoek lipido bigeruzak bikoitzean izango luketen orientazioa adierazteko bigeruzen eremu bat handitu da, non SUVen kurbadura handia eta gainontzeko besikulen mintz lauak adierazten diren.

#### 2.1.1.2.2 Monogeruza lipidikoak

Lipido monogeruza, lipidoaren anfi-patikusaren ondorioz, azalera urtsu baten gainazalean sakabanatzean erazten den egitura da. Fosfolipido molekulak azalera urtsuaren faseartean kokatzen dira, kate hidrofobikoak airerantz orientatuak eta buru polarrak ingurune urtsura begira kokatuta daudelarik. Mintz-eredu hauen prestakuntza eta karakterizazioan “Langmuir balantza” deiturikoan egiten da.

Langmuir balantza oso tresna garrantzitsua da peptidoek eta proteinek mintzekin ezarri ditzaketen elkarrekintzak aztertzeko. Beste mintz-eredu sistemekin alderatuz, lipido-monogeruzetan fase ez-lamelarrak, lipidoen gorabeherak edota mintzaren berezko kurbaduraren eraketak ekidinda daude; are gehiago, lipidoen paketamenduaren dentsitatea aukeratu daiteke. Tesi lan honetan, lipido monogeruzak proteina-lipido arteko elkarrekintzak aztertzeko xedearekin izan dira erabiliak.

Monogeruzen fisika: “Langmuir balantza” erabiliz egindako azterketak uraren azalera tentsioaren neurketetan oinarritzen dira, zintzilik dagoen zunda baten bidez egiten direlarik. Lehenik, zunda aire-likido interfasean arinki barneratzen da. Momentu honetan, zundak detektatzen dituen indarrak hurrengoak dira:

Indar totala = Zundaren pisua + zundaren flotagarritasuna+ azalera tentsioa

Neurketa egin baino lehen, zundak antzematen duen presioa zerora doitzen da, modu honetan pisu indarra baztertuz. Zundaren flotagarritasunak zundaren barneraketa dela eta lekualdatzen diren ur molekulek egiten duten indarra adierazten du, neurketak egiten diren bitartean zunda sakontasun konstante batean mantenduz deuseztatzen da. Ondorioz, indar totala (F) azalera tentsiora murriztu daiteke, hurrengo ekuazioak azaltzen duen moduan:

$$F = 2(w + t)(\gamma)(\cos \theta)$$

Non **w**, **t** = zundaren zabalera eta lodiera diren, hurrenez hurren,  **$\gamma$**  = azalera tentsioa eta  **$\theta$**  = kontaktu angelua.

Zunda disoluzio urtsuan sartzean, menisko bat sortzen da, ondorioz zero gradu dituen kontaktu angelua sortzen delarik. Modu honetan, ekuazioa horrela laburtu daiteke:

**$\gamma$**  = Indarra/Perimetroa/luzera,

hurrengo unitateetan ematen dena: dynes/cm = mN/m

Ur molekulek azalera tentsiorik altuenetakoa dute, dituzten erakarpen indar inter-molekular handiak direla eta, (72.8 mN/m 22°C eta 1 atmosferara) (Tanford, 1980). Aire-ur interfasean molekula anfipatikoen presentziak ur molekulen kohesio-energia oztopatzen du, uraren azalera tentsioa gutxituz. Gutxipen hau azalera presio ( **$\pi$** ) bezala ezagutzen da, unitate berdin baina kontrako zeinua duena:

$$\pi = \gamma_0 - \gamma$$

### 2.1.1.3 Mintz eredu sistemen karakterizazioa

#### 2.1.1.3.1 Lipido kuantifikazioa

Fosfolipido kontzentrazioa laginaren fosfato edukia neurtuz zehaztu da (Fiske & Subbarow, 1925). Laburbilduz, hurreratze hau fosfolipidoak hidrolizatzean datza, lipidoaren fosfato taldea aske geratuz eta zenbait erreakzioen ondoren produktu koloretsu baten ekoizpena ematen dena arte. Kontzentrazio ezaguneko fosforo soluzioak erabiltzen dira erreferentzia patroi bat lortzeko, non neurtutako laginaren absorbantzia tartekatzen den fosfolipido kontzentrazioa lortzeko. Protokoloaren deskribapen zehatzagoa jarraian (4.Protokoloa).

#### **4. Protokoloa Fosfolipidoen kontzentrazioaren neurketa**

- 1- Laginen prestakuntza: Kalibrazio kurba 1 mM NaH<sub>2</sub>PO<sub>4</sub> stock soluzio batetik prestatzen da eta lipido lagina zenbait tututan pipeteatzen da 50 nmol fosforo inguru izan dezaten.
- 2- Liseriketa: Ondoren, 400 µl %70-ra dagoen azido perkloriko (HClO<sub>4</sub>) gehitzen zaio tutu bakoitzari eta 45 minutuz 205°C-ra inkubatzen da. Giro tenperatura izan arte hozten uzten zaio.
- 3- Saiakera kolorimetrikoa: 4 ml ammonio heptamolibdato eta 500 µl %10 azido askorbiko gehitzen dira, tutuak bortexarekin nahasten diren bitartean. Laginak orduan 10-15 minutuz 100°C-ra inkubatzen dira.
- 4- Absorbantzia neurketa: Amaitzeko, absorbantzia neurtzen da 812 nm-ra Amersham Biosciences-en (Piscataway, NJ, USA) Ultrospec 500 pro spektrofotometroa erabiliz.

#### **2.1.1.3.2 Argi dinamikoaren dispertsioa**

Estrusio (LUVak) edo sonikazio (SUVak) ostean, besikula populazioaren tamainaren banaketa profila zehaztua izan da argi dinamikoaren dispertsio teknika erabiliz (DLS, ingelesetik *Dinamic Light Dcattering*). Teknika optiko hau partikulen tamaina neurtzeko oso erabilia da (Hunter & Frisken, 1998; Jin *et al.*, 1999; Schurtenberger *et al.*, 1984).

**DLSaren fisika.** DLS esperimentu batean, laser sorta soluzioaren azalera txiki batean fokatzen da eta argia laginean dauden partikulengatik dispertsatzen da fokatutako azalera zeharkatzen duen heinean. Partikulen mugimendu Brownianoak dispertsatutako argiaren faseari ausazkotasuna ematen dio, horrela bi molekula edo gehiagoren argi dispertsioa gehitzen denean, interferentzia suntsizaille edo konstruktiboa emango da. Honek argi dispertsioaren intentsitatean denboraren menpeko gorabehera dakar, zeina bigarren mailako korrelazio funtzio baten bitartez kuantifikatu daitekeen:

$$g^{(2)}(\tau) = A(1 + \beta(g^{(1)}(\tau))^2)$$

non,  $\tau$  argiaren intentsitatearen autokorrelazio denbora den, **A** oinarri lerroa,  **$\beta$**  tresnari dagokion efizientzia faktorea da, eta  $g^{(1)}$  lehen-mailako autokorrelazio funtzioa da. Mugimendu Brownianoa duten partikulentzat,  $g^{(1)}$  autokorrelazio denborarekiko gutxipen esponentziala du, eta bai argi dispertsioarekin asoziatutako bektorearen moduloaren( $q$ ) eta baita partikulen difuzio koefizientearen ( $D$ ) menpekoa da, horrela,

$$g^{(1)}(\tau) = \sum I_i \exp(-D_i q^2 \tau)$$

Besikula populazioaren tamainaren banaketa difusio koefizientetik lortzen da Stokes-Einsten ekuazioak dioenez:

$$R_h = kT / 6\pi\eta D$$

non **D** difusio koefizientea, **k** Boltzmann konstantea, **T** tenperatura,  **$\eta$**  medioaren biskositatea eta **R<sub>h</sub>** partikula esferikoen erradio hidrodinamikoa den.

Neurketetarako laginaren 50  $\mu$ L ipintzen dira kubetan 0.5 mM-eko kontzentrazioa. Laginak Malvern Zeta-Sizer Nano ZS (Malvern, Instruments, UK) batean aztertu izan dira, kubeta akriliko estandarretan eta 5 mW ( $\lambda = 633$  nm) He-Ne laser sorta baten pean.

Besikulak dispertsatutako argia laser sortari perpedikularki kokatutako fotomultipladore batek detektatzen du. DLS-gailuak emandako txostenean,  $R_h$  balioa polidispersio (PDI) balio batekin batera agertzen da, honek laginaren inguruko informazioa ematen du, hau da, laginaren besikulen tamainaren banaketa homogeneoa edo heterogeneoa den esaten digu. PDI balioa 0 eta 1 artean dago, 0tik hurbil dauden balioak lortuz gero soluzioa garbia homogeneoa eta monodispersioa dela esan nahi du.

## 2.1.2. OSAGAI PROTEIKOA

### 2.1.2.1 Biologia molekularreko metodoak

Biologia molekularreko teknikei esker, intereseko proteina kodetzen duen DNA sekuentzia isolatu, purifikatu eta aldatzea posiblea da. Lan honetan, estandarizatutako DNA teknikak erabili dira BOKen cDNA, bakterio zein ugaztunetan adierazteko bektoretan klonatzeko eta baita DRP1en mutanteak ekoizteko ere.

#### 2.1.2.1.1 DNA amplifikazioa eta klonaketa

Guri interesatzen zaigun DNA klonatzeko, DNA zatikia PCR bidez amplifikatzen da eta itu plasmidoan sartzen da, bektore ere deitua hain zuzen ere. Prozesua hurrengo pausuetan banatu daiteke (2.4 Irudia):

1) Hasleak diseinatu; 2) PCR bidez amplifikatu; 3) Liseritu; 4) DNA purifikatu; 5) Ligatu; 6) *E.coli*n trasformatu; 7) Erauzi eta 8) Intsertoaren presentzia baieztatu.

1. Hasleak diseinatu: Aurrerako eta atzerako hasleak, itu bektorean ligatu ahal izateko murrizte gune egokia dutenak, sintetikoki sintetizatuak izan ziren Sigma Aldrich-engatik (Madrid, Spain).

Hasleak 25 eta 45 base arteko luzera izan behar du, urtze tenperatura ( $T_m$ )  $\geq 78^\circ\text{C}$  izan behar du eta GC kopurua gutxienez %40koa eta gehienez %60koa izan behar du.

2. PCR bidezko anplifikazioa eta purifikazioa: Interesezko cDNAk PCR bidez anplifikatu dira MastercyclerProThermocycler (Eppendorf AG, Hamburg, Germany) erabiliz, PfuTurbo DNA Polimerasa (Agilent Technologies, Santa Clara, CAL, U.S.A) eta hurrengo taulan agertzen diren hasle, DNA patroia eta dNTP kantitateak (2.1 Taula).

DNA patroia (100 ng/ $\mu\text{l}$ -ra dagoen stocketik)	2 $\mu\text{l}$
Aurrerako haslea (100 ng/ $\mu\text{l}$ -ra dagoen stocketik)	1 $\mu\text{l}$
Atzerako haslea (100 ng/ $\mu\text{l}$ -ra dagoen stocketik)	1 $\mu\text{l}$
dNTPak (100 mM-era dagoen stocketik)	0.4 $\mu\text{l}$
Polimerasa indargetzailea X10	5 $\mu\text{l}$
H <sub>2</sub> O	40 $\mu\text{l}$
PFU Turbo Polimerasa (2.5 U/ $\mu\text{l}$ )	1 $\mu\text{l}$

**2.1 Taula. PCR anplifikazio baldintzak.**

PCRa hurrengo taulan azaltzen diren PCR baldintza orokorrak erabiliz gauzatu da (2.2 Taula).

Pausua	Temperatura	Denbora	Ziklo
Desnaturalizazioa	95°C	2 min	X1
Desnaturalizazioa	95°C	30 seg	
Parekaketa	Haslearen $T_m - 5^\circ\text{C}$	30 seg	X30
Luzapena	72°C	2 min Kb-ko	
Luzapena	72°C	10 min	

**2.2 Taula. BOK cDNA anplifikaziorako erabilitako PCR baldintzak.**


PCR produktua purifikatzen da ondoren, QIAquick Gel Extraction Kit (Qiagen, California, U.S.A.) erabiliz.

3. Liseriketa: Bai PCR produktua bai itu bektorea errestrikzio entzima (New England Biolabs, Canada) berdinekin liseritzen dira 1 orduz 37°C-tara. Bektorea berez ligatu ez dadin, defosforilatzen da, shrimp alkaline fosfatasarekin (USB Corp, Cleveland, OH, U.S.A) ordu batez 37°C-tara inkubatuz. Errestrikzio entzimak eta baita fosfatasa alkalinoa ere, 20 minutuz 65°C-tara berotuz inaktibatzen dira.

4. Liseritutako produktuen purifikazioa: Liseritutako produktuak Loading Dye Solution (Thermo Scientific, Waltham, MA, U.S.A) erabilia diluitzen dira, ondoren %1-2 agarosa geletan kargatu eta geletik purifikatu dira QIAquick Gel Extraction Kit (Qiagen, California, U.S.A.) erabilia.

5. *E.coli*n trasformatu: Ligatutako produktuen transformaziorako, ligazio nahasketa XL10-Gold zelula ultrakonpetenteen 50 µl-tara (Agilent Technologies, Santa Clara, CAL, U.S.A) gehitzen da. Zelulak 15 minutu izotzetan inkubatu ostean, 90 segunduz 42°C-tara txoke-termikoa ematen zaie. Berehala bakterio eta DNA nahasketa izotzetan sartu eta 2 minutuz inkubatzen da, zelulak berreskuratu daitezten. Gero, nahasketa 1 ml Luria Broth (LB) mediodun tutu batera gehitu eta 45 minutuz 37°C-tara irabiatuz inkubatzen da. Amaitzeko, zelulak 8000x g-tara zentrifugatzen dira mahai-zentrifugagailu batean minutu batez. Jalkina 50 µl- tan berresekitu eta antibiotiko egokia duen agar plaka batera gehitzen da eta gaua osoan zehar inkubatzen da 37°C-tara.

6. Intsertoaren presentziaren baieztapena: Zenbait kolonia agar plakatik pikatu eta antibiotiko egokiak dituen 5 ml LB mediotan hazten dira 37°C-tara inkubatuz gau osoan zehar. DNA plasmidikoaren isolaketarako, zelulei lisi alkalinoa eragiten zaie eta ondoren DNA purifikazioa egiten da miniprep spin kita (Qiagen, California, U.S.A) erabiliz, fabrikatzailearen argibideak jarraituz. DNA kontzentrazioa laginaren absorbantzia 260 nm-tara neurtuz zehazten da eta bere purutasuna 260 nm eta 280 nm-tara jasotako absorbantzien erratioetik zehazten da (A260/A280). Absorbantzien neurketak Nanodrop™ espektrofotometroan (Thermo Scientific, Waltham, MA, U.S.A) egin dira. Intsertoaren presentzia baieztatzeko, DNA murrizte-entzima egokiekin liseritua izaten da ordu batez 37°C-tara inkubatuta laginaren elektroforesia burutzeko ondoren. Behin intsertoaren presentzia baieztatuta eta PCR bidezko anplifikazioan DNAn emandako edozein mutazio baztertzeko, lagina sekuentziatzera bidaltzen dugu (Secugen S.L, Madrid, Spain).



**2.4 Irudia. Klonazio pausu orokorrak.** 1)PCR anplifikazioa; 2)Liseriketeta; 3)Purifikazioa; 4)Ligazioa; 5)*E.coli*-n transformazioa; 6-7) DNA isolaketa; 8-10)Intsertoaren presentziaren baieztapena.



### 2.1.2.1.2 Mutagenesi generatua

*In vitro* mutagenesi generatua proteinen egitura eta funtzioa aztertzeko balio handiko teknika da. Mutagenesi generatua aurrera eramateko erabili den sistema komertzialak (*Stratagene's QuikChange® Site-Directed Mutagenesis Kit*) helize-bikoitzeko plasmido batean mutazio generatuak eragiteko prestatuta dago. Beraz, hau erabiliz azpi-klonazio prozeduren, DNA-bektore zehatzen, murrizte-entzimen edota transformazio ugarien beharra desagertzen da. Erabilitako prozedura zehatza 5.Protokoloan azaltzen da.

#### 5. Protokoloa Mutagenesi generatua

- 1- Hasleen diseinua: Mutazio zehatz bakoitzerako hasle zehatzak diseinatu dira. Hauek mutazio zehatz baten bi aldeetara inguratzen duten aldatu gabeko nukleotido sekuentzia batzuek osatua dago. Hasleen luzera 25 eta 45 base-pare artean egon behar du, urtze tenperatura ( $T_m$ )  $\geq 78^\circ\text{C}$  egon eta GC nukleotidoen kantitatea %40-koa izan behar du. Diseinatutako hasleak Sigma-Aldrich enpresak sortu ditu.
- 2- Nahasketaren prestakuntza: Erreakzio lagina erabilitako *Stratagene's QuikChange® Site-Directed Mutagenesis Kit* eskuliburuan zehatzen den moduan prestatzen da (2.3 Taula).

1.	5 $\mu\text{l}$	10 $\times$ indargetzailea
	5–50 ng	DNA moldea
	125 ng	Hasle#1
	125 ng	Hasle #2
	20 mM	dNTP nahasketa
	ddH <sub>2</sub> O beharrezko bolumena 50 $\mu\text{l}$ –ra arte	
2.	2.5 U	PfuTurbo, DNA polimerasa

**2.3 Taula. Erreakzio laginaren prestakuntzarako beharrezko kantitateak.**

(Protokoloak hurrengo orrialdean jarraitzen du)

## 3- Tenperatura-zikloak:

Zatiak	Zikloak	Temperatura	Denbora
1	1	95°C	30 seg
2	16	95° C	30 seg
		55°C	1 min
		68°C	1 min/kb plasmido luzera
3	1	4°C	

**2.4 Taula. Mutagenesi guneratuaren metodarako erabilitako tenperatura-zikloen ezaugarriak.**

- 4- Anplifikatutako produktuaren liseritzea: Laginari Dpn I murrizte-entzimaren (10 U/μl) 1 μl gaineratzen zaio eta ordu batez 37°C-tan inkubatzen da, metilatutako DNA moldea liseritzeko.
- 5- XL1-Blue gaitutako zelulen transformazioa: Tetraziklinarekiko erresistenteak diren XL1-Blue gaitutako bakterioen 50 μL-ko lagin bat izotzetan mantenduz desizozten da. Liseritutako DNA-laginaren 1 μL zeluletara gaineratu eta nahasketa 30 minutuz izotzetan inkubatzen da. Ondoren, transformazio nahasketa 45 segundoz 42°C-tan berotzen da. Behin 500 ml hazkuntza-inguru gehituta, kultiboa ordu batez 37°C-tan inkubatzen da, irabiatzen den bitartean. Laginak zentrifugatu ostean jalkina bolumen txikiago baten berresekitzen da. Lortutako bakterioen esekidura plasmido-bektorearentzako antibiotiko egokia duen agar-plaka batean ereiten da. Agar-plaka hau 16 ordu baino gehiagoz 37°C-tan inkubatzen da. Azkenean, DNA plasmidoa *QIAprep Spin Miniprep Kit*<sup>®</sup> erabiliz erauzten da.
- 6- Sekuentziaren determinazioa: Mutatutako DNA lagina sekuentziatzera bidaltzen da, mutazio egokia txertatua duela eta gainontzeko aldaketarik ez duela ziurtatzeko.

Tesi lan honetan, proteinen aldaera ezberdinak erabili dira. 2.5 Taulan ageri direnak, aurretik azaldutako protokoloa erabiliz egin dira.

Mutazioa	Hasleak
DRP1 K557-560A	F: 5´-CTGGAGAGGAATGCTGGCAACTTCAGCAGCTGAAGAGTTATTAGC-3´ R: 5´-GCTAATAACTCTTCAGCTGCTGAAGTTGCCAGCATTCTTCTCCAG-3´
DRP1 K569-571A	F: 5´-AGTTATTAGCAGAAGAAGCATCAGCACCCATTCCAATTAT -3´ R: 5´-ATAATTGGAATGGGTGCTGATGCTTCTTCTGCTAATAACT-3´
DRP1 K557-560-569-571A	Arestian aipatutako bi hasle bikoteak erabili dira era sekuentzial batean.

## 2.5 Taula. Mutagenesi generatuaren bidez egindako DRP1en mutazioak eta erabilitako hasleak.

### 2.1.2.2 Proteinen arazketa

Proteina birkonbinatuen erabilera asko hazi da azkenengo urteetan. Garai batean bere ekoizpena adituen eskuetara mugatuta egon arren, sistema simple eta komertzialen garapena dela eta, arazketarako beharrezko teknologia asko hedatu da. Nahiz eta aurrerakuntza tekniko garrantzitsuak eman diren, proteina birkonbinatuak araztea erronka handia da oraindik ere, batez ere, purifikazio estrategia ona diseinatzeko momentuan hartu behar diren erabakiak direla eta.

BCL2 familiako proteinei dagokionez, kide gehienek C-terminalean sekuentzia hidrofobikoak dituzte, mintz intrazelularretara bideratuak izan daitezten. Horretaz gain, eskualde horrek funtzio apoptotikoan duen papera kritikoa dela adierazten duten ebidentzien metaketa dela eta, luzera osoa duten BCL2 proteinen ekoizpena litzateke egokiena. Hala ere, eskualde honen natura hidrofobikoa dela eta, batzuetan detergenteen beharra dago disoluzio urtsuetan disolbagarriak izan daitezten. Zenbaitetan, detergenteak gehitzea ez da nahikoa luzera osoa duten proteinak lortzeko, hortaz, C-terminaleko sekuentzia hidrofobikoa faltan duten proteinak ekoitzi behar dira. Tesi honetan erabilitako proteina batzuk C-terminaleko sekuentziarik gabe ekoiztu dira aipatutako arazketa arazoak direla eta. DRP1 proteinarene kasuan luzera osoko proteinak erabili izan dira.

#### 2.1.2.2.1 Plasmidoak

Proteina birkonbinatuen adierazpenerako erabili diren plasmidoak hurrengo taulan azaltzen dira (2.6 Taula):

Bektorea	Proteina	Deskribapena	Fenotipoa	Erreferentzia
pGEX-6p-3	Giza BOKΔC	GST sekuentzia bat du, ondoren preScission proteasaren mozketagune bat N-terminalean	Amp <sup>r</sup>	GE Healthcare
pTYB1	Giza BAX	Kitina batuketa domeinu bat gehi inteina auto-mozketagune bat C-terminalean	Amp <sup>r</sup>	NEB
pRSETb	Giza BAKΔC	6-histidina isatsa, lipoil zatiki bat eta TEV proteasak mozteko sekuentzia ditu N-terminalean	Amp <sup>r</sup>	Invitrogen
pET15b	Giza BIMs	6-histidina isatsa eta tronbina proteasarentzako mozketagune bat du C-terminalean	Amp <sup>r</sup>	Novagen
pJexpress 434	Giza PUMA, NOXA, BMF, HRK, BID and BAD	6-histidina isatsa eta tronbina proteasarentzako mozketagune bat du C-terminalean	Amp <sup>r</sup>	DNA 2.0
pJexpress 434	Giza BCLXLΔC	6-histidina isatsa eta tronbina proteasarentzako mozketagune bat du C-terminalean	Amp <sup>r</sup>	DNA 2.0
pQE-9	Giza BCLXLΔC	6-histidina isatsa du N-terminalean	Amp <sup>r</sup>	Quiagen
pGEX-6P-3	Sagu MCL1ΔC	GST sekuentzia bat du, ondoren preScission proteasaren mozketagune bat N-terminalean	Amp <sup>r</sup>	GE Healthcare
pTYB1	Giza isoforma 1	DRP1 Kitina batuketa domeinu bat gehi inteina auto-mozketagune bat C-terminalean	Amp <sup>r</sup>	NEB
pTYB1	Giza isoforma 2	DRP1 Kitina batuketa domeinu bat gehi inteina auto-mozketagune bat C-terminalean	Amp <sup>r</sup>	NEB
pTYB1	Giza isoforma 3	DRP1 Kitina batuketa domeinu bat gehi inteina auto-mozketagune bat C-terminalean	Amp <sup>r</sup>	NEB

#### 2.6 Taula. Proteina birkonbinatuen arazketarako erabiltzen diren bektoreak.

▪ **BCL2 proteina antiapoptotikoak:** N-terminaleko 151 aminoazido eta C-terminaleko 23 aminoazido faltan dituen sagu GST-MCL1 (MCL1ΔC) eta C-terminalean 24 aminoazido faltan dituen giza 6His-BCLXL plasmidoak (BCLXLΔC), HG Wang doktoreak (Walter and Eliza Hall Institute, Australia) adeitasunez eman izan dizkigu.

Bestalde, giza BCLXLΔC eta giza MCL1Δ-en cDNAk DNA 2.0k sintetikoki ekoiztu eta pJexpress 434 bektorean klonatuak izan dira. Geneen ekoizpenean 6-histidinatako isatsa eta tronbina proteasak mozteko gunea gehitu izan zaizkie.

▪ **BH3-domeinu bakarreko proteinak:** Giza BIMS cDNA HG. Wang Doktoreak (University of Texas, U.S.A) adeitasunez emanda izan da. PCR bidez amplifikatu zen *PfuTurbo* DNA Polymerase (Agilent Technologies, Santa Clara, CAL, U.S.A) erabiliz. *NdeI* and *BamHI* murrizte-guneak gehitu izan zaizkio aurrerako eta atzerako hasleekin. PCR bidez amplifikatutako produktua liseritu eta aurretiaz liseritu eta defosforilatutako pET15b (Millipore Corporation, Billerica, M.A, U.S.A) bektorearekin ligatu izan da. Beste BH3 guztien cDNAk (PUMA, NOXA, BMF, HRK, BID and BAD) DNA 2.0k (Menlo Park, CA, U.S.A) sintetikoki ekoiztu eta pJexpress 434 bektorean klonatuak izan dira. Sekuentziek *E.coli* BL21 (DE3) (Welch *et al.*, 2009) anduian adierazteko kodoi optimizazioa dute. Kodoi optimizazioaz gain, 6-histidina isatsa eta tronbina proteasak mozteko gunea (LVPRGS) gehitu izan zaizkie N-terminalean gene sintesian zehar.

▪ **BAX-motatako proteina proapoptotikoak:** C-terminaleko azken 24 aminoazidoak faltan dituen eta 6-histidina isatsa duen giza BOK birkonbinantea (BOKΔC) DNA 2.0k (Menlo Park, CA, U.S.A) sintetikoki ekoiztu eta pGEX-6P-3 bektorean klonatua izan da. Bektoreak GST sekuentzia bat du, preScission proteasak mozteko gunea (LEVLVQ/GP) ere badu eta proteina sekuentziak *E.colin* adierazteko kodoi optimizazioa ere badarama.

C-terminaleko azken 21 aminoazidoak faltan dituen giza BAK (BAKΔC) Begoña Sot (Cambridge, UK) Doktoreak adeitasunez eman izan digu. Bektorea pRSET (Invitrogen, Carlsbad, CA, U.S.A) bektoretik eratortzen da eta TEV proteasarentzako mozketa gune [ENLYFQ (G/S)] bat jarraian duen lipoil zatiki bat kodetzen duen N-terminal sekuentzia laburra du.

Luzera osoa duen giza BAX adierazteko plasmidoa M. Suzuki (NIH, Bethesda) Doktoreak adeitasunez bidalia izan da. Plasmidoa pTYB1 (New England Biolabs, Canada) plasmidotik eratorritako plasmidoa da. BAX cDNA *NdeI/SapI* guneen artean azpiklonatu da. Amaierako plasmidoak, pTYB1-BAX, BAX eta C-terminalean kitina lotzeko gunea gehi inteinak mozteko guneaz osatutako fusio proteina kodetzen du. Mozterakoan BAX proteina lortzen delarik inongo aminoazido extra edo trunkaketarik gabekoa (Suzuki *et al.*, 2000).

▪ **DRP1:** Giza DRP1 isoforma 1, 2 eta 3 konstruktoak DRP1 ORFaren PCR bidezko amplifikazioz egin dira pET29 bektorean (Dr. C. Blackstone adeitasunez eman ziguna, National Institute of Neurological Disorders and Stroke, Bethesda, USA) klonatuta hasle espezifikoak erabiliz. Ondoren, PCR produktua murrizte-entzima egokiekin (*NdeI/SapI*) liseritu ostean aurrez linearizatutako pTYB1 bektorearekin ligatu dugularik.

2.1.2.2.2 Escherichia coli anduiak

Hurrengo *Escherichia coli* (*E.coli*) anduiak erabili dira tesi lan honetan (2.7 Taula):

Anduia	Genotipoa	Erreferentzia
DH5 $\alpha$	<i>E. coli</i> F-supE44 DlacU169(f80lacZDM15) hsdR17 recA1 endA1 gyrA96 thi-1 relA1	Grant et al., 1990
BL21(DE3)	<i>E. coli</i> B F- dcm ompT hsdS(rB- mB-) gal $\lambda$ (DE3)	Studier eta Moffatt, 1986
BL21 CodonPlus-RIL	<i>E. coli</i> B F- ompT hsdS(rB- mB-) dcm+ Tetr gal $\lambda$ endA Hte [argU ileY leuW Camr]	Agilent
C41	<i>E. coli</i> F- ompT hsdSB (rB- mB-) gal dcm (DE3)	Miroux eta Walker, 1996.
C41 pLYs	<i>E. coli</i> F – ompT hsdSB (rB- mB-) gal dcm (DE3) pLYsS (CmR)	
C43	<i>E. coli</i> F – ompT hsdSB (rB- mB-) gal dcm (DE3)	Miroux eta Walker, 1996.
C43 pLYs	<i>E. coli</i> F – ompT hsdSB (rB- mB-) gal dcm (DE3) pLYsS (CmR)	
Rosetta(DE3)pLYsS	<i>E.coli</i> F- ompT hsdSB(RB- mB-) gal dcm $\lambda$ (DE3 [lacI lacUV5-T7 gene 1 ind1 sam7 nin5]) pLYsSRARE (CamR)	NOVAGEN
M15	NalS, StrS, RifS, Thi., Lac., Ara+, Gal+, Mtl., F., RecA+, Uvr+, Lon+	QIAGEN®, © 2001
SG	NalS, StrS, RifS, Thi., Lac., Ara+, Gal+, Mtl., F., RecA+, Uvr+, Lon+	QIAGEN®, © 2001

**2.7 Taula. Lan honetan erabilitako *E.coli* anduiak.**

- **DH5 $\alpha$** : Andui hau zenbait endonukleasa eta DNA konpontze mekanismoetan urria da, horren ondorioz, bakterio hauek oso erabilgarriak dira DNA exogenoaren anplifikaziorako.
- **BL21 (DE3)**: Andui honek lon eta Omp-t proteasen urritasuna du eta horregatik, toxikoak ez diren geneen adierazpenerako egokia da. Bakterio andui hau BOKAC, BH3-domeinu bakarreko proteinak (PUMA, NOXA, BMF, HRK, BID and BAD) eta proteina antiapoptotiko guztien adierazpenerako erabili da.
- **BL21 CodonPlus-RIL**: Kimikoki kompetenteak diren BL21-CodonPlus-RIL zelulek argU, ileY, and leuW tRNA geneen aparteko kopiak dituzte. Gene hauek kodetzen dituzten tRNAk

AGA/AGG (arginina), AUA (isoleuzina), eta CUA (leuzina) kodoiak ezagutzen dituzte, hurrenez hurren. Andui hau BIMS eta BAX adierazteko erabili da.

- **C41:** Organismo mota guztietako, (birusak, eubakteriak, arkeoak, legamiak, landareak, intsektuak eta ugaztunak barne) proteina toxiko eta mintz proteinak adierazteko eraginkorrak dira. C41 (DE3) anduia BL21(DE3) [E.coli F ompT hsdS B (r B -m B -) gal dcm (DE3)] anduiatik eratorria da. Andui honek gutxienez karakterizatu gabeko mutazio bat du, zeina proteina toxiko askoren adierazpenarekin erlazionatutako heriotza zelularra ekiditen duen.

- **C41 pLys:** C41 anduiak dituen ezaugarriak izateaz gain, andui honek pLys plasmidoa ere badu, T7 lizozima ekoizten duena intereseko genearen oinarritzko adierazpena murriztuz.

- **C43:** Organismo mota guztien (birusak, eubakteriak, arkeoak, legamiak, landareak, intsektuak eta ugaztunak) proteina toxikoak eta mintz proteinak adierazteko eraginkorra da.

- **C43 pLys:** C41 pLys anduiak bezala, pLys plasmidoa du andui honek, T7 lizozima ekoizten duena intereseko genearen oinarritzko adierazpen murrizten delarik, horretaz gain C43 anduiak dituen ezaugarriak ere baditu.

- **Rossetta:** Rosetta anduia BL21 lacZY (Tuner&trade;) anduiaren eratorria da, *E.colin* oso gutxitan erabiltzen diren kodoiak dituzten proteina eukariotikoen adierazpena handitzeko diseinatua. Andui honek AUA, AGG, AGA, CUA, CCC eta GGA kodoientzako tRNAk ditu kloranfenikolarekiko erresistentzia duen plasmido batean.

- **M15:** *E. coli* M15 anduiak lacZ genean M15 delezioa du (Beckwith, 1964). Andui hau P.J Zamenhofek eraiki zuen eta Villarejo eta Zabin-en (1974) argitalpenean aipatzen da. M15 delezioa  $\beta$ -galaktosidasaren  $\alpha$ -zatiaren presentziarekin osatzen da. Harrigarriki, lambda fagoek ezin dute *E.coliren* M15 anduia zoldu eta gainera, andui honetan barneratutako PL promotorea ez da aktiboa.

### 2.1.2.2.2 Proteinaren adierazpena eta arazketa

BCL2 familiako proteinen arazketa protokolo guztiek hasierako zenbait pausu dituzte amankomunean.

#### 2.1.2.2.2.1 Hasierako pausu komunak

**1-Transformazioa:** Bakterioak DNA birkonbinatuarekin trasformatzeko, 50  $\mu$ l  $\text{CaCl}_2$ -*E.coli* zelula kimiokonpetente, 200  $\mu$ g DNA plasmidikorekin inkubatzen dira 20 minutuz izotzetan. DNA

plasmidikoa zelulan sar dadin 90 segunduz 42°C-tara bero-talka eragiten zaie. Zelulak bero-talkaz errekupera daitezten, 20 min inkubatzeko dira izotzetan. Bakterioek antibiotikoarekiko erresistentzia adieraz dezaten 1 ml Luria Broth (LB) medioan, 45 minutuz 37°C-tan irabiatuz inkubatzeko dira. Azkenik, laginak mahai-zentrifugagailuan 14,000x g-tara zentrifugatzen dira minutu batez. Jalkina 50 µl LB-rekin berresekitu eta antibiotiko egokia daraman agar plaka batera isurtzen da. Plakak, 37°C-tan gau osoz inkubatzeko dira.

**2-Adierazpena:** Hautespen positibo gisa ezagututako klon bat hartu eta bakterioak 5ml LB –dun matrize batean hazten dira 37°C-tan gau osoz. Bakterio-kultiboa 1 L-ko bolumenerarte eskalatuz joaten da. Proteinen adierazpen desberdintasun eta proteolisiari sentikortasun desberdina dela eta, indukzio eta adierazpen denborak kasu bakoitzerako optimizatu egin behar dira (2.8 Taula). IPTG-rekin induzitu ostean, bakterioak taulan agertzen diren tenperaturaren eta denboraren zehar inkubatzeko dira. Ondoren bakterio-kultura 5000x g-tara zentrifugatzen da Beckman Coulter zentrifugagailu eta JLA-9.100 errotorea (Beckman Coulter, Fullerton, California, U.S.A) erabilita. Gainjalkina bota eta jalkinak -80°C-tara gordetzen dira hurrengo purifikazio pausuekin hasi arte.

Proteina	Kultibo medioa	O.D 600nm (u.a)	[IPTG] mM	Adierazpena	A Tanpoia
BOKΔC	LB	0.6	1	18h 20°C	150mM NaCl, 50mM Tris, 1mM EDTA (pH 7.5)
BAKΔC	LB	0.6	0.5	18h 20°C	500mM NaCl, 20mM imidazol, 1mM MgCl <sub>2</sub> , 50mM Na <sub>2</sub> HPO <sub>4</sub> , NaH <sub>2</sub> PO <sub>4</sub> (pH 7.5)
BAX	TB	1.5	1	18h 20°C	100mM NaCl, 20mM Tris (pH 8)
Antiapoptotik oak (GST)	LB	0.6	0.5	18h 20°C	150mM NaCl, 50mM Tris, 1mM EDTA (pH 7.5)
Antiapoptotik oak (6His)	LB	0.6	0.5	18h 20°C	500mM NaCl, 20mM imidazol, 5mM MgCl <sub>2</sub> , 20mM K <sub>2</sub> HPO <sub>4</sub> , KH <sub>2</sub> PO <sub>4</sub> (pH 7.5)
BH3	LB	1	1	4h 37°C	500mM NaCl, 20mM imidazol, 5mM MgCl <sub>2</sub> , 20mM Tris(pH 8), %1 CHAPS
DRP1	LB	0.9	0.5	12h 18°C	20mM HEPES pH8, 500mM NaCl, 1mM MgCl <sub>2</sub>

**2.8 Taula. Proteina birkonbinatuaren adierazpen eta arazketarako baldintzak.**

**3-Bakterioen lisia:** Bakterio jalkinak, 1 mg/ml liozima (Sigma-Aldrich), 1 mM TCEP (Sigma-Aldrich), proteina inhibitzaileak (Roche, Basel, Switzerland), 2.5 µg/ml DNAasa (Sigma-Aldrich) eta %10 glizerola gehituta dituen A tanpoi egokian bersuspenditzen dira (2.8 Taula). Ondoren, 2 orduz 4°C-tan inkubatzeko dira, irabiagailu orbital batean, liozimak bakterioen horma zelularra



lisatu dezan. BH3-domeinu bakarreko proteinen kasuan, %1 CHAPS (w/v) gehitu behar zaio lisi-indargetzaileari, proteinen disolbagarritasuna bermatzeko. BH3-domeinu bakarreko proteinak eta BAK $\Delta$ C proteinen kasuan laginak izotzetan sonikatu behar dira 4x(10on/10off/10sec) programa jarraituz. BOK $\Delta$ C, BAX eta DRP1 proteinen kasuan, sonikazioak proteinen agregazioa dakar. Arazo hau ekiditeko, zelulak presio altuko Emulsiflex-C5 homogenizatzailea (Avestin, Ontario, Canada) erabilia apurtzen dira 17,000psi –tara. Ondoren, apurtutako zelulak 20,000x g-tara zentrifugatzen dira 4°C-tan 30 minutuz. Jalkina baztertu eta gainjalkina izotzetan mantentzen da, arazketarekin jarraitzeko.

#### 2.1.2.2.2.2 GST fusio proteinak

##### 2.1.2.2.2.2.1 BOK $\Delta$ C

GST- BOK $\Delta$ C afinitate kromatografia bidez arazkatzen da "Glutathione Sepharose 4B beads" erretxina (GE Healthcare) erabilia. Bakterio-kultura jalkin bakoitzeko (2 litro bakterio-kultura) 1 ml erretxina erabiltzen da. Lehendabizi, erretxina zentrifugazio bidez (500x g, 5 min), hiru bider ur destilatuarekin eta beste hiru bider dagokion A indargetzailearekin garbitzen da. Lisatutako bakterioen gainjalkina garbitutako erretxinarekin nahastu eta 2 orduz inkubatzen da 4°C-tan irabiatzaile orbital batean GST-isatsa eta glutation erretxinaren arteko lotura baimentzeko.

Proteina itsatsita duen erretxina ponpa peristaltiko batera konektatutako zutabe batean paketatzen da. Paketatu ondoren, zutabea A indargetzailearen 5 erretxina-bolumen erabiliz garbitzen da. Amaitzeko 30  $\mu$ L (Stock: 2000 unitate/ml) PreScission protease (GE Healthcare, Waukesha, WI, U.S.A) gaineratzen zaizkio zutabeari eta gau osoan zehar 4°C-tan inkubatzen uzten zaio. Hurrengo egunean moztutako proteina A indargetzailearekin eluitzen da 1 ml-tako frakzioak jasotzen direlarik. Ondoren, frakzioak SDS-PAGE gel baten bidezko bereizketa eta Coomassie urdin tindatzaile erabiliaz analizatzen dira. Proteinan aberastuta dauden frakzioak A indargetzailean orekatutako Superdex<sup>TM</sup> 75, tamainaren arabeko bereizketa burutzen duen zutabearekin, txertatzen dira.

##### 2.1.2.2.2.2.2 Proteina antiapoptotikoak

GST-MCL1 $\Delta$ C afinitate kromatografia bidez arazten da "Glutathione Sepharose 4B bead" erretxina (GE Healthcare) erabilia, Etxeberria *eta* *lank.*, 2008 argitalpenean azaldutako prozedura jarraituz.

Bakterio-kultura litro bakoitzeko, 750  $\mu$ l erretxina erabiltzen da. Lehendabizi, erretxina zentrifugazio bidez (500x g, 5 min), hiru bider ur destilatuarekin eta beste hiru bider dagokion A indargetzailearekin garbitzen da. Lisatutako bakterioen gainjalkinak garbitutako erretxinarekin

nahastu eta 4 orduz irabiagailu orbital batean inkubatzen dira 4°C-tara, modu horretan, Glutation S-transferasa glutationera itsatsiko delarik.

Proteina itsatsita duten bead-ak ponpa peristaltiko batera konektatuta dagoen zutabe batean enpaketatuko dira. Ondoren, A tanpoiaren 5 bed bolumenekin garbitu eta 30 µL (Stock: 2000 unitate/ml) PreScission proteasa (GE Healthcare, Waukesha, WI, U.S.A.) gehituko zaio. Zutabea tapatu eta gau osoan zehar 4°C-tara izango dugu, proteasak ondo moztu dezan. Moztutako proteina A tanpoiarekin eluituko da 0.5 ml-tako frakzioak jasoz, frakzio hauek SDS-PAGE bidez analisatuko dira Coomassie urdinarekin tindatuz. Proteinan aberastutako frakzioak kontzentratu eta Superdex™ 200 HR 10/30-gel iragazpeneko zutabean kargatuko dira, behin zutabea KHE indargetzailean orekatuta dagoenean.

#### 2.1.2.2.2.3 6 His isatsa duten proteinak

##### 2.1.2.2.2.3.1 BAKΔC

6His-isatsadun BAKΔC Landeta *eta lank.*, 2011 azaltzen den bezala araztu da. BAKΔC afinitate kromatografia erabilia isolatzen da, “ni-NTA Superflow beads (Qiagen)” erretxina erabilia. Bakterio-kultura litro bakoitzeko, 500 µl erretxina erabiltzen da. Bead-ak lehenengo eta behin hamar bed bolumen ur distilatuarekin garbitzen dira hiru bider 500x g-tara 5 minutuz zentrifugatuz, ondoren prozedura bera errepikatzen da dagokion A tanpoiarekin. Behin garbi daudenean bakterio lisatuekin nahastu eta 4 orduz 4°C-tara inkubatzen dira irabiagailu orbital batean, horrela, proteinak daraman 6His-isatsa Ni-NTA duten bead-etara itsatsiko da. Proteina lotuta daramaten bead-ak zentrifugazio bidez jaso (500x g, 5 min, 4°C), gainjalkina baztertu eta jalkina ponpa peristaltiko batetara konektatutako zutabe batean enpaketatzen da.

5 bead bolumen A tanpoiarekin garbitu ostean, proteina B tanpoiarekin (A tanpoia 20 mM imidazole beharrean 500 mM imidazolearekin) eluitzen da eta 0.5 ml-tako frakzioak jasotzen dira, SDS-PAGE analisi eta Coomassie-urdin tindaketarako. Proteinan aberastutako frakzioak gaua osoan zehar dializatzen dira 2 litro C tanpoian (50 mM Na<sub>2</sub>HPO<sub>4</sub>/NaH<sub>2</sub>PO<sub>4</sub> (pH8), 500 mM NaCl, 1 mM MgCl<sub>2</sub>, 1 mM TCEP, %10 glizerol) 4°C-tara, dializirako zelulosako mintza (Sigma-Aldrich) erabilia. Dializatutako laginak 10 µl (stock: 10units/µl) AcTEV proteasarekin (Invitrogen) inkubatzen diran 30°C-tara 3 orduz. Ondoren laginak ordu batez Ni-NTA Superflow bead-ekin inkubatzen dira moztu gabeko proteina -Lipoil-arekin batu dadin. Nahasketa 18,000x g –tara zentrifugatzen da 30 minutuz. Lortutako gainjalkina 250 µl–tara kontzentratzen da YM-10 Microcons (Millipore) erabilia eta 1 mM TCEP eta %10 glizerola duen KHE tanpoian (100 mM KCl, 10 mM Hepes (pH7.5) eta 1mM EDTA) orekatutako Superdex™200HR 10/30 gel iragazpeneko zutabean kargatzen da.

#### 2.1.2.2.3.2 BH3-domeinu bakarrekoko proteinak

6His-isatsa duten BH3-domeinu bakarrekoko proteinak BAKΔC proteina arazteko ematen diren hasierako pausu berdina jarraituz isolatzen dira.

Eluitu ostean, proteinan aberastutako frakzioak 250 μl-taraino kontzentratzen dira YM-10 Microcons (Millipore) erabilia eta ondoren, C indargetzailean (500 mM NaCl, 5 mM MgCl<sub>2</sub>, 20 mM Tris (pH8), %10 glizerol eta %1 CHAPS (w/v)) orekatutako Superdex™ 200 HR 10/30 tamainaren arabera bereizpena egiten duen zutabea (GE Healthcare) txertatzen dira.

Laginen eluzioa 0.5 ml/min-ko fluxuarekin 4°C-tan burutzen da; honez gain, proteinen eluzioa 280 nm-tara absorbantzia neurtuz jarraitu izan da. Tamaina egokia duen pikoari dagokion frakzioak jaso eta SDS-PAGE eta Coomassie-urdin bidez aztertzen dira.

#### 2.1.2.2.3.3 6His isatsa karboxi-terminalean duten proteina antiapoptotikoak

6His isatsa karboxi terminalean duten proteina antiapoptotikoak BAKΔC-ren arazketarako erabilitako prozedura berdina jarraituz arakutzen dira.

#### 2.1.2.2.4 BAX

Luzera osoa duen giza BAX Suzuki *eta lank.*, 2000 azaldutako prozedura jarraituz arazten da. Bakterio-kultura litro bakoitzeko, 1 ml chitin beads (NEB) erabiltzen dira. Bead-ak lehenengo eta behin hamar bed bolumen ur distilatuarekin garbitzen dira hiru aldiz eta ondoren prozedura bera errepikatzen da dagokion A tanpoiarekin. Bakterio lisatuen gainjalkina garbitutako bead-ekin nahastu eta gaua osoan zehar inkubatzen da 4°C-tara irabiagailu orbital batean, horrela, BAX kitin bead-etara itsatsiko da. Proteina itsatsita duten bead-ak zentrifugazio bidez jasoko dira, gainjalkina baztertu eta jalkina ponpa peristaltiko batera konektatutako zutabe batean enpaketatuko da. A tanpoiaren 5 bead bolumenekin zutabea garbitu ondoren, zutabea 50 mM DTT duen A tanpoiarekin orekatzen da. Zutabea tapatu eta 48 orduz 4°C-tara gordetzen da inteinaren berezko mozketak gerta dadin. Proteina eluitu ostean, aberastutako frakzioak gaua osoan zehar dializatzen dira 20 mM Tris (pH8) 2 litroren kontra 4°C-tara. Behin dializatuta, BAX aldaketa-ionikoko kromatografia bidez araztuko dugu Mono Q HR 5/5 (GE Healthcare) zutabea erabilia. Proteina 0 tik 1 Mra NaCl doan gradiente lineala erabilia eluituko dugu eta pikoari dagokion frakzioak elektroforesi eta Coomassie-urdin tindaketa bidez aztertuko dira.

#### 2.1.2.2.5 DRP1

Bakterio lisatuen gainjalkinak jaso eta kitinazko erretxina duen zutabea enpaketatzen dira, A indargetzailean orekatutako 10 ml erretxina erabiliko dugularik (New England Biolabs, Inc.). 10 zutabe bolumen B indargetzailerekin (20 mM HEPES pH 7, %10 glizerol, 1 mM PMSF, 1 mM

benzamidina, 500 mM NaCl) garbituko da zutabea itsatsi ez den proteina zutabetik kentzeko. Ondoren, kitinazko erretxina 0.5 mM DTT duen B indargetzailearekin orekatuko dugu Tiol erreaktiboak eragindako mozketan has dadin. Liseriketa erreakzioa gauean zehar burutuko da 4°C-tara, hurrengo goizean proteina eluituko delarik. Proteinak C indargetzailearekiko (25 mM Hepes pH 7.5, %10 glizerol, 0.5 mM DTT, 100 mM NaCl) dializatuko dira jarraian eta C indargetzailean orekatuak dagoen Q sefrosa zutabea injektatuko dira, DRP1 zutabetik eluituko da indargetzailearen NaCl kontzentrazioa 500 mM-era apurka-apurka igoz. DRP1 duten frakzioak aurretik D indargetzailean (25 mM Hepes pH 7.4, %10 glizerol, 0.5 mM DTT, 150 mM NaCl) orekatutako Sephadex S200 zutabea injektatuko dira ondoren. DRP1 duten frakzioak azkenik E indargetzailearekiko dializatuko dira (25 mM Hepes pH 7.4, %10 glizerol, 0.5 mM DTT, 150 mM KCl).

### 2.1.2.3 Proteinen karakterizazioa

#### 2.1.2.3.1 Proteinen kontzentrazioaren determinazioa

Proteina kontzentrazioa Bradford saiakuntza (Bradford, 1976) erabiliz edota 280 nm-tan absorbantzia neurtuz kuantifikatu da. Jarraian bi metodoen ezaugarri nagusiak azalduko dira:

**Bradford:** Coomassie Brilliant Blue G-250 zundak hondar aromatiko eta positiboak batzen ditu. Batuketa honen ondorioz, uhin luzera maximoa lekualdatzen da 465 nm-tik 595 nm-ra. Proteina kontzentrazioa BSA patroi zuzen batekin alderatuz zehaztu da. Teknika honek detektatu ahal duen proteina kontzentrazio tartea 1-1500 µg/ml da.

**Absorbantzia 280 nm-ra:** Soluzioan dauden proteinek eraztun aromatikodun aminoazidoen presentziagatik, ultramore argia xurgatzen dute 280 nm-eko uhin luzera maximo batera. Egitura sekundario, tertziario eta kuarternarioek absorbantzia baldintzatzen dute; beraz, pH, indar ioniko eta antzeko baldintzek absorbantziaren espektroa alda dezakete. Lambert-Beer-en ekuazioa jarraituz eta iraungipen molarreko koefiziente teoriko bat kalkulatu, proteinaren kontzentrazioa estimatu dezakegu.

#### 2.1.2.3.2 Proteinen bistaratze eta detekzio teknikak

Proteinen bistaratze eta detekzio metodo ezberdinak daude. Atal honetan, proteinak detektatzeko tindaketa metodo ezberdin eta bistaratze azkar batetik detekzio maila txikiagoetara doazenak aztertuko dira (6.Protokoloa).

## 6. **Protokoloa** *Bistaratze eta detekzio teknikak*

Prozedura osoa bitan banandu daiteke: (i) Elektroforesi bidezko bereizketa eta (ii) Detekzioa.

- **Elektroforesi bidezko bereizketa:** Proteinak Laemmli metodoaren arabera bereizi dira (Laemmli 1970). Metodo honetan, proteinak beraien pisu molekularren arabera banatzen dira sodio dodezil sulfatozko poliakrilamidazko elektroforesi gelak erabiliz (SDS-PAGE). %15-eko edo %12-ko poliakrilamidazko gelak eta 20 mM Tris-Cl (pH 7.9), 100 mM NaCl, 70 mM EDTA, 2% (bol/bol) SDS indargetzailea erabili dira.
- **Bistaratze eta detekzioa:**
  - 1- Fluoreszenteki markatutako proteinen detekzioa: Elektroforesi gel bidez banatutako proteina fluoreszenteak zuzenean Molecular Imager Versadoc (Bio-Rad, PA, EEBC) aparatua erabiliz detektatu dira.
  - 2- Coomassie-uridin tindatzailea: Elektroforesi gelak Coomassie-uridin tindatzaile soluzioarekin tindatu dira (%0.1 Coomassie R250, %10 azido azetiko eta %40 metanol) eta ondoren, gela tindagabetzeko %20 metanol eta %10 azido azetiko glaziala duen soluzioarekin proteinen bandak ikusi arte inkubatu da. Erreakzio hau tindatzailearen molekula eta proteinen amino taldeen arteko elkarrekintza elektrostatiko itzulgarri baten oinarritzen da.
  - 3- Western plapaketa (*Immunoblotting* edo *Western blot*): Metodo honetan gainerako pausuak daude:
    - (i)Transferentzia: Geletan dauden proteinak nitozelulosazko mintz batera (Protran nitrocellulose membrane; Whatman Inc, NJ, EEBC) korrante elektriko (12 mV, 45 min) bat dela medio transferitzen dira. Transferentzia burutzeko osagaiak honakoak izaten dira: Transferentzia indargetzailea (20 mM Tris-HCl (pH 7.9), 100 mM NaCl, 70 mM EDTA eta %15 metanol); korrante elektrikoa ematen duen aparatua *Tran-Blot SD* (Bio-Rad, PA, EEBC); eta azkenik, *Extra Thick blot* paperak (Bio-Rad, PA, EEBC).

(Protokoloak hurrengo orrialdean jarraitzen du)

(ii) Blokeoa: Elkarrekintza ez-espezifikoak eragozteko, nitrozelulosazko mintza %5 esne-gaingabetua eta %0.05 Tween-20 duen PBS indagertzailearekin (PBS-T) (137 mM NaCl, 10 mM Na<sub>2</sub>HPO<sub>4</sub> eta 10mM NaH<sub>2</sub>PO<sub>4</sub> pH7) ordu batez giro tenperaturan inkubatzen dira.

(iii) Detekzioa: Mintza, detektatu nahi den proteina ezagutzen duen antigorputza (1:2000 diluzioa) %2.5 esne-gaingabetua duen PBS-T soluzioan diluitu eta ordu batez giro tenperaturan inkubatzen dira. Ondoren, PBS-T indargetzailearekin 10 minututako hiru garbiketa egin ostean, mintza HRP- (ingelesetik, *horseradish peroxidase*) konjugatutako antigorputz sekundarioarekin (1:10000 diluzioa) ordu batez giro tenperaturan inkubatzen da. Bukatzeko, proteinen detekzioa *ECL-Plus* Western plapaketarako erreaktibo kimioluminiszentearekin (Pierce, Rockford, IL, EEBB) inkubatu eta bistaratzeari *Hyperfilm™ ECL™* argazki filmekin (PerkinElmer Life Sciences, Boston, MA, EEBB) burutzen da.

### 2.1.2.3.3 Masa espektrometria

Masa espektrometria analitikoa zelula zein organismoen proteoma aztertzeke erraminta indartsua bilakatu da, gainera proteinen karakterizaziorako ere metodo garrantzitsua da. Tesi lan honetan teknika hau bi helburu desberdin jorrazteko erabili izan da. Lehengoan, araztu berri zen BOKΔC6His proteinaren masa molekularra aztertu da, araztutako proteina BOKΔC6His proteinak izan beharko lukeen masa teorikoarekin bat datorren konfirmatzeko. Horretaz gain, masa espektrometria modu iragankorrean GFP-BOKekin transfektatutako zelulen immunoprezipitazioan presente dauden proteinak identifikatzeko ere erabilia izan da. Kasu honetan, tandem masa espektrometria erabili da. Proteinak entzimekin liseritu eta peptido txikiak lortu ondoren, peptido hauek masa espektrometroan barneratu eta fingerprintng deituriko metodo bitartez identifikatu izan dira. Masa espektrometria saiakuntzak UPV/EHUko Proteomika Unitatean egin dira.

## 2.2 BERRERAIKITAKO EREDU SISTEMEKIN ERLAZIONATUTAKO METODOAK

### 2.2.1 EGITURA AZTERKETAK

#### 2.2.1.1 Proteinen kristalizazioa

Proteinen kristalografia, proteina molekulen egitura bereizmen atomikoan lortzeko erabiltzen da. Proteinen kristalak lortzea erronka handia izaten da, ingurune urtsuaren murrizketak, kalitate handiko proteina laginak lortzeko zailtasunak eta proteinek temperatura, pH, indar ioniko eta beste faktore batzuekiko duten sentikortasuna dela eta. Kristalizazio baldintza egokiak zehazteko askotan baldintza desberdin asko frogatzea beharrezkoa da, kristalizazio baldintza egokia aurkitu arte.


##### 2.2.1.1.1 Proteinaren egonkortasunaren azterketa: Termofluor proba

Proteinen egitura maila atomikoan aztertzeko proteina-laginak hainbat baldintza bete behar ditu. Baldintza horiek betetzen dituen proteina-lagina lortzea askotan prozesu luzea izaten da. Proteina kristalitzatzeko probabilitatea, laginaren homogeneitate, egonkortasun eta disolbagarritasunarekin estuki erlazionatuta dago. Kristalizazioaren arrakasta-tasa hobetzeko proteinaren propietate horien optimizazioak garrantzi handia dauka.

BOK $\Delta$ C6His proteinaren egonkortasunerako egokiena den indargetzailea aurkitzeko asmoz Termofluor proba erabili da. Proba honetan, ikerketa gai den proteinaren egonkortasun termikoa aztertzen da indargetzaile (gatz eta pH desberdinetan) eta ligando/gehigarri desberdin askorekin. Modu honetan era azkar batean disolbagarritasunaren hobekuntza, agregazioaren murrizketa eta, kasu batzuetan, kristalizazio aukeren areagotzea handitzen duten baldintzak identifikatzen dira.

Esperimentua burutzeko 96 putzutako plaka bat erabiltzen da. Plakaren putzu bakoitzari indargetzaile/ligando/gehigarri (JBS Solubility kit, A eta B: Buffer Kit from Jena Biosciences) desberdinen bat gehitzen zaio aztergai den proteinarekin batera. Horretaz gain, putzu bakoitzean, molekula hidrofobikoei batzen den SYPRO orange (Molecular probes) zunda fluoreszentea gehitzen da. Saioa denbora errealean egindako PCRak burutzeko termoziklagailu batean burutzen da. Temperatura handitzen doan heinean proteina desnaturalizatzen hasten da egoera tolestuan ezkutatuak dauden atal hidrofobikoak agerian geratzen direlarik; SYPRO

orange zunda atal hauei batzen da fluoreszentiaren errendimendu kuantikoa handituz (2.5 Irudia).



**2.5 Irudia. Termofluor probaren adierazpen eskematikoa.**  
[http://www.bio.anl.gov/molecular\\_and\\_systems\\_biology/Sensor/sensor2.html](http://www.bio.anl.gov/molecular_and_systems_biology/Sensor/sensor2.html) web orritik hartutako irudia.

Laburbilduz, 0.7 µl 500X Sypro Orange (Molecular Probes), azertu behar dugun indargetzaile/ligando/gehigarri-ren 37 µl eta 1.5 mg/ml-ra dagoen proteinaren 4.5 µl gehitzen dira PCR plakaren (Bio- Rad) putzu bakoitzera. Kontroletan indargetzailea, ligandoa edo gehigarria gehitu beharrean ura gehitzen da. Plakak kalitate optikoa duen estalkiarekin (Bio-Rad) tapatu eta iCycler iQ Real Time PCR Detection System (Bio-Rad) erabilita 20°Ctik 95°Cra berotzen da 0.5°C/min-ko. Putzuetan ematen diren fluoreszentzia aldaketak *charge-coupled device (CCD)* kamera batekin neurtzen dira. Kitzikapen eta igorpen uhin-luzerak 300 eta 470 nm-koak dira hurrenez hurren.

### 2.2.1.1.2 Hauspeatzaileen azterketa

Proteinen kristalizaziorako *screen*-ak erabiltzea aukera egokia da; hauek indargetzaile, hauspeatzaile eta beste gehigarrien bildumak dira. Screen hauetako gehienak 96-putzutako formatuan daude eskuragarri, sistema errobotikoak erabiltzeko pentsatuak. Hasierako esperimenduek, kristalizatu nahi den proteinaren portaeraren inguruko informazio baliagarria eskainiko digute.

Kasu honetan, proteina 2mg/ml-ko kontzentziora dago bere egonkortasunerako egokiena den indargetzailean (150 mM NaCl, 50 mM HEPES, 1 mM EDTA, 1 mM TCEP, % 10 glizerol, pH 7.5).



Hiru screen desberdin erabili dira, JBScreen Classic I HTSL, JBScreen Classic II HTSL eta Nextal DWBlock Classic Suite. Putzu bakoitzean 800 nl proteina eta 200 nl indargetzaile gehitu dira mosquito robota erabilita.

Behin 96 putzutako plaka estalita, tantak mikroskopioan behatu eta uniformeak diren ikusten da, baita prezipitaziorik gertatu den ere. Ondoren, plakak 21°C-tara inkubatzen dira eta 21 egunetan zehar ateratzen zaizkie argazkiak.

### 2.2.1.1.3 “Hanging drop” metodoa

Metodo honetan araztutako proteina, indargetzailea eta hauspeatzaileaz osatutako tanta bat, indargetzaile eta hauspeatzaile berdinak dituen ontzi handiago batekin orekatzen utziko da (2.6 Irudia). Hasieran, tantak hauspeatzailearen kontzentrazio eznahikoa du kristalizazio prozesua burutzeko, baina ura tantatik lurruntzen doan heinean hauspeatzailearen kontzentrazioa handituz doa kristalizaziorako optimoa den kontzentrazioa lortu arte. Sistema orekan dagoenean, baldintza optimo hauek mantenduko dira kristalizazio prozesua amaitzen denerarte (Rhodes, 2006).




Figure 2.6 “Hanging drop” metodoaren diagrama.

<http://www.bio.davidson.edu/molecular/MolStudents/spring2003/Kogoy/protein.html>-tik hartutako irudia.

Gure kasuan, 1 µl proteina eta 1µl indargetzaile (0.1 M MES pH 6.5, 10% PEG 800, 0.2 M Zink azetato) erabili ditugu 500 µl indargetzaile duen ganbaran. Hutsa egiteko koipea gehitu diogu ganbararen inguruari eta ondoren plastiko batez tapatu, behin ondo itxita 21°C-tara inkubatu izan dira.

### 2.2.1.1.4 X-izpien difrakzio saiakerak

X-izpien kristalografia oso bereizmen handiko mikroskopia mota bat da. Proteinen egiturak maila atomikoan bistaratzeko baimentzen digu, proteinen funtzioen ezagumenduan lagunduz. Mikroskopia mota guztietan, xehetasun maila edo bereizmena mugatuta daude erabilitako

erradiazio elektro-magnetikoaren uhin-luzeragatik. Proteinak maila atomikoan ikusteko, 0.1 nm edo 1 Å uhin-luzera duen erradiazio elektro-magnetikoekin lan egin behar dugu, hau da, X-izpiak behar ditugu.

Molekula bakar baten difrakzioa oso ahula izango litzateke neurgarria izateko. Beraz, hiru-dimentsiotan ordenatutako molekulak, hau da, kristalak erabiltzen dira seinalea handitzeko. Proteina kristal txiki batek bilioi bat molekula izan ditzake. Kristalaren barne ordena ahula bada, X-izpiek ez dute angelu handi edo bereizmen handiarekin difraktatuko eta datu horiekin ezingo da bereizmen handiko egiturarik lortu. X-izpiek egituraren dauden elektroien difraktatzen dute eta ondorioz, X-izpi esperimentuen emaitza egituraren zeharrek elektroien banaketa mapa tridimentsionala da.

Behin kristalak ditugunean, X-izpien bidez aztertzeko garaia da. Kristala kapilare baten kokatu behar da eta ondoren, goniometroa deitzen den gailu batera gehitzen da, gailu honek kristala ondo kokatuta geratzea ahalbidetuko duelarik. Datu kriogenikoak biltzeko, nitrogeno gas hotzak kristala 100 K-tara mantenduko du esperimentu osoan zehar. X-izpiak "collimator" izena duen hodi estu batetik aterako dira eta ondo orientatutako kristala joko dute difrakzio-patroia lortzeko. X-izpien difrakzioa detektagailu batek jasoko du. Dena ondo joan ezker, puntu zorrotz garbiak ikusi beharko lirateke, puntu desberdinez osatutako sareta kristal bakarra dagoela adierazten duena, eta gatz edo izotz kristalaren presentziarik ez, puntu gogor edo eraztun moduan adierazten direnak. Kristala 4 Å-eko bereizmena izan beharko luke baldintza idealetan.

Kristalak era egokian difraktatzen badu, datuak jaso beharko genituzke. Lehenik kristalaren simetria, unitatearen parametroak, kristalaren orientazioa eta bereizmen mugak zehaztu behar dira. Informazio guzti hau izatean, datu bilketa estrategia bat garatu beharko litzateke bereizmena zein datuen betetasuna maximizatuko lituzkeena. Kristala angelu txikietan biratzen da, normalean gradu bat, eta X-izpien difrakzio patroia gordetzen da. Difrakzio patroia oso beteta dagoenean, biraketa angelua murriztu beharko lirateke puntu bakoitza irudian bereiz dadin. Prozesu hau errepikatu behar da gutxienez kristalak 30 graduetan zehar biratu duenerarte, baina batzuetan 180 graduko birak ere beharrezkoak izaten dira, kristalaren simetriaren arabera. Zenbat eta simetria txikiagoa izan, hainbat eta datu gehiago behar dira.

Saiakera hauek Bartzelonako Alba Sinkrotronean burutu ziren Kornelius Zeth doktoarearekin egindako kolaborazio baten bidez.


### **2.2.1.2 Dikroismo zirkularra**

Dikroismo zirkularra (DZ), bai soluzioan zein mintz-eredu sistemetan, egitura sekundarioa eta tertziarioan ematen diren egiturazko aldaketak behatzeko eta biomolekulen egonkortasun konformazionala determinatzeko erabili ohi den teknika da. Proteinen DZ espektroa ultramore

urrunean (far-UV) proteinaren egitura sekundarioa determinatzeko oso sentikorra da. Ultramore hurbileko espektroak (near-UV), aldiz, proteina eta peptidoen albo kate aromatikoek eta disulfuro zubien ekarpena adierazten dute DZan, analisia erraza da eta erabili behar den produktu kantitate oso txikia da. Hortaz, egituraren inguruko informazioa lortzeko teknika erabilienetakoa da. Hala ere, teknika honek ez digu proteinaren egitura tridimentsionala determinatzea baimentzen, horretarako, erresonantzia magnetiko nuklear (EMN) edota X-izpi tekniketara jo behar dugularik.

Dikroismo zirkularraren fenomenoak, ingurune asimetriko batean dauden bi kromoforo argi polarizatuarekin elkar-eragiten dutenean ematen da. Proteinaren kasuan, prozesu honetan parte hartzen duten lotura peptidikoek amida taldeak eta alboko kate aromatikoak talderik anitzenak dira. Amida taldeen  $n\pi$  eta  $\pi\pi^*$  trantsizioen kiralitatea eta hauen arteko elkarrekintza kirala, peptidoen kromoforoek aurkezten dituzten antolamendu espazialen menpe daude. Peptidoen kromoforoen alderdian (<240 nm), gainezarrita dauden  $n\pi^*$  eta  $\pi\pi^*$  espektroen bandengatik osaturik dago. Gainezarrita dauden  $n\pi^*$  eta  $\pi\pi^*$  espektroen banda hauek kate polipeptidikoaren zenbait alderdi konformazional edota konformeroren nahasketen emaitzak dira. Polipeptidoek eta proteinen kromoforoek antolamendu errepikakorra aurkezten dituzten konformazio lokalak dituzte. Antolamendu errepikakor hori  $\alpha$  helizeei eta  $\beta$  orriari dagozkie. Ordenazio ezberdinetan lotura peptidikoak hartzen duten orientazioen menpe, amida taldeen trantsizio optikoak, trantsizio anitzetan bana daitezke. Trantsizioen uhin luzerak ( $\lambda$ ) aldatu daitezke eta intentsitateak handitu edo gutxitu. Guzti honen ondorioz, egitura sekundarioko egiturek,  $\alpha$  helizeak,  $\beta$  orriak,  $\beta$  birak eta poli-L-prolina (P2), berezko DZ espektro bereziak dituzte (2.7 Irudia).

$\alpha$ -helize batek minimo bikoitz bat aurkezten du 222 nm eta 208-210 nm-tan eta maximo handi bat 191-193 nm-tan. Banda hauen intentsitateak, aztertzen diren peptido edo proteinen eliptikotasun proportzioa adierazten dute. DZ espektroa  $\beta$  egitura ezberdinen artean asko aldatu daiteke. Orokorrean,  $\beta$  orri konformazioek, minimo bakar bat aurkezten dute 210-225 nm-tan eta maximo bakar bat 190-200 nm-tan, hauen intentsitatea  $\alpha$  helizeei dagozkienak baino baxuagoak direlarik. P2 egiturazko elementua, 205 nm-tan banda negatibo handi bat izateagatik bereizten da. Azkenik, egitura desordenatuak, 200 nm-tik hurbil banda negatibo handi bat eta positiboak edo negatiboak izan daitezkeen zenbait banda ahul 220 nm eta 230 nm tartean izateagatik bereizten dira (2.7 irudia).



### 2.7 Irudia. Egitura sekundario ezberdinei dagozkien DZ espektroak.


#### DZaren adierazpena

Linealki polarizatua dagoen argiak bi osagai ditu: (1) Ezkerretara zirkularki polarizatua dagoen osagaia (rpc) eta (2) eskuinetara zirkularki polarizatua dagoen osagaia (lpc). Rcp osagaiaren bektore elektrikoak, argi sortaren norantza daukan ardatz perpendikular baten inguruan birak ematen ditu, erloju baten ardatzen kontrako norantza hartuz. Lcp osagaia aldiz, erloju baten ardatzen norantza biratzen du. Konposatu kiral batek aktibitate optikoa aurkezten duenean, rcp-aren xurgapena eta lcp-aren xurgapena berdinak ez direlako da. Dikroismo zirkularra, argi polarizatuaren rcp eta lcp osagaien xurgapenaren ezberdintasuna bezala definitu daiteke. Lambert-Beer-en legea kontuan hartuz gero (UV-ikuskorra espektroskopiaren trantsizio elektronikoa definitzen duena), xurgapen ezberdintasun hauek hurrengo formularekin adieraz daitezke:

$$\Delta A = A_l - A_r = (\epsilon_l c l) - (\epsilon_r c l) = \Delta \epsilon c l$$

non,  $c$  solutu kiralaren kontzentrazio molarra den,  $\epsilon$  iraungipen molarraren koefizientea den eta  $l$  argiaren hari-neurria den;  $\Delta \epsilon = \epsilon_l - \epsilon_r$  izanik.

Argi polarizatuak ingurugiro kiral bat zeharkatzen duenean, bektore elektrikoek, ardatz nagusiarekiko biraketa angelu bat eratzen dagoen elipse bat deskribatzen dute. Osagai zirkularren bektore elektrikoek norantza berdina dutenean, beraien magnitudeen baturak elipsearen ardatz erdi-nagusia sortzen dute. Aurkako norantza dutenean berriz, beraien magnitudeen ezberdintasunak, elipsearen ardatz erdi-txikia sortzen dute. DZa ardatz erdi-nagusiaren eta erdi-txikiaren erlazioa bezala definitzen da. Erlazio hau, eliptikotasun bezala ezaguna den  $\theta$  angeluaren tangentea da (2.8 Irudia).



**2.8 Irudia. Eliptikoki polarizatu dagoen argia.** Eliptikotasun  $\theta$  angelua da, angelu honen tangentea elipsearen ardatz nagusia eta txikiaren arteko erlazioa izanik.  $\alpha$  angelua, elipsearen ardatz nagusiaren eta argiaren polarizazio planoaren arteko angelua da eta biraketa optikoa adierazten du.

Angelu hau orokorrean oso txikia denez,  $\theta$ -ren tangentea  $\theta$ -ren berdina da eta xurgapenarekin hurrengo adierazpenaren bidez erlazionatzen da:

$$\theta \text{ (deg)} = 32.98 \Delta A$$

Argiaren pasabidearen eta solutuaren kontzentrazio molarren arteko menpekotasun lineala kentzeko, eliptikotasun molarra hurrengo moduan definitzen da:

$$[\theta] = 100 \theta / c l$$

Lehenengo eta bigarren ekuazioak hirugarren ekuazioan ordezkatzuz hurrengo adierazpena lortzen da:

$$[\theta] = 3298 \Delta \epsilon$$

non, laginak azaltzen duen dikroismoaren magnitudea estintzio koefizienteen ezberdintasunaren menpe dagoen definitzen den.

Polipeptido eta proteinen DZan ostera, lotura peptidiko bakoitzeko eliptikotasun molarren adierazpena erabiltzen da. Lotura peptidiko bakoitzeko eliptikotasun molarra  $\text{deg.cm}^2.\text{dmol}^{-1}$  unitateak ditu eta eliptikotasun molarra, peptidoak edo proteinak dituen  $n-1$  aminoazido hondarregatik zatitzerakoan lortzen da.

Aintzakotzat hartu daiteke, xurgapen elektronikoa eta dikroismo zirkularren espektroa zenbait bandaz osaturik daudela. Banda bakoitza oinarritzko egoera batetik elektronikoki kitzikatua dagoen egoera batera ematen den trantsizioari dagokio. Banda bakoitza zenbait parametroen bidez bereiz daiteke. Lehenengoa, uhin luzerak edo maiztasunak zehazten duten kokapenean oinarritzen da. Orokorrean  $\lambda_{\text{max}}$  edo  $\nu_{\text{max}}$  moduan adierazten da, eta DZaren xurgapenak balore

maximoa erdiesten duen uhin luzera edo maiztasuna dira. Bigarren parametroa intentsitatea da,  $\epsilon_{\max}$  modura adierazten dena xurgapenerako eta  $\Delta\epsilon_{\max}$  DZerako, eta muturreko banden baloreak direnak.

### 2.2.1.2.1 Egitura sekundarioaren determinazioa

Tesi lan honetan, bai soluzioan zein liposometan, BCL2 familiako proteina ezberdinen egitura aztertu da, baita DRP1 proteinarena ere. Alde batetik, arazketatik lortutako proteinak ondo tolestuta daudela ziurtatzeko eta bestalde, proteinen mintzerako batuketak egiturazko aldaketaren bat eragiten duten aztertzeke helburuekin erabili da. Erabilitako protokoloa jarraian deskribatzen da (7.Protokoloa).

#### **7.Protokoloa** Egitura sekundarioaren determinazioa

- 1- Laginen prestaketa: Proteinak (2.5-5  $\mu\text{M}$  inguru) liposomekin edo gabe Tris 10 mM indargetzaile batean, ordu batez inkubatzen dira. DZ neurketarekin hasi baino lehenago, laginak 10 minutuz uzten dira orekatu daitezen.
- 2- DZ neurriak: Neurketak Jasco J-810 dikroismo zirkularrerako espektropolarimetroan (Jasco Spectroscopic Co. Ltd., Hachioji hiria, Japonia) egin dira. Espektropolarimetroa tenperatura kontrolatzeko Peltier sistema bat (JASCO PTC-423S) darama eta azido (1S)-(+)-10-kamporsulfonikoarekin maiz kalibratzen da.
- 3- Neurketak burutzeko parametroak honakoak izan dira: 1 mm-ko pasu optikoa duen kuartozko kubeta, tenperatura 37°C, espektroaren uhin luzera tarte 190-260 eta 1 nm-ko pausuetan, 50 nm/min-ko abiadura, erantzun denbora 1 s, banda zabalera 2 nm, 100-eko sentikortasuna, espektro finala 20 espektroen batez bestekoa. Behin neurketak eginda, proteinaren espektroari liposomak duen edo gabeko indargetzailearen seinalea kentzen zaio.

(protokoloak hurrego orrialdean jarraitzen du)

- 4- Eliptikotasun molarraren kalkulua: Lambert-Beer-en legea kontuan hartuz, eliptikotasunaren graduak ( $\epsilon$ ) eliptikotasun molarrean  $[\theta]$  ( $\text{gradu}\cdot\text{cm}^2\cdot\text{dmol}^{-1}$ ) bihur daitezke:

$$[\theta] = \frac{\epsilon}{(10 \cdot l \cdot n \cdot c)}$$

non,  $c$  proteinaren kontzentrazio molarra den,  $n$  proteinaren lotura peptidikoen kopurua eta  $l$  kubetaren pasu optikoa cm-tan.

- 5- Egitura sekundarioaren balioespena: Ultramore urruneko DZ espektrotik egitura sekundarioa determinatzeko (Sreerama and Woody 2004) hainbat aurreratu-programa daude, kristalografikoki ebatzitako proteinen DZ espektroen datu-baseetan oinarritzen direnak. DZ espektroen azterketarako baliabide egoki bat CDPro online softwarea da; eta CONTILL, SELCON3 eta CDSSTR algoritmoak erabiltzen ditu.

#### 2.2.1.2.2 Proteinen egonkortasun termikoaren determinazioa

DZa proteinen egonkortasun termikoa aztertzeko ere teknika baliagarria da. Egiturari dagokion uhin luzera bereizgarri batera tenperaturaren eskaneatze bat egiten da. Gure kasuan, aztertu ditugun BCL2 familiako proteinak eta baita DRP1 proteina  $\alpha$ -helizedun proteina globularrak direnez, seinalea 222nm-tako uhin luzeran jarraian tenperaturarekiko neurtu izan da. Horrela, baldintza ezberdinetara zeuden proteinen kurbak konparatuz, liposomekin edo gabe, proteinen trantsizio tenperaturaren aldaketak aztertu ditzakegu.

Proteinen egonkortasun termikoa aztertzeko, lehendabizi, proteinak liposomekin edo gabe ordu batez 37°C-tan inkubatzen dira. DZ neurketak 222 nm-ko uhin luzerara, 25°C-tik 90°C-tara 1°C pausuetan egin dira. Trantsizio tenperatura DZ aparatuen softwarean dagoen kurbaren lehenengo deribatua kalkulatzeko duen baliabidea dela medio burutu da.

### 2.2.2 PROTEINA-LIPIDO ELKARREKINTZA: MINTZAREKIKO BATUKETA

“Embedded model” delakoak, BCL2 familiako proteinen arteko elkarrekintzetan mintzak zeregin kritikoa duela proposatzen du, DRP1en kasuan proteinak mintzarekin duen harremana ere garrantzitsua da fisio mitokondrialerako, beraz, proteina hauek mintzarekin elkar-eragiteko erabiltzen duten mekanismo molekular zehatza ezagutzea bere funtzio biologikoak guztiz ulertzeko ezinbestekoa da. Proteina batek mintz biologiko batekin elkarrekintza izateko duen

mekanismo molekularra ulertzeko: (i) mintzarekiko batze prozesuaren inguruko afinitate eta espezifitatearen inguruko informazio esperimentalak eta (ii) bigeruz lipidikoan proteinak duen topologia/konformazioa ezagutu behar dira.

X-izpi bidezko kristalografia edo elektroi bidezko kristalografia bezalako teknikak dira mintz proteinen egiturak bereizmen handiarekin lortzeko erabilienak. X-izpien kristalografiaren kasuan, lipidoek askotan ez dute kristalizazio prozesua jasaten eta kopurifikatu eta kristalizatzen lortzen badira ere, euren karakterizazioa baimentzeko behar besteko ordenarik ez dute izaten (Palsdottir & Hunte, 2004). Alternatiba moduan, elektroi kristalografia gero eta gehiago erabiltzen ari da mintz proteinen egiturak bereizmen atomikoan ebazteko (Raunser & Walz, 2009). Kristalik ez dagoenean, espektroskopia nuklear magnetikoa (NMR) (Aisenbrey *et al.*, 2013), Fourier-en Transformatu bidezko espektroskopia infragorria (FT-IR) (Subirade *et al.*, 1995), edo Elektro-spinen Erresonantzia Paramagnetikoa (EPR) (Marsh, 2010) tekniken bidez proteina-lipido elkarrekintzen inguruko informazio baliagarria eskura daiteke. Mintz proteinak aztertzeko Dinamika Molekularren simulazioak ere erabili daitezke (Lindahl & Sansom, 2008). NMR edo X-izpietan oinarritutako teknikak ez bezala, proteinen eta lipidoen arteko elkarrekintza eta mugimenduak zehaztasun atomikoan monitorizatu daitezke denbora eta espazio bereizmen handiarekin. Adibide modura, 2012. urtean Contreras *eta lank.* Esfingolipido bakarra ezagutzen duen proteina baten transmintz domeinuaren azterketa molekularra burutzeko erabili zuten (Contreras *et al.*, 2012).

Arestian aipatutako bereizmen handiko teknikaz gain, proteinek mintzekin elkarrekintzen duten mekanismoak ikasteko beste saio fluorimetriko, zentrifugazio saio eta saio mikroskopiko batzuk ere badaude (Contreras *et al.*, 2012; Zhao & Lappalainen, 2012). Saio hauetako bakoitzak, informazio mota desberdina eskaintzen du eta muga tekniko espezifikoak ditu.

Besikulen sedimentazio eta liposomen flotazio saioak oso erabiliak dira proteinak lipidoarekiko duen afinitate eta espezifikotasuna aztertzeko (Landeta *et al.*, 2011; Yethon *et al.*, 2003). Sedimentazio saioa lipido besikula eta beraiekin elkar-eragiten duten proteinen sedimentazioan oinarritzen da, abiadura handiko zentrifugazio bat jasan ostean. Liposomen flotazio saioan aldiz, dentsitate gradiente baten zentrifugazioa ematen da. Orokorrean, lamela bakarreko zein lamela askoko besikula handiak mintz eredu sistemarik egokienak dira mota honetako azterketetarako. Bi metodoetatik, sedimentazioarena azkarragoa eta indargetzaile baldintza desberdinetarako erabilgarria da, gainera lipido eta proteina kantitate txikiagoak behar dira. Hala ere, mintzarekin elkarrekintzen duten proteina askok agregatzeko edo oligomerizatzeko joera izaten dute, liposomen absentsian sedimentatzea dakarrena. Egoera honetan, proteina hauen mintzarekiko elkarrekintza ezin da sedimentazio bidez era fidagarri batean aztertu eta flotazioa saioa erabiltzea gomendagarriagoa da.



Besikulen sedimentazio eta flotazio esperimentuetaz gain, badaude proteina batek mintzarekiko duen afinitatea neurtzeko erabili daitezkeen beste teknika batzuk, kalorimetria bidezko balorazio isotermikoa (ITC) (Ananthanarayanan *et al.*, 2003) eta gainazaleko plasmioen erresonantzia (SPR) besteak beste (Besenicar *et al.*, 2006; Bustillo-Zabalbeitia *et al.*, 2014; Landeta *et al.*, 2011). Liposomen batuketa saioetan ez bezala, teknika hauen bidez informazio kuantitatiboa lor daiteke. Hala ere, zenbait muga tekniko direla eta (ITC-ren kasuan oso proteina eta lipido kantitate handiak beharrezkoak dira eta SPR-aren kasuan, seinale inespezifikoak egon daitezke) gaur egun arte ez dira hain erabiliak izan proteina-lipido elkarrekintzak aztertzeko.

Tesi lan honetan zenbait BCL2 familiako proteinek eta DRP1ek zenbait lipidoekin batzeko duten ahalmena, sakarosa gradiente bidezko flotazio zentrifugazioa, lipido monogerezak, dot plapaketa eta gainazaleko plasmioen errezonantzia erabiliz analizatu dira. Faktore asko hartu behar dira kontutan proteina zehatz baten mintz elkarrekintzak aztertzeko orduan. Hurrengo faktore hauek, besteak beste: (i) Besikularen lipido konposaketa; (ii) proteina:lipido erlazioa; (iii) mintzaren kurbadura; (iv) esperimentuan erabilitako tanpoiaren pH eta gatz kontzentrazioak.

### 2.2.2.1 Dot plapaketa

Dot plapaketa (ingelesez, *Dot blot*) saiakuntzak lipidora batzen diren proteinen identifikazioa baimentzen du. Proteina ugarik fosfolipidoekin elkarrekintzak edukitzeko gaitasuna dute, eta normalean sekuentzian batuketa espezifiko bat burutzeko domeinuak dituzte, Pleckstrin-en homologia (PH) domeinua (Lemmon & Ferguson, 2000) adibidez. Hortaz, teknika honen bidez aztertzen ari garen proteinek lipidoak batzeko domeinuren bat duten edota lipido batekiko duten afinitate erlatiboa balioesteko erabilgarria da.


BCL2 proteinen artean, prozedura hau erabiliz, Basañez eta lankideek (Landeta *et al.*, 2011) BAKΔC proteinek zenbait lipido mitokondrialekiko duen batuketa espezifikotasuna aztertu zuten, berriki BAX proteinek hexadezenal lipidoarekiko duen batuketa argitu da teknika honen bidez (Chipuk *et al.*, 2012).

Tesi honetan, komertzialki erabilgarri dauden *Membrane Lipid strips* izeneko mintzak (Echelon Bioscience, Salt Lake hiria, UT, EEBB) edo eskuz prestatuturiko mintzak erabili ditugu. BOK eta DRP1 proteinek lipidoak ezagutarazteko ezaugarriak aztertzen duen protokolo zehatz bat deskribatzen da jarraian (8. Protokoloa).

### **8.Protokoloa** *Dot plapaketa*

- 1- Lipido-mintzen prestaketa: Lipidoak metanol:kloroformo:ura 2:1:0.8 soluzioan ondoz-ondoko diluzioak eginez, kontzentrazio ezberdineko stockak prestatzen dira, kontzentrazioak 0-10 mM tartean egonik. Ondoren, diluzio bakoitzetik 1 µL-ko tanto bat *Hybond-C extra* mintzean (Amersham, GE Healthcare, Waukesha, WI, EEBC) jartzen dira eta mintza ordu batez giro tenperaturan sikatzen uzten da.
- 2- Proteina eta lipidodun mintzaren arteko inkubazio prozedura:
  - Blokeoa: Mintza %1 esne gaingabetua duen PBS indargetailearekin ordu batez, giro tenperaturan, irabiagailu orbital batean inkubatzen da.
  - Proteinaren inkubazioa: 25 nM proteina eta mintza PBS indargetzailean, ordu batez, 37°C-tan eta irabiagailu orbital baten inkubatzen dira.
  - Immunodetekzioa: PBStan 10 minutuko hiru garbiketa egin ostean, lipidora batutako proteina Western plapaketa bezalako prozedura jarraituz detektatzen da. Lehendabizi, antigorputz primarioarekin (1:2000 diluzioa) inkubatzen da, ordu batez giro tenperaturan. Bigarrenez, PBSarekin deskribatutako beste garbiketa txanda bat egin ondoren, mintza HRP duen antigorputz sekundarioarekin (1:10000) inkubatzen da, ordu batez giro tenperaturan. Azkenik, proteina ECL-Plus Western plapaketarako erreaktibo kimilumiszentetarekin (Pierce, Rockford, IL, EEBC) eta *Hyperfilm™ ECL™* filmekin (PerkinElmer Life Sciences, Boston, MA, EEBC) detektatzen da. Behin negatiboak digitalizatu direnean, seinaleen dentsitate integratuak *Quantity One software* (Fujifilm USA, Valhalla, NY, EEBC) erabiliz ebaluatzen dira.

Dot plapaketa metodoaren abantailen artean honakoak daude: proteina kantitate gutxi baten beharra eta saio berdinean lipido ezberdinen azterketaren aukera. Honenbestez, proteina eta lipido elkarrekintzak aztertzeko saiakuntza merkea eta azkarra da. Metodo honen emaitzak kualitatiboak eta afinitate erlatiboak kalkulatzeko erabili daitezke, adibidez, proteina berak lipido ezberdinekiko dituen afinitateak konparatzeko. Aitzitik, asoziazio konstante kuantitatiboak lortzeko, gainazaleko plasmoin erresonantzia (SPR, ingelesetik *Surface Plasmon Resonance*) edo kalorimetria bidezko balorazio isotermikoa (ITC, ingelesetik *Isothermal Titration Calorimetry*) teknikak erabili behar dira.



**2.9 Irudia. Dot plakaketa saioaren eskema.** Aztertu nahi diren kontzentrazio ezberdineko lipidoen tantak nitrozululosazko mintzera gaineratzen dira. Giro tenperaturan beste ordu batez sikatzen utzi ostean, mintza ordu batez blokeatu eta azterketaren helburu den proteinarekin inkubatzen da. Azkenik, nitrozululosazko mintzera batutako proteina immunodetekzio bidez aztertzen da.

### 2.2.2.2 Gainazaleko plasmoin erresonantzia


Gainazaleko plasmoin erresonantzia (SPR, ingelesetik *Surface Plasmon Resonance*) makromolekulen elkarrekintzak aztertzeko teknika garrantzitsuenetariko batean bilakatu da. Nahiz eta biokimikaren arloan, SPR proteina-proteina arteko interakzioak ikasteko erabili izan ohi den, lipido sentzore espezifikoak diren txipen garapenak mintz eta proteina arteko elkarrekintzak aztertzea ahalbidetu du. Txip hauetan inobilizatutako mintzen lipido konposaketa moldatuz, mintz eta proteinen arteko interakzioak modu erraz batean ikertu daitezke. Honez gain, SPR teknikak makromolekulen elkarrekintza ahulak analizatzeko hainbat abantaila aurkezten ditu, beste tekniken bidez ezinezkoak diren neurketa desberdinak ahalbidetuz (Besenicar *et al.*, 2006; van der Merwe & Barclay, 1996; Van der Merwe & Barclay, 1994). Tesi lan honetan, SPR teknika DRP1 proteinak lipidoetara batzeko daukan espezifikotasuna aztertzeko erabilia izan da.

Saio hauek burutzeko *Biacore* sistema erabili da. Biomolekulen elkarrekintzak aztertzeko helburuarekin, ligando deituriko sustantzia bat (liposomak) urrezko geruza mehe batez estalitako beirazko porta bat diren sentzore txipeko gainazalean atxikiko da. Laser baten argi polarizatua errefrakzio-indize handiko ingurune (normalean prisma bat) batean zehar, errefrakzio-indize txikiko ingurune baten ertzean dagoen urrezko geruza meherantza zuzenduko da; ondorioz, urrezko geruzaren gainazalean, argiaren eraso-angelu kritiko zehatz batera gainazaleko plasmoiak eratuko dira. Honek argia absorbatuko du eta isladatutako argiaren intentsitatearen beherapen bat bezala jasoko da. Angelu kritikoa gainazaletik gertu dagoen (100nm inguru) inguruneko errefrakzio-indizearen menpekota da, eta gainazal horretara batzen diren analitoek (proteina) angeluaren balioa hau aldatzeko ahalmena izango dute. Honela, analito eta ligandoen arteko interakzioak gertatzen baldin badira, txiparen gainazalaren

errefrakzio-indizea aldatu egingo da, eta hau seinalearen handipen batean ondorioztatu. *Biacore* sistemak erresonantzia unitateak (RU) seinalearen handipen bat deskribatzeko erabiltzen ditu, angelu kritikoaren  $10^{-4}$  graduen aldaketara berdintzen direnak. RU balioen emaitzak denboraren funtziopean irudikatzen dira, sentsograma izeneko grafika bat lortuz (Besenicar *et al.*, 2006). Erabilitako fase mugikorraren eta proteina duen indargetzaileen arteko errefrakzio-indizeen ezberdintasunetik, atzeko-planoko erantzunak sortu daitezke; hortaz, seinale hau sentsogramatik kendu beharko da proteina batuketari dagokion seinalea soilik duen sentsograma lortzeko. Honez gain, seinalearen RU eta sentsore txiparen gainazalean dagoen materiaren masaren artean erlazio lineal bat dago,  $1 \text{ RU} = 1 \text{ pg/mm}^2$  (Stenberg *et al.*, 1991). Honenbestez, SPR teknikak sentsore txiparen gainazaleko masaren kontzentrazioa neurtu dezakenez, molekulak fluoreszenteki edo erradioaktiboki markatzearen beharrik gabe bi molekulen arteko batuketa zuzenean detektatzeko ahalmena izango du.

Sentsograma batean bi prozesu desberdin banatu daitezke: asoziazio fasea, proteina injektatzen den tarte, eta disoziazio fasea, proteina injektatzez bukatu osteko epea. Asoziazio fasean, aldibereko proteinaren asoziazio eta disoziazio prozesu desberdinak emango dira, beraz, oreka asoziazio eta disoziazio tasak berdintzen direnean lortuko da. Esan beharra dago, baldintza eredarriren menpeko saio batean disoziazioa soilik disoziazio fasean gertatuko den arren, errealitatean berbatuketa eskuarki gertatu ohi den prozesua dela.

Lan honetan, L1 sentsore txipa (BIAcore, GE Healthcare, Waukesha, WI, EEBB) erabili zen. Sentsore txip honek liposomen atxikipenerako gainazal egokia sortzen duen karboximetilatutako dextrano batzuei kobalenteki lotuta dauden talde lipofilikoak ditu. Liposoma hauek beraien lipido geruza bikoitzaren egitura mantentzen dutela ikusia izan da (2.10 Irudia).



**2.10 Irudia.** SPR saio baten sentsogramaren abidibea. Lehendabizi, liposomak sentsore txipean zehar pasarazten dira eta atxikituta geratzen dira. Honen ondorioz, seinalearen (RU) handipen bat ematen da eta sentsograman erregistratzen da. Ondoren, aztertu beharreko proteina liposomak batuta dituen txipean zehar pasaraziko da. Proteinak liposomekin interakzioen bat badauka, batuketa fasea

deitutako seinalearen handipen bat erregistratuko litzateke. Behin oreka lortu denean, banaketa fasea, proteinak liposometatik askatuko dira,. Bukatzeko, sentsore txipa lehenera ekartzen da detergente bat erabiliz, adibidez, oktyl  $\beta$ -Dglukopirasonidoa.

SPR saioetarako, BIAcore<sup>TM</sup>3000 tresna erabili izan zen jarraian xehatutako protokoloa erabiliz (9.Protokoloa).

### **9.Protokoloa**      *SPR neurketak*

- 1- L1-txiparen prestakuntza: gainazalaren gainean 100  $\mu$ l/min-ko fluxu batekin 30 segundoz, 40 mM oktyl  $\beta$ -Dglukopiranosidoa (Sigma) txertatzen da. Ondoren, lipido konposaketa zehatzeko liposomak (2mMeko kontzentrazioa) txertatzen dira 3 minutuz eta 2  $\mu$ l/min-ko fluxuarekin. Hortaz, liposomak sentsore txiparen gainazalera atxikitzen dira, liposomen egitura mantenduz.
- 2- Batuketa saioa: Analisia 37°C-tan egiten da eta fase mugikorraren indargetzailea KHE izan da. Fase mugikorrean disolbatutako proteina lagina liposomaz estalitako txipean zehar txertatzen dira, 10  $\mu$ l/min-ko fluxuarekin, eta seinalearen aldaketak erregistratzen dira denboran zehar.
- 3- Banaketa fasea: Proteina txipetik askatzean, seinalearen beherapen bat ikusi daiteke sentsograman.
- 4- L1 txiparen birsortzea: 20 mM CHAPS eta %0.4 SDS detergentearen 2 minutuko pultsu bat eta fase mugikorraren beste 2 minutuko pultsu bat txertatuz, liposomak L1 txipetik askatzea lortu da.

### **2.2.2.3 Sakarosa gradiente bidezko flotazio zentrifugazioa**

Mintzean ikusgai den efektu bat izateko, lehendabizi proteina mintzera batu beharko da. Proteina eta lipidoen arteko elkarrekintza ikusteko metodo arrunt bat liposometarako batuketa aztertzea da. Metodo hau burutzeko erabili ohi diren protokolotan hainbat pausu daude: (i) proteina eta liposomen arteko inkubazioa, eta (ii) liposometara batutako proteina eta batu ez denaren frakzioen bereizketa. Jarraian azaltzen da protokolo zehatza (10.Protokoloa).

### **10.Protokoloa** *Sakarosa gradiente bidezko flotazio zentrifugazioa*

- 1- Sakarosa gradientearen prestaketa: Behin liposomak eta proteinak inkubatzen direnean, sakarosa dentsitate gradiente eten bat (1 ml) prestatzen da: beheko frakzioa (1.4 Meko sakarosa azken kontzentrazioa), erdiko frakzioa (0.8 Meko sakarosa) eta goiko frakzioa (0.5 Meko sakarosa).
- 2- Zentrifugazio prozedura: Zentrifugazioa (100,000 rpm, 3h, 4°C-tan) *Beckman Optima TLX Benchtop* ultrazentrifugagailu baten (Beckman Coulter Miami, FL, EEBB) eta TLA 120.2 errotorearekin burutzen da. Zentrifugazioan zehar, liposomek edo proteinadun liposomek goiko frakziora flotatzen dute, eta proteina askea, berriz, dentsitate handiena zuen frakzioan geratzen da (beheko frakzioa). Behin zentrifugazioa burututa, gradienteak 4 frakziotan banatzen da: goiko bi frakzioek (1-2 izendatuak) liposomak dituzte (liposoma proteinekin edo gabe) eta beheko bi frakzioetan (3-4 izendatuak) liposometara batu ez den proteina dago.
- 3- Proteinen detekzioa: Frakzio bakoitzetik alikuota baliokideak hartzen dira eta western plapaketa bidez edo fluoreszentiaren bistaratzearen bidez, frakzio bakoitzeko proteina kantitatea zehazten da.


#### **2.2.2.4. Lipido monogeruzak**

Metodo fluorimetrikoetatik gain, lipido monogeruzak proteina bat mintzarekiko duen afinitatea aztertzeko ere erabili daitezke. Beraien homogeneitate, egonkortasun eta bere geometria planarra dela eta, modelo paregabea da, adibidez mintzaren segregazio faseak aztertzeko.

Mintza deformatzen duten proteinak aztertzeko ere erabili izan da berriki elektroik mikroskopiarekin elkartuz (Ford *et al.*, 2002).

Lipido monogeruza esperimentuetan, lipido dentsitate bidimentsionala monogeruza estutuz kontrola daiteke, horrek zenbait saio biokimiko zehatzetarako abantailak eskaintzen dituelarik. Area konstante mantenduz aldiz, lan honetan erabili den metodoan, azalera presioan emandako handipena peptido edo proteina monogeruzan barneratu dela esan nahi du eta proteina:lipido

elkarrekintzen inguruko informazio baliotsua ematen digu (Brockman, 1999; Maget-Dana, 1999).



**2.11 Irudia. Lipido monogerruzaren batean ematen ari den proteina baten barneraketa prozesuaren irudi eskematikoa.** Monogerruzaren hasiera presioa nahi den baliora doitzen da ( $\pi_i$ ). Proteina monogerruzaren barneratzen da azalera presioa handituz, orekara iritsi arte ( $\pi_f$ ).  $\Delta\pi$  hurrengo ekuazioa erabiliz kalkula daiteke  $\Delta\pi = \pi_f - \pi_i$ .

Lan honetan, monogerruzaren azalera presioa ( $\pi$ ) 37°C-tan neurtu da MicroTrough-S system (Helsinki, Finland) erabiliz, irabiatze konstante pean. Langmuir balantza kalibratu ostean, lipido nahasketaren (Stock kontzentrazioa 1 mM, kloroformotan) bolumen txiki bat 1.25 ml KHE indargetzailearen (fase urtsua) gainean jarri da, hasierako azalerako presio zehatz bat duen monogerruzaren batean eratuz ( $\pi_0$ ). Behin monogerruzaren azalera presioa orekatu denean, proteina kantitate bat zulo baten bidez fase urtsuan txertatzen da, eta azalerako presioaren aldaketa ( $\Delta\pi$ ) neurtzen da denboraren funtziopean.

Proteina batek monogerruzaren batean txertatzeko ahalmena aztertzeko oso parametro erabilgarria presio kritikoa da ( $\pi_c$ ), hau da,  $\Delta\pi$  zero bihurtzen deneko  $\pi_i$  balioa. Mintz zelularrek 30 mN/m inguruko azalera presioa dutela proposatu da (Janmey & Kinnunen, 2006). Dena dela, balio hau eztabaidagarria da eta asko alda daiteke.

Tesi honetan jarraitutako prozedura hurrengo protokoloan zehazki azalduta agertzen da (11.Protokoloa).

### **11.Protokoloa Lipido monogeruzak**

- 1- Monogeruzen prestaketa: Langmuir balantza kalibratu ostean, lipido nahasketaren (Stock kontzentrazioa 1 mM, kloroformotan) bolumen txiki bat 1.25 ml KHE indargetzailearen (fase urtsua) gainean jartzen da, hasierako azalerako presio zehatz bat duen monogeruza bat eratuz ( $\pi_0$ ).
- 2- Proteinaren txertaketa eta azalerako presioaren neurketa: Behin monogeruzaren azalera presioa orekatzen denean, proteina kantitate bat zulo baten bidez fase urtsuan txertatu, eta azalerako presioaren aldaketa ( $\Delta\pi$ ) neurtzen da denboraren funtziopean .

Oharra: Garrantzitsua da azpimarratzea proteinek aire/ur interfasean mugitu daitezkeela, gainazal presioan handipen bat sortuz. Beraz, lehenik eta behin lipido monogeruzaren absentsian gainazal presioa konstante deneko proteina kontzentrazio minimoa zein den zehaztu beharko dugu. Honek adieraziko digu zein hasierako gainazal presiotik aurrera neurtzen has gaitzeken lipido monogeruzaren presentzian.

## **2.2.3 MINTZ IRAGAZKORTZE ETA LIPIDO NAHASKETA SAIOAK**

### **2.2.3.1 GUVen iragazkortze saioa**

GUVak mintz-eredu oso erabilgarriak dira mintzen iragazkortze prozesuak aztertzeko (Ambroggio *et al.*, 2005; Ambroggio *et al.*, 2005). LUVen iragazkortze esperimentuekin alderatuz, besikula bakarreko saioek besikula jakin bakoitzaren betetze maila eta egonkortasuna aztertzea baimentzen dute, baita besikula populazioaren betetze mailen banaketaren analisi kuantitatiboa ere (Apellaniz *et al.*, 2010; Bleicken *et al.*, 2013). Besikula bakarrean ematen den zunda desberdinen barneraketaren ikasketak peptido zein proteinen poro eraketaren mekanismoa sakontasun handiagoz ulertzeko tresna baliotsua da (Apellaniz *et al.*, 2010; Bleicken *et al.*, 2013; Fuertes *et al.*, 2010; Lee *et al.*, 2008; Schön *et al.*, 2008; Tamba & Yamazaki, 2009). Sistema biologikoak intrinsikoki heterogeneoak direla kontutan hartuz, metodo honek besikula bakar mailan poro eraketaren mekanismoa aztertzeko aukera eskaintzen du, LUVak erabiliz egiten diren esperimentu gehienekin ez bezala, zeinetan lortutako informazioa populazio osoaren batazbesteko balioa den.



Lan honetan, GUVak erabili ditugu BOKΔC6His-ren iragazkortze ahalmena ikusi eta iragazkortze prozesu honetan zehar lipido desberdinek izan dezaketen papera aztertzeko.

GUVen iragazkortze esperimentuen prozedura jarraian azaltzen da (12.Protokoloa).

**12.Protokoloa**      *GUVen iragazkortze saioa*


- 1- GUVen prestakuntza: GUVak 4.protokoloan deskribatutako prozedura jarraituz elektroformatzen dira, saio hauetan mintza fluoreszenteki Dil mintzeko zundarekin markatuz.
- 2- Laginen prestakuntza: Lehendabizi, 4. Protokoloan azaldu den moduan, behaketa-ganberak 10 mg/mL gantz-azido gabeko BSA (Sigma Aldrich) blokeo soluzioarekin 30 minutuz inkubatzen dira, ondoren, Milli-Q urarekin garbituz. GUVen prestakuntzarako erabilitako sakarosa soluzioaren osmolaritate antzekoa duen soluzio indargetzailearen 340 µl jartzen dira ganberako putzu batean. Honi, azertu behar diren BCL2 proteinak eta saioan erabiliko diren zundak gehitzen zaizkio. Zunda markatzaileen bi konbinazio erabili izan dira: Alokofozianina (APC) (250 nM) eta Alexa-647 (250 nM). Osagai gutziak ondo nahasten dira eta hauei GUV elektroformatuen 80 µL gaineratzen zaizkie behaketa ganberara (Oharra: GUVak gaineratzerakoan pipetan erabiliko den puntaren bukaera moztu behar da GUVen apurketa ekiditzeko). Inkubazio baldintzak 2 ordukoak izan dira.
- 3- Neurketak: Behaketa-ganbera mikroskopia konfokalean jartzen da eta neurketak 25°C-tan egin dira. Irudien analisisa ImageJ programarekin burutu da.

Jarraian fluoreszentiako mikroskopia konfokalaren oinarrien deskribapen laburra (Smith, 2006).

Fluoreszentiako mikroskopia arrunt batean (ad. Wide-field), erradiazio elektromagnetikoak lagin guztia era berean irradiatzen du eta fluoreszentzia mikroskopiaoren fotodetektore edo kamarak jasotzen du. Mikroskopia konfokalean aldiz, foku-kanpoko seinalea deusestatzen da eta bakarrik laginaren plano fokal estu bakarretik datorren fluoreszentzia iritsiko da detektagailura. Horren ondorioz, irudien bereizmen optikoa hobea da mikroskopia konfokalean. Hala ere, laginaren fluoreszentiaren parte handi bat detektagailuko arraildurak blokeatzen

duenez, bereizmen handi honek intentsitatearen gutxipena suposatzen du, beraz askotan esposaketa luzeak beharrezkoak izaten dira.

Molekula fluoreszenteak kitzikatzen eta igorritako fluoreszentzia mikroskopioaren objektiboak jasotzen du eta honek ispilu dikroikotik arraildurara zuzentzen du. Arraildurak fotodetektagailura iritsiko den igorritako fluoreszentzia hautatzen du. Plano fokaleko fluoreszentziak arraildura zeharkatuko du, baina plano fokaletik at dagoen fluorestzentzia blokeatuko da. Laginaren 3D-ko irudia eratzeko ispilu bereziak erabiltzen dira, laser sortak x-y planoan eskaneatu dezan, horrela Laser scanning Confocal Microscope (LCSM) moduan ezaguna den mikroskopio berezia eraikitzen da.



**2.13 Irudia. Mikroskopio konfokal baten irudikapen eskematikoa.** Mikroskopio konfokalak argiztapen puntuala eta arraildura bat, fokapen gunetik kanpo dagoen argia deusestatzeko erabiltzen du. Ondorioz, irudien bereizmen optikoa askoz handiagoa da epifluoreszentziako mikroskopioekin alderatuta. [<http://www.jic.ac.uk/microscopy/more-tik-hartua>].


Lan honetan, LCSM erabili da GUVen esperimentuen bistartzeko. GUVak alderantzizko fluoreszentzia mikroskopio konfokal (Nikon DECLIPSE C1, Nikon Inc., Melville, N.Y.) batean begiratu, 60x TIRF olio objektibo batekin. Irudiak ImageJ (<http://rsbweb.nih.gov/ij/>) softwarearekin prozesatu izan dira eta besikula bakoitzaren betetze gradua hurrengo ekuazioa erabilia kalkulatu da:

$$\% \text{ Leakage} = [(F_{t \text{ in}} - F_0) / (F_{t \text{ out}} - F_0)] \times 100$$

Non, **Ft in** eta **Ft out** t denboran lortutako batzbesteko fluoreszentzia intentsitateak diren GUV barruan eta kanpoan, hurrenez hurren, eta **F0** hondo-zarata baitiren

### 2.2.3.2 Lipido nahasketa esperimentuak

Mintz biologian, fusio prozesua horrela definienezake: Hasierako bi lipido bigeruzak desberdinek euren gune hidrofobikoak batzeko prozesua da. Bi bigeruzen lamela biak batu ezkerre, zubi urtsu bat sortuko da, bi egituren barne edukiak nahastu daitezke. Bigeruzak bakoitzeko lamela bakar batzen bada aldiz, bigeruzak hemifusionatuta daudela esango genuke. Hemifusioan, kanpo mintzeko osagai lipidikoak nahastu daitezke, baina barne mintzak aldatu gabe mantenduko dira. Bigeruzak bakoitzaren barne edukiak ere banatuta mantenduko dira. Beraz, bi fusio maila daudela esan genezake: mintz lipidoen nahasketa eta barne edukien nahasketa. Struck eta lankideen (1981) erresonantzia bidezko energia transferentzia saioa erabili da mintzean emandako lipido nahasketa neurtzeko. Metodo honetan, NBD (emaile) eta Rodamina (hartzaile) zundaz markatutako mintzak, markatu gabeko mintzekin konbinatuko dira. NBD eta Rodamina distantzia jakin batera daudenean, "Förster resonance energy transfer (FRET)" delakoa gertatuko da. Fusioa eman ostean, FRET gutxituko da bi zunden arteko distantzia handitzen delarik, beraz NBDren fluoreszentzia handituko da. NBDren fluoreszentziaren handipen hori da guk neurtuko duguna (2.14 irudia). Saio hauek egiteko jarraitutako protokoloa jarraian azalduta agertzen da (13. Protokoloa).



**2.14 irudia. Lipido-nahasketa saiakera baten adierazpena.** lifetechnologies.com. web orritik lortutako irudia.

### **13.Protokoloa**      *Lipido-nahasketa saioa*

- 1- Liposomen prestaketa: CL, PC/PE/CL (50:20:30) PC/PE (80:20) eta PC/PE/PG (30:20:60) LUVak prestatuko dira 2.Protokoloa jarraituz. Hiru populazio desberdin prestatzen dira lipido konposaketa bakoitzeko, markatu gabeko liposomak, 2 mol% NBD-PE eta 2 mol% Rh-PE duten liposomak, eta %0.2 NBD-PE eta Rh-PE duten liposomak. Markatutako liposomak markatu gabeko 9 aldiz kantitate handiagoan dauden LUVekin nahasten dira
- 2- NBD-PE emisio neurketa: NBD-PE emisioa 530 nm-tara neurtzen da eta kitzikatze uhin luzera 465 nm-tara ezartzen da, (slits, 4 nm). 515 nm-ko filtroa lagina eta emisio monokromadorearen artean ipintzen da dispertsio interferentziarik gerta ez dadin.

#### **2.2.3.3 Argi dinamikoaren dispertsio esperimentuak**

Besikulen tamainaren neurketak argi dinamikoaren dispertsioa erabiliz egin dira. Teknika honek, soluzioan dauden partikulen mugimendu Brownianoa dela eta, dispertsatutako argiaren intentsitatean ematen diren fluktuazioak neurtzen ditu. Datu hauetatik, partikulen difusio koefizienteak kalkula daitezke, eta hauxe besikularen erradio hidrodinamikoarekin ( $R_H$ ) erlazionatu daiteke Stokes-Einstein ekuazioaren bitartez.

Neurketarako, lipido nahasketa saioetan aztertutako lagin berak erabili ditugu. Laginak Malvern Zeta-Sizer Nano ZS (Malvern, Instruments, UK) aparatuan neurtu dira, kubeta akriliko estandarrak erabiliz eta 5mW ( $\lambda = 633 \text{ nm}$ )-eko He-Ne laser sorta bat erabiliz. Laginak dispertsatutako argia, laser sortarekiko perpendikularki kokatuta dagoen fotomultiplikatzaile batek detektatzen du.

#### **2.2.3.4 Krio-finkapenean oinarritutako mikroskopia elektronikoa**

Krio-finkapenean oinarrituriko mikroskopia elektronikoa (Cryo-EM, ingelesetik *Cryo-electron microscopy*) igorpen elektroik mikroskopiaren (EM) aldaera bat da, zeinetan lagina tenperatura kriogenikoetara (orokorrean nitrogeno likidoa) aztertzen den. Cryo-EM, tindatu gabeko laginak berauen ingurugiroan aztertzea ahalbidetzen duenez egiturazko biologian arrakasta handia duen teknika da.

Mikroskopia elektronikoko teknika honetan, laginen prestaketaren lehen pausua krio-finkapen metodoa da, non laginak ingurune urtsu batean fixatzen baitiren. Laginak izotz amorfoan sartzen

dira eta beirztapen prozesu honek guztiz hidratatutako makromolekulen egiturak irudikatzea baimentzen du. Metodo honek, izozketa ultra-azkar bat eragiten du, laginean era daitezkeen kristalen eraketa eragotziz. Ondoren, azeleratutako elektroien tentsio sorta bat lagin ultra estu batean zehar igortzen da hutsean, honek, igarotzen den bitartean laginarekin interakzionatzen duelarik. Elkarrekintza hauetatik irudi bat sortzen da: irudi hau handitzen eta enfokatzen da lente magnetiko batzuetatik irudikapen tresna batera (karga akoplatuko gailua) seinalea transmitituz. Erabilitako protokoloa jarraian azaltzen da (14. Protokoloa).

#### **14.Protokoloa**      *Crio-EM saioa*

- 1- Laginen prestaketa: Aztertu beharreko BOKΔC6His, MCL1ΔC eta BAK/cBID proteinak lipido konposaketa ezberdinetako LUVekin eta lipido:proteina ratio ezberdinetara inkubatzen dira, 37°C-tan eta 15 minutuz.
- 2- Beirztapen prozedura: Laginaren mikrolitro batzuk *Vitrobot* izeneko tresna (tenperatura eta hezetasun mailak konstanteak mantentzeko erabiltzen dena) baten barruan dagoen kuprezko sareta batera gaineratzen dira (Bellare *et al.*, 1988; Frederik & Hubert, 2005). Sareta hau erabili aurretik, karbonoarekin estaltzen da azalera hidrofiliiko bat izan dezan. Beirztapena burutzeko, lagina duen sareta hoztutako etano likidoan murgiltzen da, modu honetan laginaren geruza fin bat lortzen delarik ( $\approx 100$  nm).
- 3- Irudien kaptura: Sareta *Field Emission Gun* duen JEM-2200FS/CR igorpen mikroskopioan (*JEOL Europe*, Croissy-sur-Seine, Frantzia) jartzen da eta 200Kv eta nitrogeno likidoaren tenperaturan burutzen dira neurketak. *In-column omega* energia iragazkia irudiak erregistratzeko seinale/zarata ratioa hobetzeko erabili da. Digitalizatutako irudiak *UltraScan4000 CCD* kamera erabiliz erregistratu dira, 55.058 handipena erabiliz 2.7 Å/pixel erresoluzioa lortzeko.

### **2.2.3.5 Transmisio elektroik mikroskopia**

Transmisio elektroik mikroskopia (TEM) mikroskopia teknika bat da, zeinetan elektroien sorta bat lagin ultra-mehe batean zehar transmititzen den, laginarekin elkarri eragiten duelarik. Laginetik pasatutako elektroiek laginarekin elkarreragitean irudi bat sortzen da. Tesi honetan, TEM erabili da BOKΔC6His proteinak besikula lipidikoetan sortutako mintz eraldaketak ikusteko.


Laburbilduz, uretan diluitutako liposomak kuprezko grid batean kokatzen dira. %2 (w/v) uranil azetato disoluzio urtsua gehitzen zaio jarraian eta laginarekin kontaktuan uzten da 5 minutuz. Ondoren, ura kentzen zaio eta lagina giro tenperaturan zikatzen uzten da mikroskopioan behatu aurretik. Saiakera hauek UPV/EHUko Mikroskopia zerbitzuan burutu ziren.

## **2.2.4 SOLUZIOAN EDOTA MINTZEAN GERTATZEN DIREN PROTEINA:PROTEINA ELKARREKINTZAK AZTERTZEKO METODOAK**

### **2.2.4.1 In vitro pull-down esperimentuak**

In vitro pull-down esperimentuak metodo oso erabiliak dira bi proteina edo gehiagoren arteko elkarrekintza fisikoa aztertzeko (Brymora *et al.*, 2004). Pull-down saio batean, isats bat duen proteina bat, normalean “bait” izena hartzen duena, isatsarekiko espezifikoa den afinitate bidez immobilizatzen da. Immobilizatutako proteina hau, beste proteina batzuekin kontaktuan ipiniko dugu (“pray” deituriko proteinak). Bi proteinen arteko elkarrekintza ematen bada, bigarrena lehenarekin batera immobilizatuta geratuko da eta biak batera, “bait” proteinak duen isatsarekiko afinitatea erabiliz purifikatu ahal izango ditugu. Oso prozedura zuzena da eta gainera oso proteina kantitate txikiak behar dira (2.15 Irudia).

Gure kasuan, GSTBOK $\Delta$ C6His proteina 500 mM NaCl, 20 mM imidazol, 5 mM MgCl<sub>2</sub>, 20 mM Tris (pH8), %1 CHAPS and %10 glizerol tanpoian dauden GST beaden (Abtbeads) 50  $\mu$ l-tan in inkubatzen da eta ondoren zentrifugatu, bead-etara itsatsitako proteina sedimenta dadin. Gainjalkina jaso eta jalkina erreakzio tanpoiarekin (batuketa tanpoiaren berdina CHAPS Gabe) garbitzen da. Ondoren, bead-etara itsatsitako proteina beste proteinekin inkubatzen da KHE tanpoian 30 minutuz 37°C-tara. Erreakzio nahastura hau zentrifugatzen da ondoren, batutako proteinak batu ez direnen artean banatzeko. Azkenik, bai jalkina zein gainjalkina SDS-PAGE bitartez aztertzen dira.




**2.15 Irudia. Pull-down esperimentu baten pausuen diagrama eskematikoa.**

### 2.2.4.2 Gel natiboak

Poliakrilamida gel natibo urdinen elektroforesia (Blue Native PAGE) Schägger eta von Jagow-k deskribatu zuten (Schägger & von Jagow, 1991), entzimatikoki aktiboak diren mintz proteinen konplexuak baldintza leunetan banatzeko. Gel elektroforesi mota honetan, Coomassie Brilliant Blue koloregai anionikoa laginari gehitzen zaio, baldintza fisiologikoetan ematen den elektroforesian zehar proteina konplexuetara batuko dena. Blue Native PAGE mintz biologiko, zelula edo ehun homogenizatuetatik proteina konplexuak pausu bakarrean isolatzeko erabili daiteke. Proteina natiboen masak eta oligomerizazio egoerak zehazteko eta proteina:proteina elkarrekintza fisiologikoak identifikatzeko ere erabilgarria da.

Coomassie-urdina laginari eta kubetan gehitzen den indargetzaile katodikoari gehitzen zaio eta proteina hidrofobiko guztiei eta uretan solugarriak diren proteinei ere batuta mantentzen zaie, eremu elektrikoa aplikatzen zaionean ere. Coomassie-urdina anionikoa da, beraz koloregaia batuta duten proteina konplexu guztiak negatiboki kargatzen dira erabiltzen den pH8-ko tanpoian, eta ondorioz konplexuek anodorantza migratuko dute. Proteina konplexuen banaketa 10 KDaetik 10 MDa-eko tartean ematen da euren tamainaren arabera. Proteina-koloregai konplexu hauek detergenteen absentsian ere solugarriak dira, honek desnaturizazio arriskua gutxitzea dakarrelarik. Proteinen agregazioa ere saihesten da duten karga neto negatiboa dela eta. Proteina eta konplexuen detekzioa zuzena da, itsatsita duten koloregai urdinak ikusgarri egiten baititu (2.16 Irudia).

Tesi honetan gel elektroforesi arruntaren aldaera hau BCL2 familiako proteinen arteko elkarrekintzak aztertzeko erabili da. Erabilitako prozedura hurrengo protokoloan azalduta agertzen da (15. Protokoloa).



#### 2.16 Irudia. Elektroforesi baten pausuen eskema.

##### **15. Protokoloa** Gel natiboak

1-Laginaren prestaketa: Lehenengo eta behin, lagina prestatu behar da, horretarako karga tanpoia (100 mM Tris pH 8, %30 glizerol, %15  $\beta$ -mercaptoethanol, 0.5% Coomassie-Urdin G) gehituko zaio laginari.

2-Indargetzaileen prestaketa: Ondoren, tanpoi katodiko eta anodikoak prestatu behar dira. Bi indargetzaile katodiko behar dira:

1) 100 mM Histidina, Tris-HCl pH 8, %0.002 Coomassie Blue G.

2) 100 mM Histidina, Tris-HCl pH 8.

Indargetzaile anodikoa hurrengoa da: 100 mM Tris-HCl pH 8.8.

3-Lagina kargatu: Lagina egin berri den gel natiboan kargatuko da.

4-Running: Elektroforesia hasi baino lehen, bi gelen arteko putzua katodo tanpoi urdinarekin betetzen da eta kanpoko putzua anodo tanpoiarekin betetzen da ondoren. Elektroforesia martxan jarri eta laginak gelean barneratuko dira, frentearekin batera doan Coomassie urdina gelaren erdialdera ailegatzetik denean katodo tanpoi urdina, kolorerik gabeko katodo tanpoiaz aldatzen da. Frentea gelaren amaierara heltzen denean elektroforesia geratzen da.



### 2.2.4.3 Oligomerizazio saioak

DRP1 proteinaren oligomerizazioa fisio mitokondrialarentzat ezinbestekoa dirudien bitartean, BAX/BAKΔC homo-oligomerizazioa MOMP prozesuan pausu garrantzitsutzat hartzen da. Datu horiek kontutan harturik, tesi honetan oligomerizazioa elkar-gurutzamendu eta gel iragazpeneko kromatografia erabilia aztertu da.

#### 2.2.4.3.1 Elkar-gurutzamendu saioak

BAKΔCren kasuan, bi zisteina endogenoen (C14 eta C166) hurbiltasunak erredox katalizatzailea den cupre (II)- (1-10 fenantrolina) (CuPhe)-ri bi hondar hauen arteko elkar-gurutzamendua ahalbidetzen dio. Modu honetan, SDS-PAGE ez erreduzitzailetan azkarrago migratzen duen forma bat sortzen delarik. cBID-ekin tratatu ostean, bi efektu ikusten dira: (i) BAKΔCren amino terminaleko loopa (C14 duena) proteinatik askatzen da (elkar-gurutzamendu intramolekularrak ekidinez) eta (ii) BAKΔC partzialki dimerizatzen du (elkar-gurutzamendu inter-molekularra). Metodo honen bidez dimeroak baino handiagoak diren oligomeroak ere detekta daitezke (Grant Dewson *et al.*, 2008, 2009).

Tesi honetan, CuPhe bidezko elkar-gurutzamendu saioak burutu dira BH3-domeinu bakarreko proteinek BOKΔC6His modu zuzen batean aktibatzeke duten gaitasuna aztertzeke. BOKΔC-6His-ren kasuan 4 zisteina endogeno agertzen dira, C67, C137, C152 eta C177, hondar hauen arteko elkar-gurutzamendu intramolekularra gerta daitekeelarik.

Oligomeroak detektatzeko, proteina (100-300 nM) liposomekin inkubatzen da KHE indargetzailean 30 minutuz 37°C-tara. Ondoren, CuPhe (CuPhe stocka 30 mM CuSO<sub>4</sub> eta 100 mM 1,10-Phenantrolina 4:1 ur/etanol-ean zegoelarik) gehitzen zaio eta 100-aldiz diluitzen da laginean. 4°C-tara 30 minutuz inkubatu ostean, oxidazio prozesua blokeatzen da 20 mM EDTA gehituz kuprea kelatzeko eta 20 mM N-etilmaleimida ere gehituko zaio erreakzionatu gabeko zisteina hondarrak blokeatzeko. Azkenik, laginak SDS-PAGE ez-erreduzitzaile geletan aztertzen dira eta proteinak Western-plapaketa bidez detektatuko dira bakoitzaren aurkako antigorputz egokia erabiliz.

#### 2.2.4.3.2 Gel iragazpeneko kromatografia

Atal honetan gel iragazpeneko kromatografia (SEC, Ingelesezko *Size Exclusion Chromatography*) DRP1en oligomerizazio egoera aztertzeke erabili da. SEC bidez proteinek mintzean duten egitura kuarternarioari buruzko informazioa jaso dezakegu. Tipikoki, proteina mintzetik ateratzen da mizela tamaina txikia duten detergente ez-desnaturalizatzaileak erabiliz (CHAPS, oktilglukosidoa...) eta gero, lagina gel iragazpeneko kromatografia bidez aztertzen da. Saio hauek egiteko jarraitu den protokoloa jarraian azaltzen da (16. Protokoloa).

### **16.Protokoloa** SEC bidezko oligomerizazio saioa

- 1- Laginen prestaketa: DRP1 (1  $\mu$ M) liposomekin (1 mM) nahasten da KCl indargetzailean eta 30 min 37°C-tara inkubatzen da. Liposomak ondoren %2 CHAPS-arekin lisatu eta solugarria ez dena zentrifugazio bidez (100,000x g 30 min) baztertzen da.
- 2- Gel iragazpena: Gainjalkinak Superdex™ 200 HR 10/30 gel iragazpeneko zutabe batean (Amersham Pharmacia Biotech, Uppsala, Sweden) kargatzen dira, aurretik 25 mM Hepes pH 7.5, 200 mM NaCl, %1 CHAPS, 2 mM DTT-rekin orekatuta dagoena. Kromatografia 60 ml indargetzaile erabilita gauzatzen da eta 1ml-tako frakzioak jasotzen dira.
- 3- Proteinen detekzioa: Frakzioak western plapaketa bidez detektatzen dira.

## **2.2.5 AKTIBITATEA NEURTZEKO SAIOAK**

### **2.2.5.1 GTPasa aktibitate saioa**

DRP1 proteinaren GTPase aktibitatea aurretik deskribatutako (Leonard *et al.*, 2005) malakita berdea erabiltzen duen saio kolorimetrikoarekin aztertu da. Laburbilduz, 0.5  $\mu$ M DRP1 gehitzen zaio 1 mM GTPri eta 30 min 30°C-tara inkubatzen da 100  $\mu$ l indargetzailetan (125 mM KCl, 10 mM Hepes pH 7.4, 1 mM GTP, 4 mM  $MgCl_2$ ). 10  $\mu$ l disoluziori 90  $\mu$ l malakita berde stock soluzio (500  $\mu$ M Malakita berde, Sigma, 10 mM amonio molibdato 1 N HCl-tan) gehitzen zaio eta 650 nm-tara neurtzen da absorbatzia. Steady-state zinetika analizietarako, 0.5  $\mu$ M DRP1 erabili da eta GTP kontzentrazio desberdinak (0, 125, 250, 500, 1000 and 2000  $\mu$ M) erabili dira. 60 minututan 5 minuturo laginak hartuz joan dira eta euren absorbanzia 650 nm-tara neurtu. Hidrolisi maximoaren abiadura ( $V_{max}$ ) eta sustratu kontzentrazioa zeinetan abiadura maximoaren erdia den ( $K_{0.5}$ ) SigmaPlot bidez kalkulatu dira erregreziio ez lineala erabiliz. Saiok hiru bidez errepikatu dira eta signifikantzia estatistikoa Student t testa erabiliz kalkulatu da.

## **2.3 EX-VIVO SAIOAK**

### **2.3.1. MITOKONDRIO SAIOAK**

#### **2.3.1.1 Sagu fibroblasto kultiboetatik mitokondrioen isolaketa**

BCL2 proteinen funtzioak aztertzeko mitokondrioetan aberastutako prestakinak lortzea oso garrantzitsua da. Kultibo zelularrean hazitako sagu fibroblastoetatik mitokondria funtzionalak lortzeko prozedura Frezza *eta* Lank., 2007 –tik egokitu da eta hurrengo protokoloan azalduta agertzen da (17. Protokoloa).

**17.Protokoloa** *Sagu fibroblasto kultiboetatik mitokondrioen isolaketa*

1. Zelulak erain: Lehendabizi,  $120 \times 10^6$  zelula esperimentua egin baino 2-3 egun arinago erain behar dira.
2. Zelulak jaso: Zelulak bi bider izotzean hoztutako PBS-az (137 mM NaCl, 2.7 mM KCl, 10 mM  $\text{Na}_2\text{HPO}_4$ , 2 mM  $\text{KH}_2\text{PO}_4$ , pH 7.4) garbitzen dira. Ondoren, zelulak 25 ml PBS hotzetan altxatu eta 5 minutuz  $950 \times g$ -tara  $4^\circ\text{C}$ -tan zentrifugatzen dira. Gainjalkina bota eta jalkina 4 ml Mitochondrial Isolation Buffer (MIB)etan bersuspenditzen da (210 mM Mannitol, 70 mM sakarosa, 10 mM HEPES (pH 7.5), 1 mM EDTA eta fresko gehitutako proteasa inhibitzaileak).
3. Zelulen homogeneizazioa: Behin bersuspendituta, aurretik hoztutako 5 ml Kristal-tefloi Elvehjem potter (Sigma-Aldrich) batera pasa eta bertan homogeneizatzen da lagina. Lehenengo homogeneizazioan 15 kolpe ematen dira, gero 10 minutuz  $1500 \times g$ -tara zentrifugatu eta 1 gainjalkina lortzen da, jalkina berriz 2 ml MIB-tan bersuspenditu behar delarik. Bersuspenditutako jalkin hau bigarren aldiz homogeneizatzen da 10 kolpe emanaz eta berriz 10 minutuz zentrifugatzen da  $1500 \times g$ -tara. Gainjalkina jaso eta jalkina 1 ml MIB hotzetan bersuspenditzen da berriro. 5 kolperekina homogeneizatu eta 10 minutuz zentrifugatzen da  $1500 \times g$ -tara. 3 gainjalkina hartu eta jalkina bota.
4. Mitokondrioan isolaketa: Ondoren, 1, 2 eta 3 gainjalkinak jaso eta 10 minutuz  $7000 \times g$ -tara zentrifugatzen dira. Gainjalkinak bota eta jalkina, mitokondrioak dituen,  $400 \mu\text{l}$  MIB hotzetan bersuspenditzen da.
5. Kontzentrazioaren neurketa: Azkenik, mitokondrio kontzentrazioa neurtzen da Bradford bidez, normalean  $400 \mu\text{l} \approx 3 \text{ mg/ml}$  lortzen delarik.

### 2.3.1.2 C-Zitokromo askapen saioak

Araztutako proteina batek MOMP eragiten duen balioztatzeko metodo klasikoa isolatutako mitokondrioetatik c-zitokromo askatzeko duen gaitasuna aztertzea da (Arnoult, 2008; Bossy-wetzel & Green, 2000).

1 mg/ml-tara dauden MEF mitokondrioak 30 minutuz 37°C-tara KCl tanpoian (125 mM KCl, 10 mM Hepes-KOH (pH 7.0), 0.5 mM EGTA) inkubatzen dira interesatzen zaigun proteinarekin batera. Ondoren, laginak 10 minutuz 14000x g-tara zentrifugatzen dira askatutako c-zitokromo mitokondrioen barnean dagoen c-zitokromotik bereizteko. Azkenik, frakzio bakoitzean dagoen c-zitokromo zehazten da modu semi-kuantitatibo baten western plapaketa bidez, sagu anti c-zitokromo antigorputza erabiliz (BD Pharmingen (Franklin Lakes, NJ U.S.A) anti cyt-c antibody clone 7H8.2C12.).

## 2.3.2 ZELULA EUKARIOTIKO PROZEDURAK

### 2.3.2.1 Kultibo zelularra

Sagu fibroblasto Wildtype eta BAX<sup>-/-</sup>BAK<sup>-/-</sup> knockout bikoitzak I Marzo (University of Zaragoza, Spain) Doktoreak adeitasunez eman zizkigun. DRP1 knockout sagu fibroblastoak eta HCT 116 zelulak JC Martinou (Université de Genève, Suitza) Doktoreak adeitasunez eman zizkigun. Zelula hauek HeLa eta HEK 293T zelulak bezala %10 fetalbovine sero (Invitrogen) eta %1 Penicylin-Streptomycin-Ionomycin (Invitrogen) soluzioak osagarri moduan dituen Dulbecco's Modified Eagle Medium (Invitrogen, U.S.A) medioan hazi dira 5% CO<sub>2</sub> eta 37°C-tara.

### 2.3.2.2 Transfekzio iragankorrerako plasmidoak

Luzera osoko giza BOK cDNA PCR bidez amplifikatu da Pfu Turbo polimerasa erabilita, 2.1.2.1.1 atalean azaltzen den bezala. Errestrikzio guneak hasleen bidez sartu izan direlarik.

Purifikatutako PCR produktuak *MluI* and *XbaI* (NEB) entzimekin ordu betez 37°C-tara liseritu ostean, purifikatu eta aurretiaz errestrikzio entzima berdinekin liseritutako eta ondoren defosforilatutako pCIneo Promega (WI, U.S.A) bektorearekin ligatu izan dira. Bektore honek giza zitomegalobirusaren (CMV) indartzaile goiztiar/promotorea darama, klonatutako DNA intsertoak ugaztun zeluletan adierazteko ahalmena ematen diona. Zenbait klonetan intsertoaren presentzia baieztatu zen eta T7 promotorea erabiliz sekuentziatu izan dira.

Purifikatu eta liseritutako PCR produktuak aldeztatik liseritutako (*Hind III* and *Kpn I*) pEGFP-C3 bektorearekin ere ligatu dira.

### 2.3.2.3 Transfekzio iragankorra

Zelulak jetPRIME® (Polyplus Transfection, France) erabiliz transfektatu dira <http://www.polyplus-transfection.com> web orrian azaltzen diren pausuak jarraituz. Protokolo zehatza jarraian azaltzen da (18. Protokoloa).

#### **18.Protokoloa** *Transfekzio iragankorra*

Jarraian azaltzen diren baldintzak 6-putzutxotako plaka batentzat dira.

1. Zelulak erein: 300.000 zelula putzutxo bakoitzean gehitzen dira eta 2 ml mediorekin hazten dira, esperimentu aurreko egunean.
2. DNA eta indargetzailea nahastu: 2 µg DNA 200 µl jetPRIME® indargetzailean diluitu, bortexeatuz nahasten da.
3. Jetprime gehitu: 4 µl jetPRIME® gehitu eta bortexeaten da.
4. Inkubatu: 10 minutuz inkubatzen dira giro tenperaturan.
5. DNA gehitu: Ondoren, 200 µl gehitzen dira putzu bakoitzeko medioan bertan eta ondo nahasten da.
6. Proteinaren adierazpena aztertu: Proteinaren adierazpena 18 orduz aztertzen da.

### 2.3.2.4 Zelula eukariotoen lerro zelular egonkorretan transfekzio induzigarrirako plasmidoak

Luzera osoko giza BOK cDNA PCR bidez amplifikatu zen *Pwo* polimerasa erabilia eta luzera osoko giza BAX cDNA Expand High Fidelity polimerasa erabilia, 2.1.2.1.1 atalean azaltzen den bezala. Bi kasuetan, errestrikzio guneak hasleen bidez sartu direlarik, BOK-en kasurako HA-isatsa aurreransko hasleen bidez sartu da.

Purifikatutako PCR produktuak *XbaI* eta *BamHI* (NEB) errestrikzio entzimekin ordu betez 37°C-tara inkubatuz liseritu izan dira. Agarosa gel batean korritu ostean, purifikatu eta aurretiaz entzima berdinekin liseritu eta defosforilatutako pF\_UAS\_SV40 bektorean ligatu dira. Zenbait klonetan intsertoaren presentzia baieztatu da eta hasle espezifikoak erabiliz sekuentziatu izan dira.

### 2.3.2.5 Lerro zelular egonkor induzigarrien ekoizpena

Lerro zelular egonkor induzigarriak sortzeko lentibirusetan oinarritutako sistema erabili da. Lentibirusek RNA biriko kantitate handiak zelula ostalariaren DNAn barneratu ditzakete. Ezaugarri horrek, geneak DNAn barneratzeko bektore oso efizienteak egiten ditu. Lentibirusak eraldatutako GIB birusak dira, eta nahiz eta ostalarian erreplikatzeko gai ez diren kontuz lan egin behar da haiekin.

Lerro zelular induzigarriak lortzeko bi bektoretako sistema erabili izan da lan honetan. Modu independentean enpaketatutako beharko ditugu traskripzio faktorearen bektorea pFU GEV16 PGK Hygro, eta gure proteinaren sekuentzia daramana, pF 5x UAS SV40 puro. Ondoren independenteki enpaketatutako bi eraikuntza hauetatik lortutako lentibirusak infektatu nahi diren zelulei gehituko zaizkie eta higromizina eta puromizinarekin hautaketa egingo da. Hautaketa bikoitz honek eraginkortasun handia bermatzen du. Traskripzio faktorea zein aztergaia den DNA enpaketzeko hurrengo bektoreak erabili izan ditugu:

pCMV  $\delta$ R8.2 Partikula biralak sortzeko enpaketatze plasmidoa

pCMV-VSVG Partikula biralak sortzeko bilkin plasmidoa

#### **19.Protokoloa** Lerro zelular egonkor induzigarrien ekoizpena

1-Transkripzio faktorea kodetzen duen DNArekin HEK 293T zelulak transfektatu: Lentibirusak sortzeko HEK 293T zelulak transfektatu behar dira: osagai estrukturala kodetzen duen plasmidoaren, pCMV  $\delta$ R8.2, 5 unitate; adierazpen lentibiralerako bektorearen, pF 5UAS edo pFU GEV16, 3 unitate; eta bilkina kodetzen duen plasmidoaren, pVSV-G, 2 unitate erabilia.

2-Lentibirusak jaso: Transfekzioa egin ostean zelulak 37°C-tara inkubatzen dira 24-48 orduz, orduan gainjalkina jaso eta 0.8  $\mu$ m-ko filtro esteriletatik filtratu.

3-Intereseko zelulen infekzioa: Ondoren, Polybrene (1  $\mu$ l/ml) gehitzen zaio eta ondo nahasten da. Infektatu nahi diren zelulen mediao gainjalkin honengatik ordezkatzeko da gero.

(protokoloak hurrengo orrialdean jarraitzen du)

4-Hautaketa: 24 ordu geroago, gainjalkina medio berriz ordezkaten da eta hautaketarako antibiotikoa gaineratzen zaio, erabilitako bektorearen kasuan higromizina edo puromizina erabiliko dira. Antibiotiko hauek 3-4 egunero aldatu behar dira, oso denbora aldi luzeetan ez direlako egonkorrak. Kontrol moduan, infektatu gabeko zelulak antibiotikoen presentzian hasiko ditugu. Infektatu gabeko zelula hauek hiltzen direnean, selekzioa amaitutzat jo dezakegu.

5-HEK 293T zelulen transfekzioa intereseko DNArekin: HEK 293T zelulak transfektatzen dira 1. pausuan azaldu den bezala, gure proteina kodetzen duen adierazpen antibiralerako bektorearekin. Ondoren, bigarren pausutik laugarren pausura errepikatzen da prozesua, hautaketa amaitutzat ematen dugunerarte.

### **2.3.2.6 Transfekzio induzigarria**

HA-BOK HeLa zelula induzigarriak ekoitzi ditugu eta zelulak hauek  $1\mu\text{M}$  4-Hydroxytamoxifen (4-OHT)rekin tratatu izan ditugu HA-BOK proteina adierazi nahi den momentua baino 24 ordu lehenago.

### **2.3.2.7 Zelulen fixaketa eta iragazkortzea**

Fixaketak antigenoak immobilizatu behar ditu egitura zelular eta subzelularra mantentzen den bitartean. Antigorputzak zelula konpartimentu guztietara sarbide izatea baimendu behar du. Fixaketa eta permeabilizazio metodoak epitopoa eta antigorputzaren sentikortasunaren araberakoak izango dira eta horren arabera optimizazioa beharrezkoa izango da.

Lehenego eta behin, estaldurak petri plakan ipini behar ditugu zelulak haien gainean haz daitezen. Ondoren, zelulak gaineratu eta egoera normaletan haziko ditugu (%10 fetalbovine seroa, %1 Penizilina-Streptomizina-Ionomizina soluzioa eta % 1aminoazido ez-esentzialak gaineratuta dituen Dulbecco's Modified Eagle Medioan, %  $5\text{CO}_2$  atmosferan  $37^\circ\text{C}$ -tara). Behin konfluente daudenean, medioa xurgatuko dugu eta zelulak bi bider izotzetan hoztutako PBStan garbituko ditugu. Ondoren, zelulak PBS-tan diluitutako %4 Formaldehidorekin fixatuko dira 20 minutuz. Fixaketa tanpoiak zelulen azalera estali behar du, sikatu ez daitezen (250  $\mu\text{l}$  tanpoi inguru 24 putzu dituen plaka baten putzu bakoitzeko, 1 ml 6 putzu dituen plaka baten putzu bakoitzeko...). Gero, formaldehidoa kendu eta toxikoen hondakin botilara botako dugu. Zelulak beste hiru bider PBS-rekin garbitu.

Fixatu ostein batzuetan zelulak permeabilizatu behar dira. Permeabilizazioa bakarrik beharrezkoa da antigorputzak zelulan barneratu behar denean proteina detektatzeko. Hala ere, mintz proteinak detektatzeko ere beharrezkoa izaten da batzuetan, epitopoa alde zitoplasmatikoan kokatzen bada. Horretarako, zelulak azetona hotzarekin inkubatzeko ditugu 10 minutuz  $-20^{\circ}\text{C}$ -tara. Ondoren, azetona kendu eta PBSrekin hiru bider garbitzen ditugu estaldurak.

### 2.3.2.8 Immunofluoreszentzia tindaketa

Immunofluoreszentzia oso teknika eraginkorra da, fluoreszenteki markatutako antigorputzak antigeno espezifikoak detektatzeko erabiltzen dituena. Erabilgarritasunen artean, suspentsioan dauden zelulen, zelula kulturen, ehunen, beaden ebaluaketa eta proteina espezifikoek detekzioarako mikroarriak ditugu. Immunofluoreszentzia teknikak bai lagin fresko bai fixatutako laginekin erabili daitezke. Immunofluoreszentzian, antigorputzak zunda fluoreszenteekin kimikoki konjugatuta daude. Markatutako antigorputz hauek intereseko antigenoari batu eta antigenoaren detekzioa baimentzen dute zenbait immunofluoreszentzia tekniken bidez, fluxuzitometria, fluoreszentzia edo mikroskopia konfokala besteak beste. Erabilitako prozedura hurrengo protokoloan azaltzen da (20. Protokoloa).

#### **20.Protokoloa** *Immunofluoreszentzia tindaketa*

1-Zelulen fixaketa eta iragazkortzea: Zelulak estalduretan hazi behar dira. Ondoren, fixaketa egingo da horretarako, zelulak PBS-tan diluitutako 4% Formaldehidorekin fixatuko dira 20 minutuz. Fixatu ostein batzuetan zelulak permeabilizatu behar dira. Permeabilizazioa bakarrik beharrezkoa da antigorputzak zelulan barneratu behar denean proteina detektatzeko. Horretarako, zelulak azetona hotzarekin inkubatzeko ditugu 10 minutuz  $-20^{\circ}\text{C}$ -tara, PBSrekin hiru aldiz garbitu ostein. Ondoren, azetona kendu eta PBSrekin hiru bider garbitzen ditugu estaldurak.

2-Blokeoa eta antigorputzekin inkubazioa: Behin zelulak fixatuta eta permeabilizatuta, immunofluoreszentzia tindaketarekin has gaitetzke. Estaldurak parafilm baten gainean ipintzen dira petri dish baten barruz, zelulak gorantza kokatuta daudelarik. Gero, blokeatuko ditugu %0.1 Triton X-100 eta %3 BSA duen PBSrekin 45 minutuz.

(protokoloak hurrengo orrialdean jarraitzen du)




Blokeoa kendu eta hiru bider garbituko ditugu %0.1 Triton X-100 duen PBSarekin (PBST). Hurrengo pausua antigorputz primarioarekin inkubatzeta da, %0.1 Triton X-100 eta %3 BSA duen PBSrekin 60 minutuz. Inkubazioaren ostean, berriz garbituko ditugu estaldurak 3 bider PBSTrekin. Ondoren antigorputz sekundarioarekin inkubatuko ditugu ordu batez, ordua pasatzen denean hiru bider garbituko ditugu PBSTrekin.

**3-Montaketa:** Lehendabizi, estaldurak ur distilatuarekin garbitzen dira. Gero, montaketa medio (Fluorsave) tanta bat gaineratzen zaio portari, estaldura tanta horren gainean ipiniko dugu zelulak beherantza begira daudelarik. 10 µl-tako pipeta baten puntaren alde zabala erabiliko dugu estaldura zapaldu eta burbuilak ekiditeko. Amaitzeko, portak ilunpetan gordeko ditugu giro tenperaturan guztiz lehor daudenerarte.

### 2.3.2.9 Fluxu zitometria saioak

Fluxu zitometria zelulak bezalako partikula indibidualen propietate fisiko asko aldi berean neurtzeko herraminta erabilgarria da. Zelula bakoitzak laser sortatik pasatzen den heinean argia nola dispersatzen duen eta fluoreszentzia nola igortzen duen neurtzen du (2.17 Irudia).



2.17 Irudia. Fluxu-zitometro baten eskema.

(<http://www.abcam.com/index.html?pageconfig=resource&rid=11446>)-tik hartutako irudia.

Apoptosian zehar aldaketa ugari ematen dira zelula morfologian eta markatzaile molekular zein biokimiko askoren agerpena gertatzen da. Apoptosia eragiteko mekanismo aldaketa horiek

desberdinak izan daitezke, aztertzen den denbora tarte eta zelula motaren arabera. Zelula indibidualak oso era azkar batean neurtzeko ahalmena dela eta, fluxu-zitometria zelula populazio handietan apoptosia detektatu, identifikatu eta neurtzeko oso harriminta egokia da (Wlodkowic *et al.*, 2012). Lan honetan, The Annexin V-PE Apoptosis Detection Kit I (BD Pharmingen, San Jose, CA) erabili izan da. Annexina fosfatidilserinara (PS) batzen den proteina da, fluxu-zitometria bidez apoptosia ebaluatzeko askotan erabiltzen dena. Zelula osasuntsuek mintz plasmatico asimetrikoa dute, PSa monogerruza zitosoan kokatzen delarik. Apoptosian zeharreko aktibazio zelular, kalte zelular edo energia galerak mintz plasmaticoaren asimetrikotasuna hausten dute, PS gainazalean azaltzen delarik (Janko *et al.*, 2013).

Lan honetan fluxu-zitometria GFP-BOK-ekin transfektatutako eta staurosporinarekin tratatutako BAX<sup>-/-</sup>BAK<sup>-/-</sup> knockout (DKO) sagu fibroblasto zeluletan eta HA-BOK adierazteko induzigarriak diren HeLa zeluletan apoptosia identifikatzeko erabili izan da. Jarraitu den prozedura zehatza hurrengo protokoloan azaltzen da (21. Protokoloa).

#### **21. Protokoloa Fluxu-zitometria saioak**

1. Zelulak transfektatu: Zelulak GFP-BOK plasmidoarekin transfektatu dira 2.3.2.3 atalean azaltzen den bezala.
2. Apoptosi indukzioa: Trasekzioa egin eta 18 orduz, apoptosia eragiten da 1  $\mu$ M staurosporinarekin.
3. Zelulak jaso: Zelulak 3,7 eta 16 orduz jasotzen dira eta bi bider izotzarekin hoztutako PBS-rekin garbitzen dira.
4. PS esposaketaren neurketa: Ondoren, apoptosia Annexin V-PE Apoptosis Detection Kit I (BD Pharmingen, San Jose, CA) erabiliz neurtzen da, horrela: Zelulak bi bider Dulbecco's phosphate-buffered saline (DPBS) tanpoiarekin garbitzen dira, ondoren 100  $\mu$ l 1X binding buffer-tan bersuspenditu. Annexin V-PE 5  $\mu$ l gehitu eta 15 minutuz giro tenperaturan ilunpean inkubatzen dira. Amaitzeko 400  $\mu$ l 1X binding buffer gehitu ostean FACSCalibur (BD Biosciences, San Jose, CA) aparailuan aztertzen dira laginak.

#### **2.3.2.10 Frakzionamendu azpizelular saioa**

Entsegu honen helburu nagusia zelulen mintz frakzio eta frakzio zitosoaren arteko banaketa lortzean datza. Horretarako, zelulak lehenengo eta behin PBS hotzarekin garbitu eta permeabilizazio tanpoian (20 mM HEPES/KOH pH7.5, 100 mM sakarosa, 2.5 mM MgCl<sub>2</sub>, 100 mM KCl, 0.025% digitonina, proteasa inhibitzaile pastila bat) bersuspenditzen dira. Behin

bersuspendituta zelulak izotzetan inkubatzen dira 10 minutuz. Ondoren, laginak 13,000x g-tara zentrifugatzen dira 5 minutuz 4°C-tara eta jalkina eta gainjalkina banatzen dira. Gainjalkina frakzio zitosolikoa izango da, jalkinean aldiz, mintz frakzioa dago. Bi frakzioa hauek jarraian aztertuak dira western plapaketa bidez intereseko proteinaren aurkako antigorputza erabiliz, modu horretan bere lokalizazio azpizelularra ezagutuko delarik.

### 2.3.2.11 Sodio karbonato tratamendua

Behin frakzio zitosoliko eta mintz frakzioak banatuta daudenean, intereseko proteina mintzera atxikituta dagoen edo ez aztertzea posiblea da. Horretarako, mintz frakzioak 0.1 M Na<sub>2</sub>CO<sub>3</sub> pH 11.5 tanpoian bersuspenditu eta izotzetan inkubatzen dira 20 minutuz. Ondoren, 400 mM Tris HCl, 100 mM MgSO<sub>4</sub>, 10 mM CaCl<sub>2</sub> and DNAasa tanpoia gehitzen zaie eta hamar minutuz inkubatzen dira laginak 37°C-tara. Gero, laginak 13,000x g-tara zentrifugatzen dira 10 minutuz 4°C-tara eta jalkin eta gainjalkinak banatzen dira. Gainjalkinean mintzari lotutako proteinak egongo dira eta jalkinean aldiz mintzean txertatutakoak. Bi frakzio banandu hauek western plapaketa bidez aztertuko dira proteinaren aurkako antigorputza erabiliz.

### 2.3.2.12 GFP-trap immunoprezipitazioa

Immunoprezipitazioa (IP) disoluzio batetik proteina bat prezipitatzeko teknika da, proteina zehatz horrekin espezifikoki batzen den antigorputza erabilita. Prozesu hau milaka proteina desberdin dituen laginetik proteina zehatz bat isolatu eta kontzentratzeko erabili daiteke. Kasu honetan, GFP-trap kita (chromotek) erabili izan dugu HEK 293T zeluletan modu iragankorrean transfektatutako GFP-BOK proteina immunoprezipitatzeko eta proteina honekin batera ko-immunoprezipitatzeko duten proteinak identifikatzeko. Metodologia zehatza hurrengo protokoloan azalduta dago (21 Protokoloa).


#### **Protokolo 21** *GFP-trap immunoprezipitazioa*

1. Zelulen transfekzioa: Zelulak GFP-BOK plasmidoarekin transfektatu 2.3.2.3 atalan azaltzen den prozedura jarraituz. Immunoprezipitazio erreakzio baterako GFP isatsa duen proteina adierazten duten ~10<sup>6</sup>-10<sup>7</sup> ugaztun zelula erabiltzea gomendatzen da.
2. Zelulak jaso: Kultibo medioa xurgatu, 1 ml PBS zelulei gehitu eta zelulak plakatik hazkatu. Gero, zelulak 500x g-tara 3 minutuz 4°C-tara zentrifugatu eta jalkinak jaso behar dira. Jalkin hau bi bider PBS hotzarekin garbitu eta bersuspenditu.

(protokoloak hurrengo orrialdean jarraitzen du)

3. Zelulak lisatu: Jalkin zelularra proteasa inhibitzaileak gehituta dituen 200 µl lisi tanpoian bersuspenditu. Gero, tutua izotzetan 30 minutuz utzi 10 minuturo pipeteatuz. Ondoren, lisatu zelularra 20.000x g-tara 5-10 minutuz 4°C-tara zentrifugatu eta gainjalkina aurrez hoztutako tutura pasatu.
4. GFP-BOK batuketa: Lisatu zelularren gainjalkina 500 µl-1000 µl bolumen izan arte proteasa inhibitzaileak gehituta dituen diluzio tanpoiarekin diluitzen da. Puntu honetan detergenteek ezin dute %0.2 gainditu batuketa espezifikoak saihesteko. Lagina aztertzeko lisatu zelularren gainjalkineko 50 µl jaso eta SDS karga tanpoia gehitzen zaio, hau inputa izango da. Bitartean, GFP-Trap diluzio tanpoian orekatu behar da, horretarako 25 µl bead aurrez hoztutako 500 µl diluzio tanpoian bersuspenditzen dira eta 2.500x g-tara 2 minutuz 4°C-tara zentrifugatuko dira. Gainjalkina baztertu eta bi aldiz errepikatu. Diluitutako gainjalkina orekatutako GFP-Trapera gehitu eta ordu betez giro tenperaturan inkubatuko dira.
5. Garbiketak: Tutua 2.500x g-tara 2 minutuz 4°C-tara zentrifugatu. Lagina aztertzeko gainjalkineko 50 µl gorde, hau batu ez den lagina izango delarik. Gainontzeko gainjalkina bota eta beadak hiru aldiz hotz dagoen garbiketa tanpoiaren 500 µl gehituta garbitu. Azkeneko garbiketa pausuan, beadak tutu berri batera pasatuko dira.
6. Gela kargatu: Beadak SDS karga tanpoi 100 µl-tan bersuspenditu eta 10 minutuz 95°C-tara inkubatu immunokonplexuak disoziatu daitezten. Ondoren 2.500x g-tara 2 minutuz 4°C-tara zentrifugatu eta SDS-PAGE analisia bututuko da gainjalkinarekin (batutako proteina).
7. Mass spectrometria: Gure proteina ondo immunoprezipitatu dela western plapaketa bidez baieztatu ostean, laginak masa espektrometria bidez aztertu izan dira GFP-BOK proteinareki batera ko-immunoprezipitatu duten proteinak identifikatzeko.

# CHAPTER 3: RESULTS AND DISCUSSION





## 3.RESULTS AND DISCUSSION

### 3.1. KARDIOLIPINAREKIKO INTERAKZIO ESPEZIFIKOAK DRP1 PROTEINAREN AKTIBAZIO FUNTZIONALA ERAGITEN DU

#### 3.1.1 SARRERA

Mitokondrioak organulu konplexuak dira non zelularen egoera fisiologiko egokia mantentzeko ezinbestekoak diren zenbait prozesu ematen diren. Egoera osasungarrian, mitokondrioak zelula energiari hornitzen du fosforilazio oxidatiboaren bidez lortzen den ATParekin. Horretaz gain, mitokondrioek zenbait prozesu anaboliko eta katabolikoetan ere parte hartzen dute (Saraste, 1999). Azken bi hamarkadetan mitokondrioak apoptosian ere funtzio papera betetzen duela ezagutzera eman da. Zenbait estimulu apoptotikok mitokondriatik faktore apoptogenikoen askapena eragiten dute, kaspasen aktibazioa eragingo duena (Chipuk *et al.*, 2010; Nunnari & Suomalainen, 2012).

Mitokondrioak zelularen egoera fisiologiko eta inguruko baldintzen arabera fusio eta fisio prozesuak pairatzen dituzten organulua oso dinamikoak dira (Herzig & Martinou, 2008; Youle & van der Bliek, 2012). Fusio mitokondrial prozesuan ematen diren anormaltasunak zenbait giza neuropatiekin erlazionatu izan dira, besteak beste Charcot-Marie-Tooth 2 motako gaixotasuna (Cartoni *et al.*, 2010) edo Atrofia Optiko Dominantearekin (Alexander *et al.*, 2000; Zanna *et al.*, 2008), bestalde, fisio mitokondrialean emandako akatsak beste gaixotasun batzuekin erlazionatu dira, Parkinson gaixotasuna (Deng *et al.*, 2008; Poole *et al.*, 2008) eta Alzheimer gaixotasuna (Cho *et al.*, 2009) besteak beste. Morfologia mitokondrialaren dinamika, dinaminarekin erlazionatutako GTPasek erregulatzen dute. Proteina hauek mintz egiturak berrantolatzeko gaitasun intrintsekoa dute, horretarako oligomerizatu eta GTPa hidrolizatu behar dutelarik (Hoppins *et al.*, 2007; Youle & van der Bliek, 2012). Ugaztunetan, fusio mitokondrialean parte hartzen duten dinaminarekin-erlazionatutako GTPasak barne mintzeko OPA1 (Optic Atrophy 1) eta kanpo mintzeko MFN1 (Mitofusin 1) eta MFN2 (Mitofusin 2) dira (Song *et al.*, 2009). Bestalde, fisio mitokondrial DRP1en menpe dago, zeina peroxisomen banaketan ere parte hartzen duen (Koch *et al.*, 2003; Lackner *et al.*, 2009; Smirnova *et al.*, 2001; Smirnova *et al.*, 1998). Saguetan DRP1 funtzioaren ablazioak proteina honek enbrioien burmuin eta beste ehunen garapenerako duen garrantzia erakutsi du (Ishihara *et al.*, 2009; Wakabayashi *et al.*, 2009). Dinaminarekin-erlazionatutako GTPasek apoptosiaren garapen egokian ere

funtsezko papera betetzen dute (Martinou & Youle, 2011). Zentzu honetan, DRP1 proteinak BAXen oligomerizazioa eta c-zitokromoaren askapena mintz mitokondrialaren hurbilketa eta hemifusioa eraginez suspertzen dituela erakutsi dugu (Montessuit *et al.*, 2010). Horretaz gain, zelula osasuntsuetan OPA1 oligomeroetan antolatzen dela ikusi da, horrela gangar mitokondrialen arkitektura mantenduz. Apoptosian aldiz, OPA1 oligomeroak desantolatu eta c-zitokromoaren askapen egokia baimentzen dute (Frezza *et al.*, 2006; Yamaguchi *et al.*, 2008).

DRP1ek funtzionalki desberdinak diren lau domeinu ditu: GTPasa domeinua (G); “bundle signaling element” delakoa (BSE), G domeinutik txortenera ematen diren konformazio aldaketen transmisioan inplikatur dagoena; B intsertoa, DRP1en funtzioaren erregulazioan inplikatur dagoena; eta txortena, DRP1 multimerizazioan inplikatur dagoena (Fröhlich *et al.*, 2013). DRP1 inaktiboa nagusiki zitosolikoa da, nahiz eta proteinaren kantitate txiki bat etorkizunean fisio gune bilakatuko diren mitokondriako eskualde zehatzetan ere aurkitu daitekeen (Smirnova *et al.*, 2001), ustez erretikulu endoplasmatikoko mitokondrioa ukitzen duen guneetan (Friedman *et al.*, 2011; Korobova *et al.*, 2013). DRP1 funtzioaren aspektu desberdinak, lokalizazioa, egonkortasuna eta GTPasa aktibitatea besteak beste, itzulpen osteko eraldaketen bidez erregulatuak izan daitezkeela proposatu da. Eraldaketa horiek fosforilazioak (Cereghetti *et al.*, 2008), SUMOilazioak (Figuroa-Romero *et al.*, 2009; Guo *et al.*, 2013), ubikitinazioak (Nakamura *et al.*, 2006), O-lotutako-N-acetyl-glukosamina glikosilazioak (Gawlowski *et al.*, 2012), eta S-nitrosilazioak (Chang & Blackstone, 2010; Cho *et al.*, 2009) izan daitezke. Itzulpen osteko aldaketa gehienak B intsertoan ematen dira.

DNM1ekin, DRP1en legamietako ortologoa, egindako ikerketetan oinarrituz, DRP1 mitokondriora translokatzan denean FIS1 proteinari batzen dela proposatu zen, MDV1 edo CAF4 proteina adaptatzaileen bidezko interakzio baten bitartez (Hoppins *et al.*, 2007). Nahiz eta FIS1 eukariotoen erresuman zehar, gizakietan barne, oso kontserbatuta egon, ugaztunetan MDV1 eta CAF4 proteinen homologoak aurkitzeke daude. Gainera, duela gutxiko ebidentziek FIS1 proteinak ugaztunen morfologia mitokondriala DRP1ekin batuz egin beharrean, GTPasa aktibitatea erregulatzeko domeinua duen TBC1D15 proteina bilduz egiten duela iradokitzen dute (Onoue *et al.*, 2013). Horretaz gain, ugaztunen zeluletan DRP1 mitokondrioa kokatzeko eta bere erregulazio funtzionalerako ezinbestekoak izan daitezkeen beste zenbait proteina aurkitu dira berriki. Horien adibide dira MFF, MiD51 eta MiD49 proteinak, zeinak bai DRP1ren mitokondriarako errekrutatze zein fisioaren estimulazioan inplikatur dauden (Koirala *et al.*, 2013; Otera *et al.*, 2010; Palmer *et al.*, 2011). Garrantzizkoa da aipatzea, ez MFF ezta MiD49 proteinak ere ezin dutela DRP1en GTP hidrolisi aktibitatea GTPasa efektore klasikoek egiten duten bezala areagotu (Koirala *et al.*, 2013), horregatik interakzio hau DRP1en aktibazio funtzionala eragiteko nahikoa den probatzea falta da.



Proteinez gain, lipido zehatzek ere dinamina klasiko eta dinaminarekin-erlazionatutako proteinen faktore erregulatzaile bezala joka dezakete. Dinamina klasikoek Plekstrin homologia (PH) domeinua dute, zeina PIP<sub>2</sub> lipidoarekin interakzionatzen duen proteinen oligomerizazio eta funtzioa erregulatuz (Heymann & Hinshaw, 2009; Kenniston & Lemmon, 2010). Bestalde, dinamina-moduko proteinek, legamietako Mgm1 edo giza OPA1 proteinek besteak beste, ez dute PH domeinurik, nahiz eta mitokondrioko lipido polianioniko espezifikoa den kardiolipinarekin interakzionatzen dutela behatu den. Gainera, Mgm1 eta OPA1 proteinek CLrekin duten elkarrekintzak euren GTPasa aktibitatea areagotzen du (Ban *et al.*, 2010; DeVay *et al.*, 2009; Rujiviphat *et al.*, 2009). CLak beraz, funtzio mitokondrialean funtsezko papera jokatzen duela esan genezake (Claypool & Koehler, 2012; Osman *et al.*, 2011). CL nagusiki mitokondriako barne mintzean kokatzen da, bereziki mintz mitokondrialen kontaktu guneetan (Ardail *et al.*, 1990). Interesgarria da aipatzea, apoptosian zehar DRP1 zitosoletik MOMera translukatzen dela eta BAXekin kolokalizatzen du, CLan aberatsak diren guneetan (Karbowski *et al.*, 2002; Lucken-Ardjomande *et al.*, 2008). Gainera, DRP1ek CL duten liposomekin zuzenki interakzionatzen duela aurkitu da (Montessuit *et al.*, 2010). Behaketa horietan oinarrituta, DRP1:CL elkarrekintzaren espezifitate molekularra eta interakzio horren ondorio funtzionalen inguruko ezagumendu zehatzagoa izaten saiatu gara. Kapitulu honetan, DRP1 proteinak CLrekin zuzenean B insertoaren bidez interakzionatzen duela iradokitzen duten ebidentziak eskeintzen ditugu, eta baita interakzio honek DRP1en oligomerizazioa eta bere GTPasa aktibitatearen estimulazioa eragiten duela proposatzen dugu.

### 3.1.2 MATERIALAK ETA METODOAK

**Materialak-** Arrautz fosfatidilkolina (PC), arrautz fosfatidiletanolamina (PE), gibel fosfatidilinositola (PI), bihotz kardiolipina (CL), burbuin fosfatidilserina (PS), eta arrautz fosfatidilglicerola (PG) Avanti Polar Lipids, Inc. (Alabaster,AL) enpresan erosi dira. Anti DRP1 antigorputzak. BD-Biosciences enpresakoak dira eta Thermo Scientific. Biacore sensor chip L1 GE Healthcare enpresatik erosi da.

**Proteina birkonbinatuen adierazpena eta arazketa-** Isatsik gabeko DRP1 1, 2 eta 3 isoformak eta B insertoko mutanteak (K557-560A, K569-571A eta K557-560-569-571A) *Escherichia coli* Rosetta zeluletan ekoiztu dira. Zelulak 37°C-tan 100 mg/ml anpizilina duen LB medioan hazi dira 0.9ko OD600 izan arte, orduan 0.5 mM isopropyl b-D-tiogalaktopiranosidoa (IPTG) gehitu eta zelulak 12 h 18°C-tara inkubatzen dira. Zelulak zentrifugazio bidez batu dira 3,500x g-tara 30 minutuz. Ondoren A tanpoian (20 mM Hepes pH 8, 500 mM NaCl, 1 mM PMSF, 1 mM benzamidine, 1tb Protease inhibitzaileak, 1 mM MgCl<sub>2</sub>, 0.1 mg/ml liozima, 0.05 mg/ml DNAsa) bersuspenditzen dira. Zelulak French press bidez apurtu eta 20,000x g-tara 15 minutuz zentrifugatzen dira. Gainjalkinak jaso eta kitinazko erretxinaz enpaketatuko zutabe batetik

pasatuko da, 10 ml-ko bolumena duena (New England Biolabs, Inc.) eta A tanpoian orekatuta egon behar duena. Batu ez den proteina B tanpoiaren (20 mM Hepes pH 7, 10% glizerol, 1 mM PMSF, 1 mM benzamidina, 500 mM NaCl) 10 zutabe bolumenekin garbitzen da. Tiol errektiboek eragindako mozketak kitinazko erretxina 0.5 mM dithiothreitol (DTT) duen B tanpoia azkar gehituz hasiko dugu. Mozketak erreakzioa gaua osoan zehar emango da 4°C-tan, hurrengo egunean proteina zutabetik eluituko delarik. Proteina C tanpoiaren (25 mM Hepes pH 7.5, 10% glizerola, 0.5 mM DTT, 100 mM NaCl) kontra dializatuko da eta ondoren C tanpoian orekatutako Q sepharosa zutabearen kargatuko da. Batu ez den proteina C tanpoiaren 10 zutabe bolumenez garbitzen da eta DRP1 eluitu izango da tanpoiaren NaCl kontzentrazioa 500 mM arte igoz. DRP1 duten frakzioak D tanpoian (25 mM Hepes pH 7.4, 10% glizerola 0.5 mM DTT, 150 mM NaCl) orekatutako Sephadex S200 zutabearen kargatuko dira. DRP1 duten frakzioak euren artean batu eta E tanpoiarekiko (25 mM Hepes pH 7.4, 10% glycerol, 0.5 mM DTT, 150 mM KCl) dializatuko dira.

**Liposomen prestaketa-** Lipido nahasketak kloroformo:metanoletan (2:1) disolbatu ondoren, disolbatzaile organikoak ebaporazio bidez kenduko dira 2 orduz huts ponpan egonda. Lipido geruza lehorrak KCl tanpoian (150 mM KCl, 0.5 mM EGTA, 10 mM HEPES-KOH pH 7.4) bersuspendituko dira jarraian. Lamela bakarrekiko besikula handiak (LUVs, ingelesetik *Large Unilamellar Vesicles*) Mayer *eta lank.* metodoa jarraituz eratu izan dira (Mayer *et al.*, 1986), 10 izozte/desiozote ziklo eginez eta estrusiorako 0.2 mm-ko poro tamaina duten polikarbonatozko bi mintz erabiliz (Nucleopore, San Diego CA). Lipido kontzentrazioa Bartlett *eta lank.* metodoa erabiliz zehaztu da. (Bartlett, 1959).

**Liposomen sakarosa gradiente bidezko zentrifugazioa-** Araztutako DRP1 (1 mM) 200 mM liposomekin (0.3% rodaminz-PE duten liposomak, begi bistaz ikuskatzeko) inkubatu da 30 minutuz 37°C-tara 150 ml-ko (KCl buffer) bolumen finalean. Proteina/lipido nahastura 300 ml-tara diluitzen da 2.4 M sakarosa duen KCl tanpoian. Ondoren, erreakzio nahastura zentrifuga hodi batera pasatzen da. 2.4 M sakarosa geruzari, 0.8 M sakarosa duen 400 ml KCL tanpoia gehitzen zaio eta ondoren 0.5 M sakarosa duen 300 ml KCl tanpoi gehituko dira. Ondoren TLA-120.2 errotorean 400,000x g-tara 3 orduz 4°C-tara zentrifugatuko dira. 250 ml-ko lau frakzio jasoko dira azpitik (4 frakzioa) gora (1 frakzioa). Goiko frakzioak (1.frakzioa) liposomak ditu, rodaminaren fluoreszentiagatik ikusi daitezkeenak, azpiko frakzioak (4. frakzioa) batu gabeko proteina izango du. Bi frakzio hauek SDS-PAGE eta Western plapaketa bidez aztertu dira.

**Estraktu zitosolikoaren prestaketa-** Sagu fibroblasto enbrionikoak (MEFs) MB tanpoian (210 mM manitola, 70 mM sakarosa, 1 mM EDTA, 10 mM Hepes pH 7.4) bersuspenditu dira eta 5 ml-ko xiringa bati akoplatutako 25 G1 0.5625 orratz batez gutxienez 10 aldiz pasatuz apurtu dira eta ondoren 100,000x g-tara 30 minutuz 4°C-tara zentrifugatu dira.

**Dot plapaketa-** Mintz lipido tirak Echelon Biosciences (Salt Lake City, UT) enpresan erosi dira. Tira hauek fabrikatzaileak aditzera ematen duen bezala erabiliak izan dira. Bestalde, fosfolipido desberdinen stock soluzioak erabiliz ere tira batzuk ekoiztu ditugu: lipidoak 2:1:0.8 MeOH:CHCl<sub>3</sub>:H<sub>2</sub>O-etan disolbatu eta Hybond C Nitrocellulose mintzetan tantaka gehitu ostean, zikatzen utzi izan zaie. Nitrozelulosa ondoren %1 esnea duen PBS-tan blokeatu da ordu betez eta beste ordu betez DRP1ekin inkubatu da PBS-tan 37°C-tara. Tirak hiru biderrez PBS-rekin garbitu eta anti DRP1 antigorputzarekin 1:2,000 diluzioan ordu betez inkubatu dira. Tirak bi bider PBSrekin garbitu eta antigorputz sekundarioan (anti sagu) 1:5,000 diluzioan inkubatu dira. Hiru bider PBSrekin garbitu ostean proteinak kimiluminiszentzia bidez detektatu dira.

**SPR Analiak-** SPR neurketak BIAcore X-100 sistemarekin burutu dira L1 txipa erabiliz (BIAcore). L1 txipa liposomekin prestatzeko, 20 mM CHAPS 10 ml injekatu dira 10 ml/min-ko fluxuarekin. Liposomak (2 mM lipido kontzentrazio finala) fuxu berdinarekin injektatu dira 3 minutuz. Injekzio guztiak 37°C-tara egin dira. L1 txipa birsortu da ondoren, 20 mM CHAPS eta %0.4 SDS injekzioak errepikatuz, hasierako erresonantzia unitateak (RU) lortu arte. Proteinak laginak SPR analisirako prestatzeko erabili den tanpoi berdinarekiko dializatzen dira. Proteina ondoren liposomak dituen txipetik pasako da 10 ml/min fluxuarekin. Tanpoiak eragiten duen RU aldaketa laginak eragiten duen seinaletik kenduko da. DRP1 kontzentrazioa 0.6 mM izan da. Signifikantzia estatistikoa Student's t-test erabiliz balioetsi da.

**Monogeruza Azalera Presio Neurketak-** Azalera presio neurketak Kibron (Helsinki, Finland) enpresako MicroTrough-S system-arekin egin dira 37°C-tara eta era konstatean irabiatuz. Lipido monogeruzak hurrengo konposaketa lipidikoekin prestatu dira: 80PC/20PE, 28PC/20PE/ 52PG, 28PC/20PE/52PS, eta 54PC/20PE/26CL (mol/mol). Kloroformotan disolbatutako lipidoa KCL tanpoiaren 1 ml gainazalean zehar banatzen da eta gainazala konstante mantenduko da. Hasierako gainazal presioa aire/ur interfasean gehitutako lipido kantitatea ajustatuz lortuko da. Solutuak ebanporatzeko 10 minutu utzi ostean, 1 mM DRP1 sub-fasera gehituko da aparatua duen zulo baten bitartez. Proteina gehituta ematen den gainazal presio aldaketa denboran zehar neurtuz joango da seinale egonkorra lortzen denerarte. Baldintza horien pean, DRP1en injekzioa lipido monogeruza baten absentsian gainazal presio maximo bat emango du zeina aztertutako lipido monogeruzen hasierako gainazal presioa baino baxuagoa den.

**DRP1 WT eta mutanteen adierazpenerako plasmidoen konstruktoak-** Giza DRP1en 1, 2 eta 3 isoformen konstruktoak pET29a bektorean klonatutako DRP1en ORFen (Dr. C. Blackstonek adeitasunez utzi zizkigunak, National Institute of Neurological Disorders and Stroke, Bethesda, USA) anplifikazioz lortu dira hasle espezifikoak erabiliz (5'- GGA ATT C CAT ATG GAG GCG CTA ATT CCT GTC-3' eta 5'-GAA GGC TCT TCC GCA CCA AAG ATG AGT CTC CCG GA-3'). Ondoren PCR produktua errestrizio entzimen bidez (*NdeI/SapI*) moztu ostean aurretiaz linearizatutako pTYB1

bektorean ligatu da. Mutagenesia QuickChange Site-Directed Mutagenesis kita (Stratagene) erabiliz burutu da fabrikatzaileak emandako pausuak jarraituz. Mutagenesirako erabilitako hasleak hurrengoak dira: DRP1 K557-560A (5'-CTG GAG AGG AAT GCT GGC AAC TTC AGC AGC TGA AGA GTT ATT AGC-3' eta 5'-GCT AAT AAC TCT TCA GCT GCT GAA GTT GCC AGC ATT CCT CTC CAG-3') DRP1 K569-571A (5'-AGT TAT TAG CAG AAG AAG CAT CAG CAC CCA TTC CAA TTA T-3' eta 5'-ATA ATT GGA ATG GGT GCT GAT GCT TCT TCT GCT AAT AAC T-3'). DRP1 K557-560-569-571A arestian aipatutako bi hasle bikoteak sekuentzialki erabili dira. Mutazioak baieztatzeko konstruktoak sekuentziatzeraz bidali dira.

**GTPasa aktibitate neurketa-** DRP1en GTPasa akibitate malakita berdea esperimentu kolorimetrikoa erabiliz neurtu da (Leonard *et al.*, 2005). Laburki, 0.5 mM DRP1 1 mM GTPri gehitu eta 30 minutuz 30°C-tara inkubatzen da 100 ml tanpoitan (125 mM KCl, 10 mM Hepes pH 7.4, 1 mM GTP, 4 mM MgCl<sub>2</sub>). Soluzio horren 10 ml 90 ml Malakita berde stock soluziora gehitzen zaizkio (500 mM Malakita berde, Sigma, 10 mM amonio molibdato 1N HCl-tan) eta absorbantzia 650 nm-tara neurtzen da. Oreka egoerako zinetiken analisirako, 0.5 mM DRP1 eta GTP kontzentrazio desberdinak (0, 125, 250, 500, 1000 eta 2000 mM) 30°C-tara inkubatu dira. 5 minuturo bolumen jakinak ateraz joan izan dira 60 minututan zehar, atera bezain laster absorbantzia 650 nm-tara neurtuz joan izan da. Hidrolisi tasa maximoa ( $V_{max}$ ) eta abiadura maximoaren erdia deneko sustrato kontzentrazioak ( $K_{0.5}$ ) SigmaPlot programa bidez kalkulatu dira erregresio ez linealaren kurbari doitu. Hiru aldiz errepikatu dira esperimentuak eta bakoitza hirukoiztuta egin da. Signifikantzia estatistikoa Student's t-test bidez balioetsi da.

**Dikroismo zirkularra (CD)-** CD espektroak 37°C-tar egin dira Jasco J-810 spectropolarimeter (Jasco Spectroscopic Co. Ltd., Hachioji City, Japan) erabiliz, zeina Jasco PTC-423S tenperatura kontrolatzailea duen, eta 1 mm-ko pasu optikoa duen kubeta erabiliz. Datuak 0.2 nm-ro 50 nm/min-ra 260 nm-tik 198 nm-ra eta 2 nm-ko banda zabalerarekin jaso dira, emaitzak 20 eskaneoen batzbestekoak dira. DRP1 (1 mM) liposomekin (1 mM) KCl tanpoitan nahastu da. Lagin guztiak neurketak egin baino 30 minutu arinago orekatzen utzi izan zaie. Liposomen eta tanpoiaren kontribuzioa balio esperimental guztietatik kendu da. Eliptizitate molar balioak hurrengo adierazpena erabiliz neurtu dira:  $\{h\}=e/10cnl$ , non  $e$  eliptizitatea den,  $c$  proteina kontzentrazioa den (M),  $l$  kubetaren pasu optikoa, eta  $n$  proteinaren lotura peptidikoak diren.

**Tamainaren bidezko banaketa kromatografia-** DRP1 (1 mM) liposomekin (1 mM) KCl tanpoian nahastu eta 30 minutuz 37°C-tara inkubatu da. Liposomak ondoren %2 CHAPS-etan lisatu eta material solugaitza zentrifugazio bidez kendu da (100,000x g 30 min). Gainjalkina 25 mM Hepes, 200 mM NaCl, pH 7.5 1% CHAPS, 2 mM DTT tanpoitan orekatutako.Sephadex S200 (Amersham Pharmacia) zutabeen injekatu eta kromatografia 60 ml tanpoi eta 1 ml-ko frakzioak batuz burutu da. DRP1en banaketa western plapaketa bidez aztertu da.


### 3.1.3 EMAITZAK

#### 3.1.3.1 DRP1ek CLrekin espezifikoki interakzionatzen du

CL mitokondrioko lipido bereizgarria da eta organuluaren lipido edukiaren ia %10 suposatzen du (van Meer *et al.*, 2008). Nahiz eta MIMean aurkitzen den batez ere, CL MOMean ere aurkitu daiteke, bere kontzentrazioa maximoa mintz kontaktu guneetan izanik (Ardail *et al.*, 1990). Horretaz gain, fisio mitokondrialaren areagotze batekin erlazionatutako zenbait gertaera fisiologikok, apoptosia (Liu *et al.*, 2008) edo mitofagia (Chu *et al.*, 2013) kasu, CLren MOMerako kanporaketa eragiten dute. Gainera, burututako beste ikerketek DRP1 CL-dun liposometara batu daitekeela proposatu da (Montessuit *et al.*, 2010). Interesgarria da, ebidentzia desberdinek iradokitzen dutela beste bi dinamina-moduko proteina mitokondrialek, Mgm1 (legamietan) eta OPA1 (ugaztunetan), CLrekin zuzenki interakzionatzen dutela, eta interakzio hauek proteina hauen funtzioaren erregulaziorako garrantzitsuak direla (Ban *et al.*, 2010; DeVay *et al.*, 2009; Rujiviphat *et al.*, 2009). Behaketa hauetan oinarrituz, DRP1:CL interakzioa zehaztasun handiagoz aztertzea erabaki genuen.

Lehendabizi, dot plapaketa burutu genuen zeinetan DRP1 birkonbinatua ugaztun zeluletako glizerolipido eta esfingolipido arruntenak dituen nitrozelulosa mintzekin inkubatu zen. Aztertutako lipido guztietatik, DRP1 CLrekin batzen zen irmoki (1A irudia), gutxiago fosfatidilserina (PS) eta azido fosfatidiko (PA) lipido anionikoekin eta era ez detektagarrian fosfatidilinositol (3,4,5)-trifosfato (PIP<sub>3</sub>) lipido polianionikoarekin, nahiz eta lipido honek CLak baino karga neto negatiboagoa duen. Dosi-erantzun esperimientuek erakusten dute DRP1 birkonbinatua CLrekin 5 aldiz, 10 aldiz eta 18 aldiz potentzia handiagorekin batzen dela PS, PG eta PI-rekin baino (1C irudia). Gainera, MEF zeluletako DRP1 endogenoak ere fosfolipido anioniko desberdinak ezagutu eta CLrekiko antzeko preferentzia duela behatu dugu (1C irudia). Nitrozelulosa mintzean sakabanatutako fosfolipidoek bigeruzak lipidikorik eratzen ez dutela kontutan hartuz, DRP1:CL interakzioa CLak bigeruzaren ezaugarri fisikoetan eragindako aldaketen menpekoea ez dela iradokitzen dute, adibidez mintzeko lipidoen domeinuetan zeharreko albo-banatze edo mintzaren monogeruzaren kurbatura negatiboaren sorrerak eragindako estresaren menpekoea ez dela. Aspektu hau zehatzago aztertzeko, DRP1ek tamaina desberdineko PC/PE eta PC/PE/CL besikulekin duen interakzioa aztertu zen. DRP1 PC/PE besikuletara ia ez dela batzen behatu genuen, CL duten besikula guztietara aldiz oso antzeko moduan batzen zen, besikulen tamainak inongo eraginik izan gabe (1B irudia). Eraitza hauek DRP1 eta CL-dun liposomen arteko interakzioan mintzaren kurbatura intrintseko netoak eraginik ez duela iradokitzen dute.


DRP1en lipido-batuketa ezaugarriak denbora errealean aztertzeko, gainazaleko plasmoin erresonantzia (SPR, ingelesetik *Surface Plasmon Resonance*) saiakerak egin genituen. Horretarako, konposaketa desberdineko liposomak L1 txiparen gainazalean atxikitu eta DRP1en batuketa zinetikak aztertzeko ligando bezala erabili genituen. SPR sensograma adierazgarriak 1D Irudian erakusten dira. Batuketa maximoa, CL duten LUVekin behatu zen, aldiz DRP1 ez zen zeroko karga netoa duten PC/PE LUVetara batu. Interesgarria da, CL beste lipido anionikoz ordezkatu zenean (PS, PI, PG), nahiz eta karga negatibo netoa mantentzen zen, ez ziren CL-rekin lortutako batuketa balioak lortu. Honek, DRP1:CL interakzioa indar elektrostatiko soilen menpekoa ez dela iradokitzen du.



**1 Irudia. DRP1 lipido anionikoekin interazionatzen du. A)** DRP1en batuketa erakusten duen lipido:proteina dot plaketa adierazgarri bat. Ugartun zeluletan arruntak diren glizerolipido eta esfingolipidoak dituzten nitrozulosa mintzak 6 mg/ml DRP1ekin (3 Isoforma) inkubatuak izan dira. TAG, triazilglizerol; DAG, diazilglizerol; PA, azido fosfatidikoa; PS, fosfatidilserina; PE, fosfatidiletanolamina; PC, fosfatidilkolina; PG, fosfatidilglizerol; CL, kardiolipina; PI, fosfatidilinositol; PIP, fosfatidilinositol-fosfato; PIP<sub>2</sub>, fosfatidilinositol bifosfato; PIP<sub>3</sub>, fosfatidilinositol trifosfato; CHO, kolesterol; SM, esfingomielina; CER, zeramida. **B)** DRP1en batuketa tamaina desberdineko liposometara sakarosa densitate gradientearen zentrifugazio ostean. DRP1 (1 mg) 37°C-tara 30 minutuz 200 mM liposomekin inkubatu izan da. Proteina/lipido nahastura (150 ml) 300 ml-tara diluitu izan da 2.4 M sakarosa duen tanpoiarekin eta zentrifuga tutu batera pasatu. Ondoren, erreakzio nahastura zentrifuga tutu batera pasatzen da. 2.4 M sakarosa geruzari, 0.8 M sakarosa duen 400 ml KCl tanpoia gehitzen zaio eta ondoren 0.5 M sakarosa duen 300 ml KCl tanpoi gehituko dira. Ondoren TLA-120.2 rotorean 400,000x g-tara 3 orduz 4°C-tara zentrifugatuko dira. 250 ml-ko lau frakzio jasoko dira azpitik (4 frakzioa) gora (1 frakzioa). Goiko frakzioak (1.frakzioa) liposomak ditu, rhodaminaren fluoreszentsiazatik ikusi daitezkeenak, azpiko

frakzioak (4. frakzioa) batu gabeko proteina izango du. Bi frakzio hauek SDS-PAGE eta Western plapaketa bidez aztertu izan dira. **C)** Dot plapaketa bidez aztertutako DRP1en lipidoekiko batuketaren analisi kuantitatiboa. Lipidoen kopuru desberdinak gaineratu izan zaizkio nitrozelulosako mintzari. Gero bai MEF zelulen zitosolen estraktuekin (Cyt. MEF) edo DRP1 birkonbinatuarekin (6 mg/ml) inkubatu izan dira. DRP1en immunoerreaktibilitatea puntu bakoitzean neurtu izan da, lipido bakoitzeko normalizatu eta datuak dosi-erantzun sigmoidal erregresio ez-lineal modelo bati doitu zaio Sigma Plot programa erabiliz. EC50 balioak CL, PS, PG eta PI-rentzat hurengoak dira hurrenez hurren, 217 pmol, 1091 pmol, 2259 pmol and 3917 pmol. Erakusten diren batazbesteko balioak  $\pm$ SEM hiru esperimentu independenteenak dira. **D)** DRP1 (0.6 mM) eta adierazten diren lipidoak dituzten atxikitutako LUVak dituzten L1 txipen arteko interakzioen azterketa gainazaleko plasmioen erresonantzia bidez (SPR). Ezkerreko panela: Batuketa eta disoziazio zinetika adierazgarriak erakusten dituzten sensogramak. Eskuineko panela: 3-5 esperimentu independentetan lortutako batuketa erantzunen laburpena, Liposomen konposaketa lipidikoa hurrengo izan zen (mol/mol): 80PC/20PE (-), 28PC/20PE/52PI (PI), 28PC/20PE/52PG (PG), 28PC/20PE/52PS (PS), eta 54PC/20PE/26CL (CL). Balioak gutxienez lau esperimentu indeendienteen batazbestekoak dira  $\pm$ SEM. DRP1en batuketa CL-dun liposometara \*\*\*: p,0.001 desberdintasuna du PS-dun liposometara duen batuketarekin alderatuz.

Ondoren, gero eta CL eta PS kontzentrazio handiagoak dituzten besikulen eta DRP1en arteko batuketa aztertu genuen. Aztertutako kontzentrazio guztietara, DRP1en batuketa txikiagoa izan zen PS-dun liposomen kasuan (2A, 2B irudiak). Tamalez, beste proteina:mintz interakzioetarako ere behatu den bezala, zinetika konstanteak ezin izan ziren lortu sensogramak lehenengo ordeneko batuketa eredu batera doitzuz (Bakrač *et al.*, 2008; Cocklin *et al.*, 2006; Landeta *et al.*, 2011). DRP1 eta CLren arteko interakzioaren espezifikotasuna ikertzeko, CLrekin interakzionatzen duen doxorribizinen efektua aztertu genuen. DRP1 CL duten liposomekin eta doxorubizina kontzentrazio desberdinekin inkubatu zen. Lipidorik gabeko eta lipidoa duten frakzioak zentrifugazio bidez banandu ziren gero. Liposometara-batutako DRP1 (jalkina, Pel. Ingelesetik *Pellet*) eta DRP1 askea (gainjalkina, Sup. Ingelesetik *supernatant*) SDS-PAGE eta western plapaketa bidez aztertu izan ziren (2C irudia, goiko panela). Datu hauek argi erakusten dute doxorribizinen kontzentrazioaren handipenak, DRP1en batuketa CL duten liposometara eragozten dutela. Emaitza hauek SPR bidez baieztatu ziren (2C irudia, beheko panela).



**2 Irudia. Beste lipido anionikoekin konparatuz, DRP1 lehentasunez CLri batzen saio. A)** DRP1 (0.3 mM) handituz doazen CL edo PS kontzentrazioak dituzten liposomekin duen interakzioaren sensograma adierazgarriak. Liposomek hurrengo konposaketa lipidikoa daukate: 75PC/20PE/5CL (%5 CL), 65PC/20PE/15CL (%15 CL), 60PC/20PE/20CL (%20 CL), 54PC/20PE/26CL (%26 CL), 45PC/20PE/35CL (%35 CL) and 70PC/20PE/10PS (%10 PS), 50PC/ 20PE/30PS (%30 PS), 40PC/20PE/40PS (%40 PS), 28PC/20PE/52PS (%52 PS), 10PC/20PE/70PS (%70 PS). **B)** DRP1 (0.3 mM) CL eta PS duten liposomekin batzeko erantzunen laburpena. Zutabe bakoitza gutxienez hiru esperimendu independenteen batazbesteko balioa adierazten du  $\pm$ SEM. **C)** Goiko panela: DRP1 (1 mM) izoztu/desioztutako 54PC/20PE/26CL (mol/mol) liposomekin inkubatu zen doxorubizinarene kontzentrazio desberdinatara. Liposomak zentrifugazio bidez sedimentatu ziren tea jalkin (oel) eta gainjalkinak (Sup) DRP1en presentzia baieztatzeko western plapaketa bidez aztertu ziren. Western plapaketa hiru esperimendu independenteen adierazgarri da. Beheko panela: Doxorubizinarene kontzentrazioa handituz, DRP1ek (0.3 mM) duen batuketa erantzunak. Liposomen konposaketa lipidikoa hurrengo izan zen: 54PC/20PE/26CL (mol/mol). Hiru esperimendu independenteen batazbesteko balioak  $\pm$ SEM erakusten dira. **D)** Ezkerreko panela: gainazal presio aldaketak ( $\pi$ ) DRP1 hurrengo konposaketa lipidikoa duten monogeruzetan: 80PC/20PE, 28PC/ 20PE/52PS, 28PC/20PE/52PG edo 54PC/20PE/26CL. Geziak proteina gehitu den momentua adierazten du. Eskuineko panela: gainazal presioan emandako aldaketak ( $\Delta\pi$ ) hasierako gainazal presioaren arabera neurtu zen ( $\pi_0$ ). Datuak lerro zuzen batera doitu dira, x-ardatzeko mozketak puntua monogeruzaren eskusio presioa da ( $\pi_c$ ), zeina mintzaren barneratze neurria den.  $\pi_c$  balioak 31.61 mN/m PC/PE-rentzat, 32.25 mN/m PC/PE/PG-rentzat, 34.45 mN/m PC/PE/PS-rentzat eta 40.12 mN/m PC/ PE/CL-rentzat dira.



Ondoren, DRP1ek lipido monogeruzekin duen elkarrekintza aztertu genuen Lagmuir balantza bat erabilita. Hurrengo konposaketa lipidikoak dituzten monogeruzak 80PC/ 20PE, 28PC/20PE/52PG, 28PC/20PE/52PS edo 54PC/20PE/ 26CL gainazal azalera konstante eta 28 mN/m-ko hasierako gainazal presioarekin prestatu ziren. DRP1 birkonbinatua azpifasera gehitu eta monogeruzaren gainazal presioan emandako aldaketak denboran zehar neurtu ziren. 2D irudian erakusten den bezala, PS, PG edo CL duten monogeruzen gainazal presioa handituz hasten da proteina gehitu orduko, aldiz neutroak diren PC/PE monogeruzetan lag fase bat ematen da. Eraitza hauek erakusten dute DRP1en asoziazioa lipido monogeruzetara osagai elektrostatikoa baduela. Ez hori bakarrik, nahiz eta karga elektriko netoa bera den, DRP1ek askoz gainazal presio handipen handiagoa eragiten du CL duten monogeruzetan PG edo PS duten monogeruzekin alderatuz (2D irudia). Honek iradokitzen du CLren beste ezaugarri batzuek ere DRP1ekiko interakzioan parte hartzen dutela. DRP1ek lipido monogeruzetan barneratzeko duen gaitasuna kuantifikatzeko, gainazal presio kritikoa kalkulatu zen. Esperimentu horietan, DRP1 gehitzean gainazal presioan hasierako gainazal presioarekiko ( $\pi_0$ ) ematen den handipena ( $\Delta\pi$ ) neurtu zen. Datuak lerro zuzen batera doitu eta zuzenaren ebaki puntua x-ardatzean monogeruzaren gainazal presio kritikoa izango da ( $\pi_c$ ). 2D irudian agertzen diren emaitzek erakusten dute DRP1en barneraketa gaitasun maximoa CL-dun monogeruzetan ematen dela eta minimoa PC/PE monogeruzetan, PG eta PS-dun monogeruzek aldiz bitarteko balioak erakusten dituzte.

Laburbilduz, hiru lipido interakzio esperimentu idenpendienteak erabiliz (dot plapaketa, SPR eta lipido monogeruzen gainazal presioaren neurketa) lortutako emaitzak kontutan hartuz, DRP1 lehenetsunez CL-dun mintzekin interakzionatzen duela esan genezake.

### **3.1.3.2 DRP1en B Intsertoaren bidez ematen da CLrekiko interakzioa**

Dinamietan, PH domeinuak hurrengo funtzioak betetzen ditu: (i) proteinaren fosfoinositidodun mintzekiko batuketa gidatzen du, (ii) fosfoinositidoen taldekatzean bitartekari lana egiten du, eta (iii) mintz asoziazio honen bidezko GTPasa aktibitatearen erregulazioa koordinatzen du (Chappie *et al.*, 2010; Stowell *et al.*, 1999). Dinaminekin-erlazionatutako DRP1 proteinak ez du PH domeinurik eta B intsertoak proteinaren aktibitatean duen papera ezezaguna da. Berriki, legamien DNM1 proteinaren B intsertoak MDV1 proteina adaptatzailearekin asoziatzeko beharrezkoa den motibo laburra duela erakutsi da (Bui *et al.*, 2012). Hala ere, motibo hau hertsiki kontserbatuta dago ondoetan bakarrik eta gainera, MDV1 ortologorik ez da aurkitu ez euli, ez zizare ezta ornodunetan ere. B intsertoak egitura sekundariorik ez duela auresanda dago eta baita PH domeinuak bezala, mintzarekin interakzionatzen duen gunea izan daitekeela ere proposatu da (Fröhlich *et al.*, 2013; Mears *et al.*, 2011). Hala ere, hipotesi honen aurka B


intsertoaren funtzioa proteinaren oligomerizazioa alosterikoki modulatzeko izan daitekeela iradokitu da (Strack & Cribbs, 2012).

B intsertoak DRP1:CL interakzioan duen papera aztertzeko, B intsertoaren luzeran desberdintzen diren hiru isoforma natural ekoiztu ditugu: 1 Isoforma, 736 hondar dituen proteina da; 2 Isoforma, B intsertoan 26 hondar falta dituen proteina; eta 3 isoforma, B intsertoan 37 hondar gutxiago dituen proteina (3A irudia). Hiru isoformek dimero eta tetramero nahastura bezala eluitzen dute gel filtrazio ostean eta proteina kontaminatzaile ez dute erakusten.

Lehendabizi hiru isoformen lipido batuketa patroiak aztertu genituen SPR bidez. Horretarako, hurrengo konposaketa lipidikoa duten liposomak prestatu ziren 80PC/20PE, 28PC/20PE/52PS eta 54PC/20PE/26CL. Hiru isoformek lehentasunez lipido anionikoekin interakzionatu zuten, nahiz eta guztiek afinitate handiagoa erakutsi zuten CL-dun liposomentzat. 3 isoformetarik, 3 isoformak CL batzeko gaitasun handiagoa erakusten du, gero 2 isoforma eta gaitasun txikiena 1 isoformak du (3B irudia).

DRP1en isoforma guztietan dagoen B intsertoaren gunea SUMOilatuak izan daitezkeen bi lisina bikote ditu (K557/K560 eta K569/K571 3 isoformarako), eta proteinaren aktibitate zikloarekin erlazionatua izan da SUMOilazio prozesu hau (Figuroa-Romero *et al.*, 2009). Beraz, 3 isoformaren B intsertoak funtsean bakarrik lisinak dituen gunea du (3A irudia). Hiru isoformek CL batzeko antzeko gaitasuna erakutsi zuten, B intsertoaren CLrekin interakzionatzeko duen trebetasuna SUMOilatuak izan daitezkeen lisina hauen menpekoea den aztertzea erabaki genuen. Hau aztertzeko, 3 isoformako lau lisinak 4 alanina hondarrez ordezkatu genituen (4KA mutantea) eta mutante honek lipido desberdinak batzeko duen gaitasuna ikertu genuen. SPR emaitzek erakusten dutenez (3C irudia) 4KA mutanteak CL-dun mintzak batzeko ahalmena nabarmenki gutxitua du. Ondoren, bi hondar bikote desberdinen ekarpena zein den aztertu genuen, 4KA mutantean lisinak binaka berreskuratuz. Bai K557/560 zein K569/571 berreskuratuz DRP1en CLrekiko batuketa partzialki berreskuratzen da, lau lisinak DRP1:CL interakzioan inplikaturik daudela iradokituz (3C irudia). B intsertoaren amino azido sekuentzien lerrokaketa Clustal Omega (Sievers *et al.*, 2011) erabilita egin zen, DRP1:CL interakzioan arduradunak diren lau lisinak ornodun guztiek elkarbanatzen dituztela behatuz (3D irudia).

Laburbilduz, gure emaitzek, B intserto dinaminen PH domeinua kokatzen den gunea baliokidean kokatzen dela eta Mgm1 eta OPA1en CL-interakzio hondarren gunea berean dagoela kontutan hartuz (Ban *et al.*, 2010; Rujiviphat *et al.*, 2009), B intserto CLrekin interakzionatzeko gunea dela proposatzen dugu.




**3 irudia. B insertoa DRP1ek CLrekin interakzionatzeko beharrezkoa da. A)** Goiko panela: DRP1en egituraren oinarritutako domeinuen antolakuntzaren irudikapen eskematikoa. Beheko panela: DRP1en 3 isoformaren irudikapena, G domeinua (berdez), BSE (urdinez), B insertoa (grisez) eta txortena (gorriz) erakusten dituena. (Protein Data Bank 4BEJ kodea). Alaninara mutaturako lisina hondarrak irudikatuta daude (borobil grisak). **B)** DRP1 isoforma guztien (bakoitza 0.6 mM) SPR bidez lortutako batuketa erantzunak hurrengo konposaketa lipidikoekin 80PC/20PE, 28PC/20PE/52PS eta 54PC/20PE/26CL (mol/mol). Batzbesteko balioak  $\pm$ SEM hiru esperimentu independenteen emaitzak kontutan hartuz lortu dira. **C)** 3 isoformarekin lortutako batuketa erantzunak eta baita 3 isoformaren mutanteekin lortutakoak ere, K557-560A, K569-571A eta K557-560-569-571A. Liposomen konposaketa lipidikoa hurrengo izan zen: 80PC/20PE (-), 28PC/20PE/52PI (PI), 28PC/20PE/52PS (PS), 28PC/20PE/52PG (PG), eta 54PC/20PE/26CL (CL) (mol/mol). Hiru esperimentu independenteetatik lortutako batzbesteko balioak  $\pm$ SEM erakusten dira \*\* $p < 0.01$ , \*\*\* $p < 0.001$ . **D)** B insertoaren 550-558 hondarrak biltzen dituen gunearen amino azidoen sekuentzien lerrokaketa. Giza DRP1en 3 isoforma, *M. musculus*, *X. laevis*, eta *D. rerio* espezieen DRP1, Clustal Omega erabiliz eta eskuz egindako doikuntzekin. DRP1:CL interakzioaren arduradun diren lisinak gorri markatuta daude.

### 3.1.3.3 DRP1ek CLrekin duen elkarrekintzak proteinaren GTPasa aktibitatea areagotzen du

Dinamina, OPA1 eta Mgm1 isoforma laburraren GTPasa aktibitateak handitzen direla erakutsi izan da, proteinek lipido polianionikoak dituzten mintzetan oligomeroak eratzten dituztenean (Ban *et al.*, 2010; Chappie *et al.*, 2010; Heymann & Hinshaw, 2009; Lemmon, 2013; Rujiviphat *et*


